

DOMINGO AGIRRE

Garoa

Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia

DOMINGO AGIRRE

Garoa

Sarrera: Sebastian Gartzia Trujillo
Edizioa: Miren Atutxa, Adolfo Arejita

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2013

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Colon de Larreategi, 14-2. esk.
48001 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Tecnigraf, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-134-2013
ISBN: 978-84-92599-41-7

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Sarrera	9
Irakurleari	35
I. Joanes artzaina	37
II. Baserria	45
III. Bakoitza bere aldetik	57
IV. Landare berriak	73
V. Azoka eta dema	87
VI. Herri eta erbestean	107
VII. Loreak eta arantzak	125
VIII. Gaztekeriak	141
IX. Itxaromendi	151
X. Ahuleria	167
XI. Eguberri txarrak	177
XII. Usteak eta mintzoak	189
XIII. Pedro Migel Azkarraga	199
XIV. Nahi eta ezin	209
XV. Agerpenak	223
XVI. Ijiji! Aiene!	233
XVII. Lasai eta larri	245
XVIII. Bere kabiara	257
XIX. Bi arpegiak	267
XX. Azkenengo albisteak	277

SARRERA

Garoa da Domingo Agirrereren eleberririk onena?¹ 1960ko hamarkadara arte, euskal eleberririk bikainena?² Galdera bioi baietz erantzun diote batek baino gehiagok³. Ni neu, haatik, ez naiz ezta-baida horretan sartuko. Hala ere, ondoko hau azpimarratu nahi dut: *Garoa*, urte askoan, euskal eleberririk irakurriena izan omen da, bai-

¹ LHANDÉ. P., “Bulletin de littérature basque”, *RIEV*, 1920, IX, 153. or: “*Garoa* est le chef d’oeuvre d’Agirre et la plus belle oeuvre d’imagination que ait été écrite dans la langue basque”.

² SARASOLA, I., in TORREALDAY, JM., *Euskal Idazleak, gaur*, Arantzazu, 1977, 196 eta 198. or.: “(DA es) el mejor y el más completo de los novelistas vascos de la preguerra”. Gerraren ondoko lehen eleberria *Joanixio* dugu, JA. Irazustak, 1946. urtean argitaratu zuena; urte berean, JB. Elissanbururen *Piarres Adame* (lehen zatia) argitaratua izan zen; 1948an, J. Eizagirrek *Ekaitzpean* argitaratu zuen, 1950ean J. Etxaidek *Alos-dorrea* eta JA. Irazustak *Bizia garratza da*. Eleberri horietako batek ere ez zuen lortu Domingo Agirrereren eleberriek erdietsi zuten irakurleengandiko onarpena, ezta *Garoak* iritsiriko berrargitalpenen kopurua ere.

³ GARCIA TRUJILLO, S., *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, IDTP-Desclée de Brouwer, Bilbao, 1993, II, 137-138. or.: “Por *Kresala* se decantan Orixe, S. Onaindia, Juan San Martín, Gabriel Aresti, Luis M^a Mujika, Gotzón Garaite, Agustín de Zubizaray; por *Garoa*, Pierre Lhande, Gamiz, J. Etxaide, el Padre Iturria, Koldo Mitxelena, Luis Villasante, Ibon Sarasola (“su obra [de Domingo de Agirre] más perfecta y trabajada”); “*Garoa* novela tradicional vasca por excelencia, fundamental en el desarrollo de la prosa novelística moderna”) y el propio Domingo de Aguirre”. ZUBICARAY, A. *Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, IV, 1979, 533. or.: (Domingo de Aguirre:) “Me dicen que ha gustado mucho *Kresala*, pero ahora estoy preparando otra que será mejor. Pero vosotros, los ondarreses, seguid firmes con el *Kresala*”.

ta itzal edo eraginik handienetakoa izan duena ere⁴, Gipuzkoan batik bat⁵, baita Bizkaian eta Nafarroan ere. Zergatik? Erantzuna ez da erraza, baina, dudarik gabe, zabalpen handi horretan, gipuzkeraz idatzia izateak mesede gehiago egin ei dio *Garoa*-ri, *Kresala*-ri bizkaieraz idatzia egoteak baino. Gipuzkoakoak Bizkaikoak baino irakurle ohiko eta tematiagoak ote? Bizkaikoak irekiagoak euskalki diferenteetako testuak aukeratzeko orduan? Ez naiz tirabira horretan sartuko. Argi gera bedi, haatik, hogeigarren mendearen lehen erdi luzean euskal literaturako testurik aukeratu behar izanez gero, *Garoa* begiz joko luketela euskal irakurlerik gehienek. Norbaitek gehiagorik eman dezake?

Arrazoiak arrazoi, ez dut uste euskaldunen hobespen horrek *Garoa*-ren *gaiarekin* zerikusia duenik. *Garoa*-ren gaia maitasunezko istorio xume bat da, dramatiko samarra (senargaia itsu geratzen da istripu batean) eta, alde guztietatik –pertsoneiak, espazioa, denbo-

⁴ MITXELENA, K., in *Euskal Idazleak, gaur*, o. c., 140, 192. or.: ‘Zure idazle ereduak edo maisuak zeintzuk ziren?’ galderari Mitxelenak honelaxe erantzun zuen: “7. Txomin Agirre (*Garoa* aukeratu zuen eredutzat): Si no fuera por otra cosa, al menos por la influencia ejercida en nuestra generación”. LASAGABASTER, JM^a, “Introducción a la narrativa vasca actual” in *Antología de la Narrativa Vasca Actual*, Ediciones Mall, Barcelona, 1986, 22. or.: “No deja de ser una lástima que quienes han cogido el testigo (un Agustín Zubikarai o un Txomin Garmendia, por poner un par de ejemplos [SG, oro har, XX. mendeko euskal ohiturazko eleberrigileek], lo hayan hecho empeñándose en escribir novelas que ya estaban escritas”.

⁵ Horretan Arantzazuko frantziskotar argitaletxeok eragin handia izan ei dute, *Garoa* Urbian eta Arantzazun gertatzen baita, nahiz kontatzaileak ez omen zuen inguru horretako ez parajerik, ez ohiturarik zuzenean ezagutu. VILLASANTE, L., “Domingo Aguirre Badiola”, in *Garoa* (1966), 14. or.: “Berberak (Domingo Agirrek) ere esaten omen zuen: ‘Nik egin dut egitekoa. Goi aietan sekula egon gabe, ango ikuspegiaz ta abar mintzatu’”; “Domingo de Aguirre, *Garoa* y Oñate”, *Arantzazu*, 1966, XLV, 30. or.: “De hecho el que conoce de cerca esta zona, nota en aquellas descripciones cierta ausencia de datos concretos y aún de ciertas inexactitudes en que incurre forzosamente el que carece de un conocimiento directo. La descripción de la choza del pastor no se ajusta mucho a las que solían usar los pastores de Urbia por entonces, pues su tejado no solía ser de ‘lau ostro ta lasta pillá batzuek’, sino de ‘zoiak’ o ‘zotalak’ sobre hoja seca o helecho. Tampoco es verosímil que un casero de Urbarri sea a la vez pastor de Urbia. Hay cuatro pueblos guipuzcoanos y otros alaveses que tienen derecho a los pastos de las praderas de Urbia; pero entre ellos no está Oñate”.

ra...-, erabat ideologizatua: etxeko lehen fruiturik onenak (Madalen) Jainkoarentzat dira (Lb, 23, 10-11).

Eta hala ere, onartu beharra dago *Garoa*-ren istorioa begiko zaiola euskal irakurleari⁶ (ez ideologiarengatik, espero dezagun). Lehen lerrotik, maitagarri zaigu Joanes artzaina, pipa ezpainetan duela, zertan eta galtzerdiak ehuntzen dituela, non eta Urbiako zelaian! Maitagarritasun bera sortzen zaigu *Kresala*-ko ‘Kitolis’ekin, baina hau bigarren mailako pertsonaia dugu, eta berandu samar agertzen da Arranondoko itsas istorioan. Maitagarriak ditugu Zabaletakoa Ana Josepa eta Azkarragako Mari Batista ere, etxeko gauzen kudeaketan ari direnean –seme-alaben ezkontza adostuak barne–; hunkigarria Joanes artzainak Joxe umezurtzarekin zuen ardura ere: “Ikusteko begirik ez ta negar egiteko bai!”; atsegingarria zaigu Austin elgetarra, Urkiolako pagadian, Joanesekin urte eta lagun *igaroak*: Azurtzako Militon, Irigoienko Kaispar, Zezeagako Turubio eta Eguzkitzeko Txomin: “Gizon zintzoak, gizon maitagarriak. Gaurko egunean gutxi bezalakoak” gogorarazten dizkigunak (Juan Rulfo hilerrietara joaten omen zen eleberri(eta)rako izen egokien bila. Domingo Agirrek asmatu-rikoak baino izen aproposagorik bai ohiturazko euskal eleberri baterako?)... Madalen eta Joxe, haatik, maitasun istorioko pertsonaia nagusietakoak, oso estereotipatuak ditugu, gatzik eta piperrik gabeak.

Ideologia

Garoa ideologizatuta dagoela esan dut. Zer adierazi nahi izan dut? Ez naiz ‘ideologia’ zer den eztabaidatzen sartuko. Hala ere, ideologiari atxikitzen zaizkion hiru ezaugarri azpimarratu nahi ditut:

⁶ MITXELENA, K., “Miscelánea Filológica Vasca III”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1979, XI, 213-236. or.: “Siempre recuerdo la impresión que me hizo la primera lectura completa de *Garoa*, en (la cárcel de) Burgos, allá por 1941 ó 42. Sería difícil de comprender para las nuevas generaciones mejor iniciadas en los secretos del arte y de la naturaleza, pero hay que tener en cuenta que nosotros éramos gentes, sobre sencillas, nostálgicas”.

- Ideologia iritzi-sistema bat da, *akritikoki* onartutako balioetan oinarritu ohi dena⁷.
- Ideologiak gizakien (pertsoneien) jarrerak eta portaerak *determinatzen* ditu gutxi asko (asko, *Garoa* eleberraren kasuan).
- Balio ideologikoak beharrezkotzat jotzen ditugu, gizarte edota gizabanakoen *helburuak* eskuratzekoan⁸.

Horrezkero, *Garoa* ideologizatuta dagoela esaten dudanean, nabarmendu nahi dut:

- a) *tesi-eleberria* dela, hots, egia batzuk frogatzeko eta helburu (moral) zehatz batzuk eskuratzeko asmoz idatzita dagoela;
- b) pertsonaien izaera eta portaera ideologia zehatz baten arabera taiututa daudela: edo on-onak edo erdipurdikoa dira gutziz, barne bilakaerarik gabekoak, eta
- c) aukeratzen den gizartea gutziz *itxia* dela eta goitik behera hierarkizatua⁹. Eleberriak ez digu, lehenik eta behin, azaltzen gauzak zelan izan edo gertatzen diren, zelan izan behar duten baizik.

Beste osagai bat falta zaigu *Garoa*-ren ideologiaren nondik norakoaz jabetzeko. *Garoa*-ren eleberrigilea, ideologiaren aldetik, *kontserbadorea* da; are zehazkiago, *kontserbadore erlijiosoa*, hots, gizartearen eta gizabanakoen balioak finkatzerakoan, Jainkoarengan oinarritzen da, espreskiago ere: Jainkoaren aginduetan zein ordenan, era ‘errigorrista’ samarrean ulertuta, gainera.

Idazle kontserbadoreek:

- a) *tradizioa* –lege zaharra– hobesten dute, idazle modernoek baino gehiago, eta erlijioaren irakatsiak –dogmak edota agin-

⁷ Iritzi edota balio zein ideia horiek, egiazko eta baliokotzat onartuak izaten dira, beraien jatorria edota tasuna egiaztatu gabe⁷ (R. Aron).

⁸ CATTARINUSSI, B., in *Diccionario de sociología*, Ediciones Paulinas, Madrid, 1976, 864-866. or.

⁹ KIERKEGAARD, S., *Post-Scriptum aux Miettes philosophiques*, II: “Quien dice sistema dice mundo cerrado, pero la existencia dice justamente lo contrario... la existencia separa las cosas y las mantiene distintas; el sistema las coordina en un todo cerrado”.

duak– maiteago dituzte, arrazoizko dedukzioak zein indukzioak –ilustratuen *argiak*– baino.

- b) *Statu quo* mantentzea edota iraganera atzera jotzea gurago ohi dute, zientzia aurrerapena edota iraultza politikoa baino: “Azpie-tatik zulatu dituzte (mendiak) alderdi batetik besteraino; beren hegaletatik tontorretara bide zabalak egin dituzte; beren harrizko eta burdinazko erraiak eguzkitara ateratzen ari dira, eta gure umeak mendi zuloetatik zehar doazkigu, ez dakit nora, bide zabaletatik datozkigu ez dakit nongoak gure gailurretaraino”.
- c) Izadi ukitugabea maiteago dute, hiri artifizialak baino: “Benetan! Aizkorri gainetik begiratu ezker, behealdeko gauza guz-tiak ume jolasak dirudite”.
- d) Artzaintza edota nekazaritza hobesten dute industriaren gai-netik: “Lantegietako gizonak eta Elizaren etsaiak jardun-ba-tzarra hastera doaz”.

Kontserbadoreek, gainera –baita muturreko iraultzaile moderno-ek ere– hautaketa horien arteko alde on edo txar guztiak zaku bere-an biltzen dituzte: “[Somorrostroko mehategi inguruko] mendi haie-tan ez dago zuhaitzik, ez dago lorerik, ez dago belarrik... Gizon gorriak izen gaiztoaren jabeak dira”.

Kontserbadoreek uste dute *urrezko aro* desiragarria iraganean geratu zela; iraultzaileek, haatik, geroan agertuko zaigula espero dute. Kontserbadoreak ez dira *argilunean* eroso sentitzen, zuri-beltza nahiago dute, bai gizarte egoerei dagokienetan, bai pertsona(iei) dagokienetan ere.

Denok, gutxi asko, ideologia baterantz makurtu ohi gara. Domingo Agirreraren arazoa da ideologia makurtze horretan *muturre-raino* joan dela edo, bestela esanda, eraman nahi gaituela. Horrexe-gatik diogu, hain zuzen, *Garoa*-ren narrazioa ideologizatua dela.

Pertsonaiak

Garoa-ko pertsonaiarik garrantzitsuenak: Joanes, Malentxo, Joxe... ikonoak ditugu, pertsona(ia)k baino gehiago. Eleberriko isto-

rio osoan zehar, ez dute barruko aldaketa minimorik ere esperimentatzen. Hasiera-hasieratik erabat taiututa dauzkagu. Hori dela eta, pertsonaiak jaiotzatik bertatik osatuak dira:

- a) On-onak eta eder-ederrak dira, biak batera: “Hura zan gizona, hura!” (Joanes), “Argia zan mutila (Manueltxo): oso poli-ki zekian irakurtzen, bere izena paperean jartzen zuan, edozein baino gehiago zan kristau dotrina *buruz* esaten, eta horrela zekizkian beste gauza on batzuk. Neguko gau luzee-tan, *errosarioa* esan eta laster *Testamentu zaharreko eta berriko Kondaira* eskuetan hartzen zuanean, ahoa zabalik eta lerdea zeriela egoten ziran danak”. Iturraldeko Joxe, “begi urdin gozodun mutil koskor polita... Jaungoikoaren bildurre-an ondo hazia, mazal eta bizkorra, eta umetxoa izan arren, garai batzuetan gizon batek adina on egiten zuan”, eta batez ere, Malentxo: “Zuri, eder, galanta... Erregintxo!, Elurgillo!, Gaztanbera!, Usakume!, Lili zuri!”...
- b) Edota txar-txarrak eta itsusi-itsusiak, biak batera ere bai: “Otsokotarra” den Moxolo Potolo (izen barregarriagorik?), eskolan “txit atzerea (atzeratua) den Manueltxoren lagun kas-karra”, edo Peru Odolki, “alper, trakets, ardozalea” da.

Dinamika horretan, kontalariak pertsonaia bat aurkezten digu-nean, hasiera-hasieratik, adjektiboak pilatzen ditu, historia edo bila-kaera, hots, existentzia baino esentzia edo definizioa gurago duen sei-nale: “Zazpi oin eta erdi luze, makal zuhaitzaren irudira zuzen, pago-rik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezala trinko, gorosti hezearen antzera zimel”... eta horrelaxe: “Sendoak zeuden oraindik artzain zaharraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oinak, zindoak bere bular-hauspoak”... eta narratzaileak bide edo ildo horri darraio lehen ataleko 65 lerroetan zehar!¹⁰, alde fisikoak ez ezik, alde moral guz-tiak ere finkatuz: “Ez zan Joanes jakituri handikoa, baina bai asko ikusia... bazekian non eta noiz jaiotzen ziran gibelurдиник gozoe-nak..., bazekian non idoroko zituan artaldearentzat... bazekian...,

¹⁰ Kopuru hori Klasikoak bildumako *Garoa* argitalpenetik atera dut.

bazekizkian.... bazekizkian..., bazekian, gainera, eta hau zeukan gauzarik onentzat, guraso zaharrak erakutsi zioten Eleizaren legea eta Jesukristok lurrean errabili zuan bizitza samurra”... eta gutxi balitzaigu bezala, berriz ekiten dio: “Kristoren legea zan Joanesen argia eta argi horretan ikusten zituan, kupidaz, gizonaren argaltasun eta ibilpide okerrak”. Eleberriko lehen lerroetan, horrelako deskripzio absolutua (platonikoa) eginez gero, zer berri interesgarri geratzen zaio eleberrigileari kontatzeko hurrengo hogeii ataletan?

Gauza bera Malentxo jaioberriarekin: “Zuri, eder, galanta... begiak zeureen (Joanes aitutaren) antzekoak”; eta jaiotze eta gutxira: “Ilobatxo! Malentxo! Haretzek irabazi zuala bai galanki! Huraxe bai zegoala benetan maitagarria! Hazi, zabaldu, bete, eta guritu zan, baina ez gehiegi. Malentxok ez zeukan gehiegizko gauzarik, ez gorputzean, ez animan. Esakeran tolesgabea, ibilkeran adiutua, begirunean samurra; esnea bezain zuria, olio bezain leuna, ezta bezain gozoa: garbia, txukuna, liraina, burutsua, ona eta ederra beste on eta ederrik inon bazan, aingeru bat zirudian ta aingerutzat zeukaten etxeokak, ezagunak eta herritar-rrak”; edota Joxe umezurtzarekin: “mutil gaztea, goiztarra, ernaia, biozbera eta eskerduna, beti zegoan farre antzean, agintzen zizkioten gauza denak egiteko gertu, nahiz urian nahiz etxean, nola soroan ala mendian, orobat egunaz eta berdin gauaz. Harentzat ez zegoan ez ordu txarrik, ez lan gogorrik, ez gauza astunik, ez akiakularik... Euskal Herriko gazteentzat eredu handia zan Iturraldeko Joxe”.

Bigarren mailako pertsonaiaren batzuk, ostera: Ana Josepa, Patrixiko osagilea, Peru Odolki, Moxolo Potolo... errealistagoak ditugu¹¹,

¹¹ OLAIZOLA, J. M^a, in “La arrolladora personalidad de Domingo de Aguirre”, *Arantzazu*, 1966, XLV, 25. or.: “Manolo Potxolo, no es un mero personaje de ficción, sino un retrato de una auténtica persona, a la que Domingo de Aguirre fue añadiendo vivencias psicológicas y sociales de otros personajes, siempre reales”. GARCIA TRUJILLO, S., o. c., II, 206. or.: “Pierre Lhande, cuando trata de afirmar el realismo de las novelas de DA, recoge exclusivamente fragmentos de *Kresala* y de *Garoa* que hacen referencia a Tramana, Brix, Ana Josepa, Moxolo... y también J. Echaide Ithuar-te (Uarrain)”. Ikus LHANDE; P., “Aguirre irakurgaikiña”, *Itzaldiak*, 1923, II, 97-121. or.: “Bulletin de littérature basque”, *RIEF*, 1920, XI, 148-160. or. UARRAIN, “Garoa” eleberria, *Euzko Gogoia*, 1951, II (9-10), 10-18. or. VILLASANTE, L., “Domingo

“bizi-biziak”, (*Kresala*-ko Tramana eta Brix ere bai), baina bigarren mailako pertsonaiok ez dute istorioaren interesik altxatzeko indarrik izaten.

Espazioa eta denbora

Harrigarriagoa da *Garoa*-ren espazio eta denboraren ideologizazioa. Eleberri honen espazioa ez da neutrala, ipuina edo istorioa hasi aurretik bertatik ere:

- *Goia* ona da: “Aizkorri gainetik begiratu ezkerreko, behealdeko gauza guztiak ume jolasak dirudite. Mendiak bakarrik dira handi, mendiak eta beren Egile Jaungoiko ahaltzua”.
- *Behea*, alderantziz, txarra da: beheerago eta txarragoa, gainera: “Zenbat eta beheerago, gaiztoagoak”.

Espazioaren ideologizazio horren bitartez, irakurleak, lehenengo ataletik beretik, badaki pertsona(ia)k edo gertakizunak nolakoak diren, pertsona hori non bizi den: “Gizon txarrak gutxitan ohi dira mendizale”, edota gertakizun hori non gertatzen den jakitearekin batera: “Non biziko naiz paketsuago eta hobeto (mendian baino)”... “Gipuzkoa guztiko diruakatik ez nintzateke Oñatiraino jaitsiko... zenbat eta herri handiago, okerragoak eta ugariagoak”, eta abar.

Gauza bera gertatzen da narrazioaren denborarekin:

- *Iragana* ona da: “Ederragoak ziran lehen (mendiak), mila bider ederragoak”.
- *Oraina* edota etorkizuna, haatik, txarrak dira, geroago eta arriskutsuago eta gaiztoagoak: “Hamaika bider jan det hemen (Urkiolako landan), gozoro, nere baserrian erretako taloa, eta orain arrautzopila eta ogi zuria ezin irentsi! Dana dago latza, dana badaezpadakoa: janaria, gizonak eta lurra bera”.

Agirre Badiola. 1864-1920”, in *Garoa*, 4. argitaldia, Arantzazuko Argitaldaria, Oñate, 1966, 15. or.: “Txomin Agirrek berak aitortzen zuen (Olaizola jaunak dionez), Garoako lagun batzuk eguneroko bizitzatik artu zituela”.

Hori dela eta, irakurleak pertsona(ia) zein belaunalditakoa den jakinez gero, ezagutzen du nolakoa den (antzinagokoak eta hobeak): Joanesen seme-alabak ez dira Joanes bezain onak, eta seme-alaben ontasuna gutxituz doa zaharretatik gazteetara: “(Zabaletako) Hiru anaiak ziran kristau onak eta... bai, eleizkoiak; baina ez gurasoak adina. Behealdera zihozzen, mailaka-mailaka, Jaunaren maitetasu-nean eta animako gauzai zor zaien arretan. Jose Ramon zan kristaurik bero eta zintzoena, gurasoen hurrengo... Azoketara gehiegi joatea kendu ezkerro, ez zeukan akatsik Jose Ramonek. Inazio Mari, noizean behin animako beroaldi on batzuk izanda ere, askozaz epelagoa zebilen gehienetan... Juan Andres... ez zan mutil okerra, hori ez, ez zuan ezerगतik bere jaiko eleizkizuna utziko, baina hala ere beste anaia biak baino hotzagoztat zeukaten etxeko guztiak”.

Denbora eta espazioaren ideologizazioaren atzetik, gizarte eta erlijio balioen gaineko balorazio bat ezkutuka sartzen zaigu, gizartearen *hierarkizazioa* ona da: Joanes artzaina “Aloñako errege”tzat aurkezten zaigu, Lege Zaharreko Gurasoen itxurakoa, mendia eta baserriak onak dira: “Gipuzkoa guztiko diruakatik ez nintzateke Oñatiraino jaitsiko”, *munduko-hots*, *herriko zein hiriko bizitza* erdeinagarria zaigu: “zenbat eta herri handiago, okerragoak eta ugariagoak”, zerukoaren (goikoaren) parean. Balio horien (ez)balorazioa are argiago geratzen zaigu Domingo Agirreren sermoietan¹². Planteamendu horrekin, zer bizitza-mota aukera dezake guztiz perfektua (jakintsu, zuhur eta ona) dugun *Garoa*-ko neska protagonistak? Zer eta moja izatea, klausurakoa, noski, ‘itxia’ vs. ‘irekia’ oposizioa ere guztiz nabarmena baita ‘kontserbadore’en eta ‘aurrerakoi’en arteko narrazio liskarretan.

¹² AGIRRE, D., *Sermoiak*, Labayru Ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao, 2000. Adibide gisa: Zumaian ikastetxeko moja zein neskei: “¡Ojala hubiera sido eremita” Bien hacéis en elegir lo más seguro para aquel trance supremo (heriotza), bien hacéis en renunciar al mundo por el cielo... En el claustro le será mucho más fácil y seguro. Si en el mundo se puede ser regularmente feliz, en el claustro puede prometerse una muerte dichosa” “Ai, balekite” (olerkia): “Lurtarrak lurrez jantziak daude, Lurrez ta griñaz”.

Gizarteko balio erlijiosoak

Esana dago *Garoa*-ren kontatzailea kontserbadorea dela, are eta integrista ere agian¹³ eta gizartearen *status quo* mantentzea ez eze, ahal izanez gero, atzera bihurtzea ere aldezten duela. Kontserbadorismo hori erlijio arloan agertu zitzaion Domingo Agirrerri nabarmenkiago, eta gizarte-erakundeetan ere bai, berorietan batik bat, familia, gizakien arteko harremanetan... onuragarria baita oso Jainkoaren eragina. Jainkoa dugu Uribarriko (Euskal Herriko → mundu osoko) Errege, euskal lurraren eta giza(rte)tasunaren gaineko jaun eta jabe: “Eta hala ere han zegoen, Aizkorri gaineko elizatxoan, Jesus Jaungoikoaren irudi maitagarria, kurutzean josirik eta apal, oso apal, gizon arroai apaltasuna erakutsi nahian”.

(Euskal) etxeko buruen paradigma den Joanese buruz azpimarratzen zaigun lehen-lehena, Jainkoaren *lege*arekiko begirunea da: “Bazekian, gainera, eta hau zeukan gauzarik onentzat, guraso zaharrak erakutsi zioten Eleizaren legea eta Jesukristok lurrean erabili zuan bizitza samurra”. Euskal baserrietarako gartsukien desiratzen duena “Jaunaren legea zen Zabaletako argaltasunaren sendatzaile eta grina gaiztoen lokarri, euskal basetxe gehienetan bezala. A! Zer izango litzateke gure baserrietan Jaunaren legeko hesi biguna urratuko balitz?”.

Izan ere, euskal baserriak dira Jainkoaren legea gordetzeko lekurik egokienak. Zabaletako baserrian, oinordekotza bereganatu duen seme nagusia, “Jose Ramonen mendeko guztiak, gure asaben bideari jarraika, Jaunaren aginduetan pozkiro dabilta”. Alderantziz, baserriatik alde egin (behar) duen hirugarren seme Juan Andrezi “ahaztu zi-

¹³ Domingo Agirre karlistar taldekoa izan omen zen (afiliatua izan zenetz, zehaztu gabe dago). Ikus GARCIA TRUJILLO, S., o. c., I, 97-103. or. Mitxelenak integristatzat jotzen du DA. Ikus *Mitxelenaren Idazlan hautatuak*. Mensajero, Bilbao, 1972, 382-383. or.: “Karlista izateko, nork bere burua karlistatzat euki behar zuen sasoi hartan, eta karlistatzat eduki behar zuten aldamenekoek eta urrutikoek... Aukeraz, integrista airea hartzen diot nik Agirrerri, orduan integrista zeritzan alderdikoa. Oker nabil, ordea, agian eta prest nago okerrak zuzentzeko erakusten dizkidaten bezain laster”. Uste dut, gaur egunean, Mitxelenak eskatzen zituen frogak nabariagokak ditugula, bera horretaz aritu zenean baino.

tzaizkon euskal mendiak, euskal ohiturak, ahaideak, gurasoak, sines-
teak, oroipenak eta baita Jaungoiko Ahaltzu Donearen aginduak”...;
eta zer esan Euskal Herritik joaten ziren euskaldun diruzaleez edota
Somorrostroko meategietara joandako gizakien gainbeheratze zibil
eta moralaz: “Birao lurrunean, likiskeria zakarrean lizundu zaie ani-
ma: baina, hau negargarria! Kalte horren axolarik inork ez dauka...
Ezin dute inor maite, baina erreztasun handia daukate edozein gorro-
tatzeko”. Erlijio eta gizarte errealitateen nahasketa berdina nabari da
Eibarko mitinean¹⁴, non “lantegietako gizonak (onenak ez baina) eta
Elizaren etsaiak” *batera* baitoaz jardun batzarrera.

Jarrai genezake, baina nahikotxo dela uste dut. Ideologizazio
alde horretatik, gogortxoago, hots, erradikaltxoago ikusten dut neuk
Caroa, *Kresala* baino. Zaharrago eta itxiago (kontserbadoreago),
behar bada, Domingo Agirre bera ere?

***Caroa*-ko Domingo Agirre eleberrigilearen alde positiboak**

Esandakoaren arabera, hots, Domingo Agirreraren eleberrietako
ideologia zama nabarmen(egi)a dela eta, baliteke batek baino gehia-
gok pentsatzea abade ondarrutarraren eleberririk irakurgarriak (ira-

¹⁴ ALBERDI, P., *Orhoit gutaz*, Pamiela, 2003, 23-28. or.: “Eibarren 1897ko
abuztaren 6an, Gipuzkoan inoiz egindako bigarren langile-greba jazoko zen, ‘Quinta-
na Hnos.’ lantegian. Grebak egun bakarra iraun zuen, eta haren ondorioz, ugazabek
bertako langile guztiak kalean utzi, eta kanpoko beharginak ekarri zituzten lanerako.
Toribio Etxebarria militante sozialistak, artean hamar urteko haurra, honakoak ida-
tziko zituen, zenbait urte geroago. Gertaera hartaz: “Esta huelga fue la responsable de
la presencia de los primeros mitineros en la localidad (Eibar). Lehenengo *mitinero*
haiek, Pablo Iglesias eta Facundo Perezagua sozialista buruak, greba egunetik aste-
betera herrian azaldu, eta Salón Teatroko tribunatik mintzatu ziren... Nolanahi ere,
1897ko abuztuko hartako albisterik nagusiena ez zen Eibarko greba eta ‘Agrupación
Socialista’ delakoaren sorrera izan, baizik eta Michele Angiolillo anarkista italiarraren
exekuzioa Bergaran. Jakina denez, Angiolillo anarkistak Antonio Cánovas del Casti-
llo Ministro Kontseilu burua hila zuen, tiroz, Mondragoeko Santa Agedako bainue-
txean... Angiolilloren exekuzioak egundoko ikusmina piztu zuen... “Mis padres (dio
Toribio Etxebarriak) hubieron de poner en juego mis historias mentirosas para que no
me sumara a la caravana de los que fueron por el monte a presenciar la ejecución en
el vecino pueblo”.

kurtzekoak) ez direla. Hutsegite galanta, Domingo Agirre baita, merezimendu osoz, “el forjador de la prosa novelística moderna en euskara”¹⁵.

Zer goza eta zer ikas dezakegu Domingo Agirrerren *Garoa*-n?

- Lehen-lehenik, eleberrigilearen *umore* fin eta orekatua. Zeinen gustura irakurtzen dugun, esaterako, Zabaletako Ana Joseparen eta Azkarragako Mari Batistaren arteko elkarrizketa, seme-alaben ezkontza bideratzerako ahaleaginean, edota Mondragoiko azokan, saltzaileen eta erosleen arteko hizki-mizkiak, edota Moxolori Ana Joseparen ziriak edota Urkiolako petrikiloaren ‘berebiziko itz iturri naro ausarta’...

- Bigarrenik, *tendreziaz* betetako hainbat pasadizo edota eszena, behin baino gehiagotan negar eragiteko modukoak: Malentxo jaio berri eta baserriko jolasaldi eta lo-kantak, Urkiolako pagopeetan Oñatiko Joanes eta Elgetako Austin lagun zaharren arteko elkarrizketa nostalgikoak, Joanes zaharraren irteera arduratia Urbia elurtura gau beltz-beltzean Joxe artzain gazte galduaren bila, “Isaak eta Jakob diruditen” Joanes zaharra eta Joxe itsu berriaren berrelkartzea...

- Hirugarrenik, euskal *tipikotasunaren* gaineko neurritz ekarrirako lauki batzuk: Urbia zelaiarena, Zabaletako (Eukal Herri osoko) baserriarena, Done Tomas egunean azokako aizkolariarena, Gabon gauekoarena, Urkiolako erromeriarena, Eibarko mitinariarena...

- Laugarrenik, baliteke *Garoa*-ren eleberrigilearen maisutasunik nabarmenena pertsonaien arteko *elkarrizketa* izatea “arin, lasterra, txairoa, arrunta, egunerokoa”¹⁶ eta, behar denean, pipertsua ere bai: “La expresividad y rigor plástico de las descripciones, el dominio y la agilidad de los diálogos, la incorporación de lenguajes coloquiales, etc. son logros que ofrece en más de un caso la prosa costumbrista”¹⁷

¹⁵ SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, Akal, 1976, 146. or.

¹⁶ MITXELENA, K., *EGAN*, 1955 (1-2), 54. or.

¹⁷ LASAGABASTER, J.M^a, *Antología de la narrativa vasca actual*, Ediciones del Mall, Barcelona, 1986, 22. or.

(Domingo Agirrerren kasuan, batik bat)... orain arteko euskal kontalari gutxiren eskuetan izan dena.

- Bosgarrenik, Domingo Agirrerren eleberrietako testu zati askoren *dotorezia*. Zumaiko ikastetxean “latin, castellano, retórica y poética” ikasgaien irakasle zen Domingo Agirrek erretorika klasikoaren baliabide asko darabiltza bere eleberrietan, testuari oratoriarekin loturiko halako goitasun bat ematen diotenak: erretorika galdera edota harri-dura oparoak, irakurleari interpelazio ugariak, anafora azpimarragarriak: “Malenek irteten zion aitonari larrainera, hura menditik zetorrenean, Malenek kentzen zizkion sorbaldetako zorro eta esne-ontziak, Malenek abarka mantar legorrak atera, Malenek barruko jantzi zuri garbiak ohe gainean ipini; Malenek... esne zuri gogozkoenak egosi; Malenek...”, bi, hiru edota lau osagaiz eginiko hitz pilaketa adierazgarriak... Goi mailako errekurtsio horietaz baliaturik, Domingo Agirrerren hitz laua oso garbia da, zuzena, ulertteraza, arina, herrikoia eta, hala ere, dotorea (ez da bateratze erraza!¹⁸), prosa maisuen esku bakarrik izaten dena. Ikasiko bagenu gaurko ilustratuok!

- Seigarrenik, erretorika baliabideen artean, Domingo Agirrerren errepikapen eta akumulazio figuren erabilera azpimarratu nahi dut, euren bidez, narratzaileak *erritmo handiko* hitz laua sorrarazten duelako: bi: “baserritarrak eta uritarrak”, “eutsiak eta banatzaileak”, “apalak eta harroxkoak”..., hiru: “eder, ospetsu eta etxe onekoa”, “ezko, naro eta loretsu”, “jarkar, nakar eta zurbil”, eta lau: “zuri, eder, leun eta limuri”, “harro, aterga, esale eta ameslari”, lexema multzoak erabiltzen ditu eta polisindeton ugariak ere bai: “dena garia, edo garagarra, edo oloa, edo zekalea”.

¹⁸ Domingo Agirrek herri literaturari zion zaletasunaz, Antonio Zavalak bildu digu testigantza bat, ESNAL, P.k dakarkiguna, in “Uztapide bertsolaritzaen historian: ardatz, gailur eta maisu”: “Antonio Zavalaren *Azpeitiko Premiýoren bertsoak* liburuan dugu (bertsolarien) lehiaketa horren berri zehatza (1893an), eta ondoren liskarraren emaitza (bertsotan) oparoa. Esaterako, hor kontatzen da nola udaletzeko balkoitik kantatu zuten, arratsaldeko lau eta erdietan hasita, besteak beste, Joxe Bernardo Otañok, Udarregik eta Pello Errotak, bost mila entzuleren aurrean, hiru gizon epaile zituztela: Resurreccion Maria Azkue, Domingo Agirre eta Felipe Arrese”.

Horiez gain, Domingo Agirrek distribuzio figura asko darabiltza sarri; ez soilik ohiko lexematikoak: “zerura eta lurrera, gabaz eta egunez, txiki eta handi, ixil eta bizi, garratz, eta gozo...”, espazio edota denborarekikoak ere bai: “gora... behera”, “han... hemen...”, haruntzago..., bestealdean”, “eskumaldetik..., ezkerretik”, “goikoaz..., azpikoaz!”, “burualdetik..., behealdetik...”, “horko..., hango..., goiko..., beheko” “honi..., hari..., urliari...”, “behin..., beste behin..., gero..., ostera”, “orain..., gero..., laster..., behingoan..., hurrengoan..., ondoren...” “gaur..., bihar..., behin..., bestean...”, “noizean behin... ostera..., barriro..., batean..., orduan...”.

Pentsakera irudien aldetik ere, gehienetan konparazio edo metafora ohikoak erabili arren, ez zaio *Garoa*-ren narratzaileari edertasunik falta, halaxe nola (eta konparazioetara mugatuta), *Kresala*-n itsas haserreko arroketa jausten den ur-bitsa esne egositan erortzen diren arto zatiekin erkatzen duenean, edo, *Garoa*-n, mara-mara datorren elurra, mitxeleta-euri bigun ikusgarriekin, edota txantxan-gorriak, “egun guztiko ibilera eta txio jotzez nekaturik, sasi-zugazti barruan zeuden, lumapean mokoia gordeta, tuntun jotzaileak bere txistua zorroan gordetzen duen” bezala irudikatzen duenean.

- Zazpigarrenik, erritmoa soilik ez, Euskal Herrikoek usu erabiltzen dituzten onomatopeien bitartez ere –“txindorrak, txepetxak eta txirriskiloak txiot txioka”, “drist eta drast, hor txirrist eta hemen larrapast”–, Domingo Agirrek, espresibitate handia ez ezik, *musika* halako bat ere eskuratzen du eleberrietako hitz lauan; “apal, oso apal gure apaltasunean”, “jatorduan eta lotorduan”, “nagi-nagi eta motel motel”, “berriren berriz” “nekez baino nekez”, “bazterrik bazter, aldrarik aldra, txosnarik txosna” “entzunak entzun eta gero ikasiak ikasi”... Paulak Manueltxo lehengusuarekin ez ezkontzeko nahia espresibitate handiz adierazten digu: “Ni ez naiz Manuelekin ezkonduko, ezta zuzi-zuzi, zati-zati, birrin-birrin egiten banaute”. Nola adierazi laburrago eta adierazgarriago Zabaletako eguneroko giroa: ezkaratzekoa, esaterako: “Arratsalde osoan euki zituzten su handiaren aurrean, lapikoak gargar, kazuelak pil-pil, tanbolina plist eta plaust, eta azken orduan, zartagi eta arranparrilak txir-txir-txir...”.

• Zortzigarrenik, eleberrigile kostunbristei dagokienez, Domingo Agirrerren eleberrietako hitz lauak *didaktismoa* dauka zeharkako helburutzat. Urte haietako euskaltzale *ezjakinak* (hainbestetan gutxietsi ditugun abade edo praileak: euskal literatura = abade literatura) euskal hitzak eta esaeren bilketa lanetan aritu ziren jo eta ke, eta eurei esker euskal altxor ez gutxi gorderik geratu zaizkigu, behin betiko, gaurko euskaltzale purista edota postmoderno askoren mesederako¹⁹: “(Zabaletako) labaldean ez zan gauza handirik: abar batzuk, ia erdi erretako pala zatar bi, eta labeoia garbitzeko ipizkia. Janari-etxean, lastoa eta belar-ondua ugari, sapaian; atxur, eskuare, sarda, txardango, golde, periki, besare, gurdi, gurtesi, orrazi, kabila, eta uztarriak lur gainean...”. Irakurlea gustura darraio, begi kolpe batez, ezin besarkatuzkoak zaizkion Urbiako belar loretxoak erakusten dizkion eleberrigileari: “garo, milu, menda, txulufirin, elorri, ereinotz eta beste baso belar lore landareen goizeko usain gozo bizigarriak”, edota Malentxorekin batera, Domingo Agirrerren esku, Euskal Herriko txoriak bereizten ikasten saiatzen garenean: “Txori xehe alaiak, tarin, burubeltz, karnaba, txantxangorriak... saguzar itsusi baldarrak... batera eta bestera zebiltzan ehiztari, eltxo eta zomorro bila... osineta-ko igeltxoak, klin-klon, klin-klon”.

• Bederatzigarrenik, usaina soilik ez, *kolorea* ere badu Domingo Agirrerren hitz lauak. Euskal Herriko zero eta mendiko zabaltasuna adierazteko, narratzaileak ‘a’ bokalez (bokalik irekiena) beteriko hitz andana biltzen digu: “eta inork baino lehenago zuan, goi aldetik, hodei tarteko arranoaren ibilera apaina edo ia gizon danentzat estaldurik zegoan izarrenaren kinua, eta lur aldean, lokatz bigunetako abere oinatza. Bide ondotik joan ziran eperren *aztarna* sasi mardularen ertzeko erbi-ohei *zapala*, harkaitz-zuloetako hegazti harraparien *kabia*, eta *han* behebehean *agiri* zan urlia herriko orduari *zahar* ta ilun *samarra*”.

¹⁹ MITXELENA, L., *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, RSVAP, Bilbao, 1970, 18. or.: “La diferencia que media entre el léxico de *Kresala* y *Garoa*... es consecuencia mucho más que de la diversidad dialectal, del diccionario de éste (Azkue)”. Ikus ere *EGAN*, 1954, (2-4), 39. or.: “Azkue eta Euskal Hiztegia”, *Zeruko Argia*, 9/8/1964, 4. or.

Urbiako basoan, bakarrik dagoela, otsoa agertzen zaionean, Joxe mutikoaren beldurra azpimarratzeko, narratzaileak beldurra sorrazteko erabiltzen dugun (u)-u-a bokal andana biltzen digu: “Mila aldiz bai entzun zituau, bakartasunaren erdian jarrita zegoala, urrutiko trumoiaren orroa, ekaitz haizearen durundia, artzainaren deadar luzea, egurgilearen aizkorakada neurtua; basaurdearen arnasotsa, otsoaren alaraua, azeriaren zaunka, behorren irrintzia, mozoloaren oihua, basahuntz bildurtiaren zalaparta, abere arranen dulun-duluna.... zuhaitz ostroen pir-pir biguna, eltxo gogoikarrien zunburruntxoa...”. Eta abar...²⁰

• Hamargarrenik, narratzaileak izadia dauka: landareak, mendiak..., hots, gizakirik gabeko espazioa eta denbora... errealitate garbi eta hobetik gabekotzat: “Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak” (Ga, 1, 31: gizakia sortu aurretik). Hori dela eta, gaur egungo idazle ekologistek bezala, *Garoa*-ren narratzaileak izadiarekin bat egin nahi ditu eleberriko pertsonaiak²¹. Joanesen aurkezpena non eta Urbia zelaian egiten digu!: “Zazpi oin eta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezala trinko, gorosti ezearen antzera zimel”. “Elurgilo! Gaztanbera! Usakume! Lili zuri” den Malentxori buruz hauxe diosku Ana Josepa amonak: “Ez, Urbiako zelaietan ez da zu bezalako liliarik sortu, ezta sortuko ere. Zu zera lore guztien lorea...!”.

Garoa-ren narratzailearentzat mendiak ere leku erlijiosoak dira, Jainkoaren etxea: “Mendiak... denak ostro berde berriak zeruruntz jasoaz, Jaungoikoari eskeintzen zitzaizkion lorontzi eder batzuk ziruz

²⁰ Horrelakoak ugariak dira bai *Kresala*-n, bai *Garoa*-n. Ikus GARCIA TRUJILLO, S., o. c., II, o. c., 274-278. or.

²¹ LASAGABASTER, JM^a., *La novela de Ignacio Aldecoa. De la mimesis al símbolo*, SGEL, Madrid, 1978, 295-296. or.: “Rematar una descripción mediante una metáfora permite integrar lo descrito en un nuevo y metafórico sentido; la metáfora funciona en estos casos como un elemento recursivo, que suspende la dimensión lineal de la donación de sentido, retro trayendo su efecto a todo el enunciado descriptivo del que forma parte”.

ditela.. Mendiak bakarrik dira handi, mendiak eta beren Egile Jaungoiko *Ahaltsua*”.

• Hamaikagarrenik. Behin baino gehiagotan azpimarratu dugu Domingo Agirrerren *perzsonaien* deskribapena esentzialista izaten dela (ezaugarri absolutuak, bilakaerarik gabeak), eta joera hori kaltegarri izaten da ez soilik narrazioaren sinesgarritasunarentzat, baita irakurlearen jakin-minarentzat ere. *Garoa*-ren espazio eta denborari dagozkion zenbait deskribapen, haatik, oso egokiak dira (luzeegiak, aukeran), batzuen batzuk antologikoak (zatiren batzuk behinik behin), hala nola euskal baserriarena II. atalean, elurtearena X. atalean, arratsaldearena XV.ean... eta besteren batzuk ere bai.

Laburtzeko

Garoa eleberriak, literatura ikuspuntutik, alde onak eta txarrak ditu, argiak eta itzalak. Alde onak bereganatu eta txarrak baztertzean dautza irakurlearen jakituria eta probetxua, are eta erneago ere, alde onak meritu handikoak eta guztiz probetxugarriak (beharrezkoak) izaten baitzaizkigu.

Domingo Agirre, dudarik ez, meritu handiko idazle probetxugarria izateaz gain, guztiz beharrezkoa dugu, ez soilik euskal kulturaren historian ezinbesteko ikurra dugulako: “Su obra (*Garoa* gehi *Kresala*), por su sentido del idioma coloquial y narrativo, marca un hito decisivo en el establecimiento de la prosa novelística moderna”, gaur egungo euskal idazleok hitz-laua hobetzeko maisu zaigulako ere bai, bera baita “maestro en la utilización de los recursos prosísticos tradicionales de nuestro idioma”²².

Ezta gutxiagorik ere! Istorioaren ahultasun edota ideologizazioarengatik, *Garoa* bazterrean utziko bagenu (ez nuke esango egiten ari ez garenik, azken urteotan batik bat), kaltetuak gu geu izango ginateke, lehen lehenik.

²² SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, Akal editor, Barcelona, 1976. 146. or. *Euskal idazleak, gaur*, o. c., 198. or.

ARGITALPENAK

I. ATALKAKO EDIZIOA (RIEV) eta HAREN FAKSIMILEA

1. *Garoa* / Domingo de Aguirre

In: *RIEV*.— Paris: Paul Geuthner, 1907-1936. T. I (1907), 42-47, 172-179, 453-463 or.; T. 2 (1908), 359-368, 625-637 or.; T. 3 (1909), 274-285 or.; T. 4 (1910), 21-31, 298-304 or.; T. 5 (1911), 86-96, 405-420 or.; T. 6 (1912), 174-196, 425-440 or.

2. *Garoa* / Domingo de Aguirre

In: *RIEV*. — Red. Facs. — Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969-1977. — 1969. T. I (1907), 42-47, 172-179, 453-463 or.; T. 2 (1908), 359-368, 625-637 or.; T. 3 (1909), 274-285 or.; T. 4 (1910), 21-31, 298-304 or.; T. 5 (1911), 86-96, 405-420 or.; T. 6 (1912), 174-196, 425-440 or. ISBN 84-248-0032-X.

II. LIBURU FORMATUKO ARGITALPENAK

1. Lehen bi argitalpenak eta frantziskotarrenak

1. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia. — Durango'n: Florentino Elosu'ren echean, 1912, 376 or.; 19 cm
2. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia. — 2. ager-raldi obetua. — Donostia: Beñat-Idaztiak, 1935, 308 or.: il.; 19 cm. — (Zabalkundea; 10)
3. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia. — 3. ager-raldi obetua. — [Oñati]: Aranzazu, 1956, XVIII, 303 or.: il.; 19 cm
4. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia. — 4. argitld. — [Oñati]: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, 1966, 310 or.; 19 cm

5. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia, 5. argit., [Oñati]: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, 1981, 310 or.; 20 cm
6. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia, 6. argit., Oñati: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, 1983, 310 or.; 20 cm
7. *Garoa* / Domingo de Aguirre apaizak egindako irakurgaia, 7. argit., Oñati: Arantzazuko Frantziskoatar argitaldaria, 1987, 308 p.; 20 cm
8. *Garoa* / Domingo Agirre apaizak egindako irakurgaia. — 8. argitld. — [Oñati]: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, 1993, 308 orr.; 19 cm

2. Labayru Ikastegiaren edizioak

1. *Garoa* / Txomin Agirre; moldakuntza eta sarrera, Bingen Zupiria. — Bilbo: Labayru: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Kultur Ekintza, L.G. 1987, 267 or.; 21 cm. — (Sutondoan; 13)
2. *Garoa* / Txomin Agirre; [edizio honen prestatzailea, Igone Etxebarria]. — Donostia: Labayru, 1990, 301 or.; 20 cm. — (Klasikoak; 31) Atarian: Euskal Editoreen Elkarte.
3. *Garoa* / Txomin Agirre; moldakuntza eta sarrera, Bingen Zupiria, 2. argit, Bilbao: Labayru: Bilbao Bizkaia Kutxa, 1993, 267 or.; 21 cm, (Sutondoan; 13)
4. *Garoa* / Txomin Aguirre; moldakuntza Miren Atutxa eta Adolfo Arejita; sarrera, Sebastian Gartzia Trujillo. — Bilbo: Labayru: Bilbao Bizkaia Kutxa, Fundazioa, 2012; 21 cm, (Sutondoan; 46).

3. Hiriaren edizioa

1. *Garoa* / Txomin Agirre; L. Haranburu Altunaren sarrera. – Donostia: Hiri liburuak, 2009, 266 or.; 21 cm. — (Euskal narrati-baren hastapenak; 8)

Sebastian Gartzia Trujillo

EDIZIO HONETARAKO IRIZPIDEAK

1912an liburu formatoan sortu zenetik hona *Garoa*-k hainbat edizio izan ditu. Orduko garaian ohikoa zenez, lehenago zatika aldizkarietan argitaratu bazen ere, aurten bete dira ehun urte liburuak lehenengoz argia ikusi zuenetik. Ibilbide luze horretan edizio bakoitzak jatorrizko testuarekiko irizpide propioak izan ditu, garaian garaiko beharrak, idazkera edota estiloa aintzat hartuta beti ere.

Bitxia izan ala ez, ehun urte igaro diren arren, oraindik ere, *Garoa*-k bizirik dirau gure ikasgeletan, gure gizartean. Denborak aurrera egin duen arren, oraindik ere, *Garoa*-k badaukalako zer irakatsi eta zer eman irakurleari. Hizkuntzaren aberastasuna begi-bistakoa da testu osoan, eta idazterakoan teknika bikaina erakusten digu Agirrek inolako zalantzarik gabe. Probetxu handiko testua hasieratik amaieraraino.

Urteurren berezi honetan argia ikusiko duen edizio berri honetarako erabili ditugun irizpideak adosterakoan, gure garaiko araudi eta erabilerara egokitzen ahalegindu gara oro har. Baina hainbat kasutan idazleak berak erabilitako formak lehenetsi ditugu eta bere horretan utzi. Egia da horrelako irizpideak zehazteko orduan, askotan zalantzak sortzen zaizkigula: zer aldatu, zer utzi bere horretan, zer egokitu... Orokorrean idazlearen jatorrizko testua errespetatu beharra barruntatzen dugu, baina gaur eguneko forma estandarretara ekarri beharra ere ezinbestekotzat jo dugu.

Garoa gipuzkeraz idatzita dago eta xehetasun hori guztiz aintzat hartu behar genuela begitandu zaigu. Hala ere, hainbat kasutan idazlearen garaiko hizkera herrikoiairen aldeko apostua egin dugu, batez ere elkarrizketak edota testu markatuak izan direnean. Zentzu horretan, liburuaren balio etnografiko-linguistikoa nabarmena da eta hori gordetzea garrantzitsua dela iruditu zaigu. Horrela, idazleak berak erabilitako forma ugari bere horretan utzi ditugu.

Gure abiapuntua horixe izanik, irizpide nagusi bi horien arteko oreka, alegia, azal ditzagun jarraian edizio honetarako erabili ditugun irizpide nagusiak edota oinarritzkoenak.

Orokorrean, grafiari dagokionez, gaurko sistemara ekartzeko ahalgina egin dugu, askotan ezezik gehienetan ere oinarritzko aldaketak zirela iritzi diogulako. Horrela, txistukarien edota afrikarien erabilera okerraren edota nahasketaren aurrean behar izan diren zuzenketak egin dira; “h” grafia sartu dugu testuan; “ñ” edota “ll” grafiak “in” eta “il” bihurtu dira (ez bada toponimoren baten kasuan, edota kasu banakoren bat kenduta). P eta f letren arteko alternantziak ere ugariak dira testuan. Orokorrean gaurko idazte-moduetara ekarri ditugu, baina ez beti, elkarrizketetan edota ahozko hizkeraren ezaugarri nabarmen gisa agertu direnetan utzi egin baititugu. Adibidez:

praile, Pillipe, Prantzisko, Pilomena, prantses, perrokarril...

mutilla > mutila, kankallu > kankailu, dabillen > dabilen, pralle > praile, langillientzat > langileentzat, opilla > opila, zalla > zaila, olloa > oiloa... Baina sentellas...

baño > baino, iñor > inor, sendakiña > sendakina, egundaño > egundaino, sortzeraño > sortzeraino, ariña > arina, gañera > gainera... Baina Oñati, Logroño, moño, añaniñua...

beor > behor, bear > behar, andi > handi, orretan > horretan, amabi > hamabi, arria > harria...

mosollo > mozoilo, kaxkar > kaskar, maxkar > maskar, garraxi > garrasi, soso > zozo, koxkor > koskor, itxu > itsu...

Puntuazioan hainbat aldaketa egin behar izan ditugu, gehienbat testua argiagoa izan dadin eta ulergarriagoa aldi berean. Beraz, zentzu horretan ohiko puntuazio-markak egokitu behar izan dira: komak, bi puntuak, puntu eta komak, marrak, eten-puntuak, puntuak, kakotxak, etab.

Fonetika arloan ere orokorrean gaurko erduetara ekarri ditugu kasu gehienak, berriz ere ahozko forma esanguratsuren bat kenduta, edota elkarrizketa baten barruan agertu ez badira. Behin baino gehiagotan osotu ere egin behar izan dira hitzak, batik bat kontsonantea galdu denean edo deklinabide markaren baten kasuan. Bokalen arteko harmonia ere zaindu egin da orokorrean:

jaon > jagon, Austin > Agustín, balitxeok > balitxegok, aitu > aditu, auspoan > hauspoaren, semien > semeen, emakumien > emakumeen, orrua > orroa...

Dena den, testuan hainbat eta hainbat forma azaltzen dira ahozko ezaugarri moduan eta horiek, asko jatorrizko testuan bertan ere kurtsibaz markatuta edo bereiztuta azaltzen diren heinean, geuk era modu horretan utzi ditugu:

alimo, pulamentu, konpesatzera, estopaua, konpitak...

Hitzak osatzerakoan sarritan azaldu dira *-ai* amaierako formak ere, eta *-ain* formara ekarri ditugu, forma arautuetara. Beste batzuetan, ordea, azken *-n* hori kendu egin behar izan dugu:

usai > usain, ipui > ipuin, eskui > eskuin. Baina hantxen > hantxe.

Morfologian, adibide bat edo beste kenduta, gaurko sistemaren arabera jokatu dugu. Ezezko formetan, esaterako, bereiztu egin dira aditzetik:

etziran > ez ziran, etzuten > ez zuten, eztiat > ez diat, ezkera > ez gera...

Hala ere, aditz arloa izan da agian aldaketa ugarien izan dituen alderdia. Hamaika adizki mota ezberdin darabiltza idazleak; erruz darabiltza hikako adizkiak ere, batez ere elkarrizketetan. Istorioa Oñatin gertatzen dela abiapuntutzat hartuta, eta gipuzkeraz idatzita dagoela, gipuzkerazko formak lehenetsi ditugu geuk ere, baina hainbat kasutan aldaketak egin behar izan dira ezinbestean. Horrelakotan, ordea, oin-oharretan jarri ditugu jatorrizko testuan azaldutako formak eta *J.t.* argibidea gehitu dugu (*jatorrizko testuan* hala datorrela adierazteko). Beste zenbaitetan, ordea, idazleak berak erabilitako adizkia hobetsi dugu eta oin-oharretara azalpena eraman dugu behar izan denetan. Ehunka adibide jar genitzake atal honetan, baina hona hemen horietako gutxi batzuk:

darabilzki > darabiltza, dakizute > dakizue, daukazki > dauzka, dakuskala > dakusaala, dezakion > diezaiokeon, ziak > zihoak, ditezke > daitezke, zekarzkiten > zekartzaten, baliguteke > baligute, daion > deion, zinuzket > zintuzketet, zadazute > iezadazue, zaizka > zaizkio, zeriotea > zeriela, diozute > diezue, zetorkioten > zetorkien...

Txomin Agirrek darabilen hiztegiari dagokionez, zer esan liteke honezkero esan ez denik? Hainbat aldiz aipatu da erabat aberatsa, bitxia, ugaria, eredugarria dela. Non-nahi azaltzen dira hitzen sinonimoak, deskribapen zehatzak barra-barra, konparazioak zenbat gura... Egoera horrek berak eraman gaitu hainbat oin-ohar sartzera, hain zuzen ere. Horratik, idazleak berak sartutako oin-oharrak ere gorde egin ditugu. Bereak eta edizio honetakoak bereizteko, idazleak sartutakoak kortxete artean jarri ditugu.

Oin-oharretara eraman ditugun hitzen esanahia gehienetan euskaraz eman dugun arren, badira beste hainbat gaztelerazko ordainarekin agertzen direnak. Kasu horretan kakotx artean azalduko dira ordain horiek.

Testua astunegia izan ez dadin, jatorrizko testuan oin-oharretan errepikatzen ziren hitzak behin baino ez ditugu jarri. Izan liteke, ordea, kasuren batean errepikatuta agertzea, esanahia bera modu ezberdinean emanda agertu delako, adibidez.

Zaila da hitz gutxitan azaltzea eta are gutxiago zehaztea edizio honetarako erabili ditugun irizpide guztiak. Laburbilduta jarri ditugu agian nabarmenenak iruditu zaizkigunak edota sarrien erabili behar izan ditugunak. Hala ere, ez dira inondik eta inora bakarrak, kasuan kasu hartu beharreko erabakiak asko izan direlako. Egin diren aldaketak, zuzenketak edota egokitzapenak, edonola ere, gaurko irakurlearengana hurbilarazteko asmoarekin bideratu ditugu. XX. mendearen hasierako euskal girora egokitutako testua, hizkera herrikoi eta guzti, gaur egun ere erabilgarri eta eredugarri izan dadin. Txomin Agirrek irakurle hurbila zaindu zuen, eta mendeurren honetan berriro dakargu gure artera *Garoa*. Oraingo honetan ere on egin deizula, irakurle.

Miren Atutxa

GAROA

*Domingo Agirre
apaizak egindako
irakurgaia*

IRAKURLEARI

Egun on eta berri on, adiskide.

Garoa naiz, *Kresalaren* anaia gaztea; baina menditarra, Gipuzkoako hizkeraz jantzia.

Nere anaiari abegi ona egin zioten euskaldunak.

Gaurko egunean edozeri jotzen zaizkio¹ eta Euskal Herrian hazi zalako txalo batzuk jo omen zizkioten².

Baina ni ez nator txalo bila. Nere aitak esan dit buruhauste gogorren erdian sortu naizela, zeregin askoren tartean, txolarteetan³, atalka eta pitinka; arantzapeko lore gaixoa dirudidala, eguzki gutxiko landare maskarra⁴.

Bai, nere aitak dioenez, *Kresala* eta ni ahalmen gabeko gizonaren egintzak gera, zazpikiak, eta gure aitak ondo ezagutzen gaitu.

Ni jaio baino lehen zerbait izango nintzala uste omen zuan, baina jaio eta gero, zelaira naramala, begira-begira egon zait eta hutsune agiriak idoro dizkit azalean, ustegabeko erkintasuna errai-mamianean.

Hala ere, harrera txarrik ez ahal didazu egingo. Apalari ez zaio inon gaizki begiratzen.

¹ *J.t.* zaizka.

² *J.t.* zizkaten.

³ Txolarte: aldarte, astialdi.

⁴ Maskar: txiki, ezerez.

Eta gainera, nahi degunik ez degu, irakurle, eta ahal deguna beharko. Gaur ez dago aukerarik.

Erneko ahal dira euskeraz irakurgai gozo, ugari eta mardulak. Betoz ordu onean, betoz hainbat lasterren.

Nork daki, ni hain kaskarra ikustean, liburu eder bat zeuk asma-tuko ez badezu⁵?

Baina bitartean, hara ni naizen bezala. Tira, ikus ezazu Joanes artzaina⁶, ireki iezaiozu atea, irauli iezadazu orria.

⁵ *Ez duzun.*

⁶ [Nere artzaina beste *mendi-mendiko* artzainen bat baino aurreragokoa da. Begira *Revista Internacional de los Estudios Vascos* deritzaion albisteari, bere lehenengo zenbakian].

I

JOANES ARTZAINA

Hura zan gizona, hura!

Zazpi oin eta erdi bai luze, makal⁷ zuhaitzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezala trinko, gorosti hezearen antzera zimel.

Horrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzain zaharraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oinak, zindoak bere bular-hauspoak.

Hirurogeta hamabi aldiz ikusi zuan, Aloña mendiko hariztietan, ostro berdea berriz jaiotzen; baina ez zion eramango hemeretzi urteko mutil batek ez aizkora jolasean, ez burdina astuna jaurtitzen, ez mendietan gora edo ibarretan zehar lasterka.

Kaiku handi bat esne goizean jan, azpantarrez⁸ izterrak estaldu eta makila bat eskuan hartu ezkerro, prest zegoan egun osoan, zein arinago bezala, behorren atzetik ibiltzeko edo, neke askorik gabe, ardi galdu gaixoaren bila gau guztia igarotzeko.

Argiak ziran Joanesen begi gozoak. Ohitua zegoan Joanes zerura eta lurrera, gauaz eta egunez, arreta handiz begiratzten; eta inork baino lehenago ikusiko zuan, goialdetik, hodei tarteko arranoaren ibile-

⁷ Makal: "chopo".

⁸ Azpantar: abarkekin erabiltzen diren galtzerdi modukoak.

ra apaina edo ia gizon danentzat estaldurik zegoan izarraren kinua, eta lur aldean, lokatz bigunetako abere oinatza, bide ondotik joan ziran eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erbi-oho zapala, harkaitz-zuloetako hegazti harraparien kabia, eta han behe-behean agiri zan urlia herriko orduari⁹ zahar eta ilun samarra.

Ernaiak ziran Joanesen belarriak. Oso egina zegoan Joanes mendi-oihartzun guztietara. Mila aldiz bai entzun zituan, bakartasunaren erdian jarrita zegoala, urrutiko trumoiaren orroa, ekaitz haizearen durundia, artzainaren deadar luzea, egurgilearen aizkorakada neurtua, basaurdearen arnasotsa, otsoaren alarua, azeriaren zaunka, behorren irrintzia, mozoloaren oihua, basahuntz bildurtiaren zalaparta, abere arranen dulun-duluna, ardien *bee* negartia, suge zahar-raren txistua, beleen garrasi latza, zozoaren txor-txorra, txori kantari askoren *txio-txio* alaia, erreka-stoen pol-pola, zuhaitz ostroen *pir-pir* biguna, eltxo gogaikarrien zumburruntxoa...; hitz gutxitan esateko, izakiak berez dituan eta mendi basoetan diran abere, pizti eta sortutako gauza guztien amaigabeko soinu txiki eta handi, isil eta bizi, garratz eta gozo, mingarri eta eztitsu, pozkor eta ikaragarritzko danak. Berehalaxe antzematen zion Joanesek nondik zetorren soinua, eta baita ere esango zukean garbiri eta zuzen zer zan eta non zegoan soinu bakoitzaren jatorri ezkutua.

Ez zan Joanes jakituria handikoa, baina bai asko ikusia, eta asko ikusi duan gizonak beti daki zerbait, eta sarri jakintsu usteko askok baino gehiago.

Bazekian non eta noiz jaiotzen ziran gibelurdinik¹⁰ gozoenak eta zein tokitan zeuden kamamila, belatxeta¹¹, karraskila¹² eta beste horrelako belar mota gizonarentzat osasungarriak.

Bazekian non idoroko zituan artaldearentzat behar ziran janaririk on eta egokienak.

⁹ [Orduari: *Reloj*].

¹⁰ Gibelurdin: perretxiko mota bat.

¹¹ Belatxet: belar mota bat, "espliego".

¹² Karraskila: belar mota bat, "aladierno".

Bazekian nola sendatu behar ziran behor, behi eta ardien zauri eta gaixotasun ezagutuenak.

Bazekizkian baso guztietako lasterbideak eta bost ordu bide inguruko harkaitz-zulo eta aterpe denak.

Bazekizkian zer leku zeuzkaten goi urdinean izarririk nagusienak eta artizarrak batez ere. Eguzkian bertan ikusten zituan, gehienbat, egunaren orduak; ilargiaren jiran, haizeak zeraman bidean eta laino eta hodeien hegoetan irakurtzen zuan hurrengo egunerako giro ona edo giro txarra.

Bazekian, gainera, eta hau zeukan gauzarik onentzat, guraso zaharrak erakutsi zioten Elizaren legea eta Jesukristok lurrean erabili zuan bizitza samurra, eta lege eta bizitza horiezaz bakardadean gogoraturik, ikasi zuan, dana Jaungoikoari zor zion gizonak txit apala behar zukeala izan, bere nekeetan patxada handikoa eta lagun hurkoaren nahigabeetan egiazko onginahiz betea.

Kristoren legea zan Joanesen argia eta argi horretan ikusten zituan, kupidaz, gizonen argaltasun eta ibilpide okerrak.

Oroitzen naiz nola ezagutu nuan nik Joanes artzaina eta nere jakinahi bizian zenbat galdera egin nizkion.

Bagindoazen¹³ behin mendian gora lagun batzuk, orain urte asko dala, udako bero galdatan, izerditsu, arnasestuka, oso nekaturik, Aizkorriko goi gailurrera igotzeko asmoetan, eta Urbiako zelai ederra igaro eta laster, aurrez aurre bilatu genduan gure artzain zintzoa, kerizpean, zuhaitz handi baten sustraian jarrita, artilezko galtzerdia eginaz eta han aurrean zebiltzan ardiai begira.

Aldamenean zeukan txakurrak, sumatu ginduzanean¹⁴, ongi-etorri gaiztoa emateko itxurak hartu zituan.

—Hona, Txuri —deitu zion artzain zaharrak—, geldi hemen. *Jum!*

—Egun on —oles egin genion¹⁵ Joanesi—; egun on, adiskidea.

¹³ *J.t.* bagiñazen.

¹⁴ *J.t.* genduzanean.

¹⁵ *J.t.* giñon.

—Baita zuei ere —erantzun zigun gozoro, irribarrez.

—Jarleku ona bilatu dezu.

—Beste asko dauzkat basoan, eta danak ezagutzen naute igaroko urteetan.

—Urteak dira noski hemen zabiltzala?

—Berrogeta hamarretik gora honezkerok.

—Eta beti mendian zaude, bakarrik?

—Bakarrik ez, nere Jaungoikoarekin. Non biziko naiz baketsua-go eta hobeto?

—Hain ondo bizi al zera?

—Bai, eta nola ez? Nahi dedan adina jaten det, nahi dedan adina edan, eta nahi dedana agindu. Nere ustea da —jarraitu zuan barre antzean—; nere ustea da hemengo legea, eta nere aginduaren aurrean ez du inork ezetzik erantzuten. Inguruetako jabe eta jaun bezala bizi naiz.

—Ez da gaizki, ez; baina esaniezaguzu¹⁶, galdera okerra ez bada gurea. Zer jaten dezu?

—Taloa eta gaztaia batzuetan, taloa eta esnea gehienez eta ongarrixoren bat astia izan ezkerok, gaur bezala.

—Zer ongarririk?

—Baba beltz ederra, urdai apur batekin.

—Eta edan?

—Harkaitz iturriko ur garbi-garbia.

—Baina ez dezu hemendik inora irteten?

—Bai, bai; uda da hemen igarotzen dedana, nere baserrian lan handirik ez badago, epailetik¹⁷ hasi eta azaroraino. Hala ere, morroia badatorkit, larunbatetan jaisten naiz Zabaletara, nere emazte, seme, iloba eta bazterrak ikusiaz, barruko jantzi garbiak ipini eta tabakorri pixka bat hartzera; eta igandeetan igotzen naiz berriz, Arantzazuko elizan meza entzun eta gero. Morroia larunbatean ez badator, jaie-

¹⁶ *J.t.* zaiguzu.

¹⁷ Epail: marti.

gunean bertan joaten naiz Arantzazura, eta han izaten da ordurako etxekoren bat tabakorri eta jantzi garbiarekin.

—Zortzian behin ikusten dituzu beraz etxekoak?

—Basetxean lan askorik ez bada bai; baina gure Zabaleta horretan eginbehar estuak badaude, eguzki goiztarra baino goiztxoago jai-ki, beti bezala, ardi guztiak jaitsi eta zelaira eraman, esne-ontziak lepoan hartu eta han izaten naiz laster, zazpiretako bai. Bertan dago Zabaleta; hor, Gogordo azpian, ordu biko bidea gehienez hemendik hara.

—Eta lanera joaten al zera?

—Zertara ba? Atxurrera edo laietara edo behar danera, eguzkia gorde artean behintzat. Eta ilunabarrean, aldapari arpegia emanda, goruntz ostera ere, kankarroak lepoan ditudala.

—Ez dezu lotarako gogoia makala ekarriko!

—Zerbait bai; baina ez naiz beti berehalakoan lotara joaten. Ardiak batu behar izaten dira eskortaldera¹⁸ lehenbizi, eta pozik bat edo beste galdu ez bazait. Orduan izaten dira istiluak, haren bila gauerdiraino edo behar dan artean...

—Hori bizitza daramazu, gizona, dauzkazun urteakin!

—Ona nik, Jaungoikoari eskerrak. Nere semeak esaten didate, zaharra naizela eta, jaitsi nadila Zabaletara betiko, berak edo morroiak egingo dituztela hemengo eginkizunak, baina ez det nahi. Danak baino gehiago naiz mendiko gauzetan, eta ez da harrotasuna, egia baizik. Haiek ez daude ni adina ohituak.

—Eta ez al dezu ostaturik hemen hurrean?

—Zertarako ostatua? Hara hor non daukadan nere jauregia, zatozte zein polita dan ikustera. Zatozte, emango dizuet esne pixka bat egarria kentzeko.

Joan ginan artzainaren atzetik eta ikusi genduan Joanesen txabola.

Jauregi hura jasotzeko, harri batzuk alkarren gainean tolestatu eta haien buruan haga bat, lau ostro eta lasta pila batzuk teilatutzat

¹⁸ Eskorta: ardiak erasteko esparrua, "aprisco".

jartzea baino beste lanik ez zuten egin. Ez zan txabola zazpi oin¹⁹ zabal, hamar ez luze, goruntz ez zituan zortzi. A! Baina bazuan ate zahar bat eta gauza handitzat erakutsi zigun artzainak.

Lurrean, alde batera, txilarra eta garoa²⁰ zeuden zapaldurik; hura zan Joanesen ohea.

Beste aldean, egur batzuk sutan, eta egurren erdian baba-eltze-txoa *gar-gar*; hura zan Joanesen sukaldea eta asti egunetako janari ona.

Su ondoan, artirinaren zorrotxoa, lurrezko katilu handia eta zurezko koilarea agiri ziran.

Ez zegoan beste gauzarik: ez mahairik, ez jarlekurik, ez beste osterantzeko etxe-tresnarik.

—Ez dezu gauza asko behar bizi izateko —esan genion²¹ artzainari.

—Beste edozeinek adina behar det —erantzun zigun—, baina gutxitan hartzen det behar baino gehiago.

—Hemen jaten dezu?

—Hemen jatekoa egin; zelaian jan, giro ona bada.

—Eta hemen lo?

—Ederki.

—Sartuko zaizu haizea galanki irrinarte²² horietatik.

—Haizea ona da, udaldean batez ere.

—Eta ez zera bildurtzen gauaz, bakarrik?

—Zeren bildur izan behar det Jaungoikoarekin ondo banago? Gainera, ez dator hona inor, zuek bezalakoren batzuk ez badira, eta ez zerate zuek artzaina mendian ikaratzeko gizonak. Gaiztoak hor behealdean bizi dira, diotenez; zenbat eta beherago, gaiztoagoak; zenbat eta herri handiago, okerragoak eta ugariagoak. Ez dakit nik nola dan, baina gizon txarrak gutxitan ohi dira mendizale.

¹⁹ Oin: luzera-neurri zaharra, "pie".

²⁰ Txilar: ginarra, "brezo".

Garro: ira, "helecho".

²¹ *J.t.* giñon.

²² Irriarte: arrakala, bitarte.

Arren egin genion Joanesi lagun ziezagula²³ Aizkorri gaineraino, astirik bazuan, eta lagundu zigun.

Hura gizona!, esan behar det berriz ere. Beti aurretik zihoan, izerdi *tantorik* gabe, beti barre antzean, jolasean bezala, eta guk, hogeituro mutilak, izerditan urtutzen eta biriak ahotik boteaz, ezin genion jarraitu.

Atzean ez gelditzeagatik eginahalak egin genduzan, baina alpe-
rrik. Azkenerako, Joanesek, gure neke eta larria ikusi zuanean, erru-
kituta, kendu zizkigun berotasuna baizen besterik ematen ez ziguten
geure jakak eta goian zerbait hartzeko generaman²⁴ janari-otarra-
txoa. Lotsatzekoa zan, baina ez ginan lotsatu: harritu egin ginan.

Aizkorriko bizkarretik ikusten dana ez da beste inondik gure
Euskal Herrian ikusten. Mendiak, mendi anaiak lehenbizi: Ernio eta
Izarraitz, Aralar eta Gorbea, Arno eta Atxu, Oiz eta Anboto, Mando-
egi, Etxalar, Oiluz lez beste asko, egundaino ikusi ez diran gisan, lur
eta herrien gainetik beren buruak jasoaz alkarri begira, uri handi
bateko eleiz-torreak alkarri begiratzen dioten antzera; baso handi
zuhaitzez beteak gero: Uzturre, Otsabio, San Adrian, Elgea, Zاراia,
Sollube, Bizkargi, Andia, Belate eta nik ez dakit zenbat gehiago,
denak ostro berde berriak zeruruntz jasoaz, Jaungoikoari eskaintzen
zitzaizkion lorontzi²⁵ eder batzuk ziruditela; belardiak eta soro lan-
duak hurrengo, zatika-zatika, aldapa eta ibartxoetan zabalduarik zeu-
den zapi lodi mardul batzuen itxuran; euskal uri jakinak oso behean,
geure oinetan batzuk, Kantauri ertzean beste batzuk, lur barruan
askotxo, denak koskor eta kaskar, handienak ere urri eta txiki, gizo-
nen kabiak alkarri erantsita zeuzkatela²⁶ eta kabia horien burualde-
ak gorri-gorri, zeru goi urdinaren handitasun eta apainduriak ikuste-
an txit lotsaturik baleude bezala; ibai eta erreka garbiak non-nahi,
mendi naroak urietara biraltzen dituzten opari onak, baso tartean

²³ *J.t.* zaigula.

²⁴ *J.t.* geramakigun.

²⁵ [Lorontzi: *Florero*].

²⁶ *J.t.* zeukazkitela.

behera murmurrean eta ibarretan zehar dizdizka, ispilu bizi ibilkorren irudira; bideak, alde askotan, indarraren indarrez gizonak uri batetik bestera egin dituan bideak, hor gorde eta hemen agertu, han oker eta haruntzago zuzen, beti estu-estu, danean zuri-zuri, norbaiti hariletik erori zaion hari albainu²⁷ luze baten taiuan; eta azkenez, gizonaren jakituria eta elizatearen erakutsirik handienetakoa, suburdi²⁸ beltza bere burdina lerrotik barruan lasterka, txistuka eta zarrarparrean, harrotasunaren agerpena bezala ke mataza lodi zikin bat kopeta gainean harro-harro daramala.

Cuk ikusi genduan suburdiak bere atzetik utzi zuan kea, apurtxo batean goietan egon eta berehala zabaldu zan, makaldu zan, urratu zan, gutxitu zan, hutseratu zan, gizonik handiienen izen eta entzutea laster asko hutsera etortzen dan era berean.

Benetan! Aizkorri gainetik begiratu ezker, behealdeko gauza guztiak ume jolasak dirudite.

Mendiak bakarrik dira²⁹ handi; mendiak eta beren Egile Jaungoiko ahaltsua.

Eta, hala ere, han zegoan, Aizkorri gaineko elizatxoan, Jesus Jaungoikoaren irudi maitagarria, gurutzean josirik eta apal, oso apal, gizon harroei apaltasuna erakutsi nahian.

Baseliza hartara eraman ginduzan Joanesek, hantxe erakutsi zigun bere anima ederreko sinismen bero eta itxaropen ezitia, hantxe irabazi zidan osora nere bihotza.

Ez zait gehiago ahaztu, nere bizitza guztian, Joanes artzaina.

²⁷ Albainu: hari zati.

²⁸ Suburdi: tren, suzko burdi.

²⁹ *J.t.* dirade.

II

BASERRIA³⁰

Geroago ezagutu nituan, Joanesen oroimen gozoak hartara eramanda, gizon bikain horren etxe eta ondorengoak.

Gogordopeko zelaitxo baten, garometa handi batzuen hurrean, soro eder narotuz inguraturik, bene-benetako patxadan zegoan Zabaleta baserria. Bere alboetan, amari gonetatik eutsika dauden haurtxoak bezala, etxe nagusiari lotuta, bestetxo bi agiri ziran: bata ogi edo artoa erretzeko labea; bestea abere janariak gordetzeko lekua; eta hauekandik ez urruti, zerbait mendi aldera eta beregain, neguan ardiak edukitzeko egileorra³¹. Etxe nagusiaren arpegi aldetik, sarre-rako ate gainean, lore eta usain gozodun belarrez egindako bi sorta legor ikusi nituan, ohitura zaharrari jarraituaz. Done Joane goizean ipiniak, esan zidatenez³²; atearen erdi-erdian erantsita, argizarizko gurutze txiki zapal bat, etzekoen kristautasuna erakutsi nahian.

Toki haien barruan zer zegoan jakin beharrik ba al da? Basetxee-takoak badakite, baina ez itsastarrak: ez da, bada, hain gaizki etorri-ko hauentzat hemen zerbait jartzea.

³⁰ [*Basetxea* legoke hobeto, bada *herririk* ez da izaten basoan, auzotegiren bat gehienez ere; baina etxe bategatik *baserri* esaten ohitu gera eta hala esango det nik ere, noizean behin *basetxe* ipintzeari utzi gabe. Hitz egoki hori belarrietatik sartu dakigun].

³¹ *J.t.* ellor. Egileor: arditegi, eskorta.

³² *J.t.* ziratenez.

Labaldean ez zan gauza handirik: abar batzuk, ia erdi erretako *pala* zatar bi, eta labeoia³³ garbitzeko ipizkia³⁴. Janari-etxean, lastoa eta belar ondua ugari, sapaian³⁵; atxur, eskuare, sarda, txardango³⁶, golde, periki, besare³⁷, gurdi, gurtesi³⁸, orrazi³⁹, kabila⁴⁰ eta uztarriak lur gainean. Etxe nagusian, sartu eta berehala, sukaldea, lasai samarra, euskal baserri guztikoen irudira, etxebizitzarako eta lur-langintzarako behar ziran tresnaz betea. Bertan zeuden, su aurrean, zumitzezko jarleku apalak; eta keak eta urteak leundu zuten txixilu⁴¹ galanta; eta zapaldetan⁴², suila⁴³, murko⁴⁴ eta beste urontzi batzuk, lurrezko txalin⁴⁵ zabalak, erretilu⁴⁶ handi sakonak, zurezko koilara belztuak, eta ogi, tremes⁴⁷ edo artoa edukitzeko otarratxoa; hantxe aurkitzen ziran, hormetatik behera esekita, eltze, tupin, padel⁴⁸, taloburdina, burrunntzi, burruntzali, tanbolin eta kriseiluak⁴⁹; hantxe, bazter baten, beste atxur, lai, hortzbiko, sega eta igitaiak, su egur, azpantar⁵⁰, abarka eta soka zaharren laguntasunean; eta hantxe egon ohi ziran askotan, kezulo azpian, lurruntu, laratzetik⁵¹ behera zin-

³³ Labeoi: labe hobia, labe barru.

³⁴ [Isatsa edo moltsoa].

³⁵ Sapaian: zurrunean.

³⁶ Txardango: karobirako makila.

³⁷ Besare: bost, zazpi edo bederatzi hortzeko goldea.

³⁸ Gurtesi: gurdinari zaborra edo harea garraiatzeko ipintzen zaion hesia.

³⁹ Orrazi: gurdiko zirria.

⁴⁰ Kabila: gurdia geraerazteko egurra.

⁴¹ Txixilu: aulki.

⁴² Zapalda: platerentzako apala.

⁴³ Suil: egurrezko ontzia.

⁴⁴ Murko: pitxar.

⁴⁵ Txalin: zurezko platera.

⁴⁶ Erretilu: plater haundia.

⁴⁷ Tremes: arto ogi.

⁴⁸ Padel: zartagin.

⁴⁹ *J.t.* kresalluak.

⁵⁰ Azpantar: abarka barrutik ipintzeko galtzerdi lodiak; atz mantarrak.

⁵¹ [Laatz, gelatxu].

tzilika, zezinaren itxuran, baserri hartakoen azkaineko⁵² busti eta basaz lohituak.

Eta zer gehiago? Honezkero dena ipini beharko degula uste det, guretzat eman diguten⁵³ etxeko bazterrak ikusten gabiltzala esan badaiteke ere. Sukalde ondoko gelatxo batean zeuzkaten, oramahai, legamia⁵⁴, artirin, galbahe eta arrazkoa⁵⁵, eta gela horretatik atea bitarte, ukuiluan, esne-behi, bigantxa eta zekor gorri lodiak, belar gozoa mauska-mauska jaten, txeritxo bi beren hesi barruan etzanda eta oilo batzuk zitzetan⁵⁶ azterka.

Hauek danak behealdean zeuden. Goian berriz, gizategia, bost edo sei logela, estutxoak, argi gutxikoak, baina garbiak oso, urbe-deinkatu-ontziz eta Ama Maria eta beste done batzuen irudiz nahikoa poliki apainduak; eta gorago, etxearen gailur ondoan, ganbara handi bat, mandio⁵⁷ bezala, gari, arto, babarrun eta sagar umatuak⁵⁸ gordetzeko.

Etxe horretan jaio zan gure artzaina; etxe horretan sortu ziran bere gurasoak eta gurasoen gurasoak; etxe horretara ekarri zuan, behar izan zan egunean, Garibaiko Ana Josepa, emakume maratz⁵⁹, bizkor eta begiratu, besterik inor Garibain bazan.

Sei seme-alaba eman zizkion⁶⁰ Joanesi Ana Josepak, baina etxadi hau guk ezagutu genduanean, hiru bakarrik zeuden bizirik, semeak hirurak. Lehenbizikoa, Jose Ramon, nekazaritzari jarraitzeko etxera ezkondua, Manueltxoren aita, Araozko neskatxa on batekin senartua zegoan. Bigarrena, Inazio Mari, aizkolari trebea, ezkongiaia oraindik, ikazkintzan ibili ohi zan luzaro Aralargo mendietan. Gazte-

⁵² [*Azkiñikoak* esaten diote Oñatin azpantarrari].

⁵³ *J.t.* diguen.

⁵⁴ [Azkarri].

⁵⁵ Arrazko: danbolin, atabal.

⁵⁶ Zitz: zotz, egur ezipal mehe.

⁵⁷ Mandio: bihitegi, aletegi.

⁵⁸ Umatu: heldu.

⁵⁹ Maratz: langile, behargin.

⁶⁰ *J.t.* zizkon.

enak, Juan Andres harri zulatzaile ospetsuak, Oñati ondoko harrobi baten zeukan irabazbidea, etxean lan handirik ez zegoan eretietan⁶¹.

Hirurak ziran morrosko eder sendoak. Oñati aldeko baserrietan ez zegoan Zabaletako semeak bezalako mutilik. Zazpi arroa⁶² bazan bakoitza; handi, lodikote, bulartsuak zeuden; ingurukoen artean eta batez ere behe urikoen ondoan, Herkules batzuk ziruditen; baina ez zan inor beren aita izan zan beste.

—Bigunegi hazi zaituztet —jardun ohi zien harek—, edo ez zerate aitaren semeak. Nik egun berean egin izan det beti hemendik Bitorriarako joan-etorria, oinez, eta zuek berriz zalpurdia behar dezue Bergara edo Zumarragaraino joateko. Zuen *sasoian* aterako nuan nik ipurditik Anbotoko harkaitza bera ere, eta zuek, indartsuak zeratela, laguna behar dezue zuhaitz zirtzil bat gurdira jasotzeko.

Badakigu esate horiek gehiegizkoak zirala, baina, egiaz, bazetorkion nonbaitetik bene-benetako galera Joanesen jatorri sendoari, bada berdineztasun handi eta agiria zegoan artzain horren eta bere semeen bitartean. Zabaleta baserria Gogordopean bezala, Joanesen azpian egon behar izan zuten semeak, indar-auzietan, harek hirurogeta hamar urte zituan arte. Eta gero ere, oraindik ere... *Jum!* Nahia-go zukean Inazio Marik bere indarrak aitarekin baino beste edozeinekkin neurtu. Eta ez aitari itzal handia ziolako bakarrik; itzala zion eta azpiratuko ote zuan bildurra zeukan.

Hiru anaiak ziran kristau onak eta... bai, eleizkoiak; baina ez gurasoak adina. Behealdera zihoazen, mailaka-mailaka, Jaunaren maitetasunean eta animako gauzai zor zaien haretan. Jose Ramon zan kristaurik bero eta zintzoena, gurasoen hurrengo. Hau bai, hau jaiero izaten zan Meza nagusia ikusten, askotan *bezperak* entzuten, nahikoa sarri bere hutsegiteak aitortzen. Azoketara gehiegi joatea kendu ezker, ez zeukan akatsik Jose Ramonek. Inazio Mari, noizean behin animako beroaldi on batzuk izanda ere, askozaz epelagoa zebilen

⁶¹ Ereti: aldarte, tarte.

⁶² Arroa: hogeita bost libra. Hamaika kilo eta erdi pasatxo.

gehienetan. Apostuzalea zan mutila, eta jaiegunean inon dema edo aposturik bazan, toki hartara joateagatik, erraz utziko zituan Meza nagusi, *bezpera* eta beste eleiz-jai guztiak. Meza labur bat goizean entzun eta kito. Gainera, bere buruari gehiegi zeritzon, harro samarra zan, eta jakina, harrokeriak bihotza betetzen duanean, toki gutxi izan ohi da bihotzean gure Jaungoikoarentzat. Juan Andres... ez zan mutil okerra, hori ez, ez zuan ezergatik bere jaiko eleizkizuna utziko, baina hala ere beste anaia biak baino hotzagotzat zeukaten etxeo guztiak. Diru amesetan zebilen beti, dirua nola irabaziko, urrea nondik lortuko. Diru apur bat egiteagatik gau eta egun jardungo zukean lanean edo buruhausten. Juan Andresek asmatutako dema, ziur-ziur zan etxera dirua ekartzekoa.

Ezagutzen zituan aitak, bazekizkian beren animetako argaltasun guztiak, eta ez zuan uzten beta on bat bakarra behar zana semeai esan eta erakutsi gabe. Batez ere jai handien aurrean, menditik etorri eta laster abarkak aldatzen zegoala, edo afalostean, edo ondoen zeritzonean, hasten zan galdezka:

—Azpiak atera al dituzue?

—Bai, jauna.

—Abere-jana ekarri?

—Baita ere.

—Ea bada, *konpesatzera* joan beharko diagu bihar goizean. Jose Ramon, eraman ezak⁶³ heurekin Manueltxo, bide ona ikasi dezan gizagaixoorrek. Hi ere, Inazio, ezingo haiz egon arbiloreak jaio arte. Joan hadi hor Arantzazuko Mendibe A. praileagana: harekin *konponduko* haiz hi... Eta utzi ezak⁶⁴ behin jokorako grina gaiztoa. Jokoa ez da *errenta*, motel. Juan Andresek eta nik Oñatiko eleiz nagusian daukagu gure Aita. Biok joango gera, seme, alkarrekin, anima aberastera, bada animako aberastasuna hobea dek lurrekoa baino, eta iraunkorragoa, gorde nahi badegu. Pedro Antonek igo dezala mendira, eta emakumeak hurrengo baten egingo dute beren eginkizuna.

⁶³ *J.t.* eramazak.

⁶⁴ *J.t.* utzizak.

Hiru anaiak ziran izugarri langileak, eta behar ere bazuten. Gauzak nondik eta nolatan begiraten zaien iruditzen zaizkigu handi edo txiki, eta Zabaletako lurrak Arteagatik edo Aloñatik begiratu ezkeroko huts irudikoak izan arren, txit astunak ziran behar bezala maneatzeko. Txara⁶⁵, gaztainadi eta belardiak neurtu gabe, hamar golde lur bazeuzkaten lantzeko; eta karobia zala, laia zala, atxurketa zala, simaurrak eramatea zala, arto-ipintze edo kentzea, gari-ebakitze edo jotzea, menditik orbel, garo edo gaztainak ekartzea, zeregin handia sortzen zitzaien era batzuetan. Eta berak, etxeoak, egiten zuten dana, batere auzolanik gabe.

Karobia izan ezik. Orduan bai, premiazkoa zan orduan norbaiten laguntasuna. Edonork daki: lurzulo biribil harriz jantzia izaten da karobia, harri-labea. Burua estali gabe edukitzen du, eta aurretik, behealdean, otea eta egurra sartzeko zulo txo bat, ate bezala. Horretarako egun argi aukeratuetan, zamatzen dute barru guztia kareharriz, ekartzen dute otea eta egurra gurdika eta gurdika, sartzten diote ate-zulotik, su ematen diote, eta han egoten dira baserritarrak gau eta egun karobi aurrean, sugarretan, keminetan, gorri-gorri, izerditsu, lukainkari bezala koipea dariela⁶⁶, beti ere otea sartu eta sartu, sua makaldu ez dadin eta beren lan guztia galdu ez dakien⁶⁷. Arretaz egin behar dana da kare-erretzea; lan gogorra da, baina baserritar gehienak bilatzen dute bigungarri on bat, han nonbaiten gordeta edukitzen duten ardao-zahatoan. Zahatoa eskuetan dutela ikusiko dituzue, ahoa zabalik, zerura begira sarritxo, euririk egingo ote duan edo ez nonbait, bada euria kaltegarri handia da karobirako. Askotan iruditu zait neri nekeak eta suak baino zahatokoak bero gehiago ematen ez ote dien⁶⁸. Karea ondo erretzen bada eztei handiak egiten dituzte, eta ezteietan jan galanki, edan galankiago, eta gero mozk... Horra, horra ba esan isilik euki behar nuana.

⁶⁵ Txara: berez emeriko zuhaixka zapala dagoen arloa, beresia.

⁶⁶ *J.t.* dariotela

⁶⁷ *J.t.* dakioten.

⁶⁸ *J.t.* dioten.

Zabaletakoak ez ziran hainbeste ardotara emanak, eta berentzat baino gehiago izan ohi zuten ardoa auzoetako laguntzaileentzat.

Karobikoa baizen lan gaiztoa da gari-ebakitzekoa, baina orduan ere ez zuten ardo-edate handirik egiten Zabaletan. Lana bai zintzo. Jaikitzen ziran goizean goiz, hiru t'erdietarako bai, lo aspertu bat egin gabe; joaten ziran, gosari txiki bat eginda, soroetara, ihintza zegoan bitartean, eguzkiak irten baino lehenago, bedar gaiztoak kentzen⁶⁹, azkenengo artajorratze edo beste horrelako lanen batzuk aurreratzeke asmoan; zazpi t'erdietatik zortziretara jaten zuten gosari hobe —baratxuri-zukua⁷⁰ eta pertzakada⁷¹ bat arto-esne—; eta ordura artekoa ezer ez bazuten itxuretan, guztiak errenkadan jarri, zumea bezala oker egin, beren buruak ia hanketan ipini, eta hasten ziran biziro eta jarraitzen zuten gogotsu, *rist* eta *rast*, bata bestearen lehian, alkarri destainaka, jeupadaka, irrintzika, zeinek gehiago iraun, zeinek sail gehiago ebaki, nork gariko⁷² gehiago lotu, nor nekezago aspertu, buru gaintetik eskukada garia azkar jiratuaz, eguzkitan igitaiari argi eraginaz, kopetako izerdi galanta besoarekin kenduaz, etengabeko arlo luze neketsuan eguerdiko hamabi orduak Oñatiko eleizan jo arteraino. Eta bitartean, gosetzen zanari ez zitzaion debekatzen ogi-amesa, eta egarritzen zanak han izaten zuan ur-txanbila⁷³ arekaren⁷⁴ baten, belarrez estalduta, bertako ur epelari maitero-maitero zangada on bat eman nahi bazion.

Eguerdiko hamabi-hamabietan gelditzen ziran lehenbiziko atsedena egiten. Jartzen ziran lurrean zabal-zabal, aurretiaz begiz jotako kerizpe batean, ipintzen zioten zamau⁷⁵ zuri garbiaren gainean janaria, eta hiru edo lau *Aita gure* esan ondoren⁷⁶, ia mutilak, hura izaten

⁶⁹ [Aihen, zaingorri, belaunbelar, barrabasbelar eta horrelakoak].

⁷⁰ [*Sopa*].

⁷¹ Pertz: “caldero”.

⁷² Gariko: gari sorta.

⁷³ Ur-txanbil: txongil, txantxil, “botijo”.

⁷⁴ Areka: ubide.

⁷⁵ [*Mante*].

⁷⁶ *J.L.* ondorean.

zan jan-ontzitik ahora eta ahotik jan-ontzirako joan-etorri gogotsua, hura irentsi beharra, hura besoak luzatzea, hura ostera bakoitzean ahal zuen adina ateratzea! Ez zan bidean ezer asko galduko, ez; oso ederki ikasia zeukaten kutxara zabalaren azpiko aldetik arto zati handia jartzea. Zer jaten zuten? Hori ere bada ba jakinahia. Ogi-zukua lehenbizi, babarrun gorria edo baba beltza hurrengo, urdaiaz-pikoa gero, eta sagar erreak edo gaztai zati bat azkenean, sagardoa-ren laguntasunarekin. Ez ziran oraindik Zabaletara heldu gaurko baserrietan izaten diran arrautzopil, haragizerra, tripaki gozo eta beste horrelako. Ana Joseparen iritziz, gehiegizkeriak. Gauza horiek eta gehiago auzoko edo erbestekoak ziranean; etxe koentzat nahikoa zan artoa eta babea, ugari eman ezkeru.

Eta egiaz Zabaletako mutilak ez zuten gehiagoren beharrik, betetze on bat egin eta berehala, bata hor eta hemen bestea, lo-kuluxka⁷⁷ bat egiteko asmoetan, zuhaitz azpian etzaten ziranean. Laster asko entzuten zuan aitak, pipa erretzen zegoala, eltxoen zunburruna-rekin batean, semeen lo-zurrunga lodia, eta baita laster deitu ere lehengo lanbideari jarraitzera. Lasterregi, semeen ustez.

Kentzen zuten orduan haiek, astiro-astiro, buruko estalkia, nagiak botatzen zituzten, zorrozten zituzten *dranga-dranga* aingura gainean, igitaien ahoak, jaikitzen ziran noizbait gizonok, eta berriren berriz hasten ziran beren lanean; ez hasi bakarrik, hasi eta ekin, ekin eta jarraitu, aurrera eta aurrera beti, ez goizean baizen alai eta adoretzu; baina bai ederki oraindik, inoren aurrean ez lotsatzeko era onean eta beste edozein basetxeko mutilek baino gehiagoan. Inork ez zukean, ezergatik, nekatu zala esango; baina arratsalde erdirako bat edo bati, izerdia kentzen zebilela, irteten zion honelako esakera batek: *bero zegok gaur, arraietan!* edo: *sail luzea dek hau, egun batean dana egiteko.*

—Aspertu al zerate? —esaten zien aitak, barre antzean—. Zaudete pixka bat, nahi badezue, nik jarraituko det.

⁷⁷ *J.t.* lo kuliska.

Danak jarraitzen zuten. Nola ez? Eta sinestu ahal dezakegu? Horrelako lan gogorrean egun guztia igaro eta gero, afalostean, ilunabarrean, Joanes zaharrak, pipea piztuaz, esne-ontziak lepoan zituala, hartzen zuan mendirako aldapa latza, bere seme gazteak, oso ahuldurik, abereai jana eman eta laster, lotarako gertatzen ziran bitartean.

Ez da horrenbestez amaitzen gariak ematen duan eginkizuna. Metatu behar dira garikoak; eguzkitan legortu behar dira oraindik; harrian jo behar da gogotik galburua, sudur, belarri, aho eta kolkoa ahotzez⁷⁸ beteaz; mailatu behar dira idaurrez⁷⁹ galondarrak⁸⁰, alea galbahe edo arrazkoan garbitu behar da, eta nik ez dakit beste zenbat lan ematen dituan gariak mandiora sartu orduko.

Berebizikoa ibiltzen zan zeregin handiko egun horietan Zabale-tako Ana Josepa. Eta barkatu, irakurlea, beragatik lehenago ezer esan ez dizudalako. Ez beragatik, ez etxe hartako beste enparauakatik. Zabaletakoak ziran, aitatu ditugun gizon horiezaz gainera, Katalin, Jose Ramonen emaztea, etxeoandre on gazte leiala, eta bere semetxo Manuel, bederatzi urteko mutil zoztor⁸¹ polita. Horren hurrengo izan zituzten haurtxoak txarranpinak⁸² eraman zizkien⁸³ zerura.

Eta goazen orain Ana Josepagana. Berebizikoa, nion, ibiltzen zala lan handi egunetan. Goizeko hirurak baino lehen hasten zan deadarka, otoizka eta aginduka, gauza bat bestearen gainean esaten eta egiten zuala, ahora edo burura zetorkion bezala. Jakina zan hasiera:

—*Gurutze santuaren seinaleagatik, gure etsaietatik...* Inaxio, jaiki hadi, eguna dek eta; *libra gaitzazu gure Jauna eta Jaungoikoa.*

⁷⁸ [Aukaz], galburuaren azala.

⁷⁹ [Trailuz]. *J.t.* iregurrez: garia jotzeko makila, “mayal”.

⁸⁰ Galondar: gari hondar, ahotz.

⁸¹ Zoztor: txiki.

⁸² Txarranpin: elgorri, mingorri.

⁸³ *J.t.* zizkaten.

Katalin, piztu ezan sua, txerrientzat zerbait gerta dezagun. Eta ez ahaztu akuiluko txarkarta⁸⁴ ekartzea. *Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena...*; Jose Ramon, abereai bota iezaiek zerbait, gero ez dek astirik izango eta...; *betor gugana zure erreinoa...* Hauspoaren bila al habil? Hara non daukan, emakumea...

Eta horrela beti, hitz, arren eta zereginetan behin ere aspertu gabe. Hirurogeta sei urte bazeuzkan eta ez zuten soroetara eramaten, baina bazuan zeri ekin etxe barruan. Berak egiten zituan oheak, berak txukundu etxea, berak behiak jaitsi, berak gosaria gertatu. Ana Joseparen ustez, harek bezalako baratxuri-zuku gozorik egiteko emakumerik ez zan oraindik sortu. Ezta sortuko ere. Eta oreka berak bezala nork egin? Taloak zeinek erre? Esnetarako artoa, mehe-mehe, zeinek ebaki? Ezin zuan harek, zioen, honelako edo halakoren etxean ezertxo ere jan: *estopaua* tipulaz betea, urdaiazpikoa erregegia, arrautzopila koipe gehiegirekin, nazkatzeko bezala, bilatu ohi zuan. Ez zekiten eta. Jaio egin behar horretarako ere.

Baina bihotz ederraren jabea zan gure etxeoandre zaharra, garbia, behartsuentzat oso emankorra, etxeoentzat eutsia, batzuetan eutsiegia. Hala zioten behintzat Zabaletako aita-semeak, eta haiek bazekiten.

—Jolas handiak izaten dira gurean —esan ohi zuan Jose Ramonek—, zerbait erosi behar degunean. Amak gordetzen du katularrua⁸⁵, eta ezin izaten zaio askatuarazi.

Beti ari gera:

—Ama, dirua behar degu, ba, orain ere.

—Dirua? Beti dirua? Zertarako?

—Manueltxori praka batzuk eta abarketak erosteko.

—Ama Katalinek egingo dizkio prakak heure batzuekin.

—Jaiegunetarako ere bai?

—Baita. Ondo ederrak dauzkak jantzi nahiezta ganbarako haga zaharrean.

⁸⁴ Txarkarta: tangart, euskarria duen egurrezko baldea.

⁸⁵ Katu-larru: dirua gordetzeko poltsa.

—Ederrak, ama, atze eta aurre adabakiz beteak daude eta!

—Ez da axola.

—Eta abarketak?

—Ez dauzka oraindik hain zaharrak.

—Zaharrak ez dauzkala? Hator Manuel, begiratu beio⁸⁶, ama, nola behatzak agiri dituan.

—Josiko dizkiot biharko.

—Behatzak?

—Hara beste... argi-iturri.

—Txapela ere behar du.

—Zer? Txapela? Aita eta semea...! Noiz erosi nion nik azkenen-
goa?

—Orain bi urte.

—Orain bi urte eta ostera txapel berria? Hondatuko zendukete⁸⁷
zuek *Drotxilen*⁸⁸ aberastasuna ere.

—Ez berorren eskuetan balego.

Azkenerako, Manueltxok berak esaten zion, negar-muzinka:

—Erosi beit, amona. Zazpikineko mutilak berri-berria dauka,
eta nik zahar-zaharra. Erosiko al dit?

—Ez, ez, ez diat erosiko: alperrik habil.

Baina erosten zion, bai. Ez erosi behar, alajaina, bere iloba baka-
rrari!

Eta nork esango zukean, etxe koentzat honelakoa izanda, ager-
tzen ziran behartsu guztiai ematen ziena baino gehiago eman nahian
zebilela beti? Bazekiten ondo inguruetakoa eskaleak. Hamaika eskale-
ri eskupekoa emanda gainera bete zien urdaila Ana Josepak Zabale-
tako sukaldean, eta baita lo ederra eragin ere aldameneko guk eza-
gutzen degun sapai hartan!

⁸⁶ Beio: biezaio.

⁸⁷ *J.t.* zenduteke.

⁸⁸ Drotxil: Rothschild. Jatorria Alemanian duen bankero familia judutarra. XIX. mendean pisu nabarmena izan zuten Europako estaturik gehienetan. Oraindik ere, nahiz eta eragin txikiagoz, industria eta finantza munduko jende nabarmena da.

Bazezakean. Etxejauntzako semea zan Joanes. Berea zuan baserria, bereak lurrak, berea basoa. Lan gogorrean bizi izanagatik, hartara ohitua eta berez gogotsua zalako, ez zeukan ogi gabe gelditzeko bildurrik. Pedro Antonek esaten zuanez, Andre Ana Josepak bazekukan urre mordoxkaren bat, norbaiti emanda ere, edo non edo non ondo gordeta.

Pedro Anton etxeko morroi zahar maitea zuten, etxeko seme bezala. Ez zan ezagun Zabaletan zein zan seme eta zein morroi. Mahai baten jaten zuten guztiak, guztiak berdin lo egin, danak egun osoan lanean jardun, danak berdin samarrean jantzi eta behar zan orduan alkarri lagundu. Etxe hartan zaharrenak ziran nagusi, eta beste danak anai-arreba kristau baketsu eta zorionekoak.

Gurutzearen itzalpean zegoan Zabaleta baserria. Han zeukaten gurutzea, sarrerako ate gainean, egiazko anaitasuna erakusten. Ez degu nahi ukatu han ere bazirala argaltasun eta grina batzuk. Non ez? Baina Jaunaren legea zan Zabaletako argaltasunen sendatzaile eta grina gaiztoen lokarri, euskal basetxe gehienetan bezala.

A! Zer izango litzateke gure baserrietan Jaunaren legeko hesi biguna urratuko balitz?

III

BAKOITZA BERE ALDETIK

Iritzi bat gure buruan ernetzen bada, berehalaxe biraltzen ditu sustraiak bihotzeraino, lurrean landareak baino askozaz errezago eta sakonago, eta ezin izaten da gero, dagoan tokitik atera. Lur ona bilatzen du gure animan norbere iritziak.

Zabaletako gure mutil sendoai uste bat sortu eta erne zitzaien: bakoitza beregain jartzea, eta uste hori ernetzen hasi zan ezkeru ez zeuden ondo beren jaiotetxean.

Bazekiten: handiak ziran baserri hartan utzi behar zituzten lanak, baina bilatuko zuten gurasoak nork lan egina; eltze betea zeukaten bertako sukaldean, baina beste baserrietan ere zerbait jango zan, eta beharbada, eltze gozoagoa, Ana Josepak uste izan ez arren. Beti izan ohi da gozoagoa auzoko janaria.

Gainera, berriz, ez du janak bakarrik asetzen gizona. Bakoitzak bere gose eta egarriak ditu bihotzean: ongi baizen hobeto izateko asmoa, lokarri gabe bizitzeko gogoa, maitetasun berriak bilatu nahia eta beste hainbat.

“Handia da lurbira —gogoratzen zitzaion Juan Andresi—: Euskal Herritik ostean zer ikusi asko dira eta irabazpide onak ere bai nahikoa, norbera zerbait azkarra eta langilea izan ezkeru. Zergatik, bada, nik irabazi behar ez det, ahal badet? Dirua irabaztea eta gordetzea baino gauza hoberik ba al dago?”.

Inazio Marik, berriz, berekiko: “Ezingo naiz mutilzahar gelditu —esan ohi zuan—. Nere eltzeari bakarrik su eman behar diot, nere lapikoan sartu behar det neuk irabazitako urdai zatia, eta lukainka muturra ere bai, nahi dedanean. Ni mutilzahar gelditzea, janariz betetako mahai baten aurrean etxeko jauna goseak egotea litzateke, edo herriko agintaria jarleku gabe gelditzea, udaletxean. Ez dago inor, herri honetan, ezkontzeko nik adina aukera daukan gizasemarik”.

Eta egia zioen harroxko harek. Soraluzeko neskatxak, Askontegi, Arzubi, Goienetxe, Balzategi, Eroztegi, Txope, Urtiaga, Aingeru eta Azkarragakoak, danak nahi zuten berentzat gure mutil hau. Eta ez gertukoak bakarrik, baita ere Araoz, Olabarrieta, Urrejola, Zubilaga, Garibai, Zainartu eta beste auzotegietakoak, bada alderdi guztietan zekiten Zabaletako Inazio Mari mutil eder, ospetsu eta etxe onekoa zana. Hamaika neska gaztek begiratu zion samurkiro, inozko aizkora jokoan, enparantzako buru eta agintari txeratu⁸⁹ bezala ikusi zutenean!

Baina ez zekian mutil horrek hainbesteren artean beretzat nor aukeratu. Zaila da aukera dagoanean aukeratzea. Zein izango zan neskatxarik onena? Onena, onena... Ez da erraz jakiten. Ezkongai daudenean, emakume guztiak onak; ezkondu eta gero, erdiak balira! Ezkondu artean, neskatxa danak gordeta edukitzen omen dituzte beren gogo, grina, hutsune eta orainak⁹⁰, behar ez dan orduetan agertzeko. Eta orduan ordukoak. Baina estali gabe edukita ere, giza-seme gazteak ez dakite neska ezkongaiaren txaldankeria⁹¹, seta gaizto eta alderdi txarrik ezagutzen eta, begiak zabalik erabili arren, itsuitsuan ezkontzen dira gehientsuak. Nola ez? Batzuk emakumeen edertasunari begira itsutzen dira; beste batzuek, esan dezagun hobeto, beste askok, neskatxen diru-zorroari begiratzen diote; gutxi buru

⁸⁹ Txeratu: ongi hartu.

⁹⁰ Orainenak, “lunares” esan nahi zukeen agian.

⁹¹ Txaldankeria: ganorabakokeria, sustraigabekeria.

eta bihotzari. Eta ile harroen azpian zentzun gabeko txepetx-buru⁹² asko izan ohi da, eta jantzi apainaren barruan badaezpadako bihotz aldakor txakilak⁹³ ugari.

“Ba, ba! —esan zuan Inazio Marik horrelako gauzak gogoratzean—. Neuk inorekin adiskidetasun berorik ez daukadan ezkerero, amak neurtuko ditu neskatxa ezagunen menduak⁹⁴, amaren begi biziak ikusiko dute garbiro zein dan bere semearentzat emaztegaririk egokiena”.

Horretan zebilen Ana Josepa semeak uste zuan baino lehenagotik eta berak aukeratu zuan azkenean ere honek behar zuan emakumea.

Jaiegun baten Zabaletako etxeoandrea eta Azkarragako Mari Batista janztetxean⁹⁵ bat eginda, honela hizketatu ziran andre biak:

—Zure alabarekin etorri naiz bidean... Ondo neska ederra dago bera.

—Gure Mikaela? Bai horixe. Haren garaian gu ere baginan zer-bait baina...

—Zenbat urte dauzka?

—Datorren ilbeltzean hogeta hiru.

—Ona dirudi.

—Oso da ona, etxeoia eta maratza. Ez neurea dalako, baina ez dago bera bezalako beste bat Uribarrin.

—Zer ezkonsari emango zenioko⁹⁶?

—Ja jai! Horixe da galdera polita, Ana Josepa.

—Ea bada, nik ere ezkongaiak dauzkat eta...

—Bai, bai, guraso geran aldetik gure umeen onari begiratu behar diogu, eta... Baina gurean ez dago zuenean beste diru. Mutil on baten

⁹² Txepetx-buru: txoriburu, buruarin.

⁹³ Txakil: ahul, makal, erkin.

⁹⁴ [Mendu, *carácter*, *prenda*, gaztelarrez].

⁹⁵ Jantzetxe: mezatara joateko baserritarrek soinekoz aldatzeko erabiltzen zuten tokia.

⁹⁶ *J.t.* ziñoko.

beharra bai: aurten ere leher egin degu garia jotzen eta inaurkinak⁹⁷ ekartzen. Bai ba, zahartu egin gera ba. Gure Antonek ere, honezkero, hirurogeta bosten bat urte izango ditu, senar-emazteak eta alabatxo bi bakarrik gaude, eta lanak dira hemen.

—Orduan ez litzateke gaizki etorriko zuentzat gure Inazio Mari.

—Ez horixe, ez Ana Josepa, eta biok ulertuko⁹⁸ bagina...

—Uler gaitezen. *Tira*, zenbat emango diozue zuen alabari?

—Baina gure etxerako.

—Bai ba, zuenerako. Zenbat?

—Ez dakit ba nik ba. Bostehun dukat⁹⁹ edo.

—Zer diozu, emakumea? Bostehun dukat Azkarragako alaba zaharrenari? Ikatzagakoak ere badu horrenbeste, maizterrak dirala gero.

—Ea bada, besteak ere, ezkontzen danean, zerbait izan beharko du eta. Zeuek zenbat emango diozue mutilari?

—Guk zortzirehun dukat eta bi etxebizitza¹⁰⁰.

—Ez gabiltza ondo, Ana Josepa. Zabaletako mutilak *nahi lituzke*, gutxienez, mila dukat eta berak ikazkintzan irabazitakoak, bi etxebizitza, bi behi, hogei bat ardi, gurdi bat...

—Ezin ulertu geinkez¹⁰¹, Mari Batista.

—Ez al dezu nahi?

—Nahi izatearekin zer daukagu? Mila dukat eta ez dakit zenbat ondasun gainera eman behar guk, eta zuek bostehuntxo? Izango du Inazio Marik mila dukatekoa, berak zortzirehun eramanda ere.

—Ez da, ba, zuentzat gauza haundia mila dukat... Hara, zuek mila eta guk zazpirehun. Gero ere, zuen mutilori Azkarragara badator, etxean geldituko dira gure *puskak*¹⁰². Ez dago gehiago zeresanik.

⁹⁷ Inaurkin: ganaduari azpiak egiteko belar zikua, ira edo delakoa.

⁹⁸ [*Konponduko* esan zuala uste det].

⁹⁹ Dukat: aldiko diru mota, «ducado».

¹⁰⁰ [Bi *arreo*].

¹⁰¹ *J.t.* geinkez.

¹⁰² Puska: arreo.

—Zeresanik ez, ostera? Bai, Mari Batista, bai. Hau ez da hasiera baino besterik. *Eskribauak* gure paperak egin orduko zeresan handiak emango dizkigu gaur hasi degun autuak. Gainera, gure Joanesek ondo jakin, ondo ikusi eta ondo neurtu nahi izaten ditu seme-alaben gorabeherako gauzak. Ni naiz Zabaletako etxeoandre, baina nere senarra beti etxeo jaun, eta berari dagokio Zabaletako gauza guztiak erabakitzea.

—Ba, Joanesek, zentzunezko gizona da eta mila dukat emango dizkio¹⁰³ semeari.

—Berriz ere? Gogoan hartu dezu zeure eskabidea; baina alperrik zabilta nerea ahazten bazaizu.

—Guk ahal degun adina, ahal degun guztia emango diogu, horra.

—Ez dago gaizki esana. Zer meza entzungo dezu datorren igandean?

—Zortziretakoa nik.

—Hemen izango naiz ba, ni ere, Jaungoikoak nahi badu, eta agur. Igandera arte.

—Agur.

Andretxo biak gogamen batekin aldendu ziran: egun hartan hasi zuten leloari nola bukaera on bat emango zioten.

“Ez da gaitz izango —esaten zuan beretzat Mari Batistak—. Ana Josepak nahi du, igarri diot, eta horrek nahi duana egingo da Zabaletan. Baina askatu beharko du ziskua¹⁰⁴, bai, Jaungoikoak laguntzen badit. Urregorritan ekarri beharko ditu mutilak ezkontza-diruak, horiek urre borobil asko omen dauzkate eta. Noizko dituzte ontzako zaharrak? Esandako gauzen gainera, nahi litzateke beste zertxobait.

Atxur batzuen beharrean gaude, ondo etorriko litzazkiguke lai berriak... Ikusiko det etxean zeren premia daukagun... Urbiako zelai zatitxo bat emango baligute¹⁰⁵... Eskatu behintzat lehenbizi, eta gero,

¹⁰³ *J.t.* dizka.

¹⁰⁴ Zisku: poltsa.

¹⁰⁵ *J.t.* baliguteke.

ezin bada, gogorrean badaude, utziko zaio. Jaungoiko maitea! Sitsak jandako habe ustelak geunden Azkarraga jaso ezinik, baina habe zindo berria datorkigu etxea erori ez dadin.

Inazio Mari, zeruak zakarrez, geurea zera, ez didazu igesik egingo”.

“Urteak ere aurrera doazkio eta —zioen bere artean Ana Josepak, Zabaletarantz zihola—, nonbaiten sartu behar nuan nere semea. Etxe ona eta andre hobea izango dituala deritzot. Aspaldietan neukan nik begiz jota Azkarragako neskaxa zaharrena; ez det beraganakoa gaur goizeko amesa. Eta nola erantzun dit Mari Batistak! Bigunago zegoan sasiko masustarik helduena baino. Ba! Inazio Mari bezalako mutilik ez da soro bazterrean bilatzen. Jokozalea ez balitz... Arantzazuko Amari *Salbe* bat, jokorako grina kendu deion¹⁰⁶: *Jaungoikoak salba zaitzala Erregina, erruki biziaren Ama, gure bizitza, gozotasun eta itxaropena...* Damu det zerbait gehiago eskatu eza, baina ez da oraindik berandu... *Zuri deiez gaude Ebaren ume erbes-tetuok...* Eta ondo garbi ipini beharko da paperetan beste alabari zer agintzen dion, bihar edo etzi nahasterik izan ez daigun... *Zuganako suspirioz eta negarrez gaude...*”.

Bi ama horiek buruhauste gogorrean jardun zuten egun haietan. Batak eta besteak, alderdi guztietako aztarnak ondo hartuta, jakin zuten norainokoa zan auzokoen ondasuna, eta estaldu zuten norberrea oso amarruki¹⁰⁷; biak, gonadun Meternik¹⁰⁸ batzuk bezala, egin zituzten eginahalak gaitasunik handienarekin, alkar zuritzen eta zilibokatzen¹⁰⁹; biak galanki eskatu eta labur eskaini zuten, bakoitzak bereari gogor eutsiaz; biak ibili ziran jatorduan eta lotorduan, egunez eta gauaz, esna eta amesetan, isiltzake, beti gauza bati eraginaz; honenbeste *koltxoi*, horrenbeste maindire, horko behia, hango moxa-

¹⁰⁶ *J.t.* daion.

¹⁰⁷ Amarruki: maltzurki.

¹⁰⁸ Meternik: Metternich Winneburg. Politikari austriarra, kanpo arazoetako ministro (1773-1859).

¹⁰⁹ Zilibokatu: ziria sartu.

la, goiko zelaia, beheko inaurkina; ezin neike, badezakezu, ez dauka-gula, badezutela, ez danean ez da, nahi danean ahal da; nondik baina, zenbat bada, geuk zer jango, nola biziko, besteai zer emango; haserre eta adiskide, azkor¹¹⁰ eta makal, ezetz eta baietz, atzera eta aurrera, gora eta behera; baina, azkenean ere, behin edo behin, Joanes eta Antonek alkar harturik erabaki eta korapilatu zan Mikaela eta Inazio Mariren ezkontza.

Gurasoak lanbide hori zerabilen bitartean, gure gazteak ia ez zuten alkar ikusi. Gehienez ere, ustegabe inon topoz-topo egin bazuten, bata bestearentzat egokiak zirala irudituaz eta zerbaiten berri bazekitela aditzen emateko, parre-irri gozoz agurtu ziran, edo hitz lotsati erdikaren batzuk esan zizkion mutilak neskatxari.

Honelako gertaerak ikustean, esan dezake norbaitek ez dala ondo seme-alaben ezkontzak gurasoen artean egitea, haien berri gabe askotan. Izan leike: neuk ere esan det lehenago beste nonbaiten, guraso batzuk, berekorregiak eta diruzaleegiak diranean, erraz dala zorigaiztoko elkarteak egitea; baina aitortu behar det gaur, egiaren alde, badakitela gurasoak, honelako zereginetan, etxea jasotzen, ez bakarrik seme-alaben kalte gabe, baita ere haien zorionari begiratuaz; sarri ikusten dutela ezkongaiak nolakoa dan gazteak baino askozaz hobeto, eta ez dirala beti txarrenak izaten gurasoak korapilatu dituzten ezkontzak.

Eta, dana dala, Inazio Mari eta Mikaela ezkondu ziran behintzat eta ezkonduak gelditu ziran betiko.

Jorrail ederreko asteazken baten, goizeko hamaikak aldean, Zabaletatik Azkarragara dagoan gurdibidetik behera zihoazen, basotuntuna aurretik zutela, neska-mutil pila batzuk, oso apain, txit alai, guztiz urduri, egundokorik txoroen, deadar lekaio¹¹¹ barregarriak eginaz eta *dantzan* ezin asperturik. Apur bat atzerago zeramatza-ten¹¹² gizon soinekoz, ohe-jantziz eta etxe eta lanerako tresnaz ongi

¹¹⁰ Azkor: bizi, bizkor.

¹¹¹ Lekaio: uju, zarata.

¹¹² *J.t.* zeramazkiten.

zamatutako gurditxo bi, irrintzi bezalako, negar itxurako edo kurrixkaren¹¹³ antzeko soinu luze, ezti edo latz, atsegin edo mingarrian, beti ere *juüim jüm jüm... juim jüm jüm... grrast grrast* ardatzari eraginaz. Soinu hori, baserritarrentzat, ezti leun eta atsegingarria izan ohi da, eta herritarrentzat, asunarekin lepoan ikutzea bezala.

Egun alaia zan. Zerua, batere hodei gabe, osoro urdin zegoan; mendi gailurrak, elur-estalki eta laino-txapelak kendurik, garbi-garbiro agiri ziran, ardi zuri otzanez hornituak; zelaiak, ezko¹¹⁴, naro eta loretsu zeuden; zuhaitz batzuk hosto berri makalez jantziak, eta beste batzuk, jantzi nahian, lehertu beharreko orri-buru berdez beteak; baraztetako baba landarak, elorriaren loreak eta sasietako arrosak usain on bigun-biguna zabaltzen zuten; gari sail ederrak, haizetxoarekin jolasean bezala zabunean zebiltzan, beren buruakin alkarri mun eginaz; txenara¹¹⁵ bizkor eguzkizaleak, zeru aldean, inoiz baino gorago eta azkarrago, txirrio-txirrioka; txoriandra¹¹⁶ hego-zabalak, belardietan janari bila, noizean behin buruak jasoaz, ernai zeudela adierazi nahirik; tarin, kardantxulo¹¹⁷, txirriskilo¹¹⁸ eta berderoiak¹¹⁹, bata bestearen atzetik jirabira bizi-bizian, inon ere gelditu ezinda; lehenbiziko tximeletak, badaezpadako ibilera laburretan, hegaka ikasten, sasitik zelaira eta zelaitik zuhaitzera, nagi-nagi eta motel-motel; eta erle pitin langileak, lantegi bila edo lore gozoen kolkoan sartuta, bakardadean, isilik eta arlotsu, beren arazoari ezerगतik utzi nahi ezta.

Tuntuna eta gurdien soinua aditzean, soro lanetan zeuden auzo-etako nekazariak, gizon eta emakume, beren besoak atxur kirtenaren gainean tolestatuta, ezteietakoai begira gelditu ziran danak, urruti

¹¹³ Kurrixka: gurdiaren zarata, negar.

¹¹⁴ Ezko: heze.

¹¹⁵ Txenara: enara.

¹¹⁶ Txoriandra: larratxori (alondra).

¹¹⁷ Kardantxulo: kardantxori (jilguero).

¹¹⁸ Txirriskilo: "verdecillo".

¹¹⁹ Berderoi: "verderón".

aldetik; batzuk zer gizadi zihoan ikusi nahian; beste norbaitzuk, batez ere neskatxak, ondamuz ezteietakoakatik zerbait esateko gogo handiarekin.

Sorotik sorora hasi zuten hizketartea, deadarka:

—Jas! Hori gizadiz doa¹²⁰!

—Larogei baino gehiago omen dira bazkaritan.

—Ez daramate iskanbila makala! Horiek barre-algarak!

—Zein da, han aurrean, besoak zabalik eta bira-biraka, goru-ardatzaren irudira dabilen hura?

—Zein izango da? Peru Odolki.

—Ai, alper, trakets, ardozalea! Bilatuko du bai horrek ardoa eta jolasa non dagoan.

—Bai, bai: horregatik ere esan dezakegu lehenagokoogatik ziotena:

“Hankak arinak eta
Burua arinago,
Dantzan hobeto daki
Artajorran baino”.

—Ixo, ixo. Ikusten al dezue *arreo*a, bi gurditan?

—Ufa! Zenbat gauza eder! Daukanak agertzen du behar danean.

—Min hartuko zuan ba Zabaletako atso zimurrak, baina eman egin behar, Azkarragara semea sartuko bazan.

—Ez du ez Ana Josepak toki txarrera bota begia. Mikaela bezalakoak gutxi.

Talo itxurako arpegi zabal borobil eta matraila¹²¹ gizen gorridun atxur neska batek:

—Mikaelak dirua ugari, dirua. Dirua kendu ezker, hura beste-ko neskatxak badira.

Aldameneko agure zahar alargun batek, barrez eta isil antzean:

¹²⁰ Hori gizadiz doa: ha zer jende pila doan.

¹²¹ Matrail: masail, belarrondoko.

—Zeu bat, ezta Luisa? Zeu bat. Nahigabetan zaude, gaixoori, ezteietara deitu ez dizutelako; baina zu eta ni ezkontzen geranean, geuk ere ez diegu deituko.

Hurreko atso guztiak.

—Ja jaiiii! Horixe da *umorea!*

Urrutiagokoak, ahoa zabalik:

—Zer dio Pedrok, zer dio?

—Luisarekin ezkontzen danean, ez dietela¹²² Azkarragakoai ezteietara deituko.

—Ijijiji! Baina guri bai, Pedro, guri bai.

Luisak, haserre, suak harturik eta sokorra¹²³ joaz:

—Jolaserako gogoan bizarra daukazue.

Pedrok:

—Ez al deritzozu ondo?

Luisak:

—Ezkon zaitetz Anbotoko sorginarekin, nahi badezu.

Ezteietakoen oihu eta zantzoak mendi-oihartzun guztiak esnatu eta inguruko gizadien bihotzak bizkortzen dakite; egun eder argiak, gosari onek, lanik ezak eta tuntunaren soinuk indar handia dute gogamen nahigabetsuak kendu eta hankarik astunenak astintzeko; baina, hala ere, ez zihoan gure Joanes oso pozik bere semearen ezteietara. Zer ote zuan? Aditu dezagun Inazio Marirekin zeraman jarduna.

“Atzo artean ez det nik ezer jakin Juan Andresen ahotik. Garai onean oroitu zaio bideak egitera joatea, garai onean, zuk etxetik irten behar dezun egunetan! Hemen hurrera izan balitz ere, baina nora eta Gaztelerrira! *Atzerri otsoerri* esan ohi da, eta hala gertatzen da gehienetan, bada erbestekoari ez zaio inon ere hain ondo begiratzen, eza-gutu artean behinik behin. Nik badakit *beltz guztiak ez dirala ikatzak eta zuri guztiak irinak ere ez*; nik badakit, Gaztelerrian ere giza-

¹²² *J.L.* diotela.

¹²³ Sokor: lur pila.

di onak badirala, gure artean gaiztoren batzuk diran bezala; baina ezin asmatu neike zeintzuekin batuko dan gure Juan Andres. Nolanahi ere Burgos aldean ez du euskerarik bilatuko behintzat, eta euskerari uzten badio, euskalduntasuna ere hor nonbait ibiliko da euskerarekin batean. Gordeko ahal du gure euskera maitea bere bihotzaren erdian, *Aita gurea* esateko bada ere. Ez ahal du galduko etxetik daraman garo usaina! Ona izango ahal da dabilen tokian!

Baita zu ere; ona izango ahal zera, seme. Adi ezazu aitaren esana nere mendetik zoazkidan¹²⁴ orduan. Gaurtik aurrera lan berriak izango dituzu eta orain artean baino lan handiagoak, baina ez ikaratu. Bildur bat bakarria izan behar du gizonak: Jaungoikoarena. Itxaropen bat: Jaungoikoagan.

Zaharrak eta nekatuak bilatuko dituzu Azkarragako nagusi-etxeakoandreak. Begiratu iezaiezue¹²⁵ guraso bezala, gorde iezaiezue ile zuriai zor zaien¹²⁶ begirunea. *Goiz guztiak dute beren arratsaldea*. Zahartuko zera zu ere, bizi bazera, eta egin ezazu orain gaurko zaharrakin zure buruari ordurako opa diozuna.

Izan zaitetz etxearen zaintzaile, argalen indargarri, emaztearen lagun zintzo. Emazte ona hartu dezu, baina ez uste izan akats gabekoa dala. Danok dauzkagu geureak eta horrek ere bereak izango ditu; baina dana leuntzen du maitetasunak... Nahitanahiezkua da gurutzea jasotzea. Nahigaberen bat, ezbeharren bat datorkizunean, hartu ezazu patxadan, alperrikako haserre gabe. Haserrearekin gauza on gutxi egin ohi da, patxadarekin behar dan guztia behar bezala.

Jaungoikoak seme-alabarik ematen badizu, hazi itzazu bere maitetasunean edo egin ezazu horretarako ahalegina. Gero, beren erruz okertzen badira, zuk ez dezu zer erantzunik izango”.

Entzun ote zuan Inazio Marik aitaren jarduna? Entzun bai; entzun bakarrik, zorionaren atarian gazte zoroak gizon argi nahigabetsuaren hileta ilun gogaikarria entzun lezakean irudira...

¹²⁴ *J.t.* zoazkitan.

¹²⁵ *J.t.* zaiezute.

¹²⁶ *J.t.* zaieten.

Azkarragara gure aita-emeak iritsi ziraneko, han zeuden beste bazkaltar¹²⁷ guztiak etxe aurreko larrainean, ohi dan bezala, jolasak utzita, Inazio Mariren etxe-bizitzea ikusten. Jostuna eta Ana Josepa ziran erakusle. Biak zeuden arazoaz gorri-gorri eginda, baina Ana Josepa batez ere, buruko zapiaren azpitik, belarrondotik zehar, ile motz zuri batzuk irteten zizkiola¹²⁸. Ez dakit nik etxeakoandre hau zerk zeukan hain kiriotsu¹²⁹ eta urduria: edo Juan Andresi laster agur egin beharrak, edo lagun, ahaide eta auzoko askoren aurrean Zabaletakoen eskuzabal, emankor, joritsua¹³⁰ erakutsi nahiak. Nik ziur dakidana da nahiago zukeala Ana Josepak Gipuzkoako andre danak Azkarragako larrainean egon baziran orduantxe. Bai, ipuinak esaten ziran beragatik, baina ondo egingo zituan harek bere gauzak. Ikusi zezatela. “Hara hemen¹³¹ —zioen—, bi manasta¹³², berri-berriak, lanerako... Hara laiak, hiru igitai, lau atxur eta basorako bi aizkora. Erabiliak daude, baina onak dira: lehengo astean zorroztu ditu Manuel Motzak... Hara bi lo-mahai, Jose Martini erosiak... Hara sei esertoki. Bitoriatik ekarri ditugu, eta ez merke-merke... Jaitsi iezadazue¹³³ kutxa hori gurditik... Astuna dagoala? Bai ba, bete-betea dakargu eta. Begira zer datorren barruan. Bat, bi, hiru, lau: lau galtza urdin astegunetan janzteko. Beste lau jaka, horiei dagozkienak¹³⁴. Beste bi galtza eta bi amila¹³⁵, neuk irundako¹³⁶ ehunez eginak, soro eta basorako. Azokan erosten diranak baino gehiago iraungo dute horiek, bai... Beste bi galtza eta bi amila, oihal lodizkoak, jaiegune-

¹²⁷ Bazkaltar: bazkaltiar, bazkaltzera konbidatuak.

¹²⁸ *J.L.* ertetzen ziotela.

¹²⁹ Kiriotsu: artega.

¹³⁰ Joritsu: aberats, ugaritsu.

¹³¹ [Horrelaxe erakusten dira ezkonberrion etxebizitzak Goierri aldeko baserrietan].

¹³² *J.L.* banasta: otzara txiki.

¹³³ *J.L.* jexi zadazute.

¹³⁴ *J.L.* dagokizkoenak.

¹³⁵ [Jaka].

¹³⁶ *J.L.* *irutako*. *Irun*: ardazkatu, goruetan egin.

tarako; eta gaur jantzita dauzkanak gainera... Hara elizkizunetarako soin-gain luzea, *kapa*: ez da gaurkoa, neure aitarena zan, baina ez dio sitsak ikutu oraindik... Bat, bi, hiru... hogeta lau sudurzapi, berri-berriak. Hamabi alkondara, urdin eta gorri, algodoizkoak. Artilezko kaltzerdiak hamar *pare*¹³⁷, aitaren eskuetatik irten duten egintzarik onenak. Beste sei *pare*, ile bigunagoz errainak antolatuak. Bost *pare* abarka, lau lanerako eta bat jaietarako. Bost *pare* abarketa. *Zapatak pare* bat, eta soinekoak gainera”.

Bilerako gehienak erdian hartuta zeukaten Zabaletako etxekoandrea. Emakumeak, jantziai ikutuka, nolakoak ziran eta nola josiak zeuden begira zebiltzan; gizonezkoak, beren behatz lodiak aizkora-igitaiei ahoetan erabiliaz, atxurrez zelaia joaz edo laiakaz lurra jasotzeko itxurak eginaz. Mikaela etxera sartu zan zerbait aldatzera; han barruan zebilen Mari Batista ere, beste emakume batzuekin, mahaiaik janzten, noizean behin larrainekoai begiratzea utzi gabe; Inazio Mari, Antonekin batean, behiai jana ematen zegoan, ukuiluan; Joanes, ate ondoko jarlekuan eserita, pipa erreaz, nahigabetsu, antzinetako gauzak gogoratzen; Joan Andres, Azkarragako leiho nagusitik etorkizunari gozoro begira.

Ana Josepak, joandako edo etorri beharreko gauzak gogoan zituan ez dakit, baina axola handia zerabilen eskuarteko zereginen.

“Ekarri orain beste gurdi horretakoak —agintzen zuan—. Hara hemen sei ohe-bigungarri¹³⁸, ondo beteak; sei buruazpiko¹³⁹, sei bergarri¹⁴⁰, bi berriak eta lau zaharrak, danetara behar da eta... Arasa-kutxa horretan datoz gauza zuriak. Bat, bi, hiru... hogeta lau maindire, ehun lodizkoak; hogeta lau burkozorro¹⁴¹, danak berdinak; hamabi alkondara, kirruzkoak¹⁴²; sei ohe-estalki, zuri, mehe eta gar-

¹³⁷ [Biko. *Pare* esaten zuan beti Ana Josepak eta *pare* ipini beharko degu].

¹³⁸ Ohe-bigungarri: [*Koltxoi*, gaztelarren hizkeran].

¹³⁹ Buruazpiko: [Burko. *Almohada*].

¹⁴⁰ [*Mantas*].

¹⁴¹ [*Fundas*].

¹⁴² Kirru: kalitate oneko lihoa.

biak; zamau¹⁴³ handi bat sei txikirekin, eta sei legorki, batere erabili gabeak... Atoz¹⁴⁴ honera, Mari Batista, etxeko lanak nork egina badaukazu eta. Begira ezazu: hauek dira paperean ipinita daudenak. Hauek eta zortzirehun dukat urretan eta gurdi bat behi birekin. Nahikoa dala uste det baserritar batentzat. Baina beste oparitxo batzuk ere badakartzagu: nere senarrak horrako eliz-oihala, *mantelina*, amarauna baino meheagoa; Jose Ramonek urbedeinkatu-ontzia, aingeru eta guzti; Katalinek sei pare kaltzerdi, harizkoak; Juan Andresek pertz horia, esnea egosteko; Pedro Antonek Arantzazuko Amaren irudia, eta nik gorua eta goru-txapela, zilarrezko hariz *Santanako mojak* apaindua. Goru-txapel hau baino politagorik ez dezue ikusi”.

Azkenez, “orain dirua eman eta kito” esanaz, sartu zuan bularrean eskua, atera zuan sudurzapi urdin zimur bat, pelota bezala biribildua, askatu zizkion korapiloak, jarri zuan kutxa gainean, eta agertu ziran urregorri zaharrak: hogeitazko, hamar ehun errealeko, bost larogeiko eta berrogeiko bat. Estutu zan gizadizko hesia kuxtaren jiran. Danak ikusi eta ikutu behar zituzten urreak. Mari Batistak banan-banan eskuetan hartu, bat edo bat buruko ilean igortzi, besteren bat harri gainean jo, hiru edo lau aldiz zenbatu eta lehengo sudurzapian berriz lotu bitartean, ez ziran aldamenekoak isildu:

—Lehenago ere nahikoa igortzi hartuak daude.

—Onak dira, bai. Asko bageneuzka¹⁴⁵...

—Ederrak. Gure astoaren arranak baino soinu hobea dute.

—Zenbat ardo edan leiteke diru horiekin!

Ana Josepak amaitu zuan hainbeste lan eman zion arloa, jarri zan Bitoriatik ekarritako eserleku baten, erabili zituan inguru guztian bere begi nabarrak, atseginez, *zer deritzozue?* galdetuko balu bezala, eta gero, buruko zapia askatu, belarrondoko iletxoak behatzakin jaso eta lotu zuan ostera zapi hori, txiztanak¹⁴⁶, belarritxo biren irudira, tente eta larden jarriaz.

¹⁴³ [*Mantel o servilleta*].

¹⁴⁴ Atoz: zatoz.

¹⁴⁵ *J.t. bageunzka*.

¹⁴⁶ Txiztan: zapia buruan lotuta ateratzen diren adartxoak.

Orduantxe atera zituzten bilerakoak ezkonberrientzat zekartzaten¹⁴⁷ eskaindeak¹⁴⁸. Honek, urre itxurazko belarritakoak (itxurazkoak bakarrik, bost errealean ez zegoan hoberik eta); harek, herrirako esku-atorra; besteak, Mezatarako liburua; hurrengoak, euri-estalpe-txoa; urlia izebak azpirako gona gorria; sandia lehengusuak sukalde-rako hauspoa; auzoko lagun batek titare eta jostorrazt ontzia...

—Gutxi da, baina barkatu —zioten eskaintzaile danak; eta guztiai parkatu zieten eta baita eskerrak eman ere zekartena zekartelako. Hartu, hartu, *artuak* ematen du ogia eta.

Badira emakume batzuk bidean bilatzen dituzten txotx guztiak etxera eramaten dituztenak, nahiz eta etxean gurdikada egurrak saltzeko euki. Horietakoak ziran Ana Josepa eta Mari Batista. Etxekoandre bi horiek Azkarraga eta Zabaletako ganbaretan gordeta zeuzkaten tresnak nolakoak ziran ezin sinestu liteke ikusi gabe: galtza eta abarka zaharrak; atorra eta gona zatiak; kaltzerdi, jipoi¹⁴⁹ eta gorontz¹⁵⁰ erdikak; hondorik ez zuten tupin, pertza eta padelak; mutur, kirten eta belarri gabeko pitxar eta bonbilak¹⁵¹; katilu hausiak, burdina zatiak, piper potoak... zer ez? Dana biltzen zuten arretaz, dana omen zan zerbaiteko, eta ez omen zan ezertxo ere alperrik galdu behar, ezta hari albainu bat ere.

Baina ez horregatik uste izan, irakurlea, garai danean, ez dizute-la emango gure baserrietan zure gosea asetzeko adina, eta zerbait gehiago. O! Garai danean, ez dago inun euskal etxekoandrea bezalakorik jan-edana ugari jartzen, ezeren erruki gabe.

Azkarragako ezteietan Mari Batistak ipini zuan janari guztia inork ez daki zenbateraino izan zan: ogiak, anegaka¹⁵²; barbantzuak,

¹⁴⁷ *J.t.* zerkarzkiten.

¹⁴⁸ *J.t.* eskinde (eskaintza, opari).

¹⁴⁹ [*Chaqueta*].

¹⁵⁰ Gorontz: "corpiño".

¹⁵¹ Bonbil: botila.

¹⁵² Anega: "fanega". Berrogeita bost-berrogeita hamar kilo inguruko neurri zaharra.

iminaka¹⁵³; urdai-lukainkak, arroaka; azatan, baratzatxo bat; ukui-luko zekorrik handiena oso-osorik; arkumetan, artalde polita; oilitan, lau edo bost etxetakoak; esne eta arrautzatan, inguruko guztiak; ardo-sagardotan, errotarri bat erabiltzeko beste. Gutzik eramango dio euskaldunari jaten eta edaten, baina Azkarragako ezteietan danak ziran euskaldunak eta ezin geinke jakin zeinek gehiago egin zuan. Guztiak bete zuten urdaila galanki, guztiak lasaitu zuten larrua ezin gehiagoan, ia eztanda eragin artean, baina ez zan inor lehertu. Ez, ez zuten oker handirik izan: gizonen batzuk, inoiz baino gehiago eta adiskidetasun handiagoan hitz egin beharra, lehenbizi; dantzan egiteko gogoia edo ezkonberrien alde hitz neurtuak esan nahia, hurrengo; toteltasun apur bat geroxeago; zuzen ibili ezina ilunabarean; neurriak gainez egitea, etxerako bidean; eta lo ederra, azkenez, ohea harrapatu zutenak ohean, eta Peru Odolkik Goienetxe aldeko soro ertzean.

Bazan gizon bat, hala ere, gau hartan lo handirik egin ez zuana: Joanes. Jankar¹⁵⁴, nakar¹⁵⁵ eta zurbil igaro zuan egun guztia gizagai-xoak; ardoa bakarrik hartu zuan, ardo pixka bat, bere animako mikaztasuna itotzeagatik; baina ez zitzaion ito, azalean zebilkion, igarian bezala, bihotzaren erdian atzamarka eginaz. Ohe eder garbia jarri zioten Joanesi Azkarragan bertan, baina ezin zuan ezertara lorik erakarri: esna zegoan, esna eta larri, bero eta kiskal, behingotik behingora buru, hanka eta besoak haruntz eta honuntz aldatuaz, eta beti ere gogamen bat zetorkion bihotzetik ahora:

—Mutilaren burubidea! Nora eta Burgos aldera!

¹⁵³ Imina: anega baten laurdena.

¹⁵⁴ Jankar: jangar, jakan, jateko gogo barik.

¹⁵⁵ Nakar: gogorik gabe, borondate barik.

IV

LANDARE BERRIAK

Manueltxo zan Zabaletako giza landare berria, eta txit maite zuten etxe hartako denak.

Landare berriari beti begiratzen zaio zaharrari baino pozago eta arreta gehiagorekin. Zaharrak zer eman duan jakiten da, baina ez gazteak zer eman dezakean. Zaharra gogorra izan ohi da, sustraitsua, edertasun gabea, bere ohiturari eutsia, txertatzen gaiztoa. Gaztea, berriz, hezea, polita, biguna, guria, txerterraza. Zaharra, inausten¹⁵⁶ danean, zapuztu egiten da, gazteak indar berria hartzen du. Zaharrak beti dauka zer erantzun, gazteak beti zer ikasi. Gaztetan egin behar da lan, zahartzan gauza onik izatea nahi badegu.

Horregatik zaintzen zuten hain ondo Manueltxo bere gurasoak eta bere aitonak. Argia zan mutila; oso poliki zekian irakurtzen, bere izena paperean jartzen zuan, edozein baino gehiago zan kristau dotrina *buruz* esaten, eta horrela zekizkian beste gauza on batzuk. Neguko gau luzeetan, *errosarioa* esan eta laster *Testamentu zaharreko eta berriko Kondaira*¹⁵⁷ eskuetan hartzen zuanean, ahoa zabalik eta lerdia zeriela¹⁵⁸ egoten ziran danak, baina Ana Josepa eta Joanes beste guztiak baino gehiago.

¹⁵⁶ Inausi: kimatu, adarrak ebaki. *J.t.* inausitzen.

¹⁵⁷ Lardizabalek izenburu horrekin 1855ean atera zuen liburua du aipu.

¹⁵⁸ *J.t.* zerieta.

—Ez dek makala —esan ohi zuan amonak—, horrelako liburu handia parra-parra irakurtzeko.

Eta *Jose Ramonek*: —Irakasleari eskerrak badaki zerbait Manueltxok. Harek egingo digu gizon gure mutila.

Aitonak: —Harek eta guk, lagun gaiztoak okertzen ez badigute. Irakasleak eta gurasoak adina edo gehiago eta beti errezago erakutsi ohi dute lagunak, eta horien bildur behar.

Jose Ramonek: —Bai herri handietan; baina hemen? Hemen, aita, Manuelen lagun guztiak baserrietako umeak dira, mendi-mutilak, ogi bedeinkatua bezalakoak.

Aitonak: —Ai, danak balira, Jose Ramon, ai balira!

Beste giza landare bat erakarri zuten Zabaletara Inazio Mari eta Juan Andres etxetik joan ziranean: Iturraldeko Joxe, adiskide batzuen seme umezurtza, begi urdin gozodun mutil koskor polita, behiak zaintzeko, iturrean ibiltzeko edo herri eta mendira osterak egiteko morroitxo egokia.

Manueltxorekin ikastetxean ibili zan, oso bere lagun hartua, Jaungoikoaren bildurrean ondo hazia, mazal eta bizkorra, eta ume-txoa izan arren, garai batzuetan gizon batek adina on egiten zuan.

Pedro Anton morroi zaharraren irudira etxekotzat zeukaten. Manueli txaloak jotzen zitzaizkionean txaloak izaten zituan Joxek ere, beti esaten zan biak zekitela berdin samar, biak zirala azkor¹⁵⁹ eta ikastun, eta bientzat ohi ziran gehienbat, Joanesek, sukaldeko ixilu¹⁶⁰ gainean jarrita, zintzoro agertzen zituan erakustaldi ederrak.

Ez zuan harek gaztetxoai zerbait adierazteko mugaldirik behin ere galtzen. Hara nik gau batean, Manueltxok lapur-ipuin bat eskatu zualako, artzain zaharrari entzun nion jarduna:

“Ez dago gaur ipuinik. Egia zor dizuet, nere umeak, eta egia samina aitortzera noa, nahigabez bada ere. Badakizue: mendizalea naiz ni, beste mendizalerik inor baldin bada. Askotan esan det behe-

¹⁵⁹ Azkor: bizkor, zuhur, aurrera.

¹⁶⁰ Ixilu: txixilu, bizkaraldea daukan sukaldeko aulkia.

aldeetan dirala arriskurik handienak, eta horretan nago; baina goian bertan ere zerbaitzuk badira, ezin ukatu. Ez dago inon grina gabeko gizonik eta arantza gabeko lurrik. Hemen ere sagarrik onenak izan ohi dute harjoa¹⁶¹, loreen ondoan sortzen dira asun lakatzak, arku-meak dabiltzan tokian igarotzen dira otsoak eta azeriak. Hau ez da gure egunetako gaitza, ez; antzinetakoa da; baino antzinetako gaiztakeriak alde batera utzirik, neuk nere begiakin ikusitako gertaera bat agertuko dizuet. Adi iezadazue¹⁶².

Joanes gauza jakingarriren bat esatera zihoala ulertu zutenean, etxeko danak, eta mutikoak ez dago zeresanik, oso urduri eta jorantsu¹⁶³, hartu zituzten beren aulkiak eta inguratu zuten gure aitona, bere ahotik zetozkion hitz guztiak txit arretaz entzun eta gorde nahian.

“Ni gaztetxo nintzala —jarraitu zuan Joanesek—, ezagutu nituan umekondo trakets bi, Manueltxo eta Joxeren idekoak gutxi gorabehera. Axeri eta Otsoko esaten zieten. Ez zan Axeri Idiazabalgoa; Otsoko ez zan Ataungo basoetan jaio; baina *ai!* biak ziran euskaldunak, biak menditarrak. Axeri azkar, argi, bizi, asmutsu eta erkin samarra zan; Otsoko lodi, lotu, baldar, narras, bizartsua. Axerik asmatzen zituan egundainoko gaiztakeriak, eta Otsokok adiskidearen asmo danak beti ontzat eman eta guztietan pozik eta bihotzez lagundu; harek lapurtu inguruetan lehenbizi hazten ziran keriza, piko, sagar, udare, aran eta mahatsak; honek lagunari horman gora bultza, eta baratz barruan edo zuhaitz gainean zebilen bitartean auzoetako bideak zaindu. Oso maiz egin ohi zuten ezbeharren bat: gaur, nonbaiteko erleai ezitia kendu; bihar, astoren bati buztana ebaki; behin eskale arrotzari harrika eman; hurrengoan garometaren bat erre. Etengabe zegoan mutil haiekatik zeresana.

Gazte ziran artean, nekez eta egun bat edo bestean bada ere, eraman ohi zituzten irakastolara, baina alperrik. Otsoko buru gogorre-

¹⁶¹ Harjo: harrak eragindako ustela.

¹⁶² *J.t.* zadazute.

¹⁶³ Joran: gogo, lehia.

koa zan, nagi eta motzegia ezer gauza onik ikasteko, eta Axerik, ikastetxean zegoan bitartean, inoren esana entzun eta zerbait ikasi baino nahiago zuan irakasleari zinuka egon, edo lagun guztiai zirika, edo burura zetozkion ames gaiztoai jarraika, etxe hartatik irteteko orduaren zain, inoren bildur gabe nahi zuan guztia egiteko. Gurasoak, beste askoren antzera, ardura gabeak lehenengo, berandutxo axolatu ziran.

Urlia, sandia —esan ohi zieten—; *begiratu iezaiezue*¹⁶⁴ *semeai, irtenegiak datoz.*

Umekeriak dira horiek —erantzun ohi zuten gurasoak—; *etorriko zaie zentzuna, zerbait hazitakoan.*

Baina galanki hazi eta zeharo indartuagatik, ez zitzaien zentzunik buruetan sartu. Ez; gehiago eta gehiago loditu zitzaien berengain nahi zutena eginaz bizitzeko amesa, sustrai handia bota zieten grina txar guztiak, alperreteria eta nagitasunak herdoitu zituan lanerako, eta mutikotzar haietatik ez zegoan ezertara ere gauza onaren itxaropenik.

Laster entzun zan Axerik aldamen baserriko oiloak harrapatu zituala, Otsokok ardirik onena jan ziola hurreko artzain bati.

Orduan egin zuan oihu Axeriren aitak: —Eskua moztuko diot semeari.

Orduan esan zuan Otsokoren amak: —Hanka biak hausiko dizkiot gure mutilari.

Ba! Eskua moztuta ere azeriak azeri gelditzen dira; hanka-hezurrak hausita ere otsoak beti otso.

Lagun gazte biak, geroago eta okerrago, lotsagabeago, ausarkia-go, arpegi eman zieten gurasoai, jarki¹⁶⁵ zitzaizkion herriko agintariari, mailaka-mailaka berehalako baten jaitsi ziran gizon gaizkinen zelai galduraino, eta norbait zematu zutela edo ez zutela, gizonen bati diru eske bidera irten ziotela edo ez ziotela, sartu zituzten behintzat gaiztotegian luzarorako.

Horra, horra ibilbide txarraren azkena.

¹⁶⁴ *J.L.* zaiezute.

¹⁶⁵ Jarki: aurre egin, eraso.

Ez zan horretan amaitu. Noiz edo noiz urratu zitzaizkien¹⁶⁶ lokarriak, eta hemen agertu zitzaizkigun berriro, izen gaiztoaren jabe, inoiz baino beltzago, itzalago, bildurgarriago. Ez zituan inork begi onez ikusten: gizonak ozta-ozta egin ohi zieten agur, ume eta emakumeak Axeri eta Otsokoren izenaz bakarrik izutzen ziran.

Nahikoa zan “Otsoko dator” esatea umerik negartiena berehala isiltzeko.

Bazegoan zergatik bildurtu.

Ahuntza larrera bezala lehengo bidera jo zuten hobendun adiskide biak. Bai, ba: ondo jan behar, asko edan nahi, etxeakoaz ezin ase, lanerako gogo eta usterik ez, eleizatik urruti, seta¹⁶⁷ gaiztoak okerrera deiezka, gautxori bihurturik, lapurretatik sortzen zuten ahal zan gutzia. Handiak esaten ziran: gauerdian, honelako tokitan, bata besteari txistuka zebiltzala; arabar mandazainari, makilaka zuzitu eta gero, honenbeste diru kendu ziotela; Bizkaiko baserri baten harrigarritzko heriotza egin zutela, eta ez dakit beste horrelako zenbat albiste. Danak ez ziran noski egiak izango, baina neronek ikusi nuan egiazko jazoera negargarri bat. Esaten ere ikaratu egin behar da. Otsokok, jai arratsalde batean, ardangelarako txanponik eman nahi ez ziola eta beste gabe, aizkoraz zatitu zion burua bere aita zahar gizagaixoari!¹⁶⁸.

—Jesus!

—Bai, Jose Ramonek ere badaki. Neuk nere eskutik eraman nuan gero urkamendira Otsokoren heriotza ikusi zezan, hobenbidearen gorrotorako.

Jose Ramonek: —Oroitzen naiz; begien aurrera datorkit gizon haren arpegi zurbil, makur eta ezaina; gogoan daukat nola esan zigun barkatzeko bere gaiztakeria Jaungoikoaren izenean, Jaungoikoak ere barkatu ziezaion¹⁶⁸. Hitz neurtuetan ipini zuten Otsokoren bizitza, eta hortxe ziran nonbaiten euskerazko *bertso berriak*.¹⁶⁹

¹⁶⁶ *J.t.* zitzaizten.

¹⁶⁷ Seta: izaera, joera.

¹⁶⁸ *J.t.* zezaion.

¹⁶⁹ Azpeitian urkatu zuten Jose de Tejeriari eginiko bertso paperaz ari da.

Manueltxok: —Nik uste nuan gizatxar guztiak urrutietakoak zirala.

Aitonak: —Ez zenduan ondo uste.

Josek: —Orain ba al da hemen era horretako gizonik?

Aitonak: —Sustrai txarrak edonun eta edonoiz eman dezake kimu berria, eta gizonak dauden leku danetan ohi dira gaiztakeriarako sustraiak. Ez det nahi egiaren argitasuna estali: orain ere azaltzen da gure artean otsokotarren bat edo beste; baina, esan dezagun gure bihotzaren poztasunerako, ez urietan bezala maiz eta ugari, bai-zik noizean behin, urri, bakan, inoiz edo berriz. Ezin da gure lurretan horrelako landara eta piztirik ugaldtu. Gurutzearen itzalak galtzen ditu hemen horrelako landara eta piztiak, gurutzearen itzalak eta guk geure izen onari diogun begiruneak. Bai, goialdeko basurdeak baino gehiagotan agertzen dira baserrietara urietako txakur amorratuak, baina euskaldun gurasoak axolarik ez balute edo euskal mendietan gurutzerik ez balitz, laster ugalduko lirateke¹⁷⁰ txakur, otso eta basurde amorratuak Euskal Herrian eta baserrietan bertan. Arretaz bizi behar, beti arretaz.

Manueltxok: —Eta zer egin zuan Axerik, aitona?

—Axeri, oso txaldandua¹⁷¹, moteldua, gazterik ahuldua, xarpaz¹⁷² jantzia, zetakaz¹⁷³ betea, zorriz erdi jana, aterik ate ibili zan erukarri, zorro zahar bat bizkarrean zuala, gizadi guztien iraintasunak iruntsiaz, eta behartsuen gaixotegi batean hil zan, infernu bizia lurrean igaro eta gero.

Manueltxok: —Infernua? Gaur goizean, Moxolok, ikastetxera bidean, infernurik ez dagoala esan dit.

Aitonak: —Zer diok, motel! Aitaren, Semearen...! Ez det nik esaten otsokotarrak badirala oraindik? Hara hor bat. Moxolo otsokotarra dek, Manuel, uriko txakur amorraturen batek kutsatu du, bere

¹⁷⁰ *J.I.* litzatezke.

¹⁷¹ Txaldan: ergel, lelo.

¹⁷² Xarpa: trapu, zarpail.

¹⁷³ Zetaka: mantxa, orbain, uher.

aitaren ardangelan, noski. *Umearen zentzuna, etxean entzuna*. Jakin ezak, ilobatxo: lagun horrek esan duanetik Otsokok egin zuana egitera bide gutxi zegok, eta nahiago nikek, hi Otsokoren bizitzan ikustea baino, hilobi batean luze-luze ikustea.

Amak: —Bai horixe, bai mila aldiz!

Aitonak: —Ez dek Moxolo hire erakuslea.

Manueltxok: —Ez, jauna, Moxolo txit atzerea¹⁷⁴ da. *Dotrinan* ere bera *dabil* azkenengo.

Aitonak: —Sinesten diat. Ez dik harek gauza onik erakutsiko. Bakoitzak dakiana erakusten du, eta gaiztoak gaiztakeria. Ez hadi, bada, Moxolorekin egundaino ibili. Hire lagunik handiena Joxe izango dek eta erakusleak geu, etxeokak, eta herriko apaiz jaunak, gurutzetarrak. Ilobatxo, Joxe, nere semeak: bizi zaitezte baserrian, toki hoberik ez dago eta; maita ezazue¹⁷⁵ mendia, maitagarria da eta; baina mendian bertan pizirik bilatzen badezue, alde Jaungoikoaren ize-nean piztietatik gurutze ondora.

Horrela aztertzen zituan Joanesek bere giza landarak, horrela eman ohi zien buru eta bihotzerako behar zuten janaria, horrela bizi zan, erbesteko semearen oroimenak ikutzen ez zionean, atsegintsu eta gozoro, bizitza onak ematen duan animako lasaitasun ez-tian.

Hala ere, Joanesek eta bere emazteak bazuten beren buruan beste zerbaiten hutsunea. Gauza handia ez zan. Hara: Zabaletan beste haurtxo bat ez izatea, alaba, neskatxa. Bi amak kendu ezker, Zabaletako guztiak gizonezkoak ziran, prakadunak. Ana Josepak zioenez, hamaika praka behar zan etxe hartan; Jesus, Maria eta Jose! Batean sasiak, oteak edo elorrantzak¹⁷⁶ heldu zietela, bestean zuhaitz adarrean katigatu zirala, eta egunero zekarten gizonak urraturen bat etxera, eta mutikoak berriz txitean-potean¹⁷⁷ behar zituzten praka berriak. Manueltxok besteak baino gehiago. Larruzkoak ere ez ziran

¹⁷⁴ Atzerea: atzeratu.

¹⁷⁵ *J.t.* zazute.

¹⁷⁶ Elorrantz: basoko aran.

¹⁷⁷ [Txitean-potean. Gaztelarren *a cada instante bezala*].

nahikoa ume harentzat. Beti zebilen orbel, lasto edo garotan txilipurdika, beti sasi tartean masusta bila, beti txori-kabiatan inguruko zuhaitzetara igonda. Hura mutil bihurria, hura basakerra, hura katardea¹⁷⁸. Utikan mutilak! Haze izatekoak, hainbeste lan gurasoai eragin eta gero nahi zuten lekura iges egiteko. Beste gauza bat ziran neskatzak, esaneakoak, zuzenak, txotilak¹⁷⁹, baketsuak. Ai ene! Ongi etorriko zitekean bat Zabaletan emakume bien laguntasunerako, etxea jasotzeko, amonaren ondorengotzat. Hori zan senar-emazte zahar bien aspaldiko ames, gogo eta itxaropena. Emango ahal zien¹⁸⁰ Jaungoikoak.

Eman zien. Egun batean Pedro Anton morroia berri on bat ematera joan zitzaion Joanesi mendira: etxean haurra jaio zitzaien eta neskatxa zan!

Cure artzainak, Aloñatik jaitsi zanean, ezpainetan zekarren barruko alaitasunaren pitsa, barrea!

Barrez irten zion emazteak ere ate ondora.

—Badegu ba —esan zion senarrari.

—Jaungoikoari eskerrak. Eta nolakoa da?

—Zuri, eder, galanta: bere aita berbera dirudi.

—Oraindik? Zeuk emakumeok berehala hartzen diezue¹⁸¹ ume-ai norbaiten itxura.

—Halaxe da bada eta¹⁸²! Zeuk ikusiko dezu laster. Jose Ramonen eta gure haurraren sudur eta kopeta berdin-berdinak dira.

—Eta begiak?

—Begiak zeureen antzekoak.

—Barre egingo al det?

—Egin ezazu nahi baldin badezu. Lehen ere ez zenduan urruti. Zer uste dezu? Ez dizudala ikusi arpegian eta bihotzean?

¹⁷⁸ Katarde: katagorri, katamixar.

¹⁷⁹ Txotil: fin, polit, eder.

¹⁸⁰ *J.L.* zioten.

¹⁸¹ *J.L.* diozute.

¹⁸² *J.L.* bata.

—Bihotzean ere bai, emakumea?

—Baita. Orain ere badakit nik zuri zer gogoratzen zaizun: haurtxoa geuk biok hartu behar gendukela besoetan.

—Baina nik ezer esan ez badizut.

—Baina nik igarri. Askotan izan naiz ni zure gogoen igarle. Gaitz ere bada eta!

Aiton-amandre biak jaitsi ziran Oñatiko eleiza nagusira haurtxoaren aitabitxi¹³³ bezala. Eta nola, gero, jaitsi! Ana Josepa bizi-bizi, txit orraztua, soinekorik onena harro erakutsiaz, buruko estalkiaren txiztanak inoiz baino tenteago zituala eta aspaldian gordeta eduki zuan zortzi hegiko oihal¹³⁴ handi loretua lepotik behera egokiro ipinita; Joanes ederki bizarra kendurik, ezkontzarako egin zitzaion jantziz antolaturik, ia oinetarainoko *kapa* lodi, luze, tolestua sorbalda gainean jasoaz eta ehun bigunezko alkondara zuri garbia paparrean agiri zitzaiola. Biak zihoazen edertuta, gaztetuta, alaituta, lekaio bana egiteko gogoetan; biak usain gozodun: gizonak ereinotz¹³⁵ usaina zeraman, andreak *alkanfor* usaina. Bazituzten lagunak: auzoko emakume gazte apain bat, aita Jose Ramon eta seme Manueltxo; hau, eliz-kandela eta apaiz-opilarekin.

Bidean, Manueltxok begi onez begiratzen zion opil gozoari. Bazezkiean eleizan eskaini bakarrik, apaizari erakutsi, eutsi eta tati egin¹³⁶ eta etxera bihurtzen zala opila, eta ezin aspertu zan beretzat zenbat emango zioten galdezka. Bakarrik joan balitz ikuturen bat ere egingo zion behatzakin edo mingainarekin, nolakoa zegoan jakiteko.

Aiton-amandreak, noizean behin haurrari begiratuta:

—Lotan al doa? —zioten—. Gaixoa! Ez dadila hotzitu gero.

—Bai zera, hotzitu —erantzuten zien andre gazteak—, dagoan beroan¹³⁷, uztailaren 22an.

¹³³ [Aitabitxi, aita ponteko, aitabesoetako. *Padrino*].

¹³⁴ [Zortzi hegiko oihal: zortzi puntako mantoia].

¹³⁵ [Ereinotz: erramu].

¹³⁶ Tati egin: eskaini eta ez emon.

¹³⁷ dagoan beroaz.

Herri sarreratik jantzetxeraino oñatiar guztiak, andrazko eta gizaseme, gure baserritarrai zerbait esan beharra bazeukaten.

—Ongi etorri, Jose Ramon, landare *berrixa al dozue?*

—Kaixo, Joanes, hori gizon gordina *zagoz*.

—Apaina zatoz, andre Ana Josepa.

—Mutila al da? Neskaitila? Zer izen ipini behar *xaue*¹⁸⁸?

Eguneko donearen izena ipini zioten: Maria Magdalena.

Bataiokoak eleizatik irten zutenean, uriko ume zoztor guztiak, umeak ez ziran batzuekin nahastatuta, eleizaren aurreko enparantzian idoro zituzten *Bolo! Bolua*¹⁸⁹! *Bolua! Je! je!* deadarka.

—Hau ez da, horregatik, ohitura ona —esan zuan Ana Josepak—. Zer dala eta bota behar ditugu hemen geure diruak?

Eta senarrak, eskukada bat txanpon jaurtiaz:

—Zeuk esan dezu; ona edo txarra, ohitura dalako. Nik ona derit-zot.

Berehalaxe isilduko ziran umeteria eta gainerakoen oihuak. Aitonaren jaurtigi zinua susmatzeaz bakarrik, gizataldeko guztiak, artega, higikor eta irritsu, zabundu¹⁹⁰ zituzten buru eta besoak, ireki eta ernaitu zituzten beren begiak ahal zuten adinan, eta txanpon gorribeltz leunak izpi-une baten hegaka bezala ikusi eta gero, ahuspeztu ziran dirua erori zan tokira, denak batera, denak piloan, burrukarik gogor, zoli, zital, ausarditsuena egiteko usteetan.

Baita egin ere. Lauoinean¹⁹¹ edo etzinda¹⁹², bultzaka edo atzaparka, arpegiz lurra igortziaz edo azpikoari leher eraginda, ezere-

¹⁸⁸ Xaue: diote, deutsoe, Oñatiko adizkia.

¹⁸⁹ [*Bolo, Bolua*. Honela deitzen diote euskal uri batzuetan bataioari. Agirian dago hitz hori nondik datorren: *Vis baptizari?* “nahi al dezu bataiatua izan?” —galdetzen du apaizak—, eta *Volo*, “nahi det”, erantzuten zaio; eta erantzuera hortatik dator gaurko *bolo, bolua*].

¹⁹⁰ Zabundu: mugitu, higitu.

¹⁹¹ Lauoinean: katamar.

¹⁹² Etzinda: etzanda, etzunda.

armin eta inoren ardura gabe, azkar egin zituzten hango txanponbatzeak¹⁹³.

Eta aurrera berriz ere bataiokoen atzetik *je! je! bolo! bolua!* dieizka.

Baina ez guztiak. Han gelditu ziran hautsez lohituta, minez eta negarrez, txiki, mengel¹⁹⁴, indarge eta makalak. Batari txapela galdu zitzaion, besteari gonea urratu, norbaiti behatza ostikopean zapaldu zioten.

—Zeinek egin *dotsu*¹⁹⁵, maite? —galdetzen zion hari, ezin ibili zan atsotxo batek, bazter guztiak begiratuaz, zerbait alperrik galdu ez zedin.

—Moxolok egin *xao*¹⁹⁶ —erantzun zuan urratudunak—, harekek, lapurak halakoak.

—Ixo, ez da holakorik esaten eta.

—Bai, andrea, egia da eta: neuri *ostu dost*¹⁹⁷ eskuan neukan dirua.

Ohi dan bezala handi eta indartsuenak atera ziran nagusi lehenengo txanpon-eralgitzean, eta haiek zihoazen Joanesi jarraika *je! bolua! je!* aspertu gabe oihuka.

Joanesek, emaztearen esanei entzungor eginaz, mutikoen atarrapuzka¹⁹⁸ eta iskanbila ikusteagatik, edo barruak eskatzen ziolako, beti barrez, atzera eta aurrera, ezker-eskuin botatzen zizkien txanponak.

—Gizona —zioen Ana Josepak beti ere—, nahikoa dezula. Txantxetako gauzea da! Horrenbeste diru ez du inork egundaino Oñatiko kale-harian bota; ez da jauregiko zaldunak berak ere, emalea da baina.

¹⁹³ *J.t.* bitu.

¹⁹⁴ Mengel: pertsona ahul.

¹⁹⁵ Dotsu: deutsu, dizu.

¹⁹⁶ Xao: deust, dit.

¹⁹⁷ Dost: deust, dit.

¹⁹⁸ Atarrapuzka: belaun gainean ibili.

Mutiko-neskatoak, txanpon-batzea bukatu ondoren, behingo baten zabaldu ziran pelotalekura edo gozotegietara, eta gure Zabale-takoak jantzetxean sartu gabe, igo zuten tapa-tapa beren baserri baketsura.

Baserri hartan, egun horretatik aurrera, beste bizitza bat hasi zan, hobeagoa, bigunagoa, alaiagoa; lehen baino askozaz errezagoa zan etxeko guztien barre eta jolasa. Erdi umetu ziran danak, eta noiz-nahi zeuden prest umekeriak esateko eta umekeriak egiteko.

Jaitsi zuten sehaska ganbaratik sukaldera, eta sehaska ondoan makurturik, lanera baino lehen edo lanetik zetozenean, arpegirik gozoenaz, soinurik samurrenaz, beti ari zitzaizkion haurrari Zabale-tako gizonak:

—Ekazu patxo bat, poxpolin, ekazu patxo bat, arrosatxoa. Noiz ikasi behar dezu pa ematen? Pa! Aitatxori. Pa! Pedro Antoni. Pa! Aitonari, maite zaitu eta. Pa! Honelaxe. Noiz ikasi behar dezu baina zeuk, noiz?

—Kendu zaitezte hortikan —esaten zien amonak—, umetxoa musuka jan behar dezue eta. Hara, arpegi guztia gorri-gorri jarri diozue zuen bizartzarrokin. Eta negarrik ere ez berak. Aingerutxoa! Haur zoragarria! Gure ilargia! Bai, ilargia zera zu, ilargi bete argitsu! Nik erosiko dizut zuri jostailu ederra azokan, nik, bai, zuri, ederrorri!

Baina batez ere Manueltxoren amak, Katalin apal, belatz¹⁹⁹, lot-satiak, etxean bakarrik gelditzen zanean, bere haurrari egiten zizkion jolasak eta esaten zizkion txera palaguak²⁰⁰ ez zuten behin ere azken eta neurrik. Sarri, bere magalean zeukala, begira-begira egoten zitzaion, zertan zegoan ere ahaztuta; anitez, beste haurtxoen heriotza gogoratzean, estutzen zuan bere bular gainean sendoki; askotan, lo eragin nahi zionean, euskaldun ama guztiak ohi duten erreztasunaz, eresitzen zizkion isil-isil, eztitsu-etztitsu, bere bihotza ezpainetan zuala, honelako hitz neurtu samur batzuk:

¹⁹⁹ Belatz: atsegin.

²⁰⁰ Palagu: laztan, lausengu.

Sehaska zaharrak haur berria du
Zeruetatik jaitsia,
Aingerutxoak ekarri dute
Hezur ta haragiz jantzia.

Jaunak eman dit neretzat eta
Nerea det nik Madalen.
Maite kutuna, ez zaidazala
Jaun zerukoak berriz ken!

Goi urdinean izarrrik adina
Daude zeruan aingeru,
Zabaletako baserritxoan
Bat edo bat behar degu.

Nere laztana, nere bizitza,
Nere erraien zatia.
Hara zein bigun jarri dizudan
Sehaskatxoan kabia.

Sehaskatxoan nahi ez badezu,
Zuretzako det altzoa;
Egin hementxe lo ederrean
Zerutar ames gozoa.

Manueltxo, umea izan nonbait, ondamuak²⁰¹ bihotzean ikututa, espaz²⁰² beteak egon ohi zan gizagaixoa haurrari esaten eta egiten zizkioten gauzak entzun eta ikustean. Nola ez? Bera zan lehenago ederra, bera mutil argia, bera etxeko maitea, eta orain bestearentzat ziran goramen eta ipuin guztiak. Ezagutzen zion amak semeari barruko iluntasuna, eta zerbait gozatzeagatik eta haurraganako maitetasuna itsatsi nahian, honela deitu ohi zion:

²⁰¹ Ondamu: enbidia.

²⁰² Espaz: enbidia.

—Hator, ea, Manueltxo, hator, ea laztanori. Goiko kutxan daukat nik hiretzat gordeta udare handi bat, hiretzat bakarrik dana. Asko hazi haiz eta ezingo haut altzoan euki, baina bai bihotzean, bai, nere semea. Altzoan haurrak edukitzen dira, txiki-txikiak, Malentxo bezala oinez ibili ezin diranak. Ikusten dek nolako polita dan gure Malentxo? Nahi lukete auzoan honelako bat, baina ez dago inun honelakorik. Geurea da, geure-geurea. *Txalopin txalo* esaiok; tira, eskutxoak hartuta, horrelaxe.

Behin baino gehiagotan, Manueltxo amaren ondoan belauniko jarririk eta beste Zabaletako guztiak zutik edo erdi okertuta, Joanes aurrean zala, erestu ohi zuten, denak batera txaloak joaz, antzineta-ko haur eresia:

Txalopin txalo
Txalopin txalo
Katutxoa mizpira
Gainean dago;
Badago bego,
Badago bego,
Zapatatxo berrien
Begira dago.

Ana Josepak uxatu ohi zituan deadarka, bera tarteko ez zanean:

—Txoratu al zerate, kristauak? Ez al daukagu bazterretan beste lanik?

Baina umetxoaren musu borobil polita ikusi orduko, amona bera joaten zitzaion haurrari atseginezko arpegiz losinga:

—Izan ere etxeko danak txoratzeko nahikoa zera zu, erregintxo! Elurgilo²⁰³! Gaztanbera! Usakume! Lili zuri! Ez, Urbiako zelaietan ez da zu bezalako lilirik sortu, ezta sortuko ere! Zu zera lore guztien lorea, zu zera apainduria guztien apainduria! Nik ekarriko dizut, bai, amonaxok ekarriko dizu jostailu eder-ederra, zeu bezalako jostailurik inon ez dago baina!

²⁰³ Elurgilo: elur maluta.

V

AZOKA ETA DEMA

Azoka eta demazalea da euskaldun basetxetarra. Etengabeko lanean egongo da hiru edo lau aste osoan azokaren pozez, baina ez iezaiozue azokaren itxaropenik kendu, bada orduan hegoak moztutako txoria bezala geldituko zaizue, jangar eta nakar, abaildua²⁰⁴ eta ezertarako eza.

Azoka da, menditarrentzat, ez bakarrik salerosketako garaia, baita ere albisteak jakiteko era ederra, lagun arterako beta egokia, jan-edanerako epe gozoa, atsedeen ordurik onen onena.

Gauza horiek guztiak behar ditu gizonak noizean behin, eta gure baserritarrak inork baino gehiago, noski.

Ez da padartzarako²⁰⁵ jaio, bakartasunean bizi bada ere. Paduak²⁰⁶ ez du izutzen, baina gogait eragiten dio. Mendian dauka kabia maitea, baina behealdeetan bihotzak eskatzen dion jolas deigarria. Atzeka, lotua, hitz gutxikoa dirudi ezezagun eta handikien aurrean, baina hiztuna, edegia²⁰⁷, ausarta da bere ideko adiskideen ondoan.

²⁰⁴ Abaildu: leher eginda, jota.

²⁰⁵ [Padartza : *Eremítazgo*].

²⁰⁶ [Padua : *Desierto*].

²⁰⁷ Edegi: ireki.

Esan dezatela Tolosa, Villafranca, Villarreal, Zumarraga, Mondragoi, Bergara, Elgoibar eta Azpeitikoak, bada herri horietan izaten dira batez ere Gipuzkoako azoka eta demarik izentsuenak, eta bertan agertzen da gure mendi-gizona bera dan bezala; batere estalki gabe, anima guztia garbiro ikusten zaiola.

Nahitanahiezkoak dira Euskal Herriko azokak eta ongarriak gainera uri eta etxadi askorentzat baina..., eta demak? Ez ongarri, ez nahitanahiezko, baserritarren gogokoak izan arren.

Bai gogokoak, bai horixe. Ez dago dema bezalako akuilurik nekazaririk txepel, nagi eta geldoena dendatzeko²⁰⁸. Nahiz dala abereen ahari-topeak, oilar-borroka edo idi-dema, nahiz dala gizasemenen zama-jasotze, lasterketa edo aizkora-jolasa, oso aurretiaz jakin ohi dute noiz, nondik, nortara edo non, zeintzuk eta zergatik izango duten demaren bat; biltzen dira gero sagardotegi edo ardangeletan albiste berriak entzun eta esatera; jartzen dira horkoaren edo hemengoaren alde, ahaide, auzo edo ezagunak diralako bakarrik edo apostularien indar, mendu²⁰⁹ eta ahalmenak hobeto dakizkitelako; jasotzen du batak bere gizon autua Ernio baino gorago eta jaisten du besteak itsasoko hondarretaraino; hasten dira mingarrizko hitzak alkarri esaten; berotzen dira eztabaida zitalean irri eta ziri dabiltzala; suak hartzen ditu gehiegizko jardun garratz amaigabeen; jokutzen dituzte bero-beroan aldean dituzten txanpon guztiak; ipintzen dituzte urlia edo sandiaren eskuetan dema egin arteraino, eta hainbeste bider gogoratu zaien txango-aldia datorrenean, apostu jakin horretako egun handi alaia zabaltzen danean, goitzoago jaiki, etxeko lanak zerbait egin, igandeeetako jantziak soinean jarri, ahal diran diru apurrrak sakelean sartu emakumeen isilik, eta badoaz honelako edo halako herrira gazteak eta zaharkoteak, erkinak eta kankailuak, jolasnahikoak eta jokalariaik, burutsuak eta burugabeak, alderdi bateko eta besteko gaitasunak neurtzen dakizkitenak eta bihotzak dioen

²⁰⁸ Dendatu: lehiatu, zerbaitetarako gertatu.

²⁰⁹ Mendu: izaera.

aldera itsu-itsuan daudenak, bide zabalean aurrera, bidezidorretan barruna, mendian gora, basotik behera, zelai erditik zehar, soro erzetetik aldamenka, amila mengelak²¹⁰ sorbaldan dituztela, makilatxoak eskuetan daramatzatela, bihotzaren lehiaz osoro beterik, barruko azkortasuna ezin gorderik, harro, artega, esale eta ameslari, zezeneta baina errezago, ezteietara baina gogotsuago, umeak gozotegira baina pozago, abere ospetsuen indarra edo gizon trebeen adorea zelai edo enparantzaren erdian ikusteko asmoetan.

Done Tomas egun batean Mondragoira joan beharra izan nuan. Azoka eguna zan eta egunik handienetakoa. Zazpi mila aingeru! Bazan uri hartako kale-harietan hitzotsa, zaratea, iskanbila eta nahastea galanki. Egurrez tontortutako gurdiak, errenkadatik irten-da, hurrengoai ibilera galerazten; atzetik zetozen itzainak, mendian bezala oihu eginaz, beren uztarientzat biderik ezin edegita; jolas bila edo apostura bakarrik joan ziran gizonak, ardangeletako ate aurrean, betiko leloari utzi gabe, alkarri ardoa eskaintzen; hartu-emanera zihoazen emakumeak, beso eta buru otarraz beterik, zerbait galdu ez zezaten²¹¹, alderdi guztietara begiraka ernai; leiho burdinetan lotutako behiak hausnarrean, kalearen erdia berentzat behar zutela, idisko edo bigantxa gazte izutiak, atzeraka eta alboraka zalaparta gogorrean, enparantzaruntz inola ere joan nahi ezik; patxadako asto zamatuak, nonbaitetik sartu beharrean, aldamenetako guztiai bultzaka; txerrikume bizkor urduriak, beren taldeetatik arrapaladan iges egin-da, gizatar-tean edo abereen hanketan usainka... nik ez dakit zenbat tresna, ele, gizadi eta lazka²¹² ikusi nituan enparantzarako bidean. Edonun zegoan traba, hesia eta eragozketa; non-nahi adarkada edo ostikada baten arriskua; bazter guztietatik entzuten zan *oo* eta *aida*, *arre* eta *iso*, *jeup* eta *kaixo*, *alajaina* eta *arraipola*, aspaldikoa eta lagun zaharra, txintzarria, kurrinka, orroa, marrua, arrana eta arrantza.

²¹⁰ Amila mengel: jaka edo txaleko mehe.

²¹¹ *J.t.* etzezen.

²¹² Lazka: nahaspila.

Lan haundiak izan nituan enparantzara igarotzen.

Hantxe zegoan azoka. Bertan zeuden salgai baserritarrak ekarritako edo baserrietan gehienbat behar izaten diran gauzak. Alderdi batean, arto eta gari, baba beltz, zuri eta gorri, intxaur eta gaztainak zorroetan; udare, sagar, hazi, landare, urdai, urdaiazpiko, lukainka, gaztai, arrautza, oilo, oilar iraindu²¹³, oilanda eta oilaskoak otarretan edo lurrean zabal-zabalik; oihal, txapel, zapata, galtzerdi, mantar²¹⁴, soka, abarka-larru, kopetako, padela, tupin; pertza, lai, sega, igitai, atxur eta aizkorak mahai gainetan edo hagatxoetan esekita.

Emakume saltzaile eta erosleak, jarrita edo zutik, ari ziran ekinean beren gauzak gora jasotzen edo behera bota nahian, era eta gogoia zetorkien bezala.

—Zer? Ez dakidala nik gaztaina zer dan uste al dezu? Hau ez da bizkai gaztaina, hau amalatz²¹⁵ erdi ustela da.

—Jas! Hori ere esan. Gaztaina zindoagorik...

—Eta hau zindoa al da?

—Bat edo beste ez du ezer esan nahi, emakumea. Bai, kendu iezaiozu azala, ikusi iezaiozu mintza²¹⁶. Gurean ez dago amalatzik, gurean bizkai gaztaina, ibarbeltza eta txapardoa²¹⁷ baino besterik ez da.

—Zerori zera zu nahikoa txapardo. Tira, danak eramatera, zenbatean emango didazu?

—Hara, errege sagar ederrak.

—Burdintxarik ez daukat, baina bai urtebiak, kanpandoiak, altxondoak²¹⁸... Danak dira onak, nahiz erreta nahiz gordinik jateko. Hartu itzazu kanpandoiak.

—Bai kaskarrak!

—Kaskarrak? Ukabila beste badira eta!

²¹³ [Oilar iraindu: *Capón*].

²¹⁴ Mantar: abarkentzako trapua.

²¹⁵ Amalatz: gaztaina klase bat.

²¹⁶ Mintz: gaztaina inguratzen duen azal mehea.

²¹⁷ Ibarbeltza, txapardo: beste gaztaina mota bi.

²¹⁸ Burdintxa, urtebi, kanpandoia, altxondo: sagar klase ezberdinak.

—Ukabila nolakoa dan.

—Beti handia, euskaldunarena bada. Atxurrak eta laiak zabalzen ditu eskuak galanki. Zenbat ipiniko dizkizut?

.....
—Oilaskorik behar al dezu, andrea?

—Ez, *kapoi* batzuen bila nabil.

—Ikusi iezazkidazu²¹⁹ hauek, hartu iezazkidazu eskuetan; badi-ra hamalau libra gutxienez.

—Ze hamalau libra gero, hezurra eta azala besterik ez daukate²²⁰ eta!

—Nahi dezu hamabi baietz?

—Nahi dezu ezetz?

—Pilumena, ekazu pixu hori.

.....
Emakume saltzaileakin batera jarrita ikusi nuan Zabaletako Ana Josepa, iluntxo, haserre antzean, ia inori hitzik egin nahi ezta, arrautza-oilasko batzuk saldu nahian. Zer ote zuan hain muker egoteko? Geroxeago jakingo degu.

Beste alderdi batean agiri ziran txerri eta abelgorri talde handiak. Bazeukaten gizonak nahikoa zer ikusi. Urdama²²¹ nagi narrasak, ume pila gurin politak, aketz²²² gazte gogor sendoak, zezenko eder bizi mamintsuak, urruxa²²³ egoki garbi txukunak, esne-behi gizen eta bikainak... danetik zegoan elea ugari, oso ugari baina.

Entzutekoak ziran baserritarren galdeak, abere jabeen erantzuerak eta guztien gogozko goramenak.

Txahal baten ondoan:

—Bigantxa polita dezu, adiskidea.

—Bai, ama ere ez du honek edonolakoa.

²¹⁹ *J.t.* zaizkidatzu.

²²⁰ *J.t.* eztauke.

²²¹ Urdama, txerrama: umeak egin dituen txerri eme.

²²² Aketz: txerri aita.

²²³ Urruxa, urruza: ganaduetan, emea.

—Zenbat erralde²²⁴ bezala izango da?
 —Hogeta hamaseitik berrogeira.
 —Horrenbeste...? Noiz jaio zan?
 —Bihar izango ditu hamahiru hilabete.
 (Alderdi guztiak begiratuaz).
 —Itxurazkoa da. Ez du aitzakiarik...
 (Egon-egon eginda).
 —Saltzeko al dezu?
 —Uste horretan ekarri det. Etxean beste zazpi behi badauzkagu eta...
 —Zenbatean?
 —Garestitxo. Jatorri onekoa nola badan... Oraintxe ere honen amak sei pitxarro esne emango ditu, umea egin zuala bi hilabete bada baina.
 —Zenbat eskatzen dezu, ba, txahalagatik?
 —Hiru ontzako²²⁵ eta erdi eskatu beharko.
 —Gizona! Zilarrezkoa balitz ere...
 —Ez da zilarrezkoa, baina bai haragiz ondo betea. Haragiak berak ere, erraldeko hogeta hamarrean, ia horrenbeste jotzen du. Begiratu iezaiozu nolako atzealdeak dauzkan.
 —Ez, ez da neretzako egiten dana; merkexegoa behar det. Bilatuko ahal degu, aukera badago eta.
 —Gaitz izango dezu, ba, ona eta merkea bilatzen...
 Idi erraldoi biren aldamenean:
 —Hauexek dira Tolosako dema irabazi zutenak.
 —Mutilak! Egundaino ez det honelako idirik ikusi.
 —Bai, gure behi koskorak baino baba gehiago jan dute idi hauek.

²²⁴ Erralde: pisu sistema zaharreko hitza. Hamar libra edo bosten bat kilo gutxi gorabehera.

²²⁵ Ontzako: txanpon zaharra. Hamasei ogerleko.

—Baita indarra ere halaxe dute. Lau iltze²²⁶ eta erdi egin zituzten ordubeteen berrogeta hamar *kintaleko*²²⁷ harriarekin.

—Zenbat akuilu ziran?

—Hiru, onenetakoak.

—Asko esan nahi du horrek.

—Bai, baina onak ziran Elgoibarkoak ere, haiek hobeak idiak baino. Idietan zegoan alde guztia. Honelako idirik etzegok²²⁸ lau *pro-bintzietan*.

—Zertara ekarri ote dituzte?

—Erakustera. Bizkaitarren batzuk zaletu omen dira eta.

—Dirua beharko da ba. Neuk erosi ahal banitu... Pozik emango nituzke hamar bat ontzako. Adiskidea, zenbat eskatzen dezu idiakatik?

—Hemezortzi ontzako.

—Lekutan zegok²²⁹!

Esne-behi on baten inguruan:

—Arranoetan! Ez dauka errapea makala! Hau ez da, horratik, gure lurretako enda.

—Ez, holandatarra da.

—Ezagun du ile eta adarretan ere.

—Otzana?

—Ez dago arkume otzanagorik.

—Esnetsua?

—Bai, bai. Honek esnea iturriak ura bezala ematen du. Jokatu-ko nioke edozeini ez dala gaur Mondragoin honek adina esne ematen duan behirik sartu.

—Zenbat pitxarro?

—Hamar baietzean emango nuke.

—Aita San Antoniok bedeinka dezala eta, ederra behia.

²²⁶ Iltze: untze, neurria.

²²⁷ Kintal: berrogeita seiren bat kilo.

²²⁸ *J.t.* etziok.

²²⁹ *J.t.* ziok.

—Izugarri!

Horrelako hizketak zeuzkaten abelgorri tartean zebiltzan baserritarrak. Jo batera eta jo bestera, elerik egokienen ondoan gelditzen ziran gehienbat gizon pilatxoak, beren iritziak esaten eta auzokoen aberastasuna ikusten. Eta nolako alaitasun eta arretaz ikusi! Ele aurrean jarri, hankak jasoerazi, kopetan hatz egin, atzetik begiratu, lepoan ikutu, mokorrean igortzi, bizkarretik paparrera neurtu, haurtxoak ohi diran gisara hitz gozoz palagatu, musua eman ez beste guztiak egiten zizkieten. Askotan esan ohi degu, eta egiaz, gure baserritarrak ukuiluko behiari txit samur begiratzen diola; baina ez da bate-re miraritzeko gauza: behia da, nekazarietzat, lanerako lagun indartsua, osasungarritzko janaria ematen dien aberea, etxe askotako ondasunik handiena. Ea non dagoan norbere ondasunari maitero begiratzen ez dion gizon bat.

Asko ziran egun hartan Mondragoira inguratutako azokazaleak, baina demazaleak askozaz gehiago. Demaren bat al zan? Bai, ba, aspaldikorik handiena. Zabaletako Inazio Marik eta Abadiñoako Jose Domingok egin behar zuten aizkora-jokoa. Biak ziran trebeak, iaioak, izen handiko aizkolariak; biak eduki zituzten hilabete eta gehiangoan jaten eta edaten, arrautzaz eta haragiz asetzen, isilikako indar-neurtzeak egiten, eta egun horretan agertu behar zan bietatik zein zan nagusi.

Hori zan, ba, euskal gizaldien bilaldirako Mondragoitarrak erabili zuten kakoa, horrek erakarri zituan uri hartara alderdi guztietako baserritarrak: Bizkaia aldetik Durango, Iurreta, Garai, Berriz, Zaldibar, Abadiño, Izurtza, Mañaria, Axpe, Arrazola eta Elorriokoak; eta Gipuzkoatik, inguruetako zalpurdietan eramán ahal izan zituzten guztiak eta ordu batzuetan oinez ibiltzeko ahalmena zuten gizon danak.

Bazter guztietara begira nenbilela eta inor ezagunik ikusteko usterik gutxien neukanean,

—Non zabilta, mutil? —esan zidan norbaitek, bizkarreko bat emanaz.

—Patxiko!

—Berbera.

Nere umetako lagun bat zan Patxiko hau, herri txiki bateko sendakina, baina herri haundietakoak baizen argia; berritsu samarra, baina bene-benetan jakintsua; edozeinen gaiztakeriak agertzen zitua-na, baina bakoitzari berea ematen oso zintzoa; euskal herritar itsutua, baina inorentzat gorroto gabea; zerbait lotsagaldukoa, baina txit egiazale porrokatua; mingain zoli garrazduna, baina bihotz bigunaren jabe ona; beti erriertan jardun behar zuana, baina jolastzailerik handienetakoa; itxuretan norbaitzuen etsaia, baina egietan askoren maitalea; gizon bero, bizi, ozpindua, baina adiskide leial ziur-ziurra.

—Zorionean zatozkit —esan nion.

—Zoritzarrean aurkitzen zaitut —erantzun zidan.

—Nekeren bat al dezu?

—Zuri erakutsi beharra. Ez da neke txikia, baina lagunagatik hitz-aspertu²³⁰ bat egin beharko.

—Aspertu al zera behin ere hizketan?

—Zurekin ez. Ni baino hitz jario handiagoakin ezin izaten det nahi adina egin.

Eta neri ezer gehiago esateko astirik eman nahi ezta, berak galdetu, berak erantzun, eta ezer sakondu gabe, gogora zetozkion autu guztiak lardaskatuaz, hasi zan nere gizona:

“Utzi iezadazu bakean, hitz zaparrada saminen bat entzutea nahi ez badezu. Gaur Gipuzkoa guztia hementxe da, batari eta beste-ari ongi etorria ematen nabil, ez det zurekin egoteko asti handirik izango, eta entzun iezadazu pixkatxo batean. Onean nago, eta gozo-ro-gozoro hitz egingo dizut. Zuk ez dezu hemen inor ezagutuko, itsa-saldekoa zera eta; baina nik bai, nik ezagutzen ditut batzuk. Begira: lurrean dauden zuhaitz-gerriak ikusten dagoan baserritar hura Beizamakoa da, inork uste duan baino gizon maltzurragoa. Zerbait erabiliko du buruan, gaur dirurik ez galtzeko edo bihar edo etzi beste aposturen bat asmatzeko. Esaten dutenez, nekazaritzatik baino

²³⁰ Hitz-aspertu: elkarrizketa luze.

gehiago irabazten du jokotik. Ez da gaizki, betikoa bada irabaztea... Beste buru zuridun agure hori, Zaldibiko artzaina. Horrek ez du txanpon askorik egingo inoren alde. Artilezko jaka dauka berak soinean. Ez dira ikusten asko-asko gure egunetan era horretako jakak. Lehenago bai, oroituko zera zu ere, lehenago gure baserritar gehient-suak beren etxeetan egiten zituzten etxeoentzat behar ziranak, lodiak, sendoak, iraupen handikoak. Gero, berriz, ez dakit nondik agertu zitzaizkigun ile urdinezkoak, oso apainak, idun-mahuketan²³¹ lerro gorriak eta paparrean behera *borlatxoak* zituztela, eta horiek izan dira urteetan, hemengo mendi gizonen jakarik politenak. Badira oraindik horrelako batzuk, bizkaitarren soinean batez ere. Hara horrako gizon kaikuak nolakoa daukan. Zein da bera? A! Bai, Apatamonasterioko etxejauna. Gizagaixoa! Irabazteko ustetan etorriko hintzan, baina hemen utzi beharko dituk zizko²³² berdean ekarrirako urre zaharrak. Etzegok Bizkaian Zabaletakoari eramango dionik. *Nequaquam*. Apostutxo bat egin behar diot neuk ere etxejaun horri, ea gaurko adina irabazten dedan... Hemen gure ezker aldean daukagun mozkote gorri honek Eibarkoak izan behar du. Azoka guztietan izaten da, eta inork ez du ezer saltzen edo erosten egundaino ikusi. Baina eukiko du eginkizumen bat. Tutean oso azkarra omen da... Eskuinaldean dauzkagu beste gizontxo bi, bata ez dakit nongo erro-taria; bestea, badakit nongo harakina, sasi-jakintsuak, malmutzak²³³, bertsolariak, besteen lepotik galanki edaten dakitenak. Gaur ere sartuko dute urdailean pitxar bana gutxienez, eta goizaldea etorriko da horiek etxera orduko, buruak urdinak dauzkate baina.

Adi ezazu²³⁴: beste ulerkera batean bai urdintasuna ugari dago-ala hementxe. Txapela urdina, amila urdina, praka urdina, pipetako kea urdina, euritakoak urdinak, dana da hemen urdina, alkondara, abarka edo abarketak izan ezik. Urdina eta merkea. Izango dira

²³¹ Idun-mahuka: lepo eta beso.

²³² Zizko: zisku, poltsa.

²³³ Malmutz: lodikote.

²³⁴ *J.t.* Aizazu.

berriz ere eztulak eta alborengoak²³⁵ sendatzaile gaixoari gauerdian jaikierazteko. Zuk ez dakizu nolakoa dan gure bizitza errukarria. Ordu onean egin zinan apaiz.

Horratikan ere irauten dute oraindik gure antzinetako abarkak. Ikusi ezazu: gizon zahar guztiak dauzkate eta gazte askok, zuriak, bigunak, politak, muturrean begi beltzak dituztela. Horiek dira oinetakorik apainduenak, jaiegunetakoak. Astegunetan beste batzuk izaten dituzte, zakarragoak, lodikoteak, begi gabeak, simaurtzan edo lurpean erabiltzeko. Satorrak ere ez daukate begirik.

Eta ikasi ezazu, bide batez, abarkadunetatik abarketak eta beste oinzorroak janzen dituzten gizonetara dagoan gorabehera eta ezberdintasuna. Nere iritziz, abarkadun gizonak menditarragoak, benatsuagoak, patxadagokoak, gizaseme zahar eta aginpidekoai begirune hobean hitz egiten dakitenak dira; abarketadunak, osterak, arintxoagoak, txoro eta txakilagoak²³⁶, beren buruen irizte handikoak eta besteentzat destaina erreza daukatenak. Basetxetarrak, nere ustez, lehenbiziko abarketa jantzitzean galdu zuten apur bat beren baserritartasuna, eta larruzko oinzorro argitsuak janzen berriz, ia uritartzat hartu daizkegu²³⁷.

Nahigabe handia ematen dit neri honek, bada urietako euskaldunak, danak ez baina bai askotxo, azaletik bakarrik dira euskaldun, mingainez dira sorterrizale. Tximista gorria! Ez diezadazula arpegi beltzaz begiratu. Deadarka esango dizut, albiste berria ez da baina. Urietan izurri txarra dago euskerarentzat; urietan janzkera zaharra-kin batera joan zitzaizkigun gure ohitura zaharrak, eta janzkera berriekin batera datorkigu erdera, birao, nasaikeria eta txankamekeria²³⁸. Baserritarrak ez dira gizon doneak, ez. Bai zera! Entzun didazu zer esan dedan batzuekatik, eta ez ditut guztien zauri eta zornak

²³⁵ Alborengo: pulmonia.

²³⁶ Txakil: ganora gutxiko gizon.

²³⁷ Daizkegu: ditzakegu.

²³⁸ Txankamekeria: ergelkeria.

erakutsi. Orraztu behar handia daukate askok, badira norbaitzuk akerraren adarra baino okerragoak eta pozik astinduko nituzke gorosti makilaz, pozik; baina hala ere, baserritarren artean, abarkadunen artean daude Euskal Herri barruko euskaldunik egiazkoenak. Abarkadun gutxi ikusiko dezu erderaz mintzatzen edo *habanera*, *txotis* eta beste arrotz dantza nahastuetan. Horretarako abarkak kendu behar dira lehenbizi.

Hara zergatik etortzen naizen, ahal dedan guztian, abarkadunen jai eta jolasetara. Astakeria batzuk egingo ez balituzte! Aditzen²³⁹ dituzte ba, bereak eta bi. Dana dala, ni beti izango naiz abarkadunen maitale. Zer arraio! Nork ez du noizean behin astakeriaren bat egiten...? Ixo, ixo. Apostulariak badatoz. Agur, mutil, beste bat arte, gero ikusten ez bagera. Bost *duro* Zabaletakoaren alde!⁷⁷.

Oharkera batzuk egingo nizkion²⁴⁰ Patxikori, astirik eman balit: baina zeinek hartu gizon txirimola²⁴¹ harekin hitz egiteko tarterik? Aitaren egin orduko ezkutatu zitzaidan²⁴², eta ez nuan gehiago begiz jo.

Baina baneukan zeri begiratu. Gizon gazte, handi, bikain bi zetozen enparantzara, makutsik²⁴³, astiro, irmo²⁴⁴, lerden, ausarditsu, aizkora berri bana bizkarrean zekartela.

Inazio Mari eta Jose Domingo ziran. Beren ondoan zebiltzan, toki eginaz, haien alde, lagun eta auzokorik hurrenak, harroxko eta zuri-keria handietan, alderdi guztietara begira, aizkolarien oso adiskide ziralda adierazi nahian. Harrokeriak ere bere mailak ohi ditu: goren-goan jarri ezin dana, sarri egoten da goikoaren oinetan harro.

Jose Ramonek zekartzan beste aizkora batzuk, anaiarentzako; eta beste askoren artean Peru Odolki zetorren Inazio Mariren aurretik, besoai eraginaz, hitza, pitsa eta kirtenkeria zeriola. Joanes ez zan inondik agiri.

²³⁹ Aditu: entzun.

²⁴⁰ *J.t.* nizkon.

²⁴¹ Txirimola: zurrumbilo.

²⁴² *J.t.* zitzaian.

²⁴³ Makutsik: alkandoraren mahukak jasota.

²⁴⁴ *J.t.* ermo.

Aizkolari bietatik Bizkaikoa zan gazteena, gipuzkoarra bezain eder, zabal, sendo eta zaintsua. Oraindik ez zuan inongo enparantzan jokatu, baina bere herritarrak ziotenez, nahi baino indar gehiago zeukan, zumea baino bigunagoa zan, eta begia ipintzen zuan tokian jartzen zuan aizkora. Jose Domingo azpiratzeko gizonik ez zan jaio.

Horrela esan zioten behintzat Ana Josepari Berrizko sagar saltzaile batzuek, eta horregatik bilatu degu hain muker eta ainutsu²⁴⁵. Albiste horiek entzun baino lehenagotik ere nahikoa kezka bazeuzkan Ana Josepak. Behin baino gehiagotan aditzen eman zion berak semeari, kendu zezala jokorako seta gaiztoa, ez zedila gehiago apostuetan sartu, lan egin zezala, etxeari begiratu ziezaiola²⁴⁶; baina ezkondu eta gero ere, lehengo lepotik zeukan harek burua. Ai, nora joango ote zitzaizkion ezkonsaritzat emandako urregorriak! Arantzazuko Amari *Abe Maria* bat mutil hura zuzendu zedin..., apostua irabazi eta gero. *Abe Maria graziaz betea Jauna da Zurekin...* Aitak ere ondo erakutsi zion bere haserrea, eta garbiro esan zizkion esateko guztiak. Ez biguntzea mutila...! *Bedeinkatua zera Zu andre guztien artean eta bedeinkatua da Zure sabeleko frutua Jesus...* Bai, gurasoak ahaleginak egin zituzten Inazio Mari bide onean ipintzeko, baina alperrik. Nola beregain bizi zan... *Santa Maria Jaungoikoaren Ama...*

Zabaletako etxeoandreak ez zuan bere burua ondo ulertzen eta ez zuan, gai honetan, egia osoa esaten, bere anima barruan zer gertatzen zitzaion ez zekialako. Zaila da norbere berri jakitea. Semeari ez zedila apostuetan sartu esaten zionean, nahieza baino bere mutila barregarri geldituko ote zan bildurra eta berak aurreratutako diru ederren arriskua erakusten zuan gehiago Ana Josepak. Aurretiaz izaten ziran beti honen erriertak, bada jokoa irabazi ondoren ez zegoan Inazio Mari bezalako mutilik, batez ere txanponen batzuk etxera eramaten bazituan. Inoiz behin Joanes argiak adierazi ohi zion lausotasun hau, baina errez ahazten²⁴⁷ zitzaion emazteari apuko²⁴⁸ berria zetorrenean.

²⁴⁵ Ainutsu: kexatsu.

²⁴⁶ *J.t.* zaiola.

²⁴⁷ *J.t.* ahaztutzen.

²⁴⁸ Apuko: aitzakia.

Irakurlea: nik ez ditut gauzatxo hauek Ana Josepa makurtzeagatik ipintzen. Ez dira horrenbesteko akatsak; etxeoandrea zan, eta etxeoandre danak egiten diote diruari ongiatorri handia; ama zan, eta ama guztiak nahi dute beren semeak gailurrik gailurrenean ikustea.

Ama zalako zegoan esaten ari nintzan leku eta garaian, jokia hasi baino lehentxoago, harmaila²⁴⁹ batera igota, beste batzuekin txondortuta²⁵⁰, gizadiaren erdira begira, seme maiteari begiak botetaz, ausarta eman nahiaz, susmo txarrean, aiene mintsuan, zitala, errea, pipertua, Bizkaiko emakumeak ziotena ezin eramanik, bere txiteari lagundu nahi dion oiloa bezala, erraietako umearen guda ikusten duan lehoi eme baten irudira, eta buruko ileetatik edozeini laster heltzeko gogo beroz. Zaharra izan arren lanak emango zituan horratik, bizkaitarren bati heltzen bazion.

Baina utzi ditzagun andrazkoak eta ikusi dezagun gazte adoretuen esetsaldia²⁵¹, Mondragoiko ikuskizunik handiena hori zan ezkerro.

Herrizainak makila eta bultzaka gizon-uztai trinko bat egin zuanean, heldu ziran jokalariaiok zuhaitzeraino, begiratu zioten alkari hitzerdika batzuk esan bitartean, aukeratu zituzten berriz, banan-banan ikusiaz, lehenago ere ondo aukeratuta zeuden aizkorak, entzun zituzten sasi-jakintsuen azkenengo esanak eta jaurtigi zuan Juan Andresek ontzurre²⁵² bat gora-goraka jokalaria bakoitzari bere zuhaitza izendatzeko.

Heldu zan ordua! Enparantzako gizatalde ugaria zabalundu²⁵³ zan ekaitzaren haizeak ikutzen dion zuhaitzia bezala; saltzaileak eta erosleak, gizonetzko eta emakume danak, utzi zituzten beren tokiak berebizikorik azkarren, hurbildu ziran guztiak gizon-uztai²⁵⁴ trinko-

²⁴⁹ Harmaila: harrizko maila.

²⁵⁰ Txondortuta: txondor itxura hartuta, pilatuta.

²⁵¹ Esetsaldi: borrokaldi.

²⁵² Ontzurre: ontzako urrea.

²⁵³ Zabalundu: balantza egin.

²⁵⁴ Gizon-uztai: jende tarteko hutsune.

aren atzealdera, eta mahai gainetan, zorroetan, gurdietan, harri mailetan, inguruetakoko leiho eta teilatuetan, buru mordoska berriak agertu ziran artega, enparantzara begira.

Nik ez dakit zergatik iruditu zitzaidan bildurra sartu zitzaizela gizon askori bihotzean, bada lehentxoago garrasika zebiltzanak isil-isilik gelditu ziran, barre-algaretan zeudenai kopeta lainotu zitzaizen, eta destainarik handienak esaten zituztenak, hesia ipini zioten ezpainetan, bihotzetik zetorkien²⁵⁵ gehiegizkeriari. Bai, bildurrak zeuzkan gizonak beren marratik irten gabe, bildurrak zeuzkan alkarri zor zioten begirunean, maitetasunak baino askozaz hobeto.

Hala ere, bizkaitarren batzuk, beren ustea edo irabazi-nahia ezin gorderik, bazebiltzan deadarrez:

—Ontza bat urre Abadiñokoaren alde! Ontza bi urre Jose Domingoren alde!

Eta gipuzkoarrik beroenak edo jokalarienak honela erantzun zioten:

—*Ai ba*, eginda daude bi ontzurreak! Baita zortzi nahi badituzu ere, baita idiak ere! —. Peru Odolkik lepoa nahi zuan jokatu.

Bitartean, gure aizkolariok, ahoa zabaldu gabe, osoro benaz, patxada onean, plazagizonai zegokien²⁵⁶ bezala, kendu zituzten oineta-koak, eman zien²⁵⁷ eskuai txistua, hartu zuan bakoitzak bere aizkora, eta jarri ziran tente zuhaitz gainean, beren lan ikusgarria hasteko aginduaren zain.

Une larria! Ergai²⁵⁸ estua! Apostularien deadarrak eta bilera gizatsuko durundi zurrumurrak berehalako baten bukatu zitzaizkigun, bihotzak taupadaka geunzkan, hainbeste mila gizon eleizan bezain geldi eta isilik geunden.

Baina ez ginan luzaroan egon. —Hasi! —esan zuan agintzaileak, eta gure gizaseme bikain biak, bat-batera, sartu zituzten beren aiz-

²⁵⁵ *J.t.* zetorkioten.

²⁵⁶ *J.t.* zegokioten.

²⁵⁷ *J.t.* zioten.

²⁵⁸ Ergai: une, momentu.

korak zuhaitz lodien bihotzetaraino, koipetan sartzen dan labana baino hainbat errezago. Eta aizkorak erortzeaz batean baserritar guztiak, trumoi ikaragarriaren itxurako alarau luze bat egin zuten, eta hasi ziran batzuk berriren berriz biriak bota beharrean, eztarriak eten beharrean oihuka:

—Ea, Jose Domingo maitea, ekin hortxe, ekin, zu lakorik ez dago eta! Aufa! Hori dek, hori dek, hori dek jotzea! Aurrera, aurrera, heurea dek eta!

Ez zan lehenengotik igartzen garailari zein izango zan. Biak jokaten zuten ederki; biak jotzen zuten zuhaitz-gerria gogor, azkar, zuzen, behar zan tokian bertan, alderdi batera eta bestera ezpal zati handiak boteaz, surtako egurrak txingarrak botatzen dituan gisara.

Lehendabiziko zuhaitza berdin-berdinean bukatu zuten... Orobat bigarrena... Eta hirugarrenaren gainean, hasieran bezala zeuden jokalaria, zail, zimel, zauli²⁵⁹ eta kementsu, *zizt* eta *zazt*, *dinbi* eta *danba*, batak besteari aurrerik hartu ezinda. Apostularien armintasunak²⁶⁰ ez zuan neurrik. Jaungoiko Donea! Zer gertatu behar ote zuan!

Jose Domingo eta Inazio Mariren erakusleak, gizon ohituak, zuhaitzen ondoan makurtuta, makilatxo batez erakusten zien non jo, eta eskuaz kentzen zizkien katigatuta gelditzen ziran ezpal zatiak, izugarri bizkor; eta aurrean zeuden beste adiskideak, hortzak estutuaz, ezpainak okertuaz, buruari eraginaz, zinuka, inkesaka²⁶¹, jeupadaka, ahalegin guztiak egiten zituzten aizkoradunai *laguntzen*.

—Ea, Jose Domingo —entzuten zan ziotela—; ea, Jose Domingo, jo gogotik, ondo zuaz da! *Alimo*. Ixio, *alimo*, bestea nekatu dek eta, gehiago haiz eta, *alimo*!

Egundaino halakorik! Azkenengo zuhaitzean, seigarrenean, hor nonbait zebiltzan biak, berdin samar zeuden oraindik. Berdin, baina

²⁵⁹ Zauli: arin, bigun.

²⁶⁰ Armintasun: larritasun, estutasun.

²⁶¹ Inkesaka: aieneka.

biak unatuta²⁶², adikatuta²⁶³, piper gorria baino gorriago, izerdi patsetan, koipe eta lurrunetan, arnasa estuz, sutegiko hauspoen antzerapuzka, eta okotzetatik behera esne itxurako pitsa erortzen zitzaie-la. Amaitu behar zuan jokoak eta nola inork ez zekian. Hura urduritasuna! Hura hezurretarainoko ikara! Hura nik neukan errukia! Nahiago nuan toki hartara joan ez banintz... Aizkolariok zeharka begiratu zioten alkarri. Aiene! Galtzeko zorian zeukaten lagunendirua, etxeko bakea, herritarren harrera ona, beren izen handia! Baina ez zuten etsi nahi, ez etsi behea jo arte. Lehen baino gogorrago jarraitu²⁶⁴ zioten beren arloari, lehen baino zoliago, biziago, nabarmenago jarraitu zioten, ezker-eskuin, hor eta hemen, ongi eta gaizki, zuzen eta oker, gizon lauso haserratuend gisara zuhaitzak astinduaz, eta iskanbilarik handiendean, ikusle guztien, *ea! hortxe! aurrera! ekin! jo! hausi! bota! ebaki!* eta beste oihu estuen erdian... *et...! et...! et...! biba!!* bukatu zan joko.

Orduantxe irten zuten baserritar guztiak beren marratik, ibai uioltsuak zelai eta soroetara irteten duten itxuretan; orduantxe urratu ziran alkarren begiruneko lokarriak eta leher egin zuten anima doilorren grina zatar eta harrokeria lotsagabeak.

Han esan ziranak! Han entzun nituan gauzak! —*Biba* gu eta gutarrak! Behera ustelak! Astoak ukuilura! Beste gizonik Bizkaian bada, eman dezala arpegi! Eguzkiaren azpian inor baldin bada, agertu dadila hemen! Behetik gora prakak janzten dituanik inon bada, betor Inazio Mariren ondora! Ez dago inon gipuzkoarrak bezalako-rik! Gora Gipuzkoa! Gora Zabaleta! Gora Inazio Mari!

Nik ez dakit nola ito ez zan hau adiskideen besoetan. Hainbeste-rainokoa zan danen lepotik heldu beharra, besapetik hartuta jaso nahia, bular gainean estutzea, bizkarrekoak ematea, gizonari bakte-tan utzi ezina. Ez zegoan hura bezalako gizonik lurbira guztian, base-rritarrentzat.

²⁶² Unatu: nekatu.

²⁶³ Adikatu: nekatu, leher egin.

²⁶⁴ *J.t.* jarrai.

Jose Domingok ez zuan izan hainbeste lagun. Azpian gelditzen danak beti du lagun gutxi. Baina bai leialak.

—Ez deutsu alde askogaz irabazi —esaten zioten janztetxeruntz zeramatela—; aizkorakada bigaitik izan da guztia. Adarbegia idoro ez bazendu, zeurea zan jokoa. Adarbegi añaniñua²⁶⁵...! Ozta-oztean irabazi eta halango harrokeriak. Hondino ikusi behar dozue, ba, alkar, bai Jaungoikoak gura badau...

.....
Nik ez nuan ikusi, baina badakit arratsalde hartan bi jostailu erosi zituala Ana Josepak: haurtxoak miazkatzeko izaten duten uztaitxoia eta burdina mehe argizko ume-txintzarria, biak erreal batean, oso garesti. Ea bada, egun guztiak ez ziran berdinak eta. Manueltxori eta Joxeri zerbait erosteko ere egon zan, baina zertako? Azukre koskor bana eman eta kito. Mondragoiko azukre, *konpita karamelo* guztiak baino gozoagoa zan emango zien albistea. Jas! Zein ederki jokatu zuan Inazio Marik! Joanesek esanak esango zituan, baina diruak irabazten zekian mutilak.

Ilunabarrean, nere eginkizunak amaituta herri alderuntz nentorrela, baserritar asko bilatu nituan bideko ostatueta, ohiturazko atsedanak egiten, premia gabeko jan-edanetan, beste dema batzuetarako hazia botatzen eta ardoak ematen duan indarraz *bertsoak* erositzen.

Hara nik zalpurdirako argi bila sartu nintzan ostatu batean entzun nituanak:

Bertso herri batzuek
Nahi ditut *paratu*,
Pulamentuz esanaz
Gaur zer dan *pasatu*.
Bizkai guztia hemen
Guk degu hondatu
Ez da Ixio Mari
Hain gaizki *portatu*.

²⁶⁵ Añaniñua: demonioa, deabrua.

Gaurko apostu horrek
Badu *inportantzia*,
Hitz bitan esango det
Bere *sustantzia*:
Bizkaitarren diruak
Bete dit *poltsia*,
Hara zergatik dedan
Nere *alegrantzia*.

Ez zidan neri batere *alegrantziarik* eman haien ahoetan euskere-
ak zeukan gorniak²⁶⁶.

Eta haien ahoetan bakarrik balitz!

²⁶⁶ Gorni: elgorri, txarranpin.

VI

HERRI ETA ERBESTEAN

Juan Andres, atzerrira joan zan ezkeru, behin bakarrik etorri zan Zabaletara. Urteak igarota behin bakarrik, eta egun gutxirako.

Lehenengoetan, jaiotetxetik urruti, Gaztelerriko lur legor beroen erdian, erdaldunen artean, erderaz mintzatu beharrean, adiskide gutxirekin, gurasoen maitetasun gabe, sorterriko mendi berdeak ikusteko gogo haundia piztu zitzaion, euskeraz hitz egiteko eta Gogordo azpiko erreketan ur garbi hotza edateko lehia bizia; baina gero adiskide batzuk gehiago egin zituan, Gaztelako hizkuntza eta ohitura berrietan zeharo sartu zan, zeregin batzuk amaitzean beste batzuk agertu zitzaizkion, eta pitinka edo atalka, makaldu eta hil ziran Juan Andresen bihotzean euskal mendiak ikusteko lehia, euskeraz hitz egiteko gogo eta Gogordoko ur garbiak edateko egarria.

Baina, esan det, etorri zan behin *San Migeletan* gurasoen dei bigunari noizbaiten erantzunaz, etxeoai ezer lehenago jakinerazi gabe.

Agorrilaren arratsalde batean jaitsi zan, Oñatiko udaletxearen ondoan, zalpurditik.

Ez zuan inork itxaroten, ez zuan inon olesik²⁶⁷ egin azkar ibili beharrez, eta ez zuten ezagutu oñatiarrak Zabaletako harri zulatzaille ospetsua.

²⁶⁷ Oles egin: agur egin.

Nolatan ezagutu? Ez zan errez ezagutzea. Iltzedun oinzorro lodiak zeuzkan oinetan, *panilazko* jantzi berria zekarren soinean, euritako²⁶⁸ handi ederra ezkerreko galtzarpean²⁶⁹, pardeltxo bat eskuineko eskuan eta zilarrezko kate luzea, hainbeste lerrotan, txilborretik behera esekita. Trinkoa zetorren, lodikotea, baina beltzerana, eguzkiak errea, arrotz itxurakoa.

Zalpurditik jaitsi eta berehala, pardeltxoa euritakoan sartu, sorbalda gainean ipini, eta oinkadarik sendoenaren oihartzuna atari isil zabalen aurrean utziaz, izpi baten igaro zituan Oñatiko kale-hariak.

Emakumeak, gauza guztiak jakin nahirik bizi diran irudimen azkarreko emakume urduri batzuk, bata besteari galdezka gelditu ziran:

—Zein *ete* da gizon hori?

—Ez dakigu ba.

—Goibela behintzat.

—Guztiz.

—Erdalduna gainera.

—Baleiteke.

—Arpegi txarrekoa.

—Osoro.

—Irantzaileren²⁷⁰ bat.

—Irantzailea? Jum! Gantzak²⁷¹ ateratzen dituana ez bada...

—Ene! Halaxe izango da. Zer zeukan zer joan hor barrura hola-ko gizon arrotzak? Baserritar gaixoak! Jesus, Jesus! Eta gure umeak? Nun ete dira gure umeak?

Jaungoikoak daki noraino helduko zan emakume bildurtien irudimena eta zer iskanbila sortuko zuten Arantzazutik behera herritar zaldun bat azaldu ez balitz.

²⁶⁸ [*Paraguas*].

²⁶⁹ Galtzarpe: besape, besazpi.

²⁷⁰ Irantzaile: zikiratzaile.

²⁷¹ Gantz: gurin, koipe.

—Don Bizente —esan zioten ikaraz—, ikusi al du hor gizaseme apain bat?

—Bai.

—Eta zer deritzo?

—Zatartu egin dala.

—E? Zatartu? Ba al daki zein dan?

—Jakingo ez dot ba?

—Zein, zein?

—Joanesen semea.

—Zabaletakoa? *Trosuetan*²⁷² ebilena?

—Berbera.

—Jas! Eta honek gantz ataratzaila izango dala.

—Nik eta zuek, guztiok; ez hemen norbere errurik inori bota.

—Danok *be*, hutsetik gezurtegiraino joateko *etzara*²⁷³ txarrak zuek.

Zabaletako seme gazteak ez zeraman batere Oñatikoen gogamenik. Etxerago eta azkarrago, alderdi guztietara begira, nolako harre-
ra egingo zioten amesetan, Uribarriko auzotegira aurreratu zanean, gurdibidetik lehenengo, eta gero, hiru harri maila igonda, soto ertze-
ko bidezidorretik, ezkerretaruntz hasi zan baserri aldera zoli-zoli.

Hain zuzen orduantxe zegoan Pedro Anton zaharra belarra eba-
kitzen muino baten hegian.

—Jaungoiko maitea! —esan zuan, betondoan eskua zabalik ipi-
nita, bidaztiari begiratuaz—. Gizon horren ibilerea... Egingo nuke
geure Juan Andres dala... Bera da eta! Bera da eta!

Aguratxoak, igitai, bedar eta otarra utzirik, izugarrizko antxitxi-
ketan²⁷⁴ irten zion bidera Juan Andresi, eta estutu batzuk eman ondo-
ren, oihuka eta losinka, eutsika eta bultzaka, lagundu zion mutilari
etxeraino, aspaldian ikusi gabeko nagusiari txakur leialak egin ohi
dioten antzera.

²⁷² Trosuetan ibili: mehategi edo harrobi-lanetan ibili.

²⁷³ Etzara: ez zarete.

²⁷⁴ Antxitxiketa: arineketa, lasterketa.

Laster jakin zan Uribarri guztian mutil horren etorrera. Gau hartan eta hurrengo egunetan, andreak eta gizonak, gazteak eta zahar-
rrak, lagunak eta auzokoak, denak joan behar izan zuten Juan
Andres ikustera eta berak esaten zituanak entzutera. Izan zuan nork
entzuna ugari.

“Pankorbo zeritzaion herri zakar batean egon zan bera lehenbi-
zi, gero Santa Olallan. Alderdi hartako herriak baldar eta txiroak
ziran gehienak; hango lurra agor, lau, zabal eta berdinak, zuhaitz
eta belardi gabeak; baina batere itxurarik ez zutela, harkoskor arte-
an bada ere, garia ematen zuten galanki. Lur haietan ez zan artorik;
dena garia, edo garagarra, edo oloa²⁷⁵, edo zekalea²⁷⁶, itsasoa beste
luzerako sailetan. Gizadiak ostera txikiak, igarrak, beltzak eta nola-
baitekoak iruditu zitzaizkion. Bai, *prantsesak*, gaztelarrak eta eus-
kaldunak nahastean ibili ziran burdinbideak egiten; baina ez zuan
bilatu harrobian, hargintzan edo lurra jasotzen euskalduna bezalako
gizonik. Euskaldunak egin zituzten, anitz lekutan, lur azpiko bide
luzeak; euskaldunak zabaldu eta jantzi zituzten Atapueta, Karraskal
eta Astorkilaskoak. Herri asko ikusi zituan berak, Juan Andresek,
batzuk handi eta gizatsuak, Bribieska eta Burgos, eta... Burgos! Hura
bai zala uria! Hango elizak, hango *katedrala*...! *Katedrala* zer zan?
Eliz handi eder bat, Oñatikoa baino ere askozaz handiagoa eta ede-
rragoa. *Katedraleko* apaizak *kanonigoak* ziran, beste apaizak baino
gradu gehiagokoak, eta eliz hartako buru *Artzobispa* zegoan, Aita
Santuaren hurrengo gizona. Haze urrezko txapela erabili zuan harek
dagonileko Andre Mariaren egunean! Urrezkoa, bai, urrezkoa, baita
behatzean zeraman eraztun lodia ere... Urrutietara joan ezker-
o edo-
zenbat gauza ikusten eta ikasten zan. Hara, berak, etxetik irten zua-
nean, tutik ez zekian erderaz; baina orain edozeinekin mintzatzeko
beste bazekian. Gaztelarrak burdinbideari *perrokarril* esaten zioten,
eta prantsesak ostera *txemen de per*. Ondo esan behar zan baina: *txe-
mén de perrr!*”.

²⁷⁵ Olo: “avena”.

²⁷⁶ Zekale: “centeno”.

Ondamuz zeuden Juan Andresen inguruko lagun eta aditzaileak. Bai ba; ederki jantzita zetorren, hainbeste gauzen berriak ematen zituan, erderaz ere bazekian, bazan diru pixka baten jabe, ziotenez; zer gehiago eskatu zezakean gizonak? Bateri baino gehiagori erne zitzaien bular barruan prantses ikastera joateko gogoia, diru apur bat eginaz eta Artzobispoa ikusiaz.

Manueltxok, ordurako indartua zegoan eta, bere nahia ezin gorderik:

—Aita —esan zion Jose Ramoni—; nik ere osabarekin joan behar det.

—Osabarekin? Heure gazteria lur azpian igarotzera? Ez, bertan daukagu hemen zer jana eta non lan egina, inora joan gabe. Lurpean baino hobe dek lur azalean arlotu²⁷⁷, eguzkiaren argitan hagoala eta zeruaren edertasuna dakusaala²⁷⁸.

Malentxo, neska zizkortu²⁷⁹ zoragarriak:

—Ama, ni handitzean, Artzobispo egingo al nau?

—Bai, nere kutuna, nik egingo zaitut zu Artzobispo eta *Katedral* eta Burgos guztia baino handiagoa eta ederragoa; eliz barruan, Aita *San Inazio*ren ondoan jartzeko euskaldun donerik politena egingo zaitut.

Etorri berriaren gurasoak mutilaren esanakin ez ziran batere lausotu. Txit abegi ona egin zioten lehenbizi, oso atseginez hartu zuten beren besoetan; baina semearen erdal soinekoak begiratu, epeltasuna ikusi, euskera nahastua entzun eta maitetasunik eza igarri ziotenean eta, batez ere, mutilaren erbestera berriz joateko asmoa jakin eta gero, pozaren ordez, nahigabe minkaitza²⁸⁰ jaiki zitzairen erraien erdian.

Hara hemen aitak Juan Andresi, bakarrik harrapatu zuanean, esan zizkion hitzak:

²⁷⁷ Arlotu: lan egin, zerbaiti ekin.

²⁷⁸ *J.t.* dakuskala.

²⁷⁹ Zizkortu: koskortu, hazi.

²⁸⁰ Minkaitz: mingots, garratz, mikatz.

—Ez haiz mendikoa, ez dirudik gutarra, joan zaizkik hemengo garo usainak.

—Zergatik? Erderaz dakidalako?

—Erderaz jakitea ona dek, euskeraren kaltean ez bada.

—Gaztelerrian adiskideak dauzkadalako?

—Kristauak edonun behar ditu adiskideak, hobeto esango det, edonun dauzka bere anaiak.

—Zergatik, bada?

—Heure baserrira, heure gurasoakana, gogorik gabe etorri hazialako. Igartzen diat: ez hago hi ondo hemen; heure etxe barruan atzerritarra dirudik, janzkera eta hizkeragatik baino buru eta gogoagatik gehiago, bada hire buru eta gogoia erdalerriko irabazian dauzkak.

—Nork ez dauzka? Baina nik alderdi guztietan goratu det Euskal Herria.

—Heure burua goratzeagatik, apika. Hik eta beste askok, ahoan Euskal Herria, Euskal Herria; bihotzean norbera, norbera! Eta norbera esatean, dirua esaten diat hiri. Ezagutzen haut: gaztelar eta prantsesak beheratzeko gaizki esaten dek, baina haien diruagatik heure sorterrira salduko heukeala-ta nago.

—Aita!

—Bai. Eta hi bezalako euskaldunak badira makina bat.

—Ez beza horrelakorik esan, aita.

—Ez hadi horrelakoa izan, seme.

Ana Josepak, ostera, betondoa zimurtuta, betiko haserre itxuran:

—Mutil, gauza batekin natxegok²⁸¹ harrituta. Zer ekarri dek hor, ezpain gainean?

—Horixe da galdera. *Bibotea*.

—Bibotea? Kendu itzak bizar horiek hainbat lasterren, gurean ez dek horrelako zikinkeriarik behin ere izan eta.

—Bai zera kendu! (*Behatzez igortziaz*) Ondo egoki dauzkat.

²⁸¹ *J.t.* natxiok.

—Egoki? Zertarako egoki? Sudurreko urentzat malatua²⁸² egiteko? Kendu beharko dituk laster, edota bestela...

Semeak ez zituan kendu, baina Ana Josepak egin zion egitekoa. Juan Andres lotan zegoan txolarlean²⁸³, guraiza zorrotzez, *trist*, *trast*, moztu zizkion goi-ezpaineko bizarrak²⁸⁴. Ze demontre! *Fuera bizarrrez!* Zabaletan ez zan behar biboterik.

Gertaera barregarria zan hura, eta barre handiak egin zizkioten orduan lagunak gure mutilari, baina berak ez zuan batere barrerik egin. Zapuztuta, minberatuta, muturtuta igaro zituan egun batzuk etxean; baina laster, amak egin zionagatik, edo aitak esan ziona egia zalako, edo ez dakit zergatik, behinik behin aspertu zan Oñati aldean, gogait eragin zion bere baserriak, eta gurasoen damuzko hitz eta egiazko maitetasunaren eskariak entzun nahi ezik, hartu zuan berriro erdalerrirako bidea.

Ez zuan horratik beste zartada bat eraman gabe Gipuzkoako lurra utzi. Zumarragara ia heldu zanean, zaldizko batek, Patxiko sendatzaileak, soro tartetik:

—Jeup! —deitu zion.

—*Hola, Don Prantzisko!*

—Astia dedanean, prantsesez mintzatu behar diagu.

—Ez da ba honezkero errez izango.

—Zer ba?

—*Kanpora* nua.

—Nora?

—*Trosuetara*.

—Ez al zegok atxurrik Zabaletan?

—Baina beste leku batean dauzkat nik nere lanak.

—*Papa Moskas*²⁸⁵ hil al dek?

—Beti *umore* onean berori.

²⁸² Malatu: uhaska, ur bide.

²⁸³ Txolarte: tarte, bitarte, aldarte.

²⁸⁴ [Gertatua da].

²⁸⁵ Papa moskas: zer eginik gabe, begira dagoena.

—Ez, alajaina. Zinez galdetu diat. *Papa Moskas* hil badek, eska-tu ezak haren tokia hiretzat. Berebizikoa haiz. Ez haserratu, egia esan diadalako. Agur, astokilo, ikusi arte.

Bidaztiak ez zuan ezer erantzun. Kopeta goibeldurik eta ezpainak dar-dar zituala, lepoa eman zion sendakinari.

—Petral, zikin, urde arraioa! Mooño...! —esan zuan bere artean.

Eta Patxikok, zaldia zigorrez joaz:

—Je, je! Igesi doan txakurrari buztanean su eman diot.

Handik aurrera Juan Andresen albiste gutxi izaten zuten Zabaletakoak. Horratik ere, noiz edo noiz etorri ohi zan eskutitz bat edo beste, etxeokak egindakoenaren erantzueran, gaur Billadiegotik, bihar Palenziatik, orain Medinatik, gero Zamoratik, behin Orensetik, eta Braganzatik hurrengoan; baina beti elkor²⁸⁶ eta laburra, zeregin asko eta gogo gutxiko gizonak egin ohi duten bezala. “Ondo nabil”, “Astullidora goaz”, “*Katapaz* jarri naiz”. “Hogeta hamar gizonen burutzat nago”, “Lau hilabeteko lana daukagu hemen”, “Poliki irabazten degu”, eta horrela urte askoan; arau batean eta murrizki.

—Ez al du ezer gehiago ipintzen? —galdetu ohi zuan anaiak—. Noiz etorri behar duanik ere ez? Hainbeste hilabetean zain egonda... Horixe bai dala hitzak zenbatuta biraltzea, ontzurreak balira bezala. Gaitzerdi poliki irabazten badu. Hara, Joanes, *poliki*, baserritarren mintzoeran, *asko* esatea beste da, eta asko irabaziko du gure mutilak. Ikusiko dezu, aberastuta etorriko zaigu semea.

—*Urruneko eltzea urrez, etxerat orduko lurrez.*

—Bai beste batena, baina Juan Andresena? Ez sinestu. Harek ez du dirurik eralgiko, lehengoa bada. Txanpon bat bakarra ez zidan eman herrira etorri zanean ere! Non gordetzen ote ditu diruak?

—Zure sakelean ez behintzat. Horregatik diot: *etxerat orduko lurrez.*

—Non leuzkake hobeto? Eta badauzka nonbaiten, bai, nahieta-nahiez eduki behar.

²⁸⁶ Elkor: antzu, ez emonkor.

—Zenbat daukan baino nahiago nuke jakin nolako bizikera darabilen.

—Zuzena izango ahal da mutila, geurea da eta. Handia da horratik ezer ez gehiago adieraztea!

Bere gurasoak ez zekiten, baina nik badakit nolako bizitza zera-man Gaztelerrian Zabaletako semeak: beste hango adiskideen bizitza berbera, zeken zikoitz diruzaleen bizitza. Alderdi askotako gizonak zebiltzan alkarrekin; baina, zerbaiten agintea zutenak behintzat, berdin samarrak ziran, kristau hotzak, asmo eta gogamen bakarrekoak; nondik eta nortara lortu zitezkean txanponak errezago eta oparoago. Haien artean ez zegoan ez Jaungoikoaren agindurik, ez otoitz, ez ohi-tura onik, ez hizkuntza garbirik. Inork ez zuan gurutze bat kopetan egiten edo *Aita gure* bat esaten, kristau oroipenik ez zualako edo lagunak bildurrez; denak uzten zuten jaiegunetako Meza, elizetatik urruti zeudelako edo alkarren lotsaz; denak egiten zuten lanik gogor eta neketsuena, igandeetan ere, nagusiekikoa edukitzeagatik edo besteak baino gutxiago ez irabazteagatik.

Denak esan ezkerero esana dago, Juan Andresek ere bai. Bizikera horrek, egia da, min ematen zion lehenbizi bihotzean eta osoro iluntzen zion anima; baina laster ito eta estaldu zituan bihotzeko harrak eta animaren kezkek. Lagunak bezala ez izatea ez zan itxurazkoa, bere ustez; inork ez adina indar eta gaitasun eduki eta besteak baino gehiago ez irabaztea ez zegoan ongi. Barre ere egingo zioten. Barre! Nahiago zukean ukabilkada bat hartu, bere burua gizonen barregarritzat erabili baino. Ez, jakin zezatela zenbaterainokoa zan menditarra. Hizketan eta berriketan eramango zioten, baina ez lanean, ez horixe.

Iritzi oker haien zirikadak lainotu zioten adimena Juan Andresi, gogortu zioten errai-barrua ezin gehiagoan, eta ahaztu zitzaizkion euskal mendiak, euskal ohiturak, ahaideak, gurasoak, sinesteak, oroipenak eta baita ere Jaungoiko Ahaltzu Donearen aginduak.

—Ba! —jardun ohi zion bere buruari, zerbaitez gogoratzean—. Zer doakit Euskal Herrira bihurtzeaz edo ez bihurtzeaz? Hutsa. Ez dit axola hemen edo han bizi, euskeraz edo gaztelarrez hitz egin, arto

lizuna edo ogi legorra jan, babarrunez edo barbantzuz ase, ardo bel-tza edo sagardo gorria edan. Ardoa hobea baino ez da indarra emateko... Zer ateratzen det otoitz eginaz eta Mezatara joanaz? Ezer ez. Lan orduak eta txanponak galdu. Ez gaude gaur horretarako. Gero ere, zahartzaroan, izango det bai astia nahikoa Mezak entzuteko eta otoitzak egiteko. Irabazi, irabazi: hori da gizonak gazte dagoan bitartean egin behar duana. Eta hementxe, Gaztelerrian daukat irabazbidea, geroago eta ugariago, geroago eta areago, bada langileai agintzea eta arretaz begiratzea da nere zereginik handiena. Irabazbidea eta gizon handien adiskidetasuna gainera. Burdinbideko nagusi eta agintariak beti darabiltzaat²⁸⁷ nere atzetik deiezka: “Juan, ez zaitez hemendik alden du, eta ikusi ezkerraldeko langile horiek zer egiten duten”. “Juan, ea gurdi hauek azkartxo biraltzen dituzun”. “Juan, zeuk hasi beharko dezu horko edo hango harrobia”. “Juan, hemengo lanak bukatzean, gurekin etorri beharko dezu honelako edo halako herrira”. *Astokilo* esan zidan neri *Don Prantzisko* sendatzaileak, baina ez nauka ni hemen inork astokilotzat. Bera da hura astokilo, berritsu, ergel, ziztrina. Irri egin behar inori, urtean hamar mila erreal doi-doi irabazten dituan gizonak.

Ezin ukatu genezake Juan Andresek arlo handiak zeuzkala zegoan tokian; berez eta jatorriz trebe, zintzo eta langile ona zalako, nagusiak ongi begiratzen ziotela gogoz aitortzen degu; baina, belarrrondora eta erdi lotsaz bada ere, beste ipuintxo bat agertu beharrean gaude.

Bazebilen han norbait, burutik okozperako zapiduna, gona motz hori lodiz janzten zana, bularrean gurutzeturiko oihal zirpilsuz²⁸⁸ lotua, gerri zabal, mokor astun, ibil-baldarreko emakumea; bazebilen gau eta egun, goiz eta arratsalde, euskaldun gizasemeaz amesetan, morrosko sendoa non ikusiko, bere barruko itxaropen eta bildur-rak mutilari nolatan esango. Dionisia Gomez Jundeiro zeritzaion,

²⁸⁷ *J.L.* zarabilzkit.

²⁸⁸ Zirpil: trapu zahar.

langileen arteko galiziar edari²⁸⁹ saltzailea zan, Antonio Gomez *Moreno Katapazaren* alaba. Harexek zekizkian ondo Juan Andresen albisteak, bera zan gehienbat gure menditarrak Gaztelerrian egoteko zeukan zioa, bera Zabaletako gaztearen lika eta lakio²⁹⁰, jabe eta etxe-koandre. Bai, Zabaletakoak pozik emango zizkion begi biak Dionisiari, honek eskatu ezkeru, bere bihotza oso-osorik emanda zeukan bezala. Alkarrekin ezkontzeko zeuden neska-mutilak!

A! Eta galiziar emakumea ez zan ez eder, ez garbi, ez aberats. *Nahikeriak edertzen ditu gauza itsusiak*. Gezurra dirudi, baina gezur irudiko egia asko gertatzen dira ezkontzako gauzetan. Irakurleak badaki.

Noizbaiten bada ere, aditzen eman zion zer asmo zerabilen Juan Andresek aitari. Ai, honen samina orduan! Ai, Ana Joseparen zotinak! Esan zioten semeorri arren!, oroi zezala antzinakoen esakera jakintsua: *urrutira doana ezkontzera, edo da engainatua edo doa engainatuzera*. Alperrik... Esan zioten, Jaungoikoaren izenean!, etor zedila etxeruntz hainbat lasterren, bazirala Euskal Herrian neskatxa onak, ezkonsaria ero-ero emango ziotela. Alperrik... Esan zioten ezin zitezkeela gurasoak urrutietara joan; ez zan itxura, erbestean, edozein-ekin!, ahaide eta guraso gabe, sasiko baten irudian senartzea. Alperrik... Esan zioten negarrez zeudela aita-amak, anaiak, ilobatxoak. Alper-alperrik: sua itzaltzeko, labe gori gartsuan isurtzea malko batzuk bezala.

Juan Andres emaztegiaiaz itsutua zegoan: Dionisiak, paparrean ezartzen zaigun musker baten antzera eutsi zion senargaiari, eta ez zion utziko zazpi herrietako kanpaiak jota ere²⁹¹.

Euskaldun basetxetarra ezkondu zan Gaztelerrian eta gaztelarren taiuan. Zer egingo zaio! *Bakoitza bere zoroak bizi du*²⁹². Utzi

²⁸⁹ *J.t.* erari.

²⁹⁰ Lika eta lakio: txori txikiak atrapatzeko liga.

²⁹¹ Oraindik bada gure artean ume-sineste txoro hau: muskerak gizonari helzen dionean, piztiak gizonari uzteko zazpi herritako kanpaiak jo behar dirala!

²⁹² *Cada loco con su tema*.

deiogun bakean, eta goazen beste Zabaletakoak nola zebiltzan jakitera.

.....
Inazio Marik luzaroan jarraitu zion bere jokorako seta gaiztoari. Egun batean galdu eta bestean irabazi, orain gaineko eta geroxeago galtzaile, Jose Domingorekin gorabehera handiak erabilita, Abadiñotarra menderatu zuanetik aurrera, urteetan eduki zuan Euskal Herriko aizkolarien nagusitza; baina nola betiko ilargi beterik ez dagoan, Beizamatar gazte indartsu batek azpiratu zuan behin, gehiago ez nagusitzara jaikitzeko adu²⁹³ txarrean, eta beste batzuek baztertu zuten ostera azkenengo aizkolarien zingo²⁹⁴ eta mugetaraino.

Hala ere, inork ezin zuan bere jokoetatik atzeratu. Alde batetik, lehenagoetan entzundako txalo soinuen oroimenak deitzen zion lagun artera; eta beste aldetik ondo zeritzon, nonbait, jokotik dirua errez irabazteari, erdi lanean edo alperreteria osoan bizitzeari; bada, Gipuzkoako azoka eta dema gehienetan, etxekoen isilik edo denak zekitela, saltzaile asmoan edo erosle ustean, jokatu nahian edo erakutsi *beharrean*, auzoko ahariarekin edo etxeko oilarrarekin, behi zaharra eramateagatik edo txahal berria ekartzeagatik, aizkorak edo palankak hautatzea zala, narrarria²⁹⁵ ikustea edo zuhaitz-neurketa zala, eta besterik ezean atxurak eta laiak zorrozteko garaia zala, aitzaki-maitzaki, gezur eta abar, non da nere gogoan han da nere zankoa, Inazio Mari azalduko zan azoka zelaian, harro-harro, aterako zan demazaleen ondoan, gizonik ohituena, aukerakoena, premiazoena bezala.

Eta jakina; urte horietan Azkarragak ez zuan batere aurrerapenik izan. Alogerekoen eskuetan dabilen lurrak irabazi gutxi ematen du, nagusia begira ez badauka, eta beti zebilen alogerekoen eskuetan Azkarragako bazterra, nagusi zahar indargeak ezin begiratu zielako²⁹⁶ eta nagusi gazte buruarinak jolas-demetan zeukalako hainbat zeregin.

²⁹³ Adu: suerte.

²⁹⁴ Zingo: muga, mutur, azpi, behe.

²⁹⁵ Narrarri: idi-probetan erabiltzen den harri.

²⁹⁶ *J.L.* ziotelako.

Ezagun zuan baserriak. Euri lanbro bat erori orduko, iztila²⁹⁷ zeriokeon alderdi guztietatik tanga-tanga; teilatuaren isurki bat habe ustelduen gainean larregi etzinda zeukan; etxe-arpegi zabala, aspal-dietan zuritu ez zalako, narras eta lohia agiri zan; sukalde eta geletako hormak puskatuak zeuden, asabak tolestutako harrimuturrak kare urratuaren tartetik erakutsiaz; ganbarako aleak eta ukuiluko eleak urtean baino urtean gehiago urritu ziran, eta soroetan, sorobideetan, zelaietan, muinoetan, baserriko lur landuen ertz, hegal eta inguru danetan gardo²⁹⁸ eta belar gaiztoak, ihiak²⁹⁹ eta txilarrak³⁰⁰, sasiak eta elorrak³⁰¹, masustak eta basakanak³⁰² elementian³⁰³ ugaldtu.

Ezagun zuan etxe hartako nagusi gazteak ere. Ez zan guk Mondragoiko enparantzan ezagutu genduan hura: argala eta larrakitua³⁰⁴ zegoan, ile banaka batzuk txuritu zitzaizkion, lehen baino soineko maiztuagoak janzten zituan.

Seme-alaba bi zeuzkan, Paula eta Martin; hau, hilabete gutxi-gehiago, Malentxoren idekoa; hura, urte eta erdi gazteagoa. Hauetakoren bat eskutik zuala joaten zan noizean behin Zabaletara, Joanes etxean izan ezik. Ez zuan nahi bere burua aitaren aurrean agertu, honen jardunak min eta lotsa ematen ziotelako; baina artzain zahar-rrarekin inoiz aurkitzen bazan, apalkiro entzun ohi zituan semeak gurasoaren patxadazko erakuste zuzen eta ongarriak. Baita hitza eman ere, benetan gero, ez zala inongo jokotan berriz sartuko, eta lanari etsiaz biziko zala bere baserria jasotzen; baina hurrengo beta zetorkionean agur agindu onak, agur asmo ederrak!, behingoa ezer ez zala eta, berriz ere berera eta lehenera. Animaren etsaiak, bakoi-

²⁹⁷ Iztil: ur tanta.

²⁹⁸ Gardo: kardua, asto-belar.

²⁹⁹ Ihi: "junco".

³⁰⁰ Txilar: "brezo".

³⁰¹ Elor: elorri, "espino".

³⁰² Basakan: basakaran.

³⁰³ Elementia: ugaritasun.

³⁰⁴ Larrakitu: itxura txarra hartu.

tzean *behin* baino ez du eskatzen. Harek jakin, *behin* askok egiten duala *beti*.

Amaren esanakatik, zorrotz eta garratzagoak izanda ere, ez zuan hainbeste axola izaten Inazio Marik.

—Ai, tankarra³⁰⁵, tankar nagia —hasten zitzaion hura—; bahator hi orain ere zerbaiten bila. Ez al zegok *aposturik* inun? Ala jokorako dirurik ez al daukak? Gurean etzegok ba. Joan hadi³⁰⁶ Peru Odolkigana, harek emango dik kauka³⁰⁷. Hamaika bider jan dik hire umeen ogia, ezkailu, sakel, txotxolo, arloreak halakoak. Hire ondoren ikusten dedanean, hara, barru guztia irakiten jartzen zait... Maskar³⁰⁸ bilatzen haut. Gaixorik al hago? Ez, ez uste izan; hire kupidarik ez daukat, hire ume eta emaztearen erruki nauk. Ez genduan guk *prenda* txarra Azkarragara biraldu!

—Ama, erre beit lukainka muturtxo bat, *sermoia* baino goxoagoa da eta.

—Lotsagabe lotsagaldukoa, hobeto egingo huke nere hitzaldiak ondo entzun eta elizakoetara sarriago joango bahintz. (*Labana eskuetan zuala lukainka ebakiaz*). Martintxorentzat erreko diat, ez hiretzat... Paulatxo nola ekarri ez dek? Amarekin gelditu al da? Hik adinako ikasbideak emango dizkio. Mikaela gaixoa! Esaiok astialdi batean etorri dadila honuntz, urdai zati bat eta lukainka batzuk eramatera... Ba al dezue babarrunik aurten? Ez ba, erein ezik... Asto, baldan³⁰⁹, alper, hondatzaile... Buruan jotzeko gogoia ematen didak³¹⁰, horra.

Jose Ramonen ziskotik atera ohi zuan Inazio Marik diru apurren bat, estualdietan.

—*Hermano*, bost *duroko* bat eman behar didak.

³⁰⁵ Tankar: alper.

³⁰⁶ *J.t.* joanari.

³⁰⁷ Kauka: mauka, “ganga”.

³⁰⁸ Maskar: ahul, indarge.

³⁰⁹ Baldan: utzia, axolagabea.

³¹⁰ *J.t.* diak.

—E? Bost *durokoa*? Zer dala eta?

—Gizarteko gauzak. Lehengo igandean, Moxolo eta ni hasi gaituk, zaragia esku bakarrez jaso baietz eta ezetz, eta galdu egin nian. Ezertako ez nauk ia, Jose Ramon.

—Baina zertan sartzen haiz hi horrelako istiluetan?

—Egia diok, egia handia; ez nuke nik sartu behar, eta ez nauk gehiago sartuko. Ondo garbatuta³¹¹ nagok³¹², ondotxo hala ere. *Tira*, emaidak oraingoagatik, gaur eramatekotan gelditu nintzan eta. Aurki bihurtuko diat.

—Bai, haizerik ez dan urtean.

—Bihar edo etzi...

—Edo etzidamu: Jaungoikoa zahartu baino lehen.

Joanesen mendekoak, bitartean, beren ardurazko bizitzari jarraitzen zioten ederki.

Manueltxo ez zan Manueltxo, Manuel baizik. Asko indartu zan, aukerazko baserri-mutil argi, bikain eta osasuntsua zegoan, eta soro-mendietako arloetan txit langile eta zentzunez betea zebilen. Ikasiak zeuzkan lurrean hazia botatzeko aro eta giroak, bazekizkian artogariak biltzeko, baratx landareak aldatzeko eta sagar-udareak txertatzeko era eta garaiak; gutxik eramango³¹³ zion atxurrean edo laietan; gutxik behiak ongi uztartzen, bide oker estu koskatsuetan gurdia zuzen eramaten, gaztainak jaisten, haritzak inaus³¹⁴, edo Gogordo gaineko garo mardula ebakitzen; eta Joanesen ondorengo bati zegokion bezala, beste edozeinen artean, milaka izanda ere, banan-banan eta ziur-ziur ezagutzen zituan etxe-artaldeko ardi eta arkumeak edo norbere behortegian jaiotako zaldi moxalak.

Jose umezurtza, Iturraldetik ekarria izan arren, Zabaletako semetzat zeukaten mutil gaztea, goiztarra, ernai, bihozbera eta esker-

³¹¹ Garbatu: damutu.

³¹² *J.t.* niok.

³¹³ Eraman: irabazi.

³¹⁴ *J.t.* inausitzen. Inausi: adarrak moztu.

duna, beti zegoan barre antzean, agintzen zizkieten gauza danak egiteko gertu, nahiz urian nahiz etxean, nola soroan ala mendian, orobat egunaz eta berdin gauaz. Harentzat ez zegoan ez ordu txarririk, ez lan gogorrik, ez gauza astunik, ez akiakularik³¹⁵. Berak egiten zituan besteak nahi ezta utzitako zereginak; bera zegoan nekegabea besteak nekatuta zeuden orduetan; bera jaikiko zan gauerdian, truxuaren³¹⁶ zaparrada entzun ezkeru, euri-osinak³¹⁷ arekatik³¹⁸ zehar biraltzera; bera joango zan sarri Aloñara, aitonaren ordeaz, pagadietako bide itzaletan gora, basapiztien bildurtzake³¹⁹, Jaungoikoaren bildur eta maitetasuna lagun zeramatzalako³²⁰. Euskal Herriko gazteentzat eredu handia zan Iturraldeko Jose.

Pedro Anton eta Joanes, urtez bete-beteak, zerbait erori eta ajeatuak zeuden, morroia nagusia baino indarge eta mekoago³²¹. Ana Josepa egundainorik bizkorrena zebilen. Emakume zimelagorik³²²!

Egiaz: morroi zaharra ez zan gauza handitarako. Artoak zuritu, abarkak josi, artilezko sokak egin, belar pixka bat ekarri, arbaztak³²³ kimatu, behiai jaten eman, esnea batu³²⁴, eta beste horrelako arazoren batzuk izaten ziran bereak; baina Joanesek ez zien oraindik betiko eginkizunai utzi. Gerriko min apur bat euki edo ez euki, ez zuan gizonak lanetik aldendu behar. Halaz guztiz ere, lehen baino maiztxoago eta apeta³²⁵ gehiagoz etortzen zan Aloñatik etxera, ez bakar-dadeak izutzen zualako, baizik ilobatxoa ikusteko pozak zekarrelako.

Ilobatxoa! Malentxo! Haretzek irabazi zuala bai galanki! Hura xe bai zegoala benetan maitagarria. Hazi, zabaldu, bete eta guritu

³¹⁵ Akiakula: aitzakia.

³¹⁶ Truxu: zaparrada handi.

³¹⁷ Euri-osin: euri-putzu, euri potxingo.

³¹⁸ Areka: urbide.

³¹⁹ Bildurtzake: beldur barik, beldurtu gabe.

³²⁰ *J.L.* zaramazkialako.

³²¹ Meko: ahul.

³²² Zimel: gogor, iraunkor.

³²³ Arbazta: zuhaitzetako abar xehe.

³²⁴ *J.L.* bitu. Jaitsi, eratsi.

³²⁵ Apeta: asmo, ohitura.

zan, baina ez gehiegi. Malentxok ez zeukan gehiegizko gauzarik, ez gorputzean, ez animan. Esakeran tolesgabea, ibilkeran adiutua³²⁶, begirunean samurra; esnea bezain zuria, olio bezain leuna, ezta bezain gozoa; garbia, txukuna, liraina, burutsua, ona eta ederra, beste on eta ederrik inon bazan, aingeru bat zirudian eta aingerutzat zeukaten etxeok, ezagunak eta herritarrak.

Gaitz bat zuan Malentxok, aldi batzuetako amonaren esanak sinestu nahi badira: eskuzabalegia izatea. Eltzekondoa³²⁷ bazan, esne beroa bazan, ogi puska edo geheli³²⁸ zatia, bere atorra edo amaren gonea, berehalaxe jan edo jantzi eragingo zion Malenek atarira zetorren behartsuari. Zabaletakoak lortu ahal zuten guztia emango zukean, utzi ezker. Neskatxa purtzil³²⁹ nabarmena! Bere buruari ezer opa ez, eta eskaleentzat dana behar: *San Blasetan* piper-opila eta *Ostegun Donean garapaio*³³⁰ ederra amandreak ekarri, eta *Abe Mariaka* zetorren landerrak irunsi Malenen piper-opil eta garapaioa! Maitetasuna galtzeko ere bazan ilobaren eskergabekeria.

Ana Joseparen esanak ez dira sinestu behar gai horretan, bada mingaina eta bihotza ez zebilzkion batera. Ez, ez zitzaien Zabaletakoai Malentxoganako maitetasuna galtzen. Egunean baino egunean gehiago maitatzen zuten; eroturik egoten ziran Katalin eta Jose Ramon alabatxoaren ganora eta maraztasuna ikustean, txoratzen aiton-amonak ilobatxoaren mendu³³¹ eta zertzeladak nahi adina ezin jasoaz, eta amona bera izaten zan, beste eraldietako³³² esateak ahaztuta, Malentxoren goramenik atseginenak antolatzen zituana.

Baina, batez ere, Joanes eta Malentxo ziran alkar hartuak eta bata bestearen maitale handiak. Malenek irteten zion aitonari larrai-

³²⁶ Adiutu: egoki.

³²⁷ Eltzekondo: afaritarako gordetzen diren sobrak.

³²⁸ Geheli: idi edo behi haragi, okela.

³²⁹ Purtzil: txiki.

³³⁰ [Garapaio. Amabixik besoetakoai eman ohi dien arrautzaz apaindutako opila].

³³¹ Mendu: izaera.

³³² Eraldi: aldi, denbora, sasoi.

nera, hura menditik zetorrean; Malenek kentzen zizkion sorbalde-tako zorro eta esne-ontziak; Malenek abarka mantar legorrak atera; Malenek barruko jantzi zuri garbiak ohe gainean ipini; Malenek, arto mehe zehetuz³³³, esne zukurik gogozkoenak egosi; Malenek, artzaina Urbian zebilela soroetan egindako lanak esan eta uritik etxera ekarritako tresna, oihal eta jakiak erakutsi. Joanes, lorea bilatu duan erlea bezala, edo neguko eguzki epela hartzen dagoan aguretxoaren gisa gelditu ohi zan Malentxoren ondoan.

—Jaungoikoak sortu zinduzan —esan ohi zion bakarrik idortzean—; Jaungoikoak sortu zinduzan nere azken egunak alaitzeko. Zuk ahaztuerazten dizkidazu nere nekeak, nere saminak, nere behaztunak. Zuk urtzen didazu nere animako izotza, zuk ematen didazu indar eta osasun berria, zuk gaztetzen nauzu, enetxoa. Zu bezalako ilobak ames egin ditut nik nere ondorengotzat, Euskal Herriaren onerako, Jaungoikoari eskaintzeko.

³³³ Zehetu: xehetu, txikitu.

VII

LOREAK ETA ARANTZAK

Bazan, ba, beste bat ere ondo bihotzetik Malentxo maitatzen zuana. Etxeko umezurtz gaztea: Jose.

Azal zuri, begi urdin, gorputz iaioko³³⁴ mutila, alai eta askatua, aratz³³⁵ eta belatza³³⁶. Jaiegunetan, soineko garbiak jantzita, eleizarako gertatzen zanean, ikustekoa egoten zan Jose. Neskaxa batek baino gehiagok egiten zion agur bizia, abegi³³⁷ esankorra, Oñatirako edo Arantzazurako bidean, eta besteak baino askozaz hobea Azkarragako Paulatxok, mutilaren edertasunaz gainera bere mendu eta zertzeladak ondo zekizkialako. Baina Joseren begiak ez ziran inongo neskaxatan behin ere jarri; etxean zeukan nori begiratu, etxean zeukan Malentxo.

Noiztikoa zan, baina, Malentxoganako maitetasuna? Betikoa: beti maitetu zuan Josek Malentxo, beti era berdinean izan ez arren. Malentxo haurra zanean, haurrari zurikeriak eginaz edo ume koskor polit hura elizako aingerua erabiltzen dan begirunez, lepoan erabili-az; zizkortu³³⁸ zanean, ikastetxera neskatoari lagunduaz eta ikasle-

³³⁴ Iaiio: eder, polit.

³³⁵ Aratz: garbi.

³³⁶ Belatz: atsegin.

³³⁷ Abegi: harrera.

³³⁸ Zizkortu: hazi, koskortu..

rik gogozkoenari bezala *Gurutze Santuaren* eragin edo *Aita gurea* eta beste arrenak³³⁹ esaten erakutsiaz; handitxo egin zanean, lehenbiziko marrubiak, masustarik helduenak, sagarrrik zindoenak, gaztainerre-rik bigunenak emanaz edo zelaietan jaiotako lorez egindako sorta- txoak eskainiaz.

Malentxok oinez ikasi zuanetik aurrera, alkarren adiskide eta lagun ezagutu genduzan neskatila hura, Manuel eta Jose. Mahai baten jan zuten hainbeste urtean nabasi³⁴⁰, etxeko guztien ondoan; sukalde baten egin zituzten goizeko eta gaueko eskari bero zintzoak Arantzazuko Amaren irudi aurrean; bata bestearekin jolastu ziran hirurak, katakumeen taiuko ume jolas garbi errugabekoetan; berrehun eta gehiago aldiz esan zizkioten Manuelek eta Josek Peru eta Mariaren ipuina, Hamabi lapurrena, Tudelatik zetorren astoarena, Anbotoko Andreamena, Basojaunarena, gaueko hamabietan lixiba jotzen³⁴¹ zuten sorginena, eta beste honelako gezur-ele zahar *koipatsuak*, elizan entzundako erakusgarri eder batzuekin nahastean; anai-arreba maitale maitegarrien antzera bizi izandu ziran beti, egundaino apeta³⁴² gaiztoaren kutsuak inori eta inola ikutu gabe, eta ez zitzaien behin ere otu bizitza guztian berdin jarraitu behar ez zutenik; baina Malentxok andre itxurak hartu zituanean, goizetik gauera, neskatoaganako atzeka eta lotsakor bihurtu zan Jose.

Zer zela eta? Zer zuan mutilak? Ez da errez ondo esaten.

Ikusi al dezue nola eguzkiak jotzen duan lurrari, batez ere lur on eta emankorra bada, ernetzen zaion ustekabero usain gozodun lili apaina? Horrela erne zitzaion Iturraldeko Joseri Malentxoganako jas³⁴³, lera³⁴⁴ edo zaletasun berria. Begiratu al dezue inoiz, nola,

³³⁹ Arren: errezu, otoitz.

³⁴⁰ Nabasi: elkarrekin, familiaretan.

³⁴¹ Lixiba jo: arropak garbitu, bogada egin.

³⁴² Apeta: asmo, ohitura.

³⁴³ Jas: joera.

³⁴⁴ Lera: grina.

jorrail³⁴⁵ aldean, legor itxurako Makila landareari irteten dizkion³⁴⁶ murgil bigun berdeak, hosto, lore eta garaua aurki emateko? Era berean irten zion Joseri kezka batek, ames orduetan poza eta esnatzean larritasuna ematen zion kezka eztiak. Somatu al dezue inoiz, izateak bazterren batean ipini duan hazitik, nola sortzen dan mamorro narrastia, laster mitxeleta hegalari polita izateko? Eredu horretan sortu zitzaion Joseri barruko har bat, izakai bat, gazi-geza, latz-leuna, gozo-minkaitza, gogozkoena eta bildurgarriena.

Bai, Joserentzat, Malentxoganako maitetasun berria, batzuetan, anima barruan erne eta narotutako lilia bezala zan, usain gozoz bakarrik kordea kentzen zion lilia bezala; mamorro bat zirudian besteetan, errai-alozen³⁴⁷ erdian atximur³⁴⁸ egiten zion mamorro isil gaiztoa; mitxeletaren itxurak hartzen zituan noizean behin, bada irudimen aurrean zebilkion zilibokatzaile³⁴⁹, adarrak adar edo itxaropenik itxaropen; bihotzeko murgil samurra zan beti, hosto, lore, garau mizkeak eman behar zituzkean kimua.

Baina ai! Ez zituan emango. Ezin zitekean. Amesak ziran, Jose-ren ustez, bere gogamenak, ganoragabeko mutil ausarditsuaren ames txoroak. O, zer zoriona ames haiek gertaera bihurtu ahal izan ezkerro! Nola biziko zan orduan Malentxorekin! Zein apalkiro hitz egingo zion! Zein bigunkiro bizitzen lagundu, nolako pozak eman, nolatan maitetu! Lurreko zerua izango zukean Malentxorekin, Urbiako txabolan bizi behar izanda ere.

Elikatuko ote zituan Josek, beretzat bakarrik, gogamen hauek, bihotzaren jakitzat, animaren jai orduetarako? O, ez! Indartu egingo zitzaizkion, eta nahikoa indar zeukaten jai eta berehala ere. Lotsagarria zeritzon bera bezalako umezurtz lander batek etxejauntzako

³⁴⁵ Jorrail: apirila.

³⁴⁶ *J.t.* dion.

³⁴⁷ Errai-aloz: zimur, kizkur, kirru.

³⁴⁸ Atximur: atzamarka.

³⁴⁹ Zilibokatzaile: engainatzaile.

neskatxa aberatsa nahi izatea. Eta nolako neskatzak! Lurbiran emakumerik ez zan bezalako, Egilearen Jauregiko donea zirudiana.

“Eskergabea —deitzen zion bere barruak Joseri—. Horrela ordaintzen dezu hemen jandako ogia? Soinean dauzkazun prakak inorenak dituzu, eta Uribarriko gazterik ondasuntsuena nahi zenduke? Morroi sartu zinan, semetzat hazi zaituzte, eta etxeko alaba bakarrarekin ames egiten ausartu zera? Noiztik hona senartzen dira jauregiko morroiak erreginarekin, ipuinetan ez bada? Doilorra zu! Eskergabea zu galanta!”.

O, Iturraldeko umezurtza ez zan eskergabea. Berak hausi, galdu eta soilduko³⁵⁰ zituan animaren liliak edo bihotzaren kimuak; berak itoko zituan bidegabeko ames eta itxaropenak egiaren itsasoko ur garratzetan. Eta ito ezin baziran, iges egingo zuan Zabaletatik edozein lekutara, gordeko zuan bere burua nonbaiten eta betiko.

Josek, bere gogo eta amesak ezagutu ezkerro, ez zuan bururik jasotzen Malentxoren ondoan.

Aisa igarri zuan neskatzak zer gertatzen zitzaion mutilari, eta honen aurrean osoro ilundu zan. Haserretzake³⁵¹ ilundu, trumoi gabe goibeldu, maitero aldendu, badaezpada urrutiratu. Hobe zeritzon bakoitza bere aldetik ibiltzea.

Jose, jangar, zurbil eta indarge, lumea berritzen dagoan txori baten gisa, zeharo mututurik zebilen. Egonaldi txikiak egiten zituan egunez etxean eta gauaz, betiko lanak amaitu ondoren, goizago esnatu zala eta, nekatua zegoala eta, aguro jaikitzen zan sukaldetik lotarra. Ezin eraman zuan Malentxoren iluntasuna, hitzik ez egitea, igeska ibiltzea, berak, Josek, izurria balu bezala.

Egun batean, Joanesi bidera irtenda:

—Aitona —galdetu zion—, ba al daki Juan Andres zein herritan dagoan?

³⁵⁰ Soildu: murriztu, antzutu.

³⁵¹ Haserretzake: haserretu gabe.

—Ez, aspaldian ez degu eskutizik izan. Zergatik galdetzen didak³⁵²?

—Ez dakit ba. Neu ere beragana joateko edo...

—Juan Andresegana joateko? Zentzun hobekoa hintzala uste nian, Jose. Nahikoa ogi ez al daukak?

—Orain artean nahikoa eta gehiago izan det.

—Bigunagoa bilatu nahi al heuke?

—Ez det nik bigun eta gogozkoagorik idoroko.

—A! Orduan... bai, diru bila joango haiz. Askonahikoa izan hi ere.

—Gipuzkoa guztiko diruakatik ez nintzake Oñatiraino jaitsiko.

—Ba, zer dean³⁵³ ez zekiat; baina, dana dala, eskergabea aurkitzen haut.

—Eskergabea ni!

—Handienetakoa, Jose, eta ez nuan uste, ez nuan esango.

—Aitona, ni ez naiz eskergabea! Nere zainetako odol guztia eskatu begit esker onaren agergarritzat eta dena emango diot, dena zor diot eta.

—Mutil, ezin ulertu diat; lehen baino okerrago jartzen nauk. Zer darabilk iragoko³⁵⁴ hil bi hauetan? Esan ezak³⁵⁵ garbiro, bihotza zabaldu ezak.

—Esatekoa balitz, edo esan ahal banu...

—Oraindaino ez haiz ba motela izan. Tira, hasi hadi.

—Hara... zerbait zertzeko usteetan nago eta...

—Zerbait zertzeko usteetan? To, to, to! Andregaiia nahi al heuke? Eta urrutikoa? Hire baldintasunak urrutietan hobeto al dakizkiete?

—Nik ez dakit zer nahi dedan ere. Orain artean Euskal Herrian bizi eta hiltzeko asmoan izandu naiz.

³⁵² *J.t.* diak.

³⁵³ *J.t.* dekan.

³⁵⁴ Iragoko: igarotako, joandako.

³⁵⁵ *J.t.* esazak.

—Eta orain ez? Mutil, ezkondu nahia baino besterik ez badek, etzegok Gaztelerrira joan beharrik. Askotan gogoratu zait urteetan aurrera huala, eta Manuelek etxera emazteren bat dakarrenez hiritzat ere aukeratuta neukan norbait.

—Eskerrik asko, aitona, mila eta mila esker; baina norberak hautatzea ez al da hobe?

—Bai, beti hobe, zentzuzko gazteen artean eta gurasoen baimenaz bada; baina nik ez nian uste hik inor begiz jota heukanik. Gainera, emaztegaia besteak aukeratu eta eskaintzea, ez da nahieta-nahiez hartzeko esatea: ongi badator hartu egiten da; gogozkoa ez bada, utzi. Alegia, ez lukete danak horrela utziko gure Malentxo; ez nioke neuk ere edozeini emango.

—Malentxo?

—Malentxo.

Tximista kiskalgarri bat aldamenean erori balitzaio bezala gelditu zan Jose, zuri-zuri, konkortuta, Joanesen aitormena ezin sinesturik.

—Zer esan du, aitona?

—Gaizki al deritzok?

—Gaizki? Nola irudiko zaio gaizki gaixoari sendagaia? O, nere amesak egiak balira!

—Hori egin al dek ames?

—Horixe berbera.

—Banengoan ba, banengoan ba. Nola ulertu ez zu eta Malentxo?

—Baina, aitona, Malentxok, zerbait igarri didan ezkerroan, iges egiten du nigandik.

—Ondo egina: suaren ondotik ardagaia kendu egin behar da.

—Ez du nahiko nerekin *zertu*.

—Ikusiko diagu.

—Amonak ere ez. Diruduna banintz baina...

—Manuelek beste ezkonsari izango dek, etzekoa haiz eta.

—Jaungoiko maite-maitea! Hau atsegina ematen dit! Hau astuntasuna kentzen zait! Neuk bakarrik dakit barruan nerabilen arantza samina!

—Arantzak eta nahigabeak beti izango dituk, gizon guztiak ditugun antzera. Hara, Jose: nik ez diat nahi etxean gazteen arteko kinurik eta txutxu-putxurik³⁵⁶. Orain dakidana ikasi dedalako, gaurtik aurrera, uda honetan behintzat eta gero ere bai gauzak zuzendu arteraino, Aloan bizi beharko dek gehienbat. Heure gain gelditzen dituk artaldeak, larrabehiak³⁵⁷, behortegiak, esparruak, eskortak³⁵⁸ eta saletxeak³⁵⁹. Mendietako errege bezala biziko haiz. Bertara eramango diat behar dean guztia, edo heuk hartuko dek Mezatarra jaisten haizenean.

—Edonun biziko naiz ongi, aitona; edonun izango naiz orain doatsu, bada nere barruan daramat alaitasunaren iturri gozoa.

Zahar-gazteak, nagusi-morroiak etxeratzean, Ana Josepak, mutilaren arpegiko gorritasuna ikusita:

—Jesus! —esan zuan—. Zer du mutil honek? Txarranpinak irten behar diola esan leike.

Eta Joanesek:

—Irten dio.

—Irten diola?

—Bai, eta neu izan naiz sendatzaile.

—Haze nolako Petrikilo! Jolaserako gogoaren bizarra³⁶⁰ dakarzu zeuk.

Zabaletan ezer gehiago agertu gabe, hurrengo goizean, bere poza ezin gorderik, joan zan mendira Jose, eta mendian egon zan, sei hila-bete eta gehiagotan, Jaungoikoari eskerrak emanaz; Danielen lagunak bezala, Egileak sortutako gauza guztiak bedeinkatuaz; Jakob artzaina bezala, bere lanarekin emaztegai maitea irabazten; Urbian ibili zan ederki, epero³⁶¹ eta peku³⁶² gabe, akitika³⁶³ eta *bertsolari*,

³⁵⁶ Txutxu-putxu: isil-isil, ahopeka.

³⁵⁷ Larrabehi: basoko behi.

³⁵⁸ Eskorta: “corral cerrado con seto” (Azk.).

³⁵⁹ Saletxe: ganadutarako etxe.

³⁶⁰ Jolaserako gogoaren bizar: jolaserako gogo.

³⁶¹ Epero: lasai, astitsu.

³⁶² Peku: ardura, kezka.

³⁶³ Akitika: jauzika, saltoka.

zoroko³⁶⁴ eta txit umeturik, arkumetxoakin jolasean; basahuntz irudira lasterka, etorkizunari barrez begira, itxaropen gozoz janaritzen, zorientasunez gainezka.

Baina hala ere, inoiz edo berriz, etxeaz oroitzean, bere kopeta leuna zimurtu ohi zitzaion Joseri. Hara hemen gehientsu min ematen zion kezka: “Esan ote dio aitonak Malentxori nere amesa... eta berea, aitonarena? Aitonarena, bai, aitonarena! O zein maitagarria dan Zabaletako etxejauna! Ilobatxoa harek maitatzen duan bezala maitatu eta neri eman nahi! Neri, umezurtz ezerezari! O Joanes mazala! Heriotzaraino belaungorrien gainean ibilita ere ez zaitut ordainduko. Jaungoikoak opa deizula nik opa dizudana. Zuk emango didazu Zabaletako aberaska gozoa neretzat, neretzat bakarrik... Bai ote? Nola iruditu ote zaio amonari, Manueli, Malentxori? Gaizki? Jesus, Maria eta Jose! Eta zergatik ez gaizki? Zer naiz ni? *Tira*, Jose, begira ezak heure burua! Hi zer haiz? Joanesek etxetik jaurtigi ezkeror, eskale bat. Behinik behin lan bila joan beharko heuke herririk herri, aterik ate. Erromaraino joango hintzake, oinutsik eta eskale, Malentxoren dina³⁶⁵ izatearren! Aterik ate ibili beharrak ez hau hi samintzen; neskaxa horren dina ez izateak samintzen hau. Eta ezin izan! Ezta berriz jaiota ere, ezta aberats izanda ere, ezta erregeren seme bihurtuta ere. O, Jaungoiko handia! Zergatik egin dezu Malentxo hainbeste doeren³⁶⁶ jabe?”.

“Baina zer dala-eta begiratu det alderdi txarretik nere etorkizuna? Joanes nere alde ez daukat? Malentxo ez da emakumerik apalena? Ez al dezake aitonaren iritzia ontzat eman, langilea eta eskertsua naizelako, bestek ez bezala maitatzen dedalako? A, nor legokean haren buruko gogamenak irakurtzen! Zain ote daukat Zabaletako atarian parre pixka baten bitartez baimena emateko? Geldirik hago, nere bihotza! Ez hadi lehertu!”.

³⁶⁴ Zoroko: zorotxo, zorango.

³⁶⁵ Dina: duina, beste.

³⁶⁶ Doe: doai.

Horrezaz gainera, garai batzuetan, nekeari sendoro eutsi eta arriskuaren aurrean ausardiro jarki³⁶⁷ behar izaten zuan gure gazteak.

Bai, ez da dana doe eta bake osoa izaten artzainaren bizitzan. Artzainak ordu onak eta ordu neketsuak ohi ditu, erazko egunak eta egun larriak, patxadazko egoerak eta ibili-behar estuak.

Pozgarria da, egiaz, udako eguzkiaren jaikiera mendietako artzainarentzat. Berak ikusten ditu lehenbizi, behealdeak lainoz estalirik eta lotan dauden bitartean, eguzkiak edertzen dituan gailur irmoak, baso galantak, urjauste argitsuak eta ihintzez narotutako zelai hezeak; berak entzuten ditu beste inork baino lehen, zugaztietako txori aldra iskanbilatsuen *txiotxo txiotxi pipirrio* alaiak; berak bakarrik esan dezake nolakoak diran garo, milu, menda, txulufirin³⁶⁸, elorri, ereinotz eta beste baso belar lore landareen goizeko usain gozo bizigarriak; berak dauka noiznahi, begi sudur belarrietan, gorputzeko zentzun eta animako ahalmenetan, Izateak gizonari eman ahal diezaiokeen³⁶⁹ gozamen guztia; berak, kristau ona bada, beste anaiak baino Jaunagandik hurrerago bizi danari dagokion gisa, eskaintzen dio Egileari arrenik errez, samur, apal eta egiazkoena.

Manaz³⁷⁰ betea da, eguzkia goietan dabilen bitarte guztia, mendietako artzainarentzat. Bera da, artzaina da benetan bere buruaren jabe; uritar handikiak baino askozaz lasai eta askatuago dabil; opa dituan arauak jartzen dizkio bere artaldeari; nahi duan tokian bilatzen du lorezko ohea, nahi duan lekuan belar bigunezko mahaia; deritzonean etzin³⁷¹ daiteke eta gogoia datorkionean jaiki; kerizpean³⁷² zabal-zabal dagoala zaintzen ditu bere ondasunak; harrikada batez erakusten dio eleari³⁷³ legea; eta ameslaria bada amesetan,

³⁶⁷ Jarki: aurre egin, eraso egin.

³⁶⁸ Txulufirin: krabelin.

³⁶⁹ *J.t.* dezakion.

³⁷⁰ Mana: lasaitasun.

³⁷¹ Etsiz: etzan.

³⁷² Kerizpe: itzalpe.

³⁷³ Ele: ganadu, aldra.

nagia bada erdi lotan, langilea bada galtzerdiari ekinaz, oso epero igarotzen zaizkio berebiziko astiune luze-luzeak.

Ez dauzkagu ere arlo astuntzat eguneroko esne-jaisteak, noizean behingo gaztai-egiteak, orril³⁷⁴ edo urriko ile-mozteak³⁷⁵ eta era horretako beste arazoren batzuk; egokia, aukerakoa, gogobetekoa dala esan geinke bazkatzailearen³⁷⁶ bizitza alderdi honetatik begiratzean; baina arreta gabeko orduren baten bere ardiak gehiegi sakanbanatu baldin badira, larrabehi eta moxalak³⁷⁷ urrutietara iges egin badute, ekaitza indarrean eta eginahaletan gainera badatorkio edo abere basatiren bat usterik ezean agertzen bazaio, lanak eta nekeak izaten ditu bazkatzaileak, behi ardi moxalak saletxera ekartzen, kementa behar du, bakardadean, tantaiari erantsita edo harkaitz-zulotan kuxkurtuta, erasoaren arpegi zematzailea begira, trumoi gogorren burrunbadak entzuten, oinaztarraren suzko lerroak ikusten edo abere gaizto haragizaleari arpegi emanaz irmo egoteko. Bai, azkorta-suna³⁷⁸ eta ausardia behar ditu artzainak zaintzaile ona izango bada.

Behar izan zituan Josek, batez ere orain azaltzera noan gertaera jazotzean. Udazkena zan, ilunabarra. Orduantxe ostendu zan eguzki gaixo indargea Udalaren atzetik, bere ondoren argi motel pitin bat utziaz. Hotz zegoan; lur dana goizetik arratsalde berandura eroritako euriz asean; toki lau guztia likitsez, lokatzaz eta osinez lohituia; erre-kastoak, oso puzturik, irakiten eta apartsu zihoazen ibarretara; ipar beltzak izugarrizko hodei mataza lodiak zeramatzan³⁷⁹ hegoaldera bultzaka; zuhaitz hostoak, beren sorlekuetatik iges eginda, alkargana mordoskatu³⁸⁰ zeuden txabola ondoan, sasi tartean, erreka inguruan; eta oraindik adarretan gelditu ziran banakak, hori, zimur eta ia igartuak, dar-dar zebiltzan heriotzaren bildurrez.

³⁷⁴ Orril: maiatz.

³⁷⁵ *J.L.* ile-moztutzeak.

³⁷⁶ Bazkatzaile: artzain.

³⁷⁷ Moxal: zaldikume.

³⁷⁸ Azkor: ausarta.

³⁷⁹ *J.L.* zeramazkian.

³⁸⁰ Mordoskatu: pilatu.

Josek, ardiak goiztxoago egileorrera sartuta, txabola barruan afari-iski bat egiteko asmoak zerabiltzan³⁸¹. Txakurtzarra, Txuri, aldamenean luze-luze, ahora begira zegokion, zerbaiten zain. Bat-batera, txakurrak, itsumustuan jaiki eta ekin zion zelaian zehar estu-estu zaunkaka; ardiak, artega eta ikaraz, gorde zituzten beren buruak bata besteen ile tartean; eta entzun zan, urruti samarrean, moxal nabarmenduen irrintzi larria.

“Zer ote da hemen?” —gogoratuaz, Josek alderdi guztietara bota zituan begi biak.

Arantzazuko Andre Maria! Sartaldeko hegi gainean, txabolatik berrehun kana bezala, zeru zurikatuaren aurrean garbiro, abere itzal bat agiri zan: otsoa! *Aitaren* egiten dan baino arinago, legorpetik orbelak atera, egur pila baten azpitik ipini, ote moltsoz su eman eta eskuratu zuan adaki bat, ingurukorik sendoena. Ordurako bazetorren txakurra; bazetorren, atzeraka eta alboraka, makur baino makurrago, ulua eta marrua, zemaika eta arnasestuka, hortzak eta haginak erakutsiaz, amorruzko pitsa eta lerdea zeriola; baina basatarrekin borrokarik hasi nahiezta.

“To, Txuri, nere albora” —deituaz, beragana erakarri nahi zukean Josek, baina alperrik.

Izugarria zan otsoa. Astiune txikian ikusi arren, hezurretarainoko ikara sartu zitzaion artzainari. Suagandik hogeitatu bat oin hur gelditu zan aberea, aurreko hanka bat jasota zuala, aho gosea zabalik, lepoko ileak tente, odolezko begietatik txingar gorria boteaz eta gizonaren gainera erortzeko itxuretan. Infernuko gaizkin madarikatua zirudian.

Gure mutila, Aizkorriko Jesusi laguntasuna bihotzez eskatuta, hil edo bizi, arnaseak zirautsan³⁸² artean, esetsaldirik harrigarriena jokatzeko gertatu zan; baina, edo suak edo gizasemearen jarkierak

³⁸¹ *J.t.* zerabilzkian.

³⁸² Zirautsan: irauten eutsan, irauten zion.

izutu zualako, edo beste alderdiren baten haragi biguna usain egin zualako, alendu zan otsoa lasterka bizian, eta otsoari jarraika artzainaren txakurra, zaunka eta zaunka, basoetako oihartzunai jaikieraziaz.

“To, Txuri, to; *fii, fii*” —deadar eta txistu egiten zion berriz ere Josek—. Eta, “*ooo ooo... iii, iii*” —erantzuten zuten oihartzunak, artzainari berari bildur berria emateko eran. Ez zuan nahi mutilak bere tokia utzi, badaezpada ere; etsaia bakarrik bazan edo ez ez zekian, eta egileorra zaindu behar zuan lehenbizi. Moxalak gaizki ibiliko ziran, hori bai; baina ezin zitekean bazkatzailea toki guztietan bate-
ra egon.

Egundainoko surik handienak berriro eginaz, esna, susmotsu eta izerdi patsetan igaro zitzaizkion orduak, ordu minkaitzak, bakar-bakarrik, gauaren zurrumuruak ernai entzunaz, iluntasunari zoli begira, zegoana eta ez zegoana ikusiaz, harkaitzak otso iruditzen zitzaizkiola, isatsak eta itsuskiak³⁸³ ez dakit nongo pizti, garraren keriza ikaragarritzko mamu, gautxorien oihuak norbaiten hinka³⁸⁴, haizearen eretak hilzorikoen adia³⁸⁵, orrien dardarra heriotzaren urrats, eta sapar³⁸⁶ sasien zabun³⁸⁷ bakoitzak animarainoko sarrakioa³⁸⁸ sartzen ziola.

Hura egoera beltza! Ez zeukan orduantxe nasaitasun eta atsegin handirik gure gazteak.

Gauerditik laster oinkada batzuk aditu zituan. O ez, ez zan irudipena: zerbait zihoakion zuzen-zuzen beraganuntz! Añaniño³⁸⁹ arraiopola! Otso aldraren bat? Bizkor jaiki zan mutila, aurki hartu zuan adakia eskuetan, azkar jarri zan edozertarako prest; baina ezer

³⁸³ Itsuski: txilar, inarra.

³⁸⁴ [*Queja*].

³⁸⁵ [*Gemido*].

³⁸⁶ [*Matorral*].

³⁸⁷ Zabun: balantza.

³⁸⁸ Sarrakio: beldur handi.

³⁸⁹ Añaniño: demonino.

gehiagorako astirik ez zuan izan. Adakia jasotzerako, sartu zitzaizkion izter tartean abere zikin itsusi bi eta haien atzetik agertu zitzaion beste gauza beltz harrigarri bat... Txuri eta Bustamotx ziran abereak, hanketatik belarrietaraino basaz beterik, eta Felipe artzaina zan *gauza* beltza, txartes³⁹⁰ batean burutik behera estalia.

—Jeup! —oles egin zuan Felipek, txanoa garrondoruntz jaitsiaz.

—Horixe da bildurra eman didaana³⁹¹.

—Neuk ere nahikoa badakart. Otsorik ikusi al dek?

—Ilunabarrean.

—Zenbat hituan?

—Bat bakarra.

—Bat? Gure sarobe³⁹² ondotik Arteaga aldera joan dituk hamar bai gutxienez.

—Jesus Jaungoiko handia! Hamar adina?

—Bai, hamar... edo asko behintzat, ardi, behor, moxal eta otso danak nahastean, bata bestearen atzetik lehiaz, garo sailetan aurrera itsuturik, otadietan barruna zarrapaztaka, traba eta hesi guztiak hausi eta urratuaz, abailako³⁹³ harria baino zumburruntuago, hego haizerik gogorrena baino zazpi mila bider arinago eta zakarrago. Ez dute hondamena makala egin behar otsook!

—Agur orduan gure behortegiak.

—Behortegiak, artaldeak eta artzainak.

—Artzainak ere bai?

—Baita; bihar goizean lagunen hezur-batzea izango diagu.

—Ez al da horrenbestearaino helduko!

—Ikusiko dek, bizi bahaiz.

—Biziko ahal gaituk!

—Ez zekiat, motel, ez zekiat.

³⁹⁰ Txartes: artilezko txamarra.

³⁹¹ *J.t.* diakana.

³⁹² Sarobe: baso, artzainak batzeko tokia.

³⁹³ Abail: "Honda".

—Eta nola ausartu haiz honaino etortzen?

—Izuak ekarri nau. Etsi det gaur, nere txabolatik alarauak entzuten nengoala; baina Txuri eta Bustamotx ate ondoan ikusi ditudanean, berakin batera *ia mutilak!* eragin diet hankei laguntasun bila. Jas! Nik ekarri det abiadea!

—Alarauak entzun dituk beraz?

—Eta nolakoak! Haitzari ere mara-mara negar eragitekoak.

—Norenak ote ziran?

—Nork daki? Adiskideren batenak edo...

—Gure Aingeru Jagoleak³⁹⁴ zaindu gaitzala!

Horrelako autuetan joan zitzaizkien³⁹⁵ orduak Jose eta Feliperi goizaldera arte, batak bestea dendatzen³⁹⁶ edo bildurtzen, beti ere suari egurrak gehituaz, beti ere alderdi guztietara begira, beti ere alkarri ixo-ixoka, handik edo hemendik zarataren bat ote zalakoan.

Goizean jakin zuten hainbesteraino triskantzarik³⁹⁷ ez zala igaro. Hiru edo lau ardi galdu ziran; moxal bat bilatu zan, errekartean, belaunburuak hausita; behor bat zelaian, mokor ondoan haragi tato³⁹⁸ batzuk gutxiago zituala, odolustuta, ia hilean.

Behor eta moxal errukarriak, galbidearen aurrean elkarturik, arpegiz arpegi lagun guztiak batera jarrita, etsaiari atzeko aldea erakutsiaz, gogor egin zioten noski ostikoka, bada atzetik zituzten beren zauriak, eta gainera, otso eta behor-oinatzez, pitsez, korotzez eta odolez nahaspilatutako lokatz-uztai zabala zegoan Arteagako bizkarrean.

Huraxe zan nonbait gau hartako guda-enparantza. Hantxe izandu zan, jan beharrak eta bizinahiak ematen duan indar eta adorez abere basatiak egin zuten borroka errimea³⁹⁹.

³⁹⁴ *J.t.* Aingeru Jaola.

³⁹⁵ *J.t.* zitzaizten.

³⁹⁶ Dendatu: ahalegindu, saiatu.

³⁹⁷ Triskantza: sarraski, kalte.

³⁹⁸ *Tato*, zatiari edo puskari esaten zaio.

³⁹⁹ Errime: sendo, gogor.

Jan beharrak eta bizinahiak askotan darabiltza esetsaldietan⁴⁰⁰ abereak... eta gizonak. Eta noiznahi ohi dira otsoak eta otsotarrak nagusi.

Egun horretan Urbiako artzain danak, artalde eta behortegiak aurretik zituztela, beren etxe eta neguko egileorretara jaitsi ziran. Gertatu zana gertatu ezker, ezin zitezkean mendian egon.

Ez zan badaezpadakoa baserrietara eraman zuten poza. Bai ba: gizasemea edonon edozerk aspertzen du, luzaroko gauzetan badabil, ondo ibilita ere. Gizasemeak arpegi alai jartzen dio gauza berriari edo aspaldikoari, eta baserrietan zeukaten gizon haiek aspaldietan eduki ez zutena: baserrietan zeukaten, mendian baino axola gutxia-goz, aterpe ona, jan beroa, jatordu jakina, jantzi garbia, ohe biguna, kezka gabeko lo gozoa. Haze gaztainerre janak egin behar zituzten! Haze hitz-aspertuak! Haze nolako etzinaldiak⁴⁰¹!

Jose, beste guztiak baino gogotsuago eta urduriago jaitsi zan, janik eta lorik batere oroitu gabe. Bazeukan buruan aurreragoko gauzarik! Malentxo bakarrik zerabilen gogoan. Zer esan zeikeon Malentxori? Berak, Josek? Ezta hitz bat bakarra ere: bihotza ibiliko zitzaion hizketan, osoro esankor; mingaina lotsariak lotuko zion, ezer inola asmatu ezinik utziko zion, bazekian. Aditzen emango ahal zion aitonak neskaxari mutilarekin izandako hizketartea, eta ez zan gehiago behar. Baiezkoa ulertzeko, ez zuan Josek irritxo baten argia baino besterik eskatzen. “Jaun zerutarra —otoitz egin zuan—, etxera hurreratzean irribarre bat neretzat Malentxoren ezpainetan!”.

Ai ene! Irribarrak ez zuan bilatu: Malentxo, lehenbiziko ongieterriak esan eta berehala, lehenago baino arduratsuago hasi zan Joseren igesi, lehenago baino mukerrago⁴⁰² eta gozakaitzago gelditu zan: Joserren maitetasunarentzat ez zeukan erantzupenik.

⁴⁰⁰ Esetsaldi: erasoaldi, borroka.

⁴⁰¹ Etzinaldi: siesta.

⁴⁰² Muker: iheskor.

O! Inork ez daki, igaro gabe, zenbaterainokoa dan atsegin garaian eta pozaren tokian aurkitzen degun nahigabea: ez dago nahigabe saminagorik. Eta hori bera gertatu zitzaion artzain umezurtzari: zoriona itxaron eta atsekabea idoro, sari bila joan eta neke berriak aurkitu, ezta ames egin eta mingoztasunean ito.

Josek zeharo galdu zituan mendiko bakea eta patxada ona, eta sarri esan ohi zion bere buruari: “gau txarra igaro huan azkenengoa Urbiako zelaian, baina hala ere, hobeto huke otsoarekin borroka ibili arkume maitearen destainetan bizi baino. Bai mila bider”.

Eta zer egiten zuan aitonak bitartean? Aitona, mutilaren kupidan edo, isil-isilik zebilen. Ezezkoa esango zion Malentxok eta...

VIII

GAZTEKERIAK

Irakurleak ezagutuko ditu herri txikietako zalduntxoak. Gauza gutxi ezagungarriagorik.

Zaldun horietako gehienak zalditarako ez daukate; batzuek, ozta-ozta irabazi dute babarrun saldatarako; baina danak dira zeregin gabeak, itxuretan behintzat.

Jan-edanik inon ez bada, jolasak norabaitera eraman ez baditu, kafetegi edo ardangelaren baten egon ohi dira jai eta aste, ia egun osoan, nagi-nagi, aulkietan erdi etzinda, izter bata bestearen gainean ipinita, edo sorbaldaz ate-alboari eutsika, horkoagatik edo hemengoagatik marmarrean, urliari edo sandiari atximurka, goiko eta behekoai erruki gabe larrua kentzen.

Gazteak dira gehienak, txitatxoak, gizakumeak, adimen laburrekoak; baina beren burua gizonik heldu eta handienarena baino hobe eta argiagotzat daukate.

Esana dago ez dirala jakintsuak, bai zera! Zerbait ikasiak, gehienez ere, azal-azaletik liburutxo bat edo beste ikusi dutenak; edo erbestean denda-morrori, pelotari, bizargin, perratzaile eta abar irabazbide errezen bila nolabait ibiliak; baina jakintsu guztien gainetikotzat daukate beren iritzia, eta berak astindu, orraztu eta erabaki ohi dituzte agintarien arauak eta jakintsuen auziak. Ez dago gauza on bat, herri txikietan, zalduntxoan baimenik ez badu.

Harro adina lotsagabe, gauza okerrari txalo eta egintza onari barre, mendeko gaixoari ziri eta araugile⁴⁰³ zintzoai destaina, bertako lagunagatik *ijji* eta aldameneko ezagunagatik *ajaja*, ez diote ezerri eta inori bakean uzten, eta ez da inguruetan zalduntxoek isekaz erre eta zauritu gabeko gizonik izaten.

Nekazari eta langileak baino hobexego jantzita ohi dabilta mutilok, erdi handiki antzean, ongi nahiezean bezala, baldan itxura ikasian, *zapata* polit edo abarketa berri txuriak oinetan eta euskal txapel urdin biguna buruan dituztela.

O, burua! Hamaika ikutu eta igortzi egindako ames jauregia! Buruan dago gazte horien arretarik handiena. Ilea koipe leunez betea, usain gozozko urez bustia, txito axolaz tolestatua, erdialdean lerro txuria duala eta kopeta gainean txaplatatxo bat, ikustekoa egoten da zalduntxoek burua eta ahaleginak egin ohi dituzte beren goialde arin haizetsua erakusten.

Izan ere, aukerakoa da gaurko euskaldunen txapela horretarako. Biguna, aldakor eta erabilkorra, nahi dan itxurak hartzen ditu eta era guztietara jantzi daiteke⁴⁰⁴. Eta hala, batzuen buruan zozo-habia dirudi edo perretxikoa edo abatza⁴⁰⁵, eta besteenean mahatsorria, koskordun tremesa⁴⁰⁶ edo talo zabala; hauek garrondoan ipinita darabilte, beste haiek ezkerreko edo eskubiko belarri gainean, horkoak inguru guztian zuloak eginda, hortzez jositako gurpil baten antzera; hemengoak (hemengoetan daude gure zaldunak) lerro txuria eta kopetako ile kizkurra agertzeagatik, aurreko ertza oso egoki jasota.

Buruko apaindurian aisa ezagutu leiteke zenbat ames darabilten gizonak... eta emakumeak. Neri askotan erakutsi dit nor zein dan txapelaren janzerak eta ileen orraztuerak. Baita barre-algara gozokak eragin ere.

⁴⁰³ [Legegile].

⁴⁰⁴ *J.L.* deike.

⁴⁰⁵ Abatz: garo pila.

⁴⁰⁶ Tremes: etxeko ogi.

Goazen harira. Esan degun erako mutilak errez ikasi ohi dute zientzuk neskatxa diran aberatsak herrian edo auzoan, eta neskatxa haien atzetik nabaritu geinkez txurikerian eta on irudian dabiltzala, beste badaezpadako neskatxen bila jarraitzeari utzi gabe.

Horrelako mutil gazte asko zeuden Oñatin, eta beren artean zaharkote, alper, jolasbilako ardozaleren batzuk. Moxoloren ardangelan batuta, hamaiketakoa zala edo lauretakoa, ardao zaharra edo txitxardin⁴⁰⁷ berria, behatzak eta ezpainak olioiz bustita, nabarmenkeria baino nabarmenago, harrapatzen zuten jakia joranez iruntsitzen, beltzetik edo zuritik zurrutean, edota bestela berritsukeriarik txoroenetan, sudurzuloetatik kea boteaz eta ate ondotik kalean zihoaizen neskatxa guztiai txistadaka⁴⁰⁸ igarotzen zituzten egunaren orduak.

Han zeuden beti, oñatiar zintzoak ziotenez, zorrari hortzak erakutsi, lotsari lepoa eman, ohar onari gaizki erantzun, behartsuari *horkonpon* egin, eta premia guztien aurrean “neri zer dit?” esanaz, beren buruari bakarrik begira, grina gaiztoak asetzen bizi nahi zuten gizonak.

Han zegoan egunero, hau neuk dakit ziur, Peru Odolki, txopin⁴⁰⁹ bat ardogatik edozertarako erne, eta baita ere guk antzina ezagutu genduan etxe hartako semea, Moxolo gaztea, Manueltxoren lagun kaskarra⁴¹⁰. Uf! Orain beste gauza bat zan. Ameriketan izana, Bilbon, Bartzelonan eta Madrilen pelotari egona, goizetik gauera ez dakit nola dirutua, papar zabalean urrezko katea zuala eta katean ontzurre borobila, Moxolo Potolo (horrela deitzen zioten) askotan ohi zan beste *jakintsu* guztien nagusi, buru eta albistari.

Zer esan zezakean, baina, mutilak? Gauza onik ez. Habanan edo Montebideon pelotariak behin egindako iruzur petrala, Madril edo Bartzelonako bazterretan ikusitako zatarkeria lizuna, urontzietako

⁴⁰⁷ Txitxardin: angula.

⁴⁰⁸ Txistadaka: txist eginez.

⁴⁰⁹ Txopin: litro bat.

⁴¹⁰ Kaskar: kakatsu, petral.

ugari jatea edo galanki edatea, inoiz baten *duruakin* ez dakit zeini harrika eman ziotena, beste batean lagun guztiak *txanpainez* arpegia garbitu zutena, eta era horretako beste astakeria batzuk.

—Arranietan! Txanpaina edatearren, belarri bat emango nitek —esan ohi zuan Odolkik.

Gizon haiek ez zituan inork herrian maite, ardo-saltzaileak izan ezik: beren gurasoak ez, zeukatena eta ez zeukatena, sortua eta lortua, Moxolonean hondatzen zietelako; herri-zaintzaileak ez, zalduntxuok gauerditik aurrera ere, deadarka eta iskanbilaka, etxeratu ezinik ibiltzen ziralako; elizgizonak ez, erakuste okerrak, animaren kaltean, non-nahi eta edonoiz zabaltzen zizkiotelako. Baina, lotsagarria da azaldu beharra! Moxolonean zegoan, lehen esan degun bezala, irain, irri eta iseka guztien kabia, eta iseka irain irrien bildurrez, gizontxo haien mingainetan ez ibiltzeagatik, gehiegizko begirunez begiratzen zioten herritar guztiak. Garbiroago: oñatiar zintzoen argaltasunak ematen zien indarra eta oilarkeria Moxolonekoai.

Horratikan ere bereak eta bi entzun gabe ez ziran izaten ereti⁴¹ batzuetan. Patxiko sendakina zan, Oñatira zihoan guztian, ederki asko kilimatzen zituana. Ezin zan herritik irten garrazkeria batzuk zalduntxoai bota gabe.

—Mutilak! —jardun ohi zien⁴²—, hau ustel usaina dago zuen artean! Zertan zaudete beti hemen sartuta? Norbaiti azpiak jaten? Isileko gertaerak usainka? Lohikeria danetan muturra jartzen? Txerriak bezala gizentzen? Egia al da txitxareen aldeko *soziedade* bat asmatu dezutena? Hori ere bada ba, lana; lurpeko harrek jaki gehiago izan dezaten, zuen burua guritzen jardutea, beste egitekorik gabe... Ala bai al dezue beste arloren bat? Herriko gauzak zuzendu nahian al zabiltzate? Etzegok toki txarrean zuzenbidea! Haze nola-koak zuek, salobre⁴³ urdailtsuak, ziraun makurrak, doilor, galdu,

⁴¹ Ereti: momentu egoki.

⁴² *J.L.* zioten.

⁴³ Salobre: tripazain, tripontzi.

nahaspilari arraioak; haze nolakoak herrien diru eta ondasunak zaintzeko eta ugaltzeko! Badakit nik zer ugalduko zenduketen zuek: zorra eta simaurra. Ni *alkate* banintz, gurdi bati uztartuta erabiliko zintuzketet⁴¹⁴ aida, añaniñuok! Hantxe, koipea kendu eta gerria bigundu arte.

Eta ederra da ipuina. Patxikori onean hartzen zizkioten ozpinke-ria guztiak eta ez zioten min emateko gauza bat egundaino esaten, arpegiz arpegi. Zanbroak⁴¹⁵ sortzeraino zigortzen zituan, erruki gabe, eta oso leunki, izaturik bezala erantzuten zioten mutil fardelak. Zal-duntxoen artean, abere gaiztoen biguntzailea zirudian Patxiko sen-dakinak. Inoren axolagabeko gizatxar trebe eta argiaren izena zeukan eta... O! Ez da gaizki, garaietan ausarta izatea.

Ardangela horren aurretik igaro behar izaten zuten Paulak eta Malentxok elizara zihoazenean, eta ez dago zeresanik, barruan zeu-den gizasemeak, zahar eta gazte, danak irteten zirala neskatxa horiei begiratzera.

Lehengusu biak ziran ikusgarriak, baina batez ere Malentxo. Menditar gazte hura ederren erregina zan Oñatin, berez, jaiotzaz, janzkeraren apainduria gabe; haren ondoan herritar neskatxarrik aukeratuenak, urri, ziztrin eta itsusi agertzen ziran; hura zebilen tokian edertasunaren argia eta anima garbiaren usain gozoa bezala uzten zuan, honela esan badezaket. Horregatik gelditzen ziran ergel-duta begiraleak, zer esan asmatu ezinik. Bazekiten, bai, Zabaletako-ak ezkonsari ona edukiko zuana; baina, aitortu behar da, guztiak ezkonduko zitezkean pozik Malentxorekin, nahiz eta honek txanpon bat izan ez. Zer bera baino ezkonsari hoberik?

Moxolo Potolo zegoan itsutuena eta Moxolo Potolo agertu ohi zan bero eta urdurien ardangelako atari ertzean, barrezka, kinuka, gezur-etzulka. Malentxok ez zuan aintzakotzat hartzen mutil haren zinurik: aldamenetara begiratu gabe, benaz, itzal⁴¹⁶ eta lerden jarraitu ohi

⁴¹⁴ *J.t.* ziñuzket.

⁴¹⁵ Zanbro: osinaren, asunaren erredura.

⁴¹⁶ Itzal: errespetagarri.

zion bere bideari; baina hala ere, behin, norbaitek bidean gelditu zualako ikusi zuan, zeharka, Moxolo Potolo, eta barreak irten zion gure neskatxa ederrari.

Izan ere, barregarria zan Moxolo Potolo. Laburra, zabalotea, beso eta izterrez oso lodia, buru haundiduna, iletsua, ia begietaraino bizarrez jantzia, okotz biren jabea, beltzeran berde samarra...; bere hortz ustelak erakutsiaz belarrondotik belarrondorainoko ahoa irekitzen zuanean, izutu egiten zan edonor lehenbizi, eta gero barreak berez irteten zuan ezpagnetara.

—Jesus! Horixe da mutila! —esan zuan Malenek— Jaungoikoak barkatu deidala⁴¹⁷ eta, hankadun upela dirudi.

—Upela gerrialdean, eta arpegian? Ikusi al diozu arpegia, Malen?

—Ondo ez.

—Ba ikusi deikeozu⁴¹⁸ hurrengo baten. Hara, bart euki nuan *pronostikoa*⁴¹⁹ eskuetan, eta hantxe dagoan ilargia bezalakoa da.

—Zuk esango dituzunak!

—Egia-egia. Arto zati batez hobea egin leiteke.

—Zagoz isilik, neska.

Ordutik aurrera askotan barre egin zuan Malenek ilargi betearien arpegia gogoratuta.

Paula, Malentxo adina ez arren, oso zan emakume itxurazkoa eta maitagarria. Handi eta guri samarra, iaioa, otzana, langilea eta begiratua, hamaikak hartuko zukean pozik emaztetzat, berak nahi izan ezkeru.

Baina ez zuan nahi, ikusten zanez; ez zion behintzat inori jaramonik egiten. Bai, nahigaberen bat bazeukan Paulak ondo gordeta;

⁴¹⁷ *J.L.* daidala.

⁴¹⁸ *J.L.* daikeozu.

⁴¹⁹ Pronostikoa: egutegi txikiak, ilargiaren gorabeheren gainean dakarten informazioa.

haren begi gozoetan beti agiri zan iluntasun bat, zerbaiten errainua⁴²⁰, animako behaztunaren albistea. Zer ote zuan?

Hura eta Jose (hara beste goibela) jai arratsaldeetan, amonaren etxean aurkitzen ziranean, beti zeukan mutilak hain zuzen eta isila izanda ere, ardangelakoakatik zerbait esan beharra, eta beti entzuten zion Paulatxok gogoz eta arretaz.

—Zer mezatan izan zerate gaur?

—Zortziretakoan.

—Han egongo ziran, Moxolonean, Oñatiko alper guztiak.

—Ez dakit ziur, baietz uste det.

—Bai, egongo ziran. Zuk ez badakizu, besteren batek jakingo du.

—Zeinek? Malenek?

—Bai.

—Malenek ez du ardangelara begiratu handirik egiten.

—Begiratu gabe erakutsi leike barruko *zera*.

—Nola baina?

—Barre txoroak eginaz. Badakit barrez joaten zeratela.

—Bai, inoiz bai. Zeinek egin ez barre Potolo ikustean? Gizon zatarragorik...

—Eta aberatsagorik. Aberastasunak dana edertzen du, Paula.

—Ez, hori ez da oso egia. Nahi luke Potolok beste batzuen entzute ona, nahi luke neuk dakidan baten arpegia. Hara, Jose, nahiz eta diruz josita egon, Moxolo Potolo ez da egundaino zu adina izango.

—Norbaitentzat ez, beharbada; baina...

—Inorentzat ere ez. Zu, gizona, espaz⁴²¹ beterik zaude; baina Malenek ez dauka Moxolotarrakin zer ikusirik.

Paula, egiazalea zan eta egia esan ohi zuan minez bada ere; baina gezurtatzera bezala etorri zitzaion Peru Odolki iluntze batean.

Gazte biak ate aurreko larrinean zebiltzan, batera eta bestera, astiro-astiro, ezetz eta baietz, lelo arduratsuagorik ez zeukaten eta,

⁴²⁰ Errainu: islada.

⁴²¹ Espaz: zelo, enbidia.

aspaldietakoa berriro aztertzen, mutilzahar txatxua⁴²² jeupadaka agertu zitzaienean.

—Kaixo Peru. Zer dakarzu holako orduetan gurera?

—Zuentzat ezer ez.

—Zeinentzat ba?

—Beste neskatxa gazte polit-polit batentzat.

—Malenentzat?

—Bai.

—Zer behar diozu zeuk Maleni?

—Nik edo beste batek.

—Zeinek bada?

—Horixe da jakin beharra. Etxean al dago?

—Bai, amonarekin, janari pixka bat jartzen.

—Esaiozue atera dadila honaino. Baina, ixo, amonak ez dezala ezer somatu, e? Atsorik ez degu behar.

—Baina ez al diguzu zer darabilzun azalduko?

—Ezin dezaket... Hara, isil-isilik eukitzen badezue... Potolok biraldu nau txarteltxo batekin. Oso erotua dago mutila Malentxo dala eta ez dala; ia zer egiten duan ez daki gizagaixoak; ez omen du inun horrelako neskatxarik ikusi egundaino; ez omen dio mutilak nahi lukean bezala arpegirik ematen Malentxok; ez omen daki harek, gainera, neskatxari nun eta nola hitz egin leikion, eta (*kolkotik txartel bat ateraz*) paper honetan jarri omen dizkio eztikeriarik handienak. Bai, goxoak izango dira hemen dauden hitzak, baina goxoagoa izango da gaurko nere afaria. Zuek ez dakizue, txanpainez *gonbiratzen* nau Moxolo Potolok! Hori dek gizon izatea, hori! Etzegok *probintzia* guztian Potolo bezalako mutilik! Txanpaina! Txanpainaren izenik entzun al dezue? Ez, e? Urrutietako edaria da eta. Edari txuria, edari garbia, edari *fina*, handiki-handikien edari garestia. Ba nik nahi adina edango diat gaur. Aufa! Nik harrapatu behar diat *mokoiloa!*

Jose, Peru hizketan ari zan bitartean, zuritu, gorritu, hotzitu, berotu, edertu eta itsusitu zan hiru edo lau aldiz bai.

⁴²² Txatxu: ganorabako.

—Tira —jarraitu zuan Odolkik—, esaiozue Maleni irteteko.

—Ez al da berdin txartela geuk eramatea? —galdetu zion Josek.

—Ez, neskatxaren eskuetan bertan uzteko agindu dit.

—Utziko diozu, gizona, utziko diozu; baina neuk ikusi nahi nuke lehenago, gaineratik bada ere. Eman ieza dazu apur baten.

—Ez, ez.

—Baina zergatik ez? Zer galtzen dek nik estalkia begiratzeaz?

—Ez dedala nahi, ez dedala nahi. Potolori hitz eman diot Malentxok bestek ez duala ikusiko eta ez diola ikutuko.

Honetan zebiltzala, irten zuan Malenek zurrumurrura, eta azkenengo hitzak entzun zituanean:

—Zeinentzat dezu txartela? —galdetu zion Odolkiri.

—Zuretzat.

—Bada neretzat izan ezkerro, neuk bakarrik hartu behar det.

Aurreratu zan gure neskatxa ederra, kendu zion eskutitza mutilzaharrari eta, gehiagoko gabe, sartu zan sukaldera patxada osoan.

Larrainekoak ahoa bete hortzekin⁴²³ gelditu ziran, hitz bat atera ezinda.

⁴²³ Ahoa bete hortzekin: aho zabalik.

IX

ITXAROMENDI

Jaungoikoak jarri zuan Bizkaian Urkiolako mendia, Arabaren ondoan, Gipuzkoatik hurre samar, eta mendi horren gainean ipini zuten euskaldun sinestetsuak Antonio Donearen elizetxea, zorion guztien itxaropenerako.

Mendi horretara joaten dira sarri Bizkaikoak, Arabarrak eta Gipuzkoa eder honetan jaiok; mendi horretara joaten dira, donerik errukior, miragilerik⁴²⁴ handien eta sendatzailerik onenaren jauregira bezala, uri handi gizaditsuetatik eta baserri txiki padutarretik⁴²⁵, aberatsak eta txiroak, gizon zindoak eta osasungabeak, indarge jaiotakoak eta hezurren bat hausi dutenak; herrenak eta itsuak, hankokerrak eta besomotzak, gorrak eta zauriz beteak, totelak eta zanpatuak; buruko txorabio, zuldar⁴²⁶, legen⁴²⁷, eztul, beherako, minbizi, handitsudunak⁴²⁸; etsita daudenak, bizi nahi luketenak, irabazbidea idorotzen dabiltzanak, euri edo eguzkiaren beharrea aurkitzen diran lurjabeak, Ameriketara semeren bat daukaten gurasoak, gudara joan behar duanaren ahaideak, ikastolatik etxeratutako mutilak eta

⁴²⁴ Miragile: mirari egile.

⁴²⁵ Padu: desertu.

⁴²⁶ Zuldar: "peca, espinilla".

⁴²⁷ Legen: lepra.

⁴²⁸ Handitsu: "tumor".

ezkontzeagatik mototsa salduko luketen neskatxak: hitz gutxitan amaitzeagatik, gogo, estutasun, samin edo premiaren baten aurkitzen diran euskaldun guztiak, osasun bila, argi eske, laguntasuna itxaroz, zoriona irrikitzen edo eskerrak ematen; eta bertan, Urkiolan, egin ohi dituzte benetako arrenak eta bertan utzi, beren oparitzat, egurrezko *makuloak*, argizarizko hanka eta besoak, zilarrezko bihotzak, ile txirikordak⁴²⁹, ontziak eta soinekoak, izenak eta kondairak, samin, aje eta neke askorekin batera.

Beti dago norbait Urkiolan meza bat eskaintzen, argitxo bat ipintzen, bederatziurrena egiten; beti doa mendi hartatik zeruraino euskaldun batzuen eskaria, Antonio Donearen bitartez.

Baina batez ere garagarrilaren⁴³⁰ hamahiruan izan ohi da bilerririk ospetsuena. Egun hartan Urkiolako mendiak herririk handienaren itxurak hartzen ditu.

Goizean goizetik azaltzen da eliza barrua argiz eta gizadiz betea, eta eliz ataria liburu, bederatziurren, errosario, kutun⁴³¹, gurutze eta Antonio Donearen irudi saltzailez hornitua; laster agertzen dira, mendi hegian, mahaitxo banatan edalontzi garbiak eta mahai azpian suila-pegarrak⁴³² dituztela, ur gozatuaren emale txukunak, eta beren aurrean, urez ezin ase diran mutiko eta emakumeren batzuk; zelaien erdian, egun baterako taiutu dituzten sukalde apalak, eltze, tupin, zartagi, plater, pitxar, antoisin⁴³³, katiluz inguraturik, eta suaren hurrean, mendi-ostatuak, oihalezko txosnak, ogi, ardo, haragi, bakailao, arrain, piper, hegazti, arrautza eta gizon jatunetz ugariegi bezala; txosna ostean, opil gozodun mendarotarra, bala-saskia⁴³⁴ lurrean zabalduta, erosle gozozaleak noiz agertuko zain patxadarik

⁴²⁹ Txirikorda: trentza.

⁴³⁰ Garagarril: ekain.

⁴³¹ Kutun: "escapulario".

⁴³² Suil, pegar: "cántaro".

⁴³³ Antoisin: uretarako pitxar txikia.

⁴³⁴ Bala: saski.

handiengan isil-isilik; zuhaitz ondoan, era guztietara eskale arrotz zirpilsuak⁴³⁵, hanka eta beso igarrak erakutsiaz, ingurukoen bihotzak biguntzeagatik ¡*Santa Lucía le garde!* eta ¡*San Antonio le ampare!* erdi negarrez oihuka: tokirik txokoenetan, atso zimurak eta agure adikatuak⁴³⁶, meztara baino lehen amila⁴³⁷ janzen, oinetakoak aldatzen, buruko oihala ipintzen edo salda beroa zurrustadaka; bide-hari danetan, sineste, itxaropen eta maitetasunak Donegana daramatzen⁴³⁸ gizadi berriak egunerako jakiz, otarra edo pardelez zamaturik; nondik noranahi, atzeritar arloteren bat *merke merke!* deadarrez, orratz, orrazi, aiubet⁴³⁹, ispilu, labana, txilibitu, paper, luma, jostailu, eraztun, belarritakoak eskainika. Edonun eta edonoiz ikusi litezke euskal uri danetako gizaseme eta andrazkoak, banaka, binaka edo samaldaka⁴⁴⁰, honi eta besteari, aurreko eta albokoari bultza eginaz, gailurrean eta hegalean, elizan eta zelaian behar adina leku idoro ezinik; hor daude Durango, Elorrio eta Ermutar elizkoiak, han dabiltza Billarreal eta Otxandioko langile irmeak, haruntzago Bilbotar apainak eta Bergara, Tolosa, Azpeitia-azkoitiar atseginak; hemen Bermeo, Lekeitio, Mutriku, Ondarroako arrantzaleak; aldean Zeanuri, Billaro, Dima eta Larrabetzuko nekazariak... Jaungoikoak daki zein ez eta nongoa ez, herritar, ezagun, adiskideak alkarri eutsika, kaixoka⁴⁴¹, galdezka eta agurka, egundainoko hitzots, zurrumuru lazka⁴⁴² zaratarik biziengan. Eta batzuk elizatik irten orduko, beste batzuk sartzen dira gogozko arrenetara; egarbera⁴⁴³ zeudenak alde egiten, egarri daudenak inguratzen dituzte urzaleen mahaiak;

⁴³⁵ Zirpil: trapu zahar.

⁴³⁶ Adikatu: oso nekatu.

⁴³⁷ Amila: txaleko.

⁴³⁸ *J.t.* daramazkian.

⁴³⁹ Aiubet: soka, lokarri.

⁴⁴⁰ Samaldaka: multzoka.

⁴⁴¹ *J.t.* kaixioka.

⁴⁴² Lazka: nahaspila, saltsa.

⁴⁴³ Egarbera: egarri dena.

ase eta beteak txosnetatik irtetea, salobre⁺⁺ eta goseztoak jartzen dira haien tokietan; opil edo jostailu saltzaileak erosle bat aurretik kendu baino lehen, aurrean dituzte hiru edo lau ikusle urduri; goiztarrak edo urrutikoak, gizadizko erreken antzera, etxeruntz doazenean, hurrekoak edo berandutarrak badatoz mendira txindurriak txindurtegira bezala, oinez edo zalpurdietan, manaz⁺⁺⁵ edo neketsu, abereen indarrez edo norbere adorez, arpegia haizemalez⁺⁺⁶ egurastuaz edo haurren bat lepoan dutela izerdi patsetan; dana batera esateko, eguzkia jaikitzen danetik lotara doan arteraino alderdi guztietan ikusi eta entzun litezke, nahaspilaturik, nagusi jaunak, maizter txikiak, etxeoandreak, neska gazteak, mutil eroak, lurbarrukoak, itsasgizonak; usainbelarrak eta eliz-kandelak, krabelin sortak eta opil mordokak, eskeak eta eskaintzeak, algarak eta txilioak, otoitzak eta irrintziak, arrenak eta aurreskuak, tuntuna, *panderoa*, *gitarra* eta *filarmnika*.

Bai, *gitarra* ere bai, *filarmnika* ere bai. Egun horretan ez dira danak Urkiolara Doneagatik joaten: gazte asko jan-edanaren usainak eta jolasaren durundiak jasotzen ditu mendiraino, eta horrelakoak Donearen oroimenik ez daukate. Jaia da horientzat ere garagarilaren hamahirugarrena, baina urdail-jaia, jantzi berriak eta buru harroak erakusteko ereti ona, jaikika trisketan⁺⁺⁷ egiteko aroa, txorakeria, nasaikeria, astakerietan ibiltzeko egunik egokiena. Horrelakoentzat jotzen dituzte gitarra-filarmonikak, txorakerien laguntzarako, astakerien indargarritzat.

Lehenago esan ditugun gertaeretatik laster Urkiolan dakuski-
gu⁺⁺⁸, Antonio Donsuaren egunean, gure antzinetako adiskide on batzuk: Joanes, Malentxo eta Jose. Eliz atarian daude: bata, txapelpean pipea piztu ezinik; bestea, anpolai⁺⁺⁹ zuri-gorria baino ezkoa-

⁺⁺ Salobre: tripani.

⁺⁺⁵ Mana: itxura.

⁺⁺⁶ Haizemale: *Abanico*.

⁺⁺⁷ Trisketa: dantza, batzuetan behatzekin egiten den soinua.

⁺⁺⁸ *J.L.* dakusgu.

⁺⁺⁹ Anpolai: gerezi, keriza mota bat.

go⁴⁵⁰, eliza-oihala tolestutzen; hirugarrena, zurbil samarra, pardeltxo bat eskuetan duala, Malentxori maitero begira.

Aurretiaz erakutsi zuan Joanesek, etxean, Urkiolarako gogoia, onenean Jaungoikoak gerriko mina Donearen bitartez kenduko ziola eta; aurretiaz aukeratu zituan joan-etorri horretarako lagunak: Malen, etxetik inora behin ere irteten ez zualako; Jose, mutil gizagai-xoari atsegin eman nahi ziolako.

Goizaldeko ordu bietan irten dute Zabaletatik, eta lasterbidean zehar etorri dira, oinez, jakina ba, Meza nagusitarako.

Ez daude hain nekatuak: elizkizunak amaitu ondoren, aitonak pipa piztu eta gero, jo batera eta jo bestera dabilza bazterrik bazter, aldrarik aldra, txosnarik txosna, gauza guztiak begira, non jarriko, zer jango, zer erosiko.

Gizon koskor bizartsu bat ikusten dute mahai baten gainean garrasika. Zolia du mingaina, azkarrak dauzka beso eta behatzak. Bai arranietan! Berebiziko hitz iturri naro ausarta dario etengabe, paper batzuk hegan botatzen ditu eta eskura joaten zaizkio berriro, mutiko bati txanponak ateratzen dizkio musutik, belarrietatik, nahi duan lekutik, edozeinen gogarteak asmatuko omen lituzke. *Pamerialen*⁴⁵¹ adiskidea zan inolaz ere! Baserritar kaiku pila handia dago gizontxoari begira. Ahoa zabalik daude gehienak. Onik onenean, jolasari utzita, “Ni naiz —esaten du erderaz—, ni naiz Rosinak sendatzaile izendatua. Lagun hurkoari on egiteagatik lurbira guztiko herri eta itsasoak igaro ditut, liburu guztiak aztertu ditut, jakintsu guztiekin hitz egin det, sendagarri guztien indarra neurtzen gau eta egun ibili naiz eta min-oinaze danak osatzeko gauza bat asmatu det. Zer da bera? Hara, jaunak, hemen daukazue; hartzaren koipea da, lehoien koipez nahastua. Koipe honezaz igortzitxo bat min dan tokian eman ezkerro, min guztiak beti-betiko joaten dira. Ez dago gaurtik aurrera ez buruko minik, ez gerriko minik, ez beso, iztar,

⁴⁵⁰ Ezko: heze, fresko.

⁴⁵¹ Pamerialak: familiarrak, etxe-izaki txiki, gaizkinak herri-pentsaeran.

belaunetako minik gehiago. Nik sendatu ditut Paris, Londres, Berlin eta Bienan eri zeuden gizadiak. *Eta zenbatean da koipe hori?* esango dezue. *Zer diru behar da koipe hori erosteko?* Hutsa, batere ez, txanpon herdoitu batzuk, *pezeta* bat, horra. *Pezeta* batean ematen det lagun hurkoai on egiteagatik. Oso gutxi dauzkat. Bihar, gero, hemendik ordu batera eskean bazatozte, ez nauzue ni bilatuko. Ni banua, laster noa hemendik, eta ez nator ni honuntz gehiago. Nork eskatzen du beste bat? ”.

Eta baserritar geldotzarrak⁴⁵² eskuak luzatuta, beren behatzetan makur⁴⁵³ txuriak erakusten dizkiote hitzontziari.

Baziran horratik honela hitz egiten zutenak:

—Zertarako du baina dirua, musutik ateratzen badaki?

—Dirua musutik atera eta alkondara zikina jantzi? Amari esaiok.

—Gizon *prestua* izateko ipurdia lurretik hurrean zeukak horrek.

—Aitona —galdetu zion Josek Joanesi—, ez al du horrelako koi-perik erosi behar?

—Nik? Zertarako? Jaungoikoak nahi badu, sendatuko naiz; harek nahi ez badu, gizontxoaren koipea gorabehera, ez naiz sendatuko. Egin det nere eskabidea, Antonio Donearen bitartez.

Gure ezagunok, koipedunagandik laster, nonbaiteko *bibolin* joztaile itsua idorotzen dute. Lagun argia dauka itsuak aldamenean, mutil zoztor bat, eta lagun horrek ehun-oihala darabil makila batean jasota, itxuragabe eta zirriborroan egindako gizirudiz betea. ¡*Horroso crimen!* jartzen du oihalean, eta noiz itsua, noiz mutil zoztorra honela mintzatzen dira: “Txanponean saltzen degu Toledoko urian gertatu dan hoben likitsaren albistea. Paper honetan adierazten da nola Eujenio Barelak bere amaginarrebari harrigarritzko heriotza eman zion, emaztearen amak alperra deitu ziola eta beste gabe. Hamazazpi aldiz sartu zion labana zorrotza lepo, bular eta erraieta-

⁴⁵² Geldotzar:adore gutxiko.

⁴⁵³ Makur: pezetako txanpon.

tik zehar eta odola isurtzez nekatu zanean gibela eta giltzurriak jan zizkion, sutan erreta. Oihalaren alderdi batean daukazue gizon erai-
lea emakume kupidagarriari heriotza ematen eta bestean urkamendi-
ra igotzen, bere ornia⁴⁵⁴ nahietanahiez hartzera. Nork eskatzen du
beste papertxo bat?”. Eta ohiturazko eresaldi bat egin ondoren: “Bai-
ta ere badakartzat Kandelasen lapurreta burutsuak eta Jose Maria eta
Diego Korrientesen⁴⁵⁵ egitada okerrak. Baita ere badauzkat Santa
Jenobebaren bizitza, Bertoldo eta Bertoldinoren liburua, Santa Rita-
ren bederatziurrena, Santa Klara, Santa Katalina, San Jose, San
Pranzisko, San Antoniorenak, Begoña, Iziar, Arantzazu eta Karmen-
go Amarenak. Nork nahi du beste bat?”.

Eta baserritar zentzugabeak, erailearen irudiari begira-begira
egon eta gero, Toledoko gaiztakeria goiz hartan igaroa balitz bezala,
Elorrion gertatua balitz bezala entzuten egon eta gero, hobendunaren
berriak *zekartzan*⁴⁵⁶ papera eskatzen zioten itsuari, ez dakit zertara-
ko.

Itsua baino oinkada batzuk aurrerago, eztarri garbiko euskaldun
alai bat aurkitzen da oihulari: «*Bertso berriak* —hots egiten du noi-
zean behin—, *Senpelarrek jarriak*⁴⁵⁷!». Ez dauka *bibolinik*; eztarria
du *bibolin-gitarra* eta jardunaren jardunez, ekinaren ekinez saltzen
ditu bere paperak.

—Ba al daukazu *Gernikako Arbola*?

—Gernikako Arbola Gernikan zegok⁴⁵⁸, motel, eta astunegia dek
nik honaino ekartzeko.

—Eta *San Inazioaren martxa*?

—Ez, maite; datorren hilean *kantatuko* degu ederki, Loiolan.

⁴⁵⁴ Orni: ordain.

⁴⁵⁵ Korrientes: bai Kandelas eta bai Jose Maria eta Diego Corrientes Espainiako
bandolero sonatuak izan ziren.

⁴⁵⁶ *J.t.* zekarzkian.

⁴⁵⁷ [*Bertso* guztiak ziran orduan Senpelarrenak, *pronostikoa* Mariano Kastilok
egina bezala].

⁴⁵⁸ *J.t.* ziok.

—Zuk ez dakarzu ezer, gizona.
—Nik ez dakardala ezer? Senpelarren bertsoak, berri-berriak,
Prantziako pelotariak atereak.

Hamalau espainoletan
Mateo prantsesa ha
Partidu honetantxe
Izan da trabesa ha.
Lau lautara
Ziran hasi
Ahaltsuenak
Irabazi...

Bertsodunaren hurre samar neska-mutil buruarinak alkarren aurrean dabilta, triskatzen⁴⁵⁹, antxume zoroen antzera, akitika⁴⁶⁰, bira-biraka, irrintzika. Zabaletakoak haiei begiratzeko astirik ez dute hartzen.

Txosna baten alboan gizapila iskanbilatsua! Ibilpidea galerazen diote. Zer ote da? Borrokaren bat? Ez da borroka, ez da haserrea: jan baietz eta ezezko auzia darabilte *kankailu* bik.

—Arkume osoa.

—Bai.

—Lau librako ogia gainera.

—Bai.

—Bi pitxar ardorekin.

—Hirurekin nahiago.

—*Bueno*, hirurekin.

—Hamar *duro* ezetz.

—Hamar baietz.

—Jango dik.

—Ez dik.

—Bai, jango dik, idiak baino urdail hobea zeukak eta.

⁴⁵⁹ Triskatu: dantzan egin.

⁴⁶⁰ Akiti: jauzi, salto.

Gure ñatiarrak, era horietako ikuskizunez aspertuta, gizartetik alde batera eginda, ezarri dira nonbaiten; zerbait jatera doaz.

Artzain zaharrak arrautzopil puska bat behatzetan duala:

—Samingarri da! —esaten du—. Hamaika bider egin det Zabaletatik honaino dagoan ostera! Hamaika bider jan det hemen, gozoro, nere baserrian erretako taloa, eta orain arrautzopila eta ogi zuria ezin irentsi! Dana dago latza, dana badaezpadakoa: janaria, gizonak eta lurra bera. Bai, lurra ere bai. Zenbat aldiz ikusi ditut hemendik agiri diran gure mendiak! Ederragoak ziran lehen, mila bider ederragoak. Ez da irudipena: azprietatik zulatu dituzte alderdi batetik besteraino; beren hegaletatik tontorretara bide zabalak egin dituzte; beren harrizko eta burdinazko erraiak eguzkitara ateratzen ari dira, eta gure umeak mendi zuloetatik zehar doazkigu, ez dakit nora, bide zabaletatik datozkigu ez dakit nongoak geure gailurretaraino. Benetan, lur guztia egin du Jaungoikoak bere semeentzat eta denok gera bere semeak, denok: gureak ere badabiltza nonbaiten eta betoz Euskal Herrira etorri nahi duten arrotzak, betoz zorionean; baina ez dezatela gaiztakeriarik honuntz ekarri. Lehen ere nahiko gaizto gera gu, on itxuretan.

—Aitona, ez bedi horrela betilundu⁴⁶¹, jan beza.

Baina aitonak ez du ia ezer jaten. Malenek urdaiazpiko zatia ipintzen dio ogi gainean, baina Joanesek eskura zer eman dioten ez daki. Gogamen astunak dauzka inolaz ere.

—Ez det ondo hitz egin —jarraitzen du—. Gizonak berarekin eramán ohi ditu bere ohiturak, onak edo txarrak. Geugan dago inoren ohitura txarrak ez ikastea; bai, geugan. Gugana datorren ikazkinak ez gaitu beltzituko, geuk nahi ez badegu... Badantzuzue⁴⁶² hauspo soinularia, filarmonika? Nik ez dakit Euskal Herrira zeinek ekarri duan, baina badakit zeintzuk jotzen duten: euskaldunak, menditarrak...

⁴⁶¹ Betilun: triste.

⁴⁶² *J.t.* badantzuzute. (entzuten duzue).

Bazkaritxoa amaitu da. Malenek eskale bati ematen dizkio⁴⁶³ enparatuak. Josek bihotzaren jakia nahi luke: maitetasuna. Joanes urrutira begira dago, gaztetako egunetara.

Aguretxo bat jarri zaie⁴⁶⁴ aurrean begira, makila buruan esku biak eta eskuen gainean okotza ipinita.

—Adiskidea —galdetzen du—, *barkazioz*, oñatiarra al zera?

—Bai.

—Zabaletakoa?

—Bai.

—Joanes?

—Bai.

—Antzeman dizut horratik.

—Ez naiz ba zuzaz oroitzen.

—Orain dala hogeta hamar urte alkarrekin jan genduan harako zoko hartan.

—Izan leiteke.

—Hala da. Bergarako azokan esne-behi eder bat saldu zenidan⁴⁶⁵, ederra hala ere, eta behi diruak hartzera etorri zinan.

—A, bai! Aingeru jagolea! Agustin zera zu, elgetarra!

—Elgetan jaioa, iragoko larogei urte hauetan Arriolan bizi naitzena.

—Aspaldiko Agustin! Urteak dira ba alkar ikusi ez degula.

—Esan det: hogeta hamar.

—Ez al gera gehiago inun ikusi?

—Nik ez zaitut geroztik begiz jo. Lehenago bai, lehenago sarritxo ikusi ohi ginan, bata besteaz hartu-eman asko erabili ohi genduan, alkarri ondo lagundu ohi genion⁴⁶⁶.

⁴⁶³ *J.L.* dizka.

⁴⁶⁴ *J.L.* zaiote.

⁴⁶⁵ *J.L.* ziazun.

⁴⁶⁶ *J.L.* ginon.

—Bai horixe, bai hainbat; zuk eta nik, Azurtzako Militonek eta Irigoiengo Kaisparrek alkar bilatzen bagenkian. Zer egin zuten adiskide haiek?

—Hil ziran.

—Hil ziran?

—Bai, antzinatxo. Baita Zezeagako Turubio eta Eguzkitzako Txomin ere.

—Gizon zintzoak, gizon maitegarriak.

—Gaurko egunean gutxi bezalakoak, Joanes.

—Gaurkoak ere gure ondorengoak dira, Agustin.

—Bai, baina gugandik etenak. Zuhaitzetik ebakitako adarrak dirudite, adar igarrak. Galeran doaz euskaldunak eta Urkiola bera galeran doala deritzot. Goizean etorri naiz, Aramaion ezkondata bizi dan seme batek ekarri nau, eta berehala gogait egin det hemengo alderdiak ikusten. Ez dago hemen adiskide on bat. Ezagun batzuk ikusi ditut, baina ezpainetatik ezpainetarako hizketarte hotza izan degu alkarrentzat: bihotzetik bihotzera hitz egiteko, egiazko adiskidea behar da, antzinetako lagun zaharra. Nere aita zanak esan ohi zuan: “urdaia eta ardoa urtekoa; adiskidea urteetakoa”. Horregatik poz handi bat hartu det zu ikustean.

—Eskerrik asko. Zu ikusi baino lehenxeago zer bait gogoratzen ari nintzan, eta zure hitzak nere usteen oihartzuna dirudi. Hala ere zalantza pixkaren bat badaukat. Gu zaharrak gera, Agustin; nahigabetuak gaude, eta bihotz nahigabeak hitz garratzegiak ohi ditu. Gure gazteriako egun alaiak joan zitzaizkigun, eta egun haientzat gordezen degu oraindik animetako maitetasuna. Nork daki, bada, gure ustea zuzena eta ziurra dan ala ez?

—Neuk dakit, zeuk jakin behar zenduke. Oraingo Urkiola eta gure gaztetakoa ez dira berdinak, eta ordukoa hobea zan.

—Oraingo eguzkia eta nere umetakoa berdinak dira, gaurko lorea eta ordukoa berdinak, orduko eta oraingo arrautzak era berekoak; baina gaurko eguzkiak ezin poztu nau, gaurko liliari ez diot usainik hartzen, arrautzopila txarra dagoala iruditu zait. Geu gaude gu alperrik galduak, Agustin.

—Joanes, edo ez naiz zure oihartzuna, edo ni txurikatzeagatik⁴⁶⁷ zure iritziaren atalen bat barruan gordetzen dezu. Nik badakit gure zentzunak alperrik galduta daudela, baina ez gure animak. Aitortzen det lehengoak dirala eguzkia, loreak... eta arrautzak, baina ezin ukatuko dezu hau ez dala lehengo Urkiola. Lehen euskal usaina, garo usaina zegoan hemen; gaur, mendiko egurats garbia oso kirastua dago.

—Bai ote?

—Makila eskuetan daukadan bezala.

—Zeinek kirastu du?

—Zeinek? Gaitz da erantzuten... Uri handietako haizeak, base-rritarren grinak, gizon batzuen sineste hotzak, askoren nasaikeriak; arrotzak eta euskaldunak, etsaiak eta geuk, danak eta danok. *Zu pekataria* esaten badakit, baina *Ni pekataria* ez zait ahaztu.

—Ederki mintzatu zera, adiskidea. Jarri zaitzez nere ondoan gauza horiek hobeto argitaratu ditzagun, pipakada bana erreaz. Zuek, gazteak, ez zaudete ondo gure hiletak entzuten; zoazte, bada, horruntz zerbait ikustera.

—Ondo gaude, aitona.

—Ez, zoazte; erosi itzazue gozo batzuk etxerako.

—Ilobak al dituzu, Joanes?

—Ilobak.

—Landare onak! Garo artean hartu dezatela lurra, Aloñatik hurrean.

—*Amen.*

Adiskide zahar biak beren erabakiak ematen dabiltzan bitartean, gure gazteok, gizartetik zehar doaz alkarren lotsaz, bata besteari begiratu gabe, ezertan arretarik ipini ezinda. Zer egiten duan ez dakiala, hainbeste opil erosi ditu Josek, kopeta iluna darabil Malenek, bihotz gabeko neska-mutilak dirudite biak, haserratuta daudela esan leiteke.

⁴⁶⁷ Txurikatu: lausengatu, losintxatu.

Bat-batera:

—Jesus! —dio neskatzak—. Gauza lotsagarriagorik.

—Zer da?

—Osaba Inazio Mari *dantzaurrea* egiten.

Egia zan. Giza-uztai baten barruan, tanbolinaren aldamenean, Zabaletako aizkolari ospetsua, Azkarragako Paula eta Martinen aita hobeto esateko, birbiztuta, ardoak berotuta, esku baten txapela zuala, paparra agirian eta gerriko txiztana atzeko aldean dindilizka, besoak zabalik zebilen gora-goraka, ahal zituan gaitasunak erakusten, baina zabulunak neurtu ezinik eta oso barregarri.

—Peru Odolki atzezko!

—Sokan dauden guztiak dira oñatiarrak, Moxolo Potolo eta.

—Jas! Ez lotsatzea osaba, horrelako gizonakin bere burua bat eginda! Aldendu gaitezen, geu inork ikusi baino lehenago.

—Harritzen naiz.

—Zergatik, baina?

—Moxolo hemen eukita iges egiten dezulako.

—Nik ez daukat Moxoloren beharrik.

—Benetan?

—Ez naiz gezurzalea. Goazen aitonagana.

—Ez apur baten, Malentxo; ez, Jaungoikoaren izenean. Hizketan hasi geran ezkerro, gauzatxo bat esan nahi neuskizu⁴⁶⁸.

—Zuk?

—Bai. Aspaldian daukat nik zuri agertzeko uste bat, ames bat...

—Zaude isilik.

—Isilik, beti isilik! Ito egin behar det beraz nere gogoia.

—Badakit zer esan nahi zendukean... Badakit maite nauzuna⁴⁶⁹, baina ez itxaron nigandik ezer.

—A! Zure itzala izateko ez naiz duin!

—Ez da horregatik!

⁴⁶⁸ *J.t.* neukizu.

⁴⁶⁹ *J.t.* nazuna.

—Bai, bihotzak adierazten zidan: hutsa naiz, oinpean darabilzun hautsa bezala naiz, Zabaletako morroia!

—Ez da hori. Zabaletan morroirik ez dago. Zu eta ni anai-arrebak gera..., jakin ezazu behin, zure barruko harra kentzeko. Inorekin izatekotan, zurekin izango naiz; baina ez itxaron, Jose, ez alperrik itxaron. Bilatu ezazu beste bat, zure idekoa. Neskaxa on bat opa dizut, ni baino hobeia opa dizut.

Eta horrela hitz egitean, txit bigun begiratzen dio mutilari, errukizko begi ederrak erakusten dizkio.

—O Malentxo!

—Ixo. Nahikoa esan dezu, gehiegi erantzun det. Goazen azkar. Aitona biak, oso samurturik, agur egin diote alkarri.

—Agur, Agustin.

—Agur, Joanes, lagun zaharra.

—Noiz arte?

—*Josapateko* zelaira arte.

Zabaletakoak ekin diote etxerako bideari, danak isilik, barruko ames eta etsipenai begira danak.

Urkiolako alaitasuna ezker-eskuin hasi da zatitzen: algaraka doa, algaraka eta lekaio⁴⁷⁰ luzeak eginaz bide, baso eta ibarretan zehar; urrutiko baserrietatik tuntun hots berria dator gure bidaztien belarrietara haizetxoaren hegoetan.

Eta hots bigun harek gizonak poztu edo samintzeko eskubidea izan behar du; tuntun harek, norbera isilik dagoanean, bakoitzari barruko amesa zirikatzen dio, bakoitzari norberak nahi duan bezala hitz egiten daki.

Hara Joseri zer esaten dion: “Inorekin izatekotan zurekin izango da. Eta bat edo batekin izan behar. Hau egun ederra!”.

Hara zer Maleni: “Agertu behar zitzaiona agertu zaio: nere bihozetik astuntasun handia kendu det. Hau bakea!”.

Hara zer Joanesi: “Zureak egin zuan. Hau larria!”.

⁴⁷⁰ Lekaio: zantzo, irrintzi.

Aiton-ilobak badabiltza Oñatiruntz, egun argitan dabilta; baina anima, gerora begira, lainotan bezala daramate. Usteak uste dirala, nork daki etorkizunak zer gordetzen digun!

.....

Biharamon goizean Peru Odolki, tronpoiloz⁴⁷¹ *apaindua*, ezkerreko begia estaldurik zuala, sendakinaren galdezka zebilen Oñatin.

—Zer dek, Peru? —esan zioten.

—Atzo Urkiolan izan ginan eta...

—Mozkorra galanta, e?

—Inoiz bestekoa ez ba!

—Borroka egin al dek?

—Ez, Moxolo Potolok jo ninduan.

—Zer zala eta?

—Malentxo izan omen zan Urkiolan, eta nik esan behar omen nion Moxolori. Nik zer dakit ba nor nun dabilen!

—Horregatik haserratu al zan?

—Haserratu? Gizon beroagorik ez det inoiz ikusi. Pitsa zeriola, arao eta birao, ekin zion ukabilka, eta ni hartzeko.

—Beti bezala. Txanpaina ere hartzen omen diozu eta.

—Behin bakarrik txanpaina, gehiagotan ostikadea.

—Ez astoakana joan, eta egin lana gogotik.

—Lana, lana! Lan egitea ere nahikoa astakeria da ba.

⁴⁷¹ Tronpoilo: adar, koskor.

X AHULERIA

Urkiolan ikusi genduanetik hurrengo neguan guztiz aunatua⁴⁷² idorotzen zan gure Joanes. Orduan bai zaharra gizagaixoa, orduan bai ahula!

Burua, abenduan Aralar gaina bezala zuri, zilarrezko hari albainu⁴⁷³ luzez jantzia ikusten zitzaion; kopet handi zabala, itsasertzeko hondarraren antzera, lerroz eta zimurrez betea agiri zuan; besoak txito adoregabeak zeuzkan; hankak zerbait indarge eta sorrak⁴⁷⁴; belarriak nahikoa gor eta motelak; soin guztia makila baten gainean eroria zerabilen. Nekez eta laburrak ziran Joanesen oinkadak; gutxi entzuten zuan; ia ez zuan ezer ikusten. Pipiak⁴⁷⁵ jotako habea zirudian, zedenak jandako zura. Bai, urteen pipiak eta lanaren zedenak jango ez duan gauzarik ez da jaiio.

Elurte baten galdu zan gehiena. Azaroaren erdialdera, uste baino lehenago agertu zan negua, eta Zabaleta baserrikoak, done Zizili goizean, Oñati alde guztia elurrez txotildurik⁴⁷⁶ aurkitu zuten. Lurrik ez zan inon agiri; bide-lerroak bete-betean ostenduak zeuden;

⁴⁷² Aunatu: neka-nekatuta.

⁴⁷³ Hari albainu: hari zati.

⁴⁷⁴ Sor: gogor, min gabeko.

⁴⁷⁵ Pipi: zeden, zerren.

⁴⁷⁶ Txotildu: edertu.

zelaiak, koska eta hutsune gabe, aspaldikorik laban, guri eta bikainenak; soroak, nahiz eta beren jantzi garbia txotx, printza, mailasto⁴⁷⁷ buruz hor eta hemen urratua eduki, gutxitan bezala lau eta txukunak; sasidi eta otadiak, estalki lodi azpian zeharo gordeak; urki, gorosti, txilar eta isatsak, gehiegizko zamapean nahietanahiez ahuspezturik, eta pago, arte, haritz, gaztainak, zein baino zein naroago, adar bakoitzean, kima bakoitzean, elur zerrenda samur kizkurrez harro-harro apainduak. Dana zegoan zuri, eder, leun eta limuri⁴⁷⁸, bada eder eta leuntzailea da beti elurra: etxeurreko osintxoak, soro arteko luebakia⁴⁷⁹ eta errekaen haria bakarrik ikusten ziran ilun eta itsusi, inoiz baino beltzago eta itsusiago.

Eta elur erortzea ez zan bukatu. Oinbete lodi bazegoan, eta mara-mara zetorren zeru goibeletik behera, aldeka, okerka eta astiro, mitxeletazko euri bigun ikusgarriaren itxuretan.

Ari zan elurra galanki, gelditu gabe ari zan, eta mendian zeuden oraindik ardiak eta moxalak, Joserren agindupean.

—Ene bada eta! Zer egingo du orain gure Josek? Hemen honenbesteko elurra danean, Urbian gerrirainokoa bada —zioten emakume izutuak.

—Manuel, deitu eiok⁴⁸⁰ osabari; Jose Ramon, batu itzak lagun batzuk eta azkar danok Urbiara, azkar baina —agindu zuan Joanese.

Zazpirak aldean irten zuten gizonak Urbiaruntz. Zabaletako nagusiak etxeko larrainetik ikusi zituan nola zihoazen errenkadan, behin bat aurretik eta gero bestea, besoen indarrez bideak irekiaz, eta nola ezkutatu ziran basoan gora, elur-malutan barruna.

—Gauza ez ni horien burutzat joateko —esan zuan.

Eta Pedro Antonek:

⁴⁷⁷ Mailasto: arto enbor.

⁴⁷⁸ Limuri: lau, leun.

⁴⁷⁹ Luebaki: “zanja”.

⁴⁸⁰ *J.L.* deituiok.

—Guk ere beste horrenbeste bagenkian egiten lehenago. Gaur gazteen txandea da.

—Jaungoikoak lagundu deiotela⁴⁸¹.

Andreak arrenetan abiatu ziran, eta Joanesek ez zekian zer esan, zer egin eta zer nori agindu. Luze joan zitzaizkion egunaren orduak. Orain ukuiluan sartu, orain sukaldean aurkeztu, beti ere *Santa Maria* ezpainetan zuala atarira irten, beti ere alde batetik edo bestetik zeru beltza ikusi, artega eta kuperea⁴⁸² ibili zan luzaro.

Jo zuten hamarrak, jo zuten hamabiak, jo zuten ordu biak, eta ez zan mendikoen berririk.

Hirurak aldean, artzain zaharra, auzora balihoa bezala, atera zan mendiruntz inori ezer esan gabe. Bai zori txarrean. Gogo adina kemen izan balu, laster helduko zan lagunakana: baino lehengo kemenik ez zuan errukarriak, eta elur marduletan *drist* eta *draust*, hor txirrist eta hemen larrapast, bisutsetan⁴⁸³ ia itsuturik, zurrumbiloan arnasarik hartu ezinda, laster unatu zuan nekeak, berehala etsi zuan aitonak eta ezker-eskuin, aurrera eta atzera begiratu larri bat eginaz, bide bazterrean eseri zan heriotzearen zain... Lau t'erdietan idoro zuten menditik behera zetozenak; hotzitura idoro zuten, gogortuta, hitzik ere gabe; eta arratsalde hartan ez zan hil Zabaletako jaunna eskerrak bere semeen igortziaz, eskerrak ohe bigunari, ur goriari, edari on irakinari, etxeko guztien arreta zindoari. Baina berotasun handiak igaro zituan, gaixorik eduki zuten, eta ohetik jaiki eta gero ere ahalegin guztiak eginda ere, Joanes ez zan gehiago lehengoa izan. Orduetik ahuleria.

Baina gorputza lotua eta abaildua⁴⁸⁴ gelditu bazitzaion, ez horratik bere anima: anima behin ere baino argiago, biziago eta azkarragoa zeukan. Joanesen oroimenak inoiz ez bezala gogoratzen zituan bere gaztetako urte alaiak, Joanesen adimenak egundaino ez bezala

⁴⁸¹ *J.t.* daiotela.

⁴⁸² Kupera: makal, ahul.

⁴⁸³ Bisuts: euri, haize eta elur ekaizta, zurrumbilo.

⁴⁸⁴ Abaildu: nekeak jo.

ezagutzen zituan Jaunaren betiko egia sakonak, Joanesen bihotzak behin ere baino samurrago eta zintzoago maitatzen zuan Jaungoiko Egile Ahaltsua...

Sutondoko zizeilu zaharrearantz jarrita, arbazten⁴⁸⁵ gar biziari edo enborra miazkatzen zuan urrezko su-mingainari begira, bakarrik gelditzen zanean, o! nolako samin gozoz oroitzen zitzaizkion bere bizi-tzako gertaera guztiak, ume koskorra izan zanetik agure mekoa zan arteraino! Lehendabiziko giza-jantzia, lehendabiziko herrira jaitea, lehendabiziko mendira igotzea, harako mutil-jolasak, urte askotako *San Migelak*, ezkontza aurreko egun eztiak, bere semeen jaiotorduak, ilobatxoen etorrera pozgarria...; dena zirudian atzo goizekoa, dena zeukan bere ondoan, dena zekarkion irudimenak bertara, ekaitz aurreko hego-haizeak urrutiko lur eta mendiak guganatzen dituan gisara. Izan ere, *atzo* eta *gaur*; uda eta negua, gaztetasuna eta zahartzaroa ez daude alkarren urruti; gizonaren goiz eta iluntzea dirala esan geinke, txanpon baten arpegi biak bezala zerizkion Joanesi.

O, zein garbiro erakusten zion adimenak gizonaren ezereza Jaungoikoaren betikotasuna gogoratzean! Bera, Joanes, sortu baino lehen, askozaz lehenago, Jaungoikoa bazan eder, handi, ahaltzu, zorioneko, gauza guztien egile eta zaintzaile; bera, Joanes, heriotzara hurreratu zanean, Jaungoikoa lehengo-lehengoa gelditzen zan, ahaltzu, handi, eder, zorioneko. Eta era berean bilatuko zuten Joanesen ondorengokak eta era berean utziko zuten, bada horrela zan eta izango zan, beti ahaltzu, beti berdin; hasierarik gabe hasiera guztien iturri; azkenik ez zeukala, azken guztien bukaera eta goen⁴⁸⁶.

Zein maitagarria azaltzen zitzaion Joanesen bihotzari Jesus Jaungoikoaren irudia! Jesus gizonen Artzaina zan, ardi galduakatik bizitza eman zuan Artzain Ona eta Zabaletako etxejaunaren adiskide handia. Sarri egon zan hau, Aizkorri gaineko elizatxoan, Gurutzean josiari eskariak eginaz; sarritan agertu zizkion, paduko bakardadean,

⁴⁸⁵ Arbazta: sua egiteko zarba.

⁴⁸⁶ Goen: muga, ertz.

animaren nahigabe eta ipuin ezkutuak; ez zan egundaino adiskide bien maitetasuna urratu, ez zan behin ere Jesusen irudia Joanesen bihotzetik aldendu, eta askotan, txit askotan esan zion mendian, zelaian, elizan eta etxean: “Urbiako artzainen Artzaina, gorde gaitzazu; zaindu iezadazu nere etxea, zaindu ezazu, arren, gure Euskal Herria”.

Adiskide handi hura hainbat lasterren arpegiz arpegi ikusteko lehia erne zitzaion, eta horretarako gertatua zegoan, oso gertatua.

Horratik ere gauza bat nahi zukean lehenago, Jaunaren oldea⁴⁸⁷ bazan: bere seme eta iloba guztiakin Gabonak igarotzea. Azkarraga-koak nola zeuden bazekian: hondatuta. Inazio Mari ez zan ezeren jabe, eta bere mutila, Martin, Somorrostrora biraldu zuan zerbait irabaztera: Somorrostrora mutila eta bazterrak erabiltzeko nahikoa indarririk ez etxean! Gaztelerrikoen albisteak ere bazituan, albiste onak. Aberastuta bizi omen ziran, seme bat zuten, hazi samarra, argia, bizkorra, sendakintzarako ikasten ari zana. Oso jakintsua, gurasoak ziotenez. Baina Zabaletako aiton-amandreak ez zuten oraindik iloba hura ezagutu, ez zuten oraindik ezagutu erraina ere, eta horretarako gogo handia zeukaten. Batez ere ilobatxoa ikusteko, berari laztan gozo batzuk emateko, eta bere jakituriazko hitzak entzunaz aspertu artean egoteko.

—Hara —esan ohi zion Ana Josepak senarrari—, zeure ilobak sendatuko zaituala eta nago. Hemengo sendakin guztiak baino gehiago jakingo du, eta gainera inork ez dizu ilobak beste arretaz begiratu.

Horra zergatik Joanesek eskutitz bat eragin zion Maleni osabarentzat; Gabonak hurrean zirala eta, aitonarentzat baldin azkenengoak izango zirala eta, bere ondorengo guztiakin behin bada ere egon nahi zukeala eta, jaietarako danak etorri zitezela, arren bai arren eskatuaz.

⁴⁸⁷ Olde: nahi, borondate.

Bitartean, eri gelditu zanetik aurrera ohi zuanez, sukaldean bizi zan gehienbat Zabaletako nagusia; sukaldera zihoazkion⁴⁸⁸ baserriko seme eta ilobak zer egin behar zuten galdetzera; hantxe ematen zituan Joanesek bere agindu eta erabakiak; hantxe inguratzen zuten etxeko danak gauero-gauero; bertan egiten zituzten beren otoitzak; bertan irakurri *Testamentu zahar eta berriko* egia ederrak; eta azkenean, ohera orduko, beti zerbait esan behar izaten zien aitonak, bere burutik.

“Agertuko dizuet ba —zioen behin—, Urbiako zelaian nik aspalditxoan egindako amesa. Egun hauetan gogoratu zait”.

“Bazkalostean, haritz tantai baten zainetan jarrita, piztu nuan nere pipakadea”.

“Erro-zabal, gerri-lodi, lepoker, buru-orritsu, gorengo abarrak ia zeruetan zituana zan haritza. Sustraiak, sendo-sendoak, inguru danean lurretik irtenda zeuzkan; azala, zartatuta⁴⁸⁹, lehertuta ikusi nion, gerrialdeko mamin errea oso agirian, agure batzuen paparra bezala, eta kopet ondoan zulo handi gorri-beltza erakusten zuan, aspaldiko zauri sendakaitzaren irudira”.

“—Zaharra haiz ba —ohartu zitzaidan, pipako ke-laino artetik haritzari begiratuaz”.

“Gauean lo gutxitxo egina nengoan, eta igarri gabe, pipa gordezko astitzake⁴⁹⁰ itxi zitzaizkidan begiak, loak hartu ninduan. Eta loak hartu bezain laster hasi nintzan amesetan”.

“—Zaharra naizela? —esaten zidan zuhaitzak—. Egia da, bai; neuk ere ez dakit zenbat urte dauzkadan. Nik ez dakit urteak zer eta zertarako diran, baina ezta gizon batzuek ere... Noiz izandu naiz ni txiki? Noizbaiten bai, noizbaiten nere adar gain ertzean dauzkadan ezkurretako bat adina izandu naiz. Nork sinestu...? Lurpean sartu ninduen edo sartu nintzan, hori ez det ondo ikasi, gauza txiki guztiak

⁴⁸⁸ *J.t.* zijozkion.

⁴⁸⁹ Zartatu: arrakalatu, arraildu.

⁴⁹⁰ Astitzake: astirik gabe.

lurpean egon ohi dira eta; baina nere bizinahian, astiro-astiro, apurka-apurka, atera nuan burua lurpetik azalera, ikusi nuan zeruko argia, lortu nuan indar pitin bat, erro edo hankak ahaleginean behera boteaz jaso nituan geroago eta gorago nere besoak, eta egunak zabaldu eta egunak itxi, urteak joan eta urteak etorri, udaberrian hosto berdez jantzirik eta negu beltzean hezur hutsetan bezala, eguzki galda beroen azpian eta euri zaparrada galantak luzaro igaroaz, handi, sendo eta mardul egin nintzan, inguruko zuhaitz lagun guztiak baino handiago, sendoago eta mardulago”.

“Asko ikusia naiz, geroztik, nere bizitza luzean. Ekaitzak neri egin dizkidan iraintasunak ezin zenbatetu daitezke⁴⁹¹. Sarri hartu behar izan det nere gainean kazkabarraren zartada zitala, sarri jo eta zauritu nau hodeietatik biziro jaitsi dan harri trinko zoliak, mila eta gehiago aldiz bai haize indartsuaz burruka gogorrean gau osoak igaro ditut, eta garaietan, guda beltzaren erdian adarrik onenak urratu zaizkit. Sustrai sendoari eskerrak, ez det nere bizitza osoa galdu. Sustrai, sustrai behar da mardula izateko eta ekaitzari arpegi emateko: batetik bestera aldatzen dituzten zuhaitzak, lirainak, sustrai gabeak, hor erortzen dira buruz behera eta barregarri ekaitzaren aurrean”.

“Hainbat goialdeko ipuin eta lurpeko gertaera badakizkit, urteak erakutsita. Nere zain luzean bitartez neurtu det mendi honetako lurra norainoko loditasuna daukan, jakin det zenbat ezkotasun eta koipe dituan, harri eta harkaitzak non dauden, beti gordeta egon ohi diran zomorro txiki askoren biziera isila nolakoa dan. Nere kopetaz goialdera begira ikasi det zenbat argi gozo agertzen diran gauaz zeru urdinean. Anitzez gau zoragarriak igaro ditut, ilunabarretik goizalderaino, bakar-bakarrik, bake-bakean, hor goiko izar garbi maitagarriai begira. O, zein ederrak diran zeruko izarrak! O, zer atsegina dan gau isil-isilean, erretxinolaren⁴⁹² soinu eztiak adituaz, oskarbiko edertasunak nabaritzen egotea!”.

⁴⁹¹ *J.t.* ditezke.

⁴⁹² Erretxinola: urretxindor.

“Baita ere badakizkit gizonen uste eta itxaropen batzuk. Maiz etortzen da nere ondora Urbiako artzain gaztea eta hemen atera ohi ditu, oihulari, bere bihotzeko maitetasun zintzo-zintzoak. Mutil horren eresiak poz ematen dute, ihintza bezala jaisten dira animaren erdi-erdian... Inoiz behin jarri ohi da nere oinetan, zu orain zauden antzera, uri gizon igar bat, eta bakarrik dagoalakoan aitortzen ditu, ahopean, bere ondamuak⁴⁹³, bere doilorkeriak, lagun hurkoarentzat gordeta dauzkan gorroto gordinak. Gorrotoak ez dute pozik ematen. Ezin ulertu det zergatik gizonak gorrotatzen duten alkar: guk ez daukagu bata bestearen gorrotorik, zuhaitzak izanda ere”.

“Nik ez behintzat. Ni izandu naiz hegazti mota guztien jantoki, aterpe eta logela; nere gainean esan dituzte txoriak, gau eta egun, beren txirripitixorik pozgarrienak; nere beso tartean egin dituzte beren kabia eta bizilekuak; ni naiz karnaba⁴⁹⁴, okil⁴⁹⁵, txintxort⁴⁹⁶, lepitxuli⁴⁹⁷ eta txirriskilen⁴⁹⁸ sorterri; kuko, eskilaso⁴⁹⁹ eta pagousoen jarleku; mika⁵⁰⁰, miru⁵⁰¹ eta zapelaitzen⁵⁰² zelatetxe⁵⁰³ bezala. Ahal dedan adina on egin diot edozeini: nere orri eta ezkurak, urtero, abereen ohe eta janarizat eman ditut; nere adar guztiak haga, kirten, makila eta hesolatat⁵⁰⁴ edo gizonen berogarrizat kendu dizkirate⁵⁰⁵. Ahal neike gehiago?”.

“Hemen nago ni azken orduaren zain. Oraindik iraungo det (zuhaitzak beti irauten degu gizakumeak baino gehiago), baina eto-

⁴⁹³ Ondamu: enbidia, bekaizkeria.

⁴⁹⁴ Karnaba: “jilguero”.

⁴⁹⁵ Okil: “pájaro carpintero”.

⁴⁹⁶ Txintxort: “collalva”.

⁴⁹⁷ Lepitxuli: “fuercecuello”.

⁴⁹⁸ Txirriskila: “verderón”.

⁴⁹⁹ Eskilaso: “grajo”.

⁵⁰⁰ Mika: “urraca”.

⁵⁰¹ Miru: “milano”.

⁵⁰² Zapelaitz: “cernícalo”.

⁵⁰³ Zelatetxe: bijilatzeke toki edo etxe.

⁵⁰⁴ Hesola: taket, ziri, “estaca”.

⁵⁰⁵ *J.L.* dizkate.

rriko zait nere azkena. Bai, hor sukalde bazterren baten, basoetako tantaietan ekaitza txistuka dabilen orduan, eta basetxetarrak, nere axolarik gabe, kondaira zaharren batzuk aditzen daudela, txinpartak boteaz; agur egingo diot nere izateari, suzko malko goriak isuriaz... hauts bihurtuko naiz”.

Esnatu nintzan. Haritza bere tokian zegoan, geldi-geldi. Harek ez zuan hitzik esan.

—Banengoan ba, zuhaitzak horrelako gauzak esatea...

—Ez, ez zuan hitzik egin, Ana Josepa. Nere irudimena ibilia zan orduan langile.

—Eta nondik dakarzu gaur ames hori?

—Nere ahuleriak erakarri dit burura.

—Nolatan baina? Zuhaitzak eta zuk, nondik daukazue alkarren antzik?

—Biok gera mendikoak, biok lagun zaharrak, biok asko ikusiak, biok ahal degun adina on egin degunak; harek, hori bai, zer egin duan ez dakiala, nik jakinaren gainean. Alkarren itxurak baditugu, zaharrak geraldako; baina, egia, ez gera gauza guztietan berdinak, ezta urrik eman ere. Zuhaitzak ez du errurik izan eta nik bai, erruak eta hutsuneak; zuhaitzak, egurrezko anima dauka, ez du egiazko malkorik isuri eta nik bai; zuhaitzak sariaren itxaropenik ez dauka eta nik bai; zuhaitza betiko amaitzen da eta ni betikotasunaren atarian nago. Zorionekoa ni ate onetik sartzen banaiz.

—*Praile* izan bazina, haze nolako *sermolaria* zu!

—Praile, praile... gaur goizean izandu naiz praile.

—Zer diozu, gizona?

—Je je! Zuek soroan zabilatzatela, Pedro Antonek atera dit *mez-tidura*⁵⁰⁶ eta soinean jarri det apur baten.

—Aitaren Semearen...!

—Aitona!

⁵⁰⁶ [Hil-jantzi. Antzinetako ohitura zen, Euskal Herrian, hil-jantzia, behar zenerako, etxean gordeta edukitzea].

—Bai, jarri det, eta luzetxo daukat. Edo neu laburtu naiz, edo luzetxo egin zenidan, emazte. Malenek laburtuko dit.

—Jesus, Maria eta Jose!

—Bego isilik, bego isilik!

—Bai, isilduko naiz, lotara joan behar degu eta. Baina beste hitz bat, Malentxo: Gaztelakoak ez dute oraindik erantzun, eta berriro esan behar zaie⁵⁰⁷ aurten nere ondoan nahi nituzkeala. Aditzen eman egien⁵⁰⁸.

—Bai, jauna, bihar goizean.

Malentxo begiak igorzten eta Ana Josepa ezpainak estu-estu eginda sartu ziran geletara, eta Katalinek, bakarrik gelditu zanean, sutako hautsa batuaz, ilintiak⁵⁰⁹ astinduaz, enborrak joaz, honela zioen:

—Hau gauza guztien amaitu beharra! Badoakigu, laster doakigu. Etxea beteko gizona! Jeeesus!

⁵⁰⁷ *J.L.* zaiete.

⁵⁰⁸ *J.L.* emaien.

⁵⁰⁹ *J.L.* Ileti. Erdi erreta dagoen egur puska.

XI

EGUBERRI TXARRAK

Aloña ondotik erbestera irtenaldi bat egin behar degu.

Somorrostrora joan gintezke lehenbizi.

Bizkaira esatera nindoan, baina damutu egin zait; bada Bilbotik itsasoruntz goazela ezkerraldetik dauden herriak ez dirudite Bizkai-koak. Toki haietan Bizkai barrutik agiri dan zeru garbirik ez da ikusten; Gernika, Durango eta Markinako ibarretan daukagun bake eta txukuntasunik ez da bilatzen; etxeko hizkuntza maitearen durundi gozorik ez da inon sumatzen.

Nerbion ibai zabala, ibai ospetsua, Euskal Herriko ibai guztien ibaia da, denok dakigu. Bere gainean dauzka⁵¹⁰, Bilbotik hasi eta Portugaleteraino, herridi askotako itsasontzi sendoak; bere azpian, uretan edo urertzeko basatan⁵¹¹, txalupa-saihets, *gabarra* zati, soka ustel, kate zahar eta aingura herdoituak; bere albo legorretan, erbestera eraman behar diran edo erbestetik ekarri dituzten mea pila ugariak, neurrian ebakitako pinu olak, harri, kare, gatz eta burdinak; burdina mehe zapalak, biribil luzeak, hutsak eta beteak, bideetarako, zubiak egiteko, aterpeak jasotzeko, etxeen habe izateko, eta batez ere burdina horien sorrerako labe goriak, berebiziko lantegirik han-

⁵¹⁰ *J.t.* daukazki.

⁵¹¹ Basa: lokatz.

dienak, sua eta garra, hautsa eta ke lodia borborrean zerua iluntzeraino jaurtigiaz; hantxe dakusgu jantzi lohi, izerdi usain eta begirune gaiztoko langile zikin zetakaz⁵¹² beteak, eta bertan entzun litezke uri handi baten indar, ahalmen eta bizitza erakusten duten gizadi marmarretak, mailuen danbatekoak, itsasontzien turruntak, tximista-gurdien⁵¹³ txintxinak eta sugurdi⁵¹⁴ azkarren *tipirri-taparra* luze adoretuak.

Nerbion inguruari Euskal Herriko alderdia baino *Londresko* auzotegia hobeto deritzat.

Corago daude Galdames, *San Salvador* eta Abantoko mendiak, Ortuella eta Gallartako lur eta gizon gorriak.

Mendi haietan ez dago zuhaitzik, ez dago lorerik, ez dago belarrik ere. Mendi gorri haiek burdinaz urratu dituzte, izerdiz adina odolez ihintzatuak⁵¹⁵ dirudite.

Gizon gorriak, ostera, izen gaiztoaren jabeak dira. Asko, gehienak beharbada, guraso zintzoen semeak izatea baliteke; baina giza-tzar, lagun oker bihurrien artean gaiztakeriak kutsutu ditu. Ausardia dute nagusi, nasaikeria adiskide, indarra lege, añeneko⁵¹⁶ ziri eta zigor. Birao lurrunean, likiskeria zakarrean lizundu zaie⁵¹⁷ anima; baina hau negargarria!, kalte horren axolarik inork ez dauka. Somorrostroko langileen gurasoak eta toki hartako harrobien jabeak gauza bat bakarrik nahi lukete: dirua irabazi dezatela semeak, mea galanki atera dezatela harrobikoak. Otoitz eginaz irabazi edo zatarkeriak esanaz atera, ez da batere arretazko gauza.

Enda, ohitura eta hizkera guztietakoak nahastean dabilta: *ingeles*, *prantses* eta espainiatarak, euskaldunak eta erdaldunak; Arabar eta Naparrak Galizia eta Asturiaskoen ondoan; Santander, Palenzia,

⁵¹² Zeta: zikin, orban.

⁵¹³ Tximista-gurdi: argindarrezko lokomotora.

⁵¹⁴ Sugurdi: ikatzezko lokomotora.

⁵¹⁵ Ihintzatu: busti.

⁵¹⁶ Añeneko: maldizio, berba zatar.

⁵¹⁷ *J.I.* zaiote.

Burgos, Valladolid, Soria, Logroño eta Zaragozakoak Zamudion edo Muxikan, Amoroton edo Errigoitin, Errezilen edo Asteasun, Amezketan edo Ataunen jaio diranakin batera; denak alkarren etsai, denak bata bestearen ezin ikusian, denak bakoitzaren sorterrria besteenen gainetik jasotzen dutela garaietan, lagunai min emateagatik bada ere.

Ezin dute inor maite, baina erreztasun handia daukate edozein gorrotatzeko. Beti ohi da norbait gorrotoaren erakusle, beti jardunle-
ren bat ondamuaren kolkotik irteten dizkioten⁵¹⁸ hitzak lagunartean erein ohi dituana.

Eta hitz horien hazia, aberatsenganako gorrotoa, agintarientzako amorrua eta Jaungoikoarentzat eskergabekeria erakusten duan hazi txarra errez eta edonun sortu ohi da; lehenengo ereinaldian ez bada, bigarrenean edo laugarrenean. Baita euskaldunen bihotzetan ere. Ai, zenbat euskaldun zabartu diran Somorrostroko lur gorrietan!

Hantxe zegoan eta bertan alperrik galdu zuten Azkarragako Martin, Inazio Mariren semea, Joanesen iloba. Lagunarteko irakaspen gaiztoak aditzean, lehenbizi ez zituan aintzakotzat hartu nahi; gero, seta⁵¹⁹ okerrak akuilatuaz, irakaspen haiek onak zirala iruditu zitzaion; hurrengo, egiarik handienak zerizkiola esaten ausartu zan; eta azkenez, adiskideen txaloak txit narotu zioten uste doilor hori erraien erdi-erdian.

Harrezkero ogi bedeinkatua bezala irakurri ohi zuan, igandee-tan, kirtenkeriaz hornituriko paper purtzil⁵²⁰ bat eta baita bere buruari esan ere: “Oñatin ez dute honelako gauzarik egundaino ikasi, oso itsutuak eta atzereak daude hango gizonak”.

Utzi dezagun orain gure mutil zentzugabea, eta Zabaletako gertaerak jarraitu baino lehen, jakin ditzagun gure galiziarren albiste batzuk gehiago. Juan Andresek, semea irakastoletan erabiltzeagatik eta emazteak nahi zualako, Santiagon bota zituan sustraiak. Uri

⁵¹⁸ *J.t.* dioten.

⁵¹⁹ Seta: tema, burugogorkeria.

⁵²⁰ Purtzil: txiki, kaskar.

ospetsu hartan bizi zan, aberats bezala, handiki antzean, zeregin astunetatik zerbait aldendua, baina, oraindik, alderdi askotako lanetan zer ikusi eta zer irabazi *politak* zerabiltzala. Ondo ezagutzen zuten euskaldun gizena hurreko eta urrutietako etxe, bide eta nasagileak⁵²¹ eta bazekiten bere berri Jijon, Aviles, Pravia, Ribadeo, Ferrol, Coruña eta beste hainbat lekutan. *Tenpraneiro* deritzon karrika batean zeukan etxea, bere-berea, ederrenetakoa, eta etxe hartan, goi-beheak maizterrai utzirik, bigarrenengo bizitzan arautu zuan bere kaiola, txit erosoak, semeak eskatu zion gisara mahai, jarleku, ohe eta oihal bereziz egokitua. Goi eta beheko maizterrak, oso aberatsak izan ezta ere, bai ongitxo jaiok, txurikerietan eta gezur goxoak esaten aski ohituak, arpegiz arpegi *Don Juan* deitu arren, gero atzetik, Juan Amots esaten zioten; baina, egunik utzi gabe, toki jakineko *kafera* zihoanean, *qué hay Don Xoan, hola Don Xoan, siéntese acá, póngase ahí*, bene-benetako abegi ona egiten zioten hango adiskideak, hau da, bere hartu-emaneko langile buruak; zalpurdi jabe eta mandazainak; ogi, ardo eta haragi saltzaileak; karobi, harrobi eta basoen nagusiak; bizar luzeko Santxez edo Lopez *sarjentoak*, eta gipuzkoarren dirua usain egin zuten beste askotxok. Adiskide haientzat guztiz bikaina zan Don Juan euskalduna. Ea bada, gorriak eta beltzak, bi aldiz, herriaren ondasunak zaintzeko iaioena bezala, gizon hura udaltxean sartzeko jo eta hausi zakarrean ibili ziran eta... Eskua zabaldu izan balu zerbait... semeari, orduan ere, jaramon egin balio...

Seme bakarra zuan, Juanito izenekoa, beltzerana, erkintxoa, harro samarra, berekoia, gaizki hazia, handizalea. Anitzez irri egiten zion aitari esaldi nahastu moldakaitzean jardun ohi zualako aitak, bada Juan Andresek, dirua irabazten bai, baina gaztelarrez ez zuan behin ere ondo ikasi. Amarekin berriz ez zuan inora irten nahi, bada Dionisia Gomez Junkeiro lehen baino oihal hobez jantzi arren, ez zan lehen baino asko gehiago garbitzen, eta ezagun zitzaion bere iturbu-

⁵²¹ Nasagile: kai egile.

ru narrasa eta antzinetako bizibidea hizkeran, janzeran, orrazkeran eta begietako makarretan⁵²². Berez behar Billabonakoa.

Hamazazpi urte dauzka mutilak Santiagon idorotzen degunean, eta adierazo genduan bezala, sendakintzarako ikasten hasita dago. Aitor dezagun argiro: ikastoletan *dabil...* eta baita ere joko-etxe, jolastoki eta *kafeterietan*, gurasoak ematen diotena eta berak harra-patzen duana aisa eralgitzen. Jakituriarako bide onak baino bide-hari errezak nahiago lituzke, eta eskuartean, liburuen ordeztu, eguneroko paper albistariak darabiltza. Bere iritzia egin behar izaten du etxean, bere eta gurasoen ustetan aita-amak baino argi gehiago dualako, eta jakina! Juanitok irakurri du Zabaletako eskutitza eta Juanitok erabaki du Gabonetan gurasoekin batera Zabaletara etortzea.

Badatoz... edo etorri ziran; bada nik, noizean behin, gaurkoak bezala agertuagatik, gertaldi hauek igaro zirala urte batzuk badira.

Etorri ziran, eta etorri zan Somorrostrokoa ere.

Izugarrizko harrera egin zioten: baina Arantzazuko Ama maitea! Hura lana erori zitzaien baserri hartako gure adiskideai!

Inondik inora ezin ulertu zuten alkar Ana Josepak eta bere Galiziako errainak.

—Baneukan zuek ezagutzeko gogoia —esaten zion harek.

—*No le entiendo a Ud. una palabra* —erantzuten zuan besteak.

—Esne *zopak* jango al ditu mutilak? Urdaiazpikoa jarriko al dizuet?

—*Lo mismo que si me hablara Ud. griego. Jesús, ¿qué lenguaje!*

—Ez zaitez haserratu, emakumea.

—*¿Qué dice tu madre, Juan?*

Juanitori, berriz, dana iruditu zitzaion badaezpadakoa, itsusia, txiropa Zabaletan. Baserria uritik urruti, bideak aldapatsuak, ataria lokatzaz betea; sukaldean kemina zegoan, nun-nahitik haizea zetorren, jarlekuak txarrak ziran, oheak gogorrek, janariak nolabaiteko-

⁵²² Makar: pizta, bekar.

ak, ahaideak oso ezjakinak, aitona agure baldarra, amona atso barre-garria. Beste era batekoak nahi zituzkean harek bere aitonak, jauregitarrak, andre-zaldunak, bere harrotasunean ames eginda zeukan bezala. Ezin zuan haserrea gorde, eta arpegi errean igartzen zitzaion nahigabea.

Alperrik zebiltzan etxeko guztiak gazte hura txurikatu nahian. Ez zion harek aitari bakean uzten:

—*Vámonos de aquí cuanto antes.*

—*Ten paciencia, hombre. Espera unos días.*

—*Sí, unos días más entre humo, y cuando vuelva a Santiago ni tendré ojos para estudiar, ni me conocerán los amigos, porque me habré convertido en cecina. Eso, si antes no muelo de pulmonía. ¡Qué tierra esta!*

—Zer du zure semeak, Juan Andres? —galdetzen zuan Joanesek.

—Etxera nahi omen du.

—Hau ez al da ba zuen etxea?

—Bai, baina...

—Baina bestea zuenago. Hala ohi da. Zabaletatik aldendu zina-nean urratu zenduzan hemengo lokarriak. Nere odolekoak zerate oraindik, baina nere ilobagan, Zabaletakoen odola mehetu egin dala uste det.

Juanito hain atzera eta gogo txarrekoa ikusi zutenean, Manuelek eta Josek ez zioten ondo begiratzen.

—Haze Markexko harroa! Petrala hori galanta —zioen batak.

Eta besteak:

—Markexko! Ez dirudi ba, amaren aldetik ere, jatorri goitar bikainekoa.

Baina Juanito bezain petrala eta mila bider lotsagabeago zan eta, Martinekin izan zituzten eztabaidarik handienak.

Azkarragako mutilak, Somorrostitik etxeratu zan ezker, bere buruari gehiegi zeritzon eta goitik behera begiratzen zien lehengusuai. Paper bat eskuetan zuala agertzen zitzaaien egunero, *biboteak* igortziaz, eta berehala hasten ziran gazteak alkarrri min ematen.

—Zer dek paper hori?

—*El Rasero.*

—Gauza onen bat bai.

—Onenetakoa. Hemen egia haundiak esaten ditu.

—Ebanjelioa izango dek.

—Hobea.

—Hago isilik, lukainka.

—Zuek ilunpetan zaudete.

—Eta hi eguzkitan? Eguzkia hiretzat bakarrik egina dala uste al dek?

—Ez, danentzat egina da, eta danok hartu behar genduke.

—Guk, irteten duan guztian hartzen diagu ederki.

—Baina nik ez.

—Heu haiz orduan ilunpekoa.

—Ez da horrela. Lur azpian argia izan geinke.

—Kriseilua?

—Batere kriseilu gabe, lur azpian eta lur gainean, eguzkirik ez dan orduetan, gauaren erdian...

—Ipurtargia.

—Ez zaitzete niaz txuliatu⁵²³; adi iezadazue benaz. Egiaren argiak egiten dio gizonari argi nun-nahi eta edonoiz.

—Eta nork emango dik hiri egia?

—Paper honetxek.

—Ba, ba... Albistari horren egia eta astoaren arrantza hor nun-bait dituk.

—Astoaren arrantza! Zeuek zerate zuek astoak, zeuek, ezer ez dakizuenok.

—A Salomon, Salomon kaiku! Hobeto egingo huke paper hori irakurtzen baino etxeko soro bazterrak garbitzen saiatuko bahintz.

Horrelako hizketaldiz nahikoa minberatuta zeuden gure muti-lak, eta Jose batez ere, ipuin horiezaz gainera Azkarragakoa Malen-txori kinuka somatu zualako, kinuka eta gehiegizkeriak esaten ere

⁵²³ Txuliatu: adarra jo.

bai. Pozik emango zizkiokeen belarrondoko eder-eder bi. Eta samin horiek asko ez zirala, Gabon gauean sortu ziran mingarrienak Zabaletako baserrian. Ez zan gau egokia, baina usterik gutxien zanean irten zuten haserre nahigabeak.

Ez, ez zan gau egokia. Gabona, bertsolari eta idazlariak era guztietara goratu duten gaua, gau alaia, gau gozoa, oroitzaz beterikako gaua da; bake bigun, jolas garbi eta eresi samurren gaua, umeak hainbeste aldiz ames egin duten gaua, gizonik zaharrenak gaztetzen dituan gaua, iluntasunik ez duan gaua, egunik ederrena baino ederragoa dan gaua, Jaungoikoaren gaua; hitz baten esateko, lurbirako alderdi guztietan gaurik handiena, eta Euskal Herrian, ez daukagu zeresanik, inun baino ere handiagoa.

Ez dago euskaldun semerik, euskalduntasuna galdu ez badu, edozein tokitik, gau horretarako makila bat sorbaldan, pardeltxoak makilan, bakailaoa pardelean, gurasoen irudia buruan eta pozik neurrigabeena bihotzean duala, bere lur maitea joko ez duanik, eta bere lurrean jaioterria eta jaioterrian sortetxeko ate kutuna. Ez dago euskaldun etxeoandrarik, estuen eta larrien bizi dana bada ere, seme, senar, gurasoentzat, hortik edo hemendik, janari gozo ugaria lortuko ez duanik gau horretarako, nahiz eta beste gau asko baratxuri salda hutsez igaro.

Errukarria Gabon gauean bere etxetik urruti dagoan euskal semea! Kupida ezazue⁵²⁴ gau horretan bere maitentzat nahi adina janari idoro ez duan euskaldun etxeoandrea!

Bidezko gauza da, bada, Joanesez, azkenengo egunetan, seme, iloba eta ahaide guztiak Gabon gauerako bere sukaldean batu nahi izatea, eta baita ere Zabaletako emakumeak gau horretarako afaria ondo jartzen ahaleginak egitea. Goizean goizetik ekarri zituzten jaki eta gozagarriak uritik, eta arratsalde osoan euki zituzten su handiaren aurrean, lapikoak gar-gar, kazuelak pil-pil, tanbolina⁵²⁵ *plis! eta*

⁵²⁴ *J.L. zazute.*

⁵²⁵ [*Padera*].

plaut, eta azken orduan, zartagi eta *arranparrilak* txir-txir-txir. Zazpiretako dana zegoan gertu: aza zuria ederki bigunduta, bakailaoa *saltsa* gorrian, besiguak erreta, txitxardinak⁵²⁶ oliotan berotuta, sagar zatiak azukreakin egosita, kanela eta guzti, ahi gozoa pertzean lara-tzetik dindilizka, gaztainak eskuzapi garbian zapaldurik, mahaia zamau zuriz estalduta.

Pozak ez zuan lokarririk Zabaletan. Afari onaren ustean alai, denak zeuden hizketan, berriketan, jolasketan, gauza guztiak usainka, eltzeai estalkia kentzen, eskuak igorzten, etxekoandre zaharraren gaitasunak goren-gorenean jartzen. Juanitok berak lasai eta askatua-go zirudian.

Halako baten:

—Bakoitza bere tokira! —agindu zuan Ana Josepak, eltzekada bat aza izugarritzko platerean itzuliaz.

Jarri ziran danak. Joanes mahaia bedeinkatzen hasi zan... eta baita ere barrez Juanito eta Martin.

—Zeri egiten diozue barre? —galdetu zien⁵²⁷.

—Otoitzari.

—Otoitzari barre? Zergatik?

—Txorakeria dalako.

Begirune beltzak ipini zizkieten⁵²⁸ mutil biai; arpegi guztiak nahigabe-soinekoa jantzi zuten. Alde batetik, ez zan etxe hartan era horretako hitzik behin ere entzun, eta bestetik etxeko guztien gogoia Joanesi poz ematea zan.

—Noiztik hona da txorakeria? —jarraitu zuan Zabaletako jaunak.

—Aspalditxotik. Orain ez da inun otoitz egiten.

—Hainbat gaiztoago. Horregatik daude gizadiak dauden bezalakoak... Bada, jakin ezazue⁵²⁹, umetxoak: nere baserrian beti egin izan

⁵²⁶ [*Angulak*].

⁵²⁷ *J.t.* zioten.

⁵²⁸ *J.t.* zizkieten.

⁵²⁹ *J.t.* zazute.

da otoitz, beti egingo da, ni bizi naizen artean behinik behin... eta gero ere bai... uste det.

—Bai, jauna; bai jauna! Ez genduke besterik behar! (Malentxok, Manuelek eta Josek, batera).

—Aita eta Semea! *Judioak* baino okerragoak zerate zuek, ikusten denez. (Amonak Martini eta Juanitori).

Juanitok:

—*Bueno, no se enfaden ustedes: cada cual tiene sus ideas.*

Juan Andresek:

—Gazteen gauzak.

Paulak:

—Gazte gaiztoenak.

Joaneselek:

—Nere ondorengoak horrela izan behar zutenik ez nuan uste!

Amonak, gizonen bekokietan trumoia ikusita:

—Tira, tira, nahikoa da: ahaztu ditzagun ahaztu behar diranak, Gabon gaua da eta.

Ahaztu! Nork ahaztu bihotzaren erdian eman zaion sastadea, zauria barruan badago?

Inork ez zuan ezer gehiago esan, baina alaitasunak Zabaletako sukaldetik iges egin zuan. Alperrik Ana Josepak eta Katalinek egin zituzten⁵³⁰ eginahalak mahaikideak gozatzen. Martin eta Juanito ezpainetan higuin-barrea⁵³¹ zutela gelditu ziran; baina beste gizonezkoak ilun eta goibel, galiziar emakumea txito zapuztua, Jose eta Manuel ukabilka ekiteko amorratzen, Mikaela..., Mikaelari malko lodiak zerizkion⁵³². Alperrik Malentxok, bereak animan gordeta, afarria zerbait aurreratu zanean, eresi zituan Gabon eresirik bigun-bigunenak, gertaera samina ahaztuerazteko; alperrik ibili zan aingeruzetarra garbiz honela esaten:

⁵³⁰ *J.L.* zitzen.

⁵³¹ Higuin-barre: nazka, burlazko irribarre.

⁵³² *J.L.* zeriozkion.

“Izarrik ez da
 Goietan, baina
 Argitan dago
 Lur guztia.
 Belenen Jesus
 Jaio da eta
 Jesus Bera da
 Gure argia”.
 “Gure argi eta
 Gure zorion
 Bake pozaren
 Ekarlea.
 Nola izan ez,
 Bihotz eta anima,
 Jesus, ni Zure
 Maitalea?”
 “Ileak urre
 Begiak urdin
 Zerua bera
 irudizu.
 Ai, haur ederra!
 Ai, haur gozoa!
 Ai, maitetuko
 Baninduzu!”

Gauza bat bakarra iritsi⁵³³ zuan Malentxok: bere lehengusu Martinek, edanez ausarditurik, neskatxari belarrira esatea:

—Neuk maitetuko zaitut inork baino gehiago eta hobeto. Ikusiko dezu.

Autorrera honek ez zion Maleni onik egin.

Ezta ere inori Gabon gaueko afariak: denai mindu zitzaien ahi gozoa.

⁵³³ Iritsi: lortu.

—Nerea da errua —zioen aitonak oherakoan—; nere bihotza kiskaltzeko egurrak biltzen ibili naiz; ezitia nekarrelakoan behaztuna ekarri det. Baina zeini otuko zitzaion horrelakorik, zeini?

Galiziakoak, jaiak igarotzeko asti gabe aldendu ziran Zabaletatik, baina ez Martin. Martin Azkarragan gelditu zan, ez soro-lanerako, ez gurasoai lagun egiteko, ez bere jaioterria maite zualako: alperrieriaz eta Malentxo ikusteagatik. Malentxoren irudia animaraino heldu zitzaion, eta egunero, goiz eta arratsalde, ahaideen artean ezer gertatu ez balitz bezala, Zabaletan sartuta zegoan, gehiegi sartuta. Neskatzaren atzetik zebilen beti alderdi guztietan, ez zion inondik inora bakean uzten, eta behin batean lotsagarrizko gauzak esan zizkion Malentxori. Bai, lotsagarrizkoak; eta Pedro Antonek, hitz haiek entzunda, gogor samar arpegi eman ziolako, bultzaka bota zuan mutilak morroi zahar maitagarria. Bultzaka bota eta ostikopean ibili gaizkile lizunak. Pedro Anton gizagaixoa! Elbarrituta ohera zeramatenean, “erori egin naiz, erori egin naiz” zioen, Martini errurik ezarriko zioten bildurrez; eta gero, Malentxo zauriak garbitzen eta sendatzen zegokionean:

—Ixo, maite, ixo; ez inori ezer esan, ez da ondo eta; baina, berriz horrelakorik aitatzen badizu, jaikiko naiz eta burua puskatuko diot. Lotsagabea halakoa!

Zabaletan Martinen makurkeria ez zuten jakin, baina jakin izan balitz ere, bazeukan makurkeria guztiak zeinek estaldu. Han zegoan amona, iloba horren esakera eta egikera txarrak entzutean, beti mutilaren alde; eta sarri esan ohi zuan, aitzakiaren bat bilatu ezinik zebilen garaietan.

—Okerra da, bai, okerra da; baina andregai zindo batek ondu dezake. Andregai zindo bat behar du Martinek.

XII

USTEAK ETA MINTZOAK

—Zeini lur eman diote?

—Zabaletako Pedro Antoni.

—Pedro Anton hil da?

—Bai.

—Zer izan du?

—Ez dakit ba nik. Erori egin zala edo... Gauza handirik behar ez, zaharra zan eta.

—Zenbat urte zituan?

—Larogeitik gora.

—Nahikoa lan egin du harek bere urteetan.

—Bai horixe. Aspalditxoan ez baina, lehenago...

—Luzaroan egon al da gaixorik?

—Luzaroan makal, gaixorik hamabost egunean.

—Zeruan gerta dadila.

—Eta Joanes? Zer egin zuan Joanesek?

—Hobeto ei dabil.

—Irauten du, horratik. Berea zala esango nuan gaurko elizkizuna. Hau gizonez dator! Hau andrazkoz⁵³⁴!

⁵³⁴ Hau gizonez; hau andrazkoz: gizon eta andre asko. Jendetza handia.

—Jakina ba, Zabaletakoen ahaide eta hartu-emaneko guztiak. Pedro Anton etxekoa bezala zeukaten: badakizu.

—Hara Mikaela eta Katalin aurretik.

—Ondo zurbil eta maiskarra⁵³⁵ dago Mikaela gaixoa.

—Bai, ez dauka horrek gaur ezkondu zanean adina patxada eta nasaitasun. Oroitzen naiz: hementxe geunden hoi en ezteia hor zehar igaro zanean. Bazan orduan *ijji ujuju* eta deadar alai galanki; bazan orduan jana eta edana, etxe-bizitzea eta ontzurrea... baina gaur, geu baino gutxiago.

—Inazio Marik urtuko luke, hondatuko luke, baita... Orain ere hura ez da hor agiri. Zereginen bat izango du Moxolonean.

—Harek Moxolonean zereginak eta emazteak etxean estutasunak.

—Martinek ez al diote ezer ekarri?

—Zera, jateko gogoia galanta. Hori ere, aitaren antzera, Moxolotarren adiskidea omen da. *Azak berea kirtena, eta haritzak bere arikoa ezpala.*

—Aizan, beste gauza bat —Moxolo esanda oroitu zaidan—. Egia al den Peru Odolki hire atzetik dabilena?

—Um! Ez... Tira, harek nahi izan du, baina ez gera zertu... Lehen ere, inor ez nualako ez naiz egon: neuk hartarako zerik ez, horra.

—Hobeto den neskazahar, Peru traketsaren emazte baino.

—Bai, baina ez uste izan mutil hura hain zera danik. Nork zaindurik ez du euki eta...

—Ja jai! Horixe ere jolasa litzateke. Hi baino ardo zaharra nahiago din harek.

Honelako mintzoa zerabilten soro-lanetan zeuden emakume bik, Arantzazuko bidean zehar beltzez jantzita zihoan gizadiari begira. Emakume haietatik bata, Inazio Mariren ezkontzako egunean ezagutu genduan atxur-neska zan, harako Luisa tuntuna.

⁵³⁵ Maiskar: itxura txar, trakets.

Peru eta Luisaren arteko ipuinen albistea ez dakit jatorri onekoa bazan ala ez, gero jakin daikegu; baina Luisak Azkarragakoatik esaten zuana, hori bai, hori badakit egia zala.

Sorokoak maiseatzen⁵³⁶ ari ziran bitartean, Mikaelak berak aitortzen zion Katalini, era honetan:

—Ai, Katalin! Negarrak, bai, negar handiak egin ditut! Eta egiteko dauzkadanak...! Ondo dakizu nere senarraren berri: azoka dala eta jokoa dala, gelditu gabe dabil horruntz eta honuntz; asko behar du, oso asko, eta gurean ez dago ezer. Lehenago bai. Ni txikia nintzanean..., ez da harrokeria, Katalin, bazter guztietan geunkan guk urrea; ontzakoak, ontzerdikoak, ehun errealekoak, hogeta batekoak, zer ez? Nere amak nik adina ezkonsari ez zuala auzotegian bestek izango esan ohi zidan. Ikusiko balu⁵³⁷ gaur nola nabilen! Nere aitak ikusiko banindu! Nere ahizpatxo Jaunak eraman eta laster, nahigabez hil ziran haiek behar baino lehenago, etxearen hondamena ikusita... Gaur ez dago Azkarragan zorra baino besterik: eskuan daukadan argizaria ere zorretan hartu det. Ia zer janik ez daukagu, itxurak egin arren. Ameriketara genduzan gure itxaropenak, baina joan ziran betiko. Gure osaba horrek lurra jo⁵³⁸ omen zuan eta. Eskerrak zuei: zue-netik datorkigu artirina, urdaia eta babarruna; zuen bizkarretik gabiltza. Eta samin hauek nahikoa ez dirala, orain semea, nere semea sineste gabe eta *protestanteak* baino txarrago etorri zait! Ai, Katalin, zuk ez dakizu nolakoa dan nere oinazea!

—Jaungoikoak arautuko gaitu. Berak argi egingo dio zure seme-ari, Berak bigunduko dio bihotza.

—Bai, Jaungoikoak dana bere eskuetan dauka baina...

—Hara, Mikaela, berri on bat eman behar dizut; gure amonaren asmoa.

—Zer da bera?

—Ezkondu egin behar duala Martinek.

⁵³⁶ Maiseatu: burla egin.

⁵³⁷ *J.t.* baluke.

⁵³⁸ Lurra jo: hil.

—Zeinekin baina? Nork hartuko du gure mutil zakarra?

—Zuzenduko duan neskatxa batek. Amonaren iritziz Malenek zuzenduko du.

—*San Migel* Aingeru ederra! Ai holako bat! Baina, Katalin, zer esaten ari zera? Malentxok zer dio?

—Gure neska horrek ez du ezer aitatu; baina urteetan aurrera doa eta... amonari gogoratu zaio.

—Eta zuek?

—Guk, Jose Ramonek eta nik, minez baina, behin edo behin behar dala eta, denok ondo izateagatik, *bueno* esan degu, joan dadi-la Malen Azkarragara, Paula gurera etorri dadila, alkarri lagundu deiogula⁵³⁹ eta Jaungoikoak guztioi.

—Txoratu behar zait! Baina Malentxo...

—Gure Malentxo ez dirudian bezalakoa da, ona eta zorrotza, ezta eta ozpina, behar dan orduan behar dan bezalakoa. Bai, Katalin, amonaren ustea iritsiko da. Malenek nahi duan guztia egingo dio Martini: egun hauetan, *konfesatzera* eraman behar duala eta, koipea baino bigunago darabil. Inazio Mari ere bildurrez egoten da gure neskatxaren aurrean: ikusiko dezu nola ekarriko duan bide onera.

—Ai holako bat! Katalin, zerua dakust.

—Eskatu eikeozu⁵⁴⁰ Jaungoikoari.

—Belaungorrien gainean joango naiz Arantzazura, asmo horrek ondo irteten badu.

Gurasoak baino atzeratxoago agiri ziran Paula eta Malen, txuxuputxuka. Hara zer zioten. Malenek:

—Egingo nuke gure amak eta, ezkontzeko ipuinak daramatzatela⁵⁴¹.

—Bai zera!

—Hik ez dakin: hire anaiak nere eskabidea egin din.

⁵³⁹ *J.L.* daiogula.

⁵⁴⁰ Eikeozu: iezaiozu.

⁵⁴¹ *J.L.* daramazkitela.

—E? Martinek?

—Bai, eta nere aita-amak baiezkoa erantzun zionate⁵⁴², edo itxa-ropena eman, gutxienez.

—Malen, nere anaia gaiztoa den, neuk zekinat ondo: gaiztoa den eta ez zatorkin egoki. Jose balitz, ez dinat esaten. Jose bai aukerakoa!

—Hala dio aitonak. Hura bezalako mutilik ez zegoala-eta jardun zinenan⁵⁴³ atzo.

—Ez, ez dago, eta maite hau, asko maite hau.

—Baita hik ere bera.

—Ezin ukatu nineken⁵⁴⁴; barkatu behar didan⁵⁴⁵.

—Zergatik barkatu? Maitetasun hori nere gogobetekoa den, Paulatxo.

—Hire gogobetekoa!

—Bai.

—Ba orduan... nere barrua itzuli behar dinat, lehertu baino lehen. Egia den, Malentxo; maite dinat! Nere ama beste dinat maite edo ez dakit nik gehiago bada ere; Iturraldeko Jose animaren erdian, bihotzaren txokorik ederrenean zeukanat, bere izena entzuteak atsegin ematen zidan, bera ikusteak halako zarrastada bat... Baina benetan al habil? Ez al den hiretzat behar?

—Ez den neretzako egiten dana.

—Eta Martin?

—Gutxiago.

—Moxolo?

—Gutxiago.

—Baina, nolako emakumea haiz hi? Ez den inor maite?

—Bai.

—Handikiren bat?

—Handiena.

⁵⁴² *J.t.* zione. Haiek hari.

⁵⁴³ Zinenan: zuten.

⁵⁴⁴ Nineken: diezazuket.

⁵⁴⁵ *J.t.* dian.

—Aberatsen bat?

—Aberatsena.

—Aitaren, Semearen... Jakin liteke zein dan?

—Jakingo da. Orain hago isilik.

Emakumeen hurrengo, lagunetatik aldenduta, arretazko esamesak zeramatzaten⁵⁴⁶ Josek eta Manuelek ere.

—Albiste berriak, Jose —zioen Manuelek—. Aitak, garaia dala eta, zerbait egin beharko degula esan dit. Ni Paularekin senartzea etxe bietarako ongi omen dator. Zer deritzok?

—Bai, ez da gaizki.

—Hain zuzen lehengo baten hasi nintzan Etxenagusiko Isabeli zerbait esaten... Hik ezagutzen dek Isabel.

—Jose Mariren alaba gaztea?

—Bai. Emakume ona dek Isabel, isila, elizkoia, maratza, lurlan-gintzan ohitua; baina gurasoen gogokoa Paula dan ezkerero...

—Paulari ez dio Isabelek eramaten⁵⁴⁷.

—Emakumez emakume Paula ederragoa baino ez dek. Eguzkia baino garbiagoa, baratxuria baino zindoagoa.

—Halaxe dek.

—Lehengusua izatea.

—Lehengusua, Inazio Mariren alaba eta Martinen arreba... Noiz bihurtu behar dik Somorrostrora Martinek?

—Gehiago bihurtuko danik ez diat uste.

—Zer ba?

—Ez al dek ezer aditu?

—Nik ez.

—Ba nere belarrietara zerbait ekarri didate.

—Zer baina?

—Malentxorentzat *egiten*⁵⁴⁸ dutela edo...

⁵⁴⁶ *J.t.* zeramazkiten.

⁵⁴⁷ Eraman: irabazi, gehiago izan.

⁵⁴⁸ Malentxorentzat egin: Malentxorentzat aukeratu.

—Zer esan dek? Martin Malentxorentzat? Otsoa arkumearentzat? Deabruarentzat aingerua? Hori ez dek egia izango. Ezin liteke, Manuel, ezin liteke!

—Ez luke behar.

—Onak gaude, benetan baldin bada! Ez al zegok ezkontza hori galtzeko neurririk?

—Nahiago nitek. Baina amonaren asmoa omen da eta... Harek ez dio bereari utziko.

Ez zion inork ere utzi. Norbere animan behin agertzen dan itxaropena, bikainegia izaten da alde batera uzteko.

Malentxo ezkondu nahi zuten guztiak zeukaten itxaropenerako iturria: hiru senargaiak, bi amak eta amona zoli arduratsuak; eta guztiak saiatu ziran bakoitza bere labeari su ematen.

Josek ez zuan su beharrik gar bizian gori-gori egoteko. Aberats-aberatsen ondasuna, gizonik argiaren jakituria eta gorengo agintarien agintaritza behar zituzkean Malentxoren oinetan jartzeko eta ez zeukan ezer! Txiro, argal eta umezurtz izateak erretzen zuan gehienbat. Etxe hobean jaio balitz! Aita-amak dirutsuak izan balira! Bere alde zerbait idoro nahian, buru eta bihotzean beti azterka, gogoratzen zituan mutikoa zanetik Zabaletan isuritako izerdiak, soroetan egingdako lanak, Urbian eramandako nekeak, aloger gabe, janaren ordainez, etxeko bezala, gogoz, adorez, gau eta egun, ahal zuan adina, eta hortik azaltzen zitzaion Joseri itxaropenaren arpegia, doi-doi eta urrutitxoan bada ere. Hain eskergabeak ez ziran izango... Oroitzen zituan ume-umetatik Malentxoz edukitako arretak, bien artean erabilitako anai-jolasak, onik onenean errai barruan hasitako maitetasun handi, sakon, neurrigabearen gorabeherak, berariaz neskatzak Urkiolan esan zizkion hitz zoragarriak: “inorekin izatekotan, zurekin izango naiz”, eta oroitza horien ondoren, Josek argi eta garbiro ikusten zuan bere itxaropena. Zabaletako alaba ez zan gezurtia... Gainera, txit askotan zetorkion umezurtzari, egunean mila bider edo gehiagotan zetorkion burura aitona egiazalearen agindua: “Manuelek etxera emazteren bat dakarreneako, hiretzat ere aukeratuta neukan norbait”, eta agindu horren gogamenak, ezbai eta bildurrak kenduaz, osoro gozatzen zion bihotza. Joseren amesa lortuta zegoan.

Martinek, grinaren haizez, Malentxo ikusiaz eta ahaideen aurrean apal itxurak eginaz ixiotzen zuan bere labea. Urduri zebilen, bai, oraindik ez zan ezkondu eta; baina esku onetan zeukan bere lehia, eta bazekian zer epai emango zioten aurki. Bera zan etxekoa, bera bakarrik, etxekoa zalako laguntzen zioten amak, izekok eta amonak, honek batez ere, eta amonaren gogokoa bazan, nahietanahiez garaitu behar. Eta garaitzean *aufa!* Uribarriko neskatxarik ederrena Martinentzat, lehengusuen ondasunak beretzat, erdiak gutxienez, eta *¡viva la Pepa!* ibiltzeko nahikoa txanpon.

Moxolok, berriz, dirua izan ezkerok dana eginda zegoala uste zuan, dana, *por dinero baila perro*, eta berak adina diru ez zeukan beste mutilek Oñatin. Egia, Malentxok Odolkiren bitartez biraldutako eskutitzari ez zion erantzun; ez zion inun eta inola ere arpegirik eman, baina iruditzen zitzaion Moxolori zergaitik: neskatxa hura oso lotsatia zalako. Nolanahi ere Ana Josepak irekiko zituan ezkontzarako bideak ederki. Martinek behar zuala Malentxo? Ba! Ez zegoan Martinen bildurrik: Martin besterik ezeko⁵⁴⁹ ezkongai zan. Atsoak pelotariaren sakel betea ikusi zezanean, *¡guardabajo todo el mundo...!* Eta ezezkorik balitz? Ezezkorik balitz, bide laburrak bilatuko ziran: etsi ez behintzat. Moxolok etsi? Ezta, ezta... Ona zan bera animaren zaletasuna lagatzeko! Astorik ez setatsuagorik...

Mikaelak eta Katalinek ostera, Jaungoikoari laguntza eskatuaz eta gizonen aurrean amona goratuaz indartzen zuten itxaropena. Ez zekiten noraino jaso etxekoandre zaharra. Gutxi amona bezalakorik! Gutxi halako arretadunik! Gutxi etxea zaintzen eramango zionik! Bazeuzkan bere akatsak; esnea gehiegi neurtu, arrautzak azkar gorde, ogia giltzapean euki, lukainkak sarritxo ikusi, gaztai-hartzea eragotzi, aleak kutxetan berak ipini, mailatutako sagarrak etxekoai janerazi, edonungo belar pitin, aza, orri, arbi galdu eta gaztaina ustel banakak txerrientzat batu, eta beste horrelako zuhurkeria batzuk egiten bazekian; baina baita ere, garaietan, edozer premiari arpegi

⁵⁴⁹ Besterik ezeko: besterik ezean hartzeko.

ematen. Goserik ez eta gehiegirik ez; sartu ahal dana eta jarioak itxi, hori zan bere esakera. Ai, harek etxeari erantsitako zatiak! Ondo zihoozen amonari jarraituaz.

Azkenez, Ana Josepari, bere ustearen etsai inor izango zanik ez zitzaion bururatu ere. Zein gero? Inor izatekotan, Joanes. Baina Joanesek, besteak bezala, belaunekoen⁵⁵⁰ onari begiratzen zion. Hainbat. Emazteak igarrita zeukan: belarri biak moztuko zituzkean Joanesek, Azkarragako semeak ondo ikusteagatik. Hala ere, aitona Martinen haserrean zegoan eta ez zeritzon senarrari berehala ezer esatea. Ez, hitzik ere ez, haserrea joan zekion⁵⁵¹ arte.

Eta dana erabakitzat emanaz, ari zan gure andretxoa gauza guztiak antolatzen eta etengabeko hizketan:

—Katalin, begiratu ezazu gero nola dauzkan Malenek atorrak eta barruko gonak. Gaineko jantziz ondo dagoala uste det, ezer ere ez du puskatzen eta. Ipini al du behin ere *Gorputz* egunerako josi genion⁵⁵² soineko beltza? Horixe du nahikoa ezkontzarako. Bai, edozertara ere, mutila baino hornituago joango da neskatxa. Mutil arlo-tea! *Auskalo*⁵⁵³ ze praka eta ze jantzi dauzkan harek: galdetu iezaiozu Mikaelari. Prantziska jostuna etxera ekartzea izango degu onena, datorren astean. Berak daki zenbat kana behar diran alkondarentzat, berak aukeratuko dizkigu oihalik egokienak. Oraintxe hartu ditu berri-berriak Lukasek: berebizikoak ikusi nituan eguakoitzeko⁵⁵⁴ (ostiraleko) azoka egunean... Martini eta Manueli berdinak egin beharko, e? Baina nahietanahiezkook bakarrik. Gero ere Malenek eta Paulak hutsuneak betetzeko astia izango dute... Gure Malenek txukunduko du bai Martin; baita osaba ere. Txukundu eta etxean lotu. Badaukate beharra.

⁵⁵⁰ Belauneko: jatorriko, ondorengo.

⁵⁵¹ *J.t.* zakion.

⁵⁵² *J.t.* ginon.

⁵⁵³ [*A buscarlo*. Erderakada zakar hau gure basetxetaraino sartuta dago].

⁵⁵⁴ *J.t.* egoikotzeko.

XIII

PEDRO MIGEL AZKARRAGA

Urte batzuetatik honunzkoa da toki guztietan gizirudiak⁵⁵⁵ ele-
menian⁵⁵⁶ ikustea. Gaur bai, gaur ez dago gizirudi gabeko bazter bat.
Edozein etxetan aurkitu geinze⁵⁵⁷ bertako jatorrienak, ahaideenak,
adiskideenak, ezagunenak, maiteenak; edozein lekutan daude antze-
turik gurasoak eta semeak, haurrak eta agureak, neskameak eta
gudamutilak, herritarrak eta erbestekoak, erregeak eta pelotariak,
apaizak eta zezenzaleak, kristauak eta mairuak⁵⁵⁸, jakintsuak eta
hobendunak, banaka eta piloan, jaten eta jostatzen, musuka eta
muturka, barrez eta negarrez, makutsik eta dituzten apainduriak soi-
nean ipinita.

Gehiegizkoa da ia. Ezerez baten egin ohi dira eta. Zer diot eze-
rez baten? Doan ere bai, norberak ez dakiala, norbere lotsarirako.

Herrian, bidean edo itsasondoan, hizketan, ibiltzen edo garbi-
tzen, usterik gutxien danean, *klask*, atxitzen⁵⁵⁹ dute nolana-
hi edonor, eta hurrengo domekan edo biharamon goizean, asteko albistariak edo
eguneroko papertxoak badakar horkoa edo hemengoa, goienetako

⁵⁵⁵ [Gizirudi; gizantz. *Retrato*].

⁵⁵⁶ Elemenía: asko, ugari.

⁵⁵⁷ Geinze: geinkez, genitzake.

⁵⁵⁸ Mairu: moro.

⁵⁵⁹ Atxitu: hartu, harrapatu.

agintaria beharbada, eroen gisa ahoa zabalik, oilarren antzera hanka bat jasota, mutikoen irudira uretan edo urertzean etzinda edo zili-purdika.

Nork ez du orain bere arpegia paperean ikusi? Nork ez ditu eza-gutzen, sukaldetik jaiki gabe, arpegiz behintzat, Donostiako endorea, Zumarragako txistularia, Txolo Potxolo bilbotarra? Zein da irudiz beterikako albistarian opila, udarea, arrautza egosia edo abarketaren batzuk bildu ez dituana?

Hara zergatik gaur gizirudi gehienak aintzakotzat ez diran hartzen. Lehenago bai. Ni ume koskorra nintzala doi-doi eta begirunez ikusten genduzan bat edo beste: Pio IX, Isabel II, Zumalakarregi eta Prin, handikien jauregietan izan ezik.

Eta garai hartan, aspalditxo, bazuten Azkarragakoak beren gizirudia, askori pozez erakutsitako *erretratoa*, maiz eta maitero igortzia, atseginez eta itxaropenez sarri begiratua.

Han zegoan, gizategiko hormatik zintzilika, kutxa zahar landuaren gainaldean, errealeko ispiluaeren azpian, done urdin-gorri zatar batzuen erdian; han zegoan gizona edo gizantza, argal, beltzeran, zuriz jantzirik, begi biak irten beharrean, jarleku ederrari eutsika, lastozko txapel handia eskuetan zuala. Gizantz hura Pedro Migelena zan, Antonen anaia gaztearena, eta hura bera izendatu zion Mikaelak Katalini.

Azalduko det haren kondaira.

Mutil sendoa Pedro Migel, etxejauntzako semea, baina mendizale porrokatua, gatzetxotik ibili zan, bere gogoz, Araozko basoetan, ikazkin, talogile, goiz jaikiaz, berandu etzinaz, baba beltzez urdaila beteaz. Aizkolari trebea izatera nahi zukean heldu. Beste gauzetarako joera eta grinarik ez zuan orduraino erakutsi. Zer gauza hoberik?

Baina, behin batean, basoko lagunak itsasotik harunzko bizitza erreza jakinerazi eta guraria aldatu zioten. Neka-neka eginda, lotara orduko, gazta pixka bat jaten zeudela, era honetako jarduna entzun zien:

—Zaila dek diru egitea.

—Hain zaila ere ba...

- Ikusten dek.
- Bai hemen. Hemen dek zaila, mendi tarte hauetan.
- Edonun.
- Edonun ez. Ezagutzen al dek Joakin Pelix?
- Albizurikoa? Ezagutuko ez diat ba?
- Horrek egin dik galanki.
- Bai, Ameriketean.
- Nunbaiten. Guk ere, hara joango bagina...
- Amerika nun zegok?
- Hara, garbi-garbi esateko ez zekiat.
- Madril baino haruntzago?
- Haruntzago izan behar dik.
- Prantzia alde hortan?
- Prantziatik aurrera, Burdeostik zehar, hamalau edo hamasei egunean itsasoz joanda.
- Urruti, adiskidea⁵⁶⁰.
- Eta ez dek han ere oilo errerik danentzat izango.
- Oiloa edo zer jana bai, langileentzat. Ameriketean, gizona, nahi duan beste aloger irabazten dik edozeinek, hilean berrogei *duro eta*, larogei eta...
- Deabru* arrania! Zertan baina?
- Edozertan. *Kafe* eta azukrea biltzen edo...
- E? Kafe eta azukrea? Horiek al dituk alderdi haietako uztak?
- Tabakoa* ere bai; zelai luzeetan omen zegok, hemen artoa baino mila bider ugariago. Horra tabakoa merke hartzeko eta kafe ona edateko aukerea.
- Ez dik usain txarra botatzen Joakin Pelixen tabakoak! Nork leukakean!
- Eta gainera zilarra eta urrea duten mendiak ere ba omen dituk, guretan harria bezala.

⁵⁶⁰ *J.t.* aiskiria.

—Alajainena! Horrelako menditxo bat bagenu⁵⁶¹, handi-handia izan ezta ere...

—Bilatu ezkerero... Adua behar, *suerte*a.

—Batzuk izan ditek⁵⁶².

Gogoan gorde zuan eleketea⁵⁶³ Pedro Migelek. “Zer? —esan ohi zion geroztik bere buruari—. Hemen egon, sei hilabete osoan mila erreal ezin aurreraturik egon, beste lurraldean hamabost egun barru irabaziko nituzkeala? Hemen, beti egurretan, nekepean bizi, eta beste leku baten aberasteko apukoa⁵⁶⁴ galdu? Etxejauntzakoak gerala eta, zerbait badegula eta, gehiago eukitzeko neurririk hartu ez? Txorrea dek Ameriketara ez doan gaztea, ahal izan ezkerero”.

Eta hemeretzi urte zituanean, Habanako bidea abiatuko ez abiatuko zalantzan egonda, adu onari deiez, *suertearen* bila Ameriketara joan zan, Argentinako lurretara, norbaitek babestua, mendiko zeregina baino besterik ez zekiala, irakurtzen ondo ikasi gabe; baina bihoz-dun, ameslari, aberats izateko uste ziurretan.

Alai eta lasai, zangar eta adoretzu egin zituan Ameriketarako bideak. Euskal Herria utzi eta behingoan uri nagusi apainak ikusi arren, ez zan batere harritu; bere burua ezezagunen artean idoro arren, ez zan ezertxo ikaratu; ontzi handi ederretan itsaso irakinak igarotzean, lehen baino ere gehiago birbiztu zan: izakeraz, barrubarrutik zetorkion bizi-gudarako ausardia; berarekin batera zera-mazkian odol beroa, kemena, indarra, gaztetasuna, bihotzaren erdian isiltzake deadarrez; “Aterako haiz, aterako haiz”.

Bahía Blanca-n oina jartzea Bilboko nasa baten gelditzea bezala iruditu zitzaion.

—Zer dakark? —galdetu zioten.

—Osasuna.

—Zer dakik?

⁵⁶¹ *J.L.* bagĩnu.

⁵⁶² *J.L.* die.

⁵⁶³ [Eleketa. *Conversación*].

⁵⁶⁴ Apuko: era, abagadune.

—Atxurrean eta, laietan eta, ikazkintzan eta, zama jasotzen eta...

—Besterik ez?

—Gutxi al da?

—Zer nahi huke?

—Irabazi, erruz irabazi.

—Ez haiz motela. Igo behar dek.

Baita igo ere. Zinez⁵⁶⁵, deduz⁵⁶⁶, biziro, gau eta egun ekin zion lanari; txit lan asko egin zuan luzaro, teilagintzan, atxurlari, ardizain, gurigile, esnesaltzaile; danera, nolako nagusia zeukan, zer agintzen zioten.

Colorado ibaiaren ertzak badakizkitez Pedro Migelek erabili zituan hotz-bero eta istilu larriak, inoren mendeko egon zan bitartean. Ez zuan berehala oilo errerik bilatu. Gizonakandik urruti, ez etxe eta ez eliza, ez adiskide eta ez anima, mendia herri eta zelaia ezkaratz, padua lagun eta isila oihartzun, gaizki janean eta lo beharrean, piztien bildurrez eta eskergabeen ogipeko; inoren hitzik entzun gabe, hiletarik nori jo ezta, barruko jantzia zeinek garbiturik ez zuala, ondoez baten nork begiraturik ez zeukala; osasun bikaina zatika utziaz, ahalmen zoliak inoren lurrari emanaz; ospel, asper, behartsu eta elbarri; txiroen astoa bezain lerdekatua, txakur gosea bezain maiskar eta igar...; bizitza estu, latz eta lakarra eraman zuan Pedro Migelek lehendabiziko ereti luzean.

Egun itzalak haiek! Hamaika bider damutu zitzaion etxetik irte-na! Gipuzkoatik begiratuta, lurralde onak ziran Amerikakoak: Ameriketatik begiratu ezker, askozaz hobeak Gipuzkoako mendi-basolak.

—Baina ezer gabe nola etxera bihurtu? Saio bizi bat egin artean ez; lehenago hil. *Gutxika-gutxika urrutira joan daiteke*, eta Pedro Migelek, gutxika-gutxika, eskukada bat txanpon lortu zuan, arkibide batzuk ikasi zituan, bere gain jarri zan. Eta ordutik aurrera, gaur

⁵⁶⁵ [*Con empeño*].

⁵⁶⁶ [*Con honradez*].

belardi bat iritsi, diruak idoro eta soroak urratu; bihar lur gehixeago erantsi, osinak bete eta barrutiak jaso; hurrengoan idi-behiak ipini edo kendu, urlia ezagunarekin elkartu eta salerosketa berrietan hasi; ondoren zor guztiak kito egin eta hartu-eman sakonagoetan bizkor lehiatu; ekin beti; atsedetik gabe, zirt edo zart, hortik edo hemendik jo eta hausian ibili; oparo nahi, edozeri heldu, gogotik eraso, dana ondo etorri... gure ikazkina, hogei urte baino lehen, oso aberats eta jaun ospetsu izateraino goratu zan.

Igoerako maila guztiak iragarri zizkien⁵⁶⁷ gurasoai, bada Pedro Migeli, goraldirik handienez ere, ez zitzaion egundaino Oñati burutik eta bihotzetik joan.

Zenbat eta narago euki, hainbat areago zetorkion oroimenera bere txoko atsegina. Txoko hartan erakutsi behar ziran ondasunak (zertarako ziran bestela?); hantxe taiutu behar zan jaiotetxe zaharra gurasoentzat; hantxe jauregi ederra norberetzat eragin; hantxe bere buruari begiratuaz patxadan bizi; bertan hezurak utzi, aldeurrekoen⁵⁶⁸ ondoan. Baina geroxeago, arloak amaitzean, lan-sare nahastuak txito ebakitzean.

Diruak egin eta laster ehun ogerleko biraldu zizkion amari, ehun ogerleko eta guk dakigun gizirudia (hura gauzaren polita, Jesus, Maria eta Jose!) eta ostera berriz urtero etorri ohi zan baserrira mutil emalearen eskupekoa, amarentzat edo aitarentzat, orratzetarako, txokolatea hartzeko, tabakorria erosteko. Hara zergatik Pedro Migel izandu zan Azkarragako itxaropen eta Jaungoiko txikia.

Bai, abagune hartan, Azkarragako nagusiak, batez ere gazteak, ezin zuten gorde beren poz eta harrokeriatxo. Inun entzuten bazuan Antonek honelako nekazari behi batena ezin ordaindurik zebilena, nahiz eta berari ezer galdetu ez, aurki hasiko zan:

—Guk ba, Jaunari eskerrak, inoren beharrik ez degu. Nere anaia horrek lasai egoteko dio eta...

⁵⁶⁷ *J.L.* zizkaten.

⁵⁶⁸ Aldeurreko: aurretiko, arbaso.

—Lehen ere nahikoa lasai zeundeten.

—Lehengoa hutsa da, hutsa Oñatiko haundikien aberastasuna nere anaiarenaren ondorako.

—Soinua badu behintzat.

—Soinua eta izana. Legorretako *indianoa* etorri zitzaigun atzo geu ikustera, beste gabe, eta badakizu zer esan zigun?

—Ez ba, zeuk azaldu beharko.

—Ameriketa guztian ez zeudela euskaldun bi, aditzen?, euskaldun bi ez zeudela gureak adina egin zuanik.

—Hobe, hobe zuentzat.

—Gizonik handienak ere txapela kentzen ziotela.

—Zorionean izan dadila, ba.

Auzo-bileretan inor aberats-ipuunik aitatzen hasi ezkeru, Mari Batistak azkar aterako zuan mahaira bere ahaidea:

—Aberatsa gure Pedro Migel. Haren lurak eta haren abere taldeak omen dira halakoak! Bere bazterra ikusteko bost ordu behar omen ditu, zaldiz. Milaka omen dauzka behiak eta idiak. Karrika bat osoa berea omen du Buenos Airesen. *Probintzia* guztia erosteko eta gehiago zilar izango duala aditu degu.

—Ene Jaungoikoa! Errege beste bada noski.

—Errege beste... Tira, han ez omen da erregerik, baina...

—Bera egiten ez badute...

—Nork daki?

—Jas...! Aita San Isidro *bedeinkatua!* Guk ikusi behar ditugu ikustekoak hura datorrenean. Ba al dator?

—Baietzean dago; berak Oñatin hil behar omen du.

Baina ez zan etorri. Hogei urteko ardura eta lan zindoak nekez baina nekez gailurtu zuan bezala, etengabeko beheraldi okerrak, sei edo zortzi hilabeteetan, oso aisa xahutu⁵⁶⁹ zuan Pedro Migelen aberastasuna. Bata bestearen atzean ezbeharririk handienak gertatu zitzaizkon: lehenbizi lurrikarak; gero legorteak; hurrena berriz agindu nahi-

⁵⁶⁹ *J.t.* txautu.

koen guda zitalak, kurruka⁵⁷⁰ makurrak, azpikeriak, lapurretak, herri eta ibar kiskaltzeak; eta guztia zeharo bukatzeko, ekaitz uholde leitsu⁵⁷¹ negargarriak. Ondasunez beterikako gizona ezerezero itzuli zan, bada.

Oñatin albiste txar hauek jakin ziranean —hau kristau batzuen izakera doilorra!—, Uribarritarrek ez zuten batere nahigaberik izan.

Albokoia norbera baino goraxeago ez ikusteagatik, larogei eguneko garizuma igaroko luketenak badira, maiztxo, maiztxo. Azkarragara ez zan gehiago Ameriketako dirurik azaldu; ez dirurik, ez albisterik. Azkenengoak, ez dakit zeinen bitartez erakarriak, Pedro Migel ezin jaiki zala zioten, etsipenean erorita besteen beharrean zegoala.

Orduan elorrio⁵⁷². Lotsariak oso isildu zituan Antonen eta Mari Batistaren mingainak eta Pedro Migel zanik ez zuten aitatu ere nahi.

Isildu? Ez dago gauza egokiagorik zerbait ahaztuerazteko. Gure izena mingainean ez badabil, ahaztu gerala dirudi edo ahaztuta gaudede.

Aita-amak hil ziranean azkar ahaztu zan ikazkin zorigabea. Txito baina, aspaldietan baina.

Mikaelak berak ez zuan ezagutu, erretratoan izan ezik. Neskatxa zala esan ohi zion amak:

—Ikusi ezan, Mikaelatxo; hara hemen Ameriketako hire osaba, asko dezakean gizona, etxe eta lur ugarien jabea. Harek hiri ekarriko dizkin⁵⁷³ belarritakoak, eraztunak, pitxiak eta soinekoak! Danerako zeukan, eskuzabala den, maite gaitun. Handia haizenean *kotxean* ibiliko haunala uste dinat.

Baina harrezkero, luzaroan, urteetan, mutik ere ez, osaba hil balitz bezala. Ezkontzeko aurrean galdetu zuan Mikaelak:

—Ama, gure osabaren berririk ez al da?

—Ai ume! Handik ez zegon ezer. Geurearekin beharko.

⁵⁷⁰ Kurruka: gorroto bizi, arregura.

⁵⁷¹ Lei: jela, izotz.

⁵⁷² Elorrio: nahigabe, atsekabe.

⁵⁷³ *J.t.* dizkian.

Ez zan gehiago Pedro Migelen izenik entzun Azkarragako base-
rrian.

Hala ere, han zegoan oraindik bere gizirudia, lohi eta ezaina, hautsez eta pekaz betea, amaraunez erdi estalia, behaztunez bezala horizkatua, lehengo tokian zegoan, betiko agortu dan iturriaren tankera, arrenik egiten ez zaion donearen itxuretan, ganbara bazterrera-ko aurki, garbiketaren bat egiten zanean.

Zahar guztiai begirune diet, ahaztutakoen adiskide naiz, erorita daudenak erruki ditut, eta horregatik irakurburutxo hau Pedro Migelen oroitzan egin det.

Goazen orain geure harira.

XIV

NAHI ETA EZIN

—Ehizera, Moxolo?

—Ehizera edo... Izerdi pixka bat atera behar dedala eta, ibili.

—Izerdia aterako dek, baina eperrik ez dek inun bilatuko. Etzegok ezer aspaldietan.

—Izango al dek zozoren bat edo beste.

—Aizak, hara, hor ziatorrek erbi bat, erbinudea.

—Zein?

—Zabaletako andre zaharra.

—Baita ere.

Bazekian Moxolok zein zetorren. Enparantzan ikusi zualako irten zion bidera.

—Egun on, Andre Josepa.

—Egun on, ehiztari.

—Hitz bat esan nahi nizuke⁵⁷⁴.

—Zer dek, Moxolo?

—Zure ilobak itsuturik nauka.

—Zeinek?

—Malenek.

—Itsuturik? Ez dek orduan ezer ikusten.

⁵⁷⁴ *J.t.* nikizu.

—Gauza handirik ez, baina zoriona non dagoan badakit eta bere bila nabil.

—Berandutxo habilela uste diat.

—Nola?

—Zoriona beste batentzako dalako.

—Martinentzat?

—Bai.

—Ez zaizu ahaztuko Martinek dirurik ez duala.

—Hik ez dakik hori.

—Badauka ere, nik adina ez behinik behin.

—Zer daukaan⁵⁷⁵ guk ez zekiagu, baina ontzurre hori erakusten dek behintzat, txilbor gainean.

—Bat erakutsi eta asko gorde, asko; ontzurreak eta *librak*, Ana Josepa.

—Urretan?

—Urretan.

—Joosus! Libraka urrea! Horratik hori ikustekoa izango da.

—Hara bat hemen.

—Hori al dek libra bat?

—Bai, *libra esterlina*.

—*Eskerliña, eskerliña...* Hori, mutil, ehun errealekoa dek Oñatin.

—Baina libra esaten zaio.

—Ai enetxea! Esatetik izatera bide handia zegok. Horrelako asko behar dira libra bat egiteko.

—Baina hau ez da bakarra. Etxean ere badituzte, eta *bankoan*, eta *korrituan*⁵⁷⁶...

—Danetara, zenbat izango dira ba hire diruok?

—Danetara, laurenbat mila ogerleko bai neureak, eta gero aitaranak.

⁵⁷⁵ *J.L.* daukaken.

⁵⁷⁶ Korritu: Bankuko interesa.

—Gehiago heukala uste nian, hainbeste harrokeria jotzeko.

—Gutxi al da ba?

—Ez, gutxi ez; nekazari baten alabarentzat...

Ana Joseparen barrua, urre pilaren argia bere aurrean irudituta, irakiten bezala jarri zan, eta barruko berotasunak arpegira irten zion⁵⁷⁷ andreari. Gauza ona zeritzon odolekoai begiratzea, baina hainbeste diru ateaurrean uztea ere ba...

Igarri zuan besteak andrearen ezbaia, eta barre antzean, ahoa belarrietaraino zabalduaz:

—Banekian nik —esan zion—, ezetzik ez zenidala⁵⁷⁸ erantzungo.

—Ez diat ezer agindu, mutil. Berandu etorri haiz.

—Lehendik daukat eskabidea eginda.

—Zeini?

—Maleni.

—Noiz?

—Zortzi hilabete bada.

—Eta zortzi hilabete handian ez dik ezer aditzen eman?

—Ez, lotsatia da eta.

—Bada orduan...

Bat-batera otu zitzaion Ana Josepari eskabideak luzapena behar zuala. Alde batetik diruari begiratzen zion, eta dirua beti zan atse-gingarri; baina bestetik norbere hitza jatea ez zan itxurazkoa, eta gutxiago, etxekoen berri gabe, ahaideen kaltean epaia ematea. Gainera, Malentxok zer zerabilen eta ze gogo zeukan jakitea ez zetorren gaizki. Harek nahi izan ezkerero... baina bestela zer egingo zan ba!

—Orduan zer?

—Astia badagoala eta... ez gaitzazula ito.

—*Bien, bien*; baina gogoan euki Martinek ez dizuela ezer eramango.

—Berriz ere? Gizona, hire dirurik izan ez arren, babarrunak jateko lain badiagu.

⁵⁷⁷ *J.t.* zioten.

⁵⁷⁸ *J.t.* etziazula.

—Hala da, bai; baina ez da gaizki Martinek babarrunak behar baditu, ni ez natorrela babarrun bila oroitzea. Nik Malentxo nahi nuke, Malentxo bakarrik. Neuk emango diot jaten, neuk jantziko det, neuk ekarriko dizkiot⁵⁷⁹ pitxirik ederrenak, neuk eramango det herri handietara, neuk...

Ekin zion *Moxolok* maitetasuna esaten, Malentxo goratzen, Ana Josepa txurikatzen, eta behin abiadea hartu zuanean, ez zegoan mutila isiltzerik. Esan eta esan, eragin eta erabili, geroago eta biziago, aspertu ezinik egon zan bere leloa Zabaletakoari azaltzen, inork uste baino tankera hobean. Hura etorria!

Ez zuan berehalakoan amaituko, Ana Josepak hitza kendu ez balio.

—Tira, joan hadi⁵⁸⁰ Oñatira, nahikoa da eta. Ez hadi alperrik agortu. Hire jarduna, ezkongai guztien jarduna dek. Jardun hori gorabehera, egin behar dana egingo diagu Zabaletan...

—Ba, neuk deritzodana⁵⁸¹ ez bada...

—Hik deritzaana⁵⁸² ez badek, zer?

—Zer? Nere burua Urrejolako harkaitzetik behera botako dedala.

—Bota ezak, nahi badek.

Zapuzturik eta mingainean zeuzkaten zitalkeriak nekez iren-tsiatz, batak besteari bizkarra eman zioten.

Bazihoan amonatxoa, bazihoan baserrira, neskatxa gaztea baino bizkorrago, ardatza baino tenteago, bere artean mintzatzen, bazegoan gaia eta. Arraniaren albistea!

Moxolok, Oñatiruntz ibilaldi bat egin eta gero, andreagana bihurturik, bere grina eta zima⁵⁸³ txarra honela esanaz erakutsi zuan:

⁵⁷⁹ *J.L.* dixkat.

⁵⁸⁰ *J.L.* joari.

⁵⁸¹ *J.L.* deitzotana.

⁵⁸² *J.L.* deritzokana.

⁵⁸³ Zima: genio.

—Atso sorgin *madarikatua!* Ez sinestu, nere burua botako deda-
nik ez sinestu! Ez nere bururik; besteren batena, zurea izatekotan.
Badaezpadako erantzuera badakarzu, *sentellas!*

Ana Josepak etxeratu zaneke hasi zan Maleni erausika⁵⁸⁴:

—Bazenki zer igaro zaidan! Moxolo Potolok irten dit bidera,
eskean.

—Eskean?

—Bai, neskatxa baten eskean.

—Neure bila.

—Hara. Jakinaren gainean al zeunden?

—Aspaldian dabil mutil hori...

—Aspaldian, e? Guk ez genkian⁵⁸⁵ ba.

—Zertarako? Ezer egin behar ez danean...

—Ez zinateke, beraz, Moxolorekin ezkonduko.

—Ezergatik ere ez.

—Lau mila *duro* omen dauzka.

—Berdin da hoguei badauzka ere.

—Horra ba, horra ba... Ondo da jakitea. Zalantza pixka bat izan
det, baina, tira, nahi ez badezu... Martin etorriko zaigu hobeto.
Moxolok diruak dauzka, bai, baina, egia, ez da baserrirako gizona eta
ezta zu ere ardangelarako emakumea. Ardangelan zu ipintzea, erre-
gina txerritegian jartzea bezala da, aketza⁵⁸⁶ lorez apaintzea. Ez dakit
nola otu ez zaidan. Lau mila *duroak* ematen didate min. Martinek
baleuzka... Utzia eta baldana bai gure Martin! Horrek honezkero
dirua aurreratuta euki behar zuan ba. Zeuk erakutsiko diozu aurre-
ratzen, langilea eta etxeckoia izaten, elizara joaten...

Malenek ez zizkion bukaerako hitz hauek entzun, Martinen ize-
na aitatu orduko, muker eta minkaitz, aldegin zion amandreamari.

⁵⁸⁴ Erausi: hitz egin.

⁵⁸⁵ *J.t.* genkigun.

⁵⁸⁶ Aketz: txerri aita, arra.

Honen mingaina ez zan, hala ere, gelditu. Belarrondoko tximak zapipera sartuaz, gaineko gonea kentzen edo oinetakoak aldatzen ari zala, berak bakarrik jarraitu zuan:

—Nora joan ote zait umea? Lotsakorra da, bai, lotsakorra da, eta ez du horrelako autuetan ibili nahi. Tamal handia izango zan hori Moxolorenean sartzea. Baina horixe dago ba! Txanponak euki Moxolok. Lau mila *duro* bereak, eta aitarenak gainera. Aitarenak gehiago, askozaz gehiago. *Auskalo* igaroko urteetan zenbat irabazi duan ardo zikina, edo ibaiko ura salduaz. Jaungoikoak badaki geure Inaziok berak zenbat eman dion lapurrari halakoari... Ez dio axola, geu ere hutsik ez gaude eta jaso daikegu oraindik Azkarragako baserria. Hobe da belaunekoari laguntzea, hobe da bakea.

Ana Josepak honela ziharduan bitartean, ari zan Mikaela ere, Azkarragan, Paula burutu ezinik.

—Gauza bat esan behar dinat, neska, bakarrik gauden ezkerro.

—Asmatuko nioke.

—Ez zakinat; ustegabea den.

—Ustegabea dio?

—Bai, usterik gutxienean Jaunak zerutik biraltzen digun doaia.

—Hainbestekoa ez deritzot ba.

—Hago isilik eta aditu ezan. Gu gaizki bizi gaitun, oso gaizki. Nik ez dinat nere estutasunen erdirik agertzen, baina aspalditxoan estu asko bizi naun. Oliotarako ez zeukanagu⁵⁸⁷, ahora daramagun ogi pusketa zor eta lorrean jaten dinagu; nolako lotsariak igaro ditudan inork ez zekin. Herenegun goizean, Anton Urdaik, ea noiz eman behar nion berea esan zidan, hainbesteren aurrean; gaur bertan, Panpotek, zorra ordaintzeko ordua dala adierazi dit.

—Eta neri ezer aitatu ez!

—Ez ninan aitatu ere, orain dakidana ez baneki. Ez larritu: guztiai emango zienagu⁵⁸⁸ berena, eta laster. Hi eta Martin ezkontze-

⁵⁸⁷ *J.L.* etzeukanau.

⁵⁸⁸ *J.L.* zinenau.

ko era egokia etorri zaidan. Hi Zabaletara ezkonduko haiz, Manuelekin izateko; Martin etxerako geldituko den, Malentxo emaztetzat duala. Hau zori ederra, Paula! Behin edo behin. Malentxorekin batera zetorkinagu⁵⁸⁹ dirua, baina baita ere diru eta ondasun guztien gaintetik dagoana: zeruko argia, bakea, osasuna.

—Ez amesik egin, ama: Malen ez da gurera etorriko.

—Ez den sinesgarria, amesa zirudin, baina egia den. Amonari berari gogoratu zaion, eta Katalinek eman zidan albistea lehengo baten, isilik euki dinat baina.

—Katalinek eta amonak nahi dutenik ez da gertatuko.

—Bai, gertatuko den, Jaungoikoak nahi din eta. Etorriko den Malentxo, eta berak alaituko gaitzin, berak jantziko din gure etxe zaharra, bera izango den Azkarragako aingeru. Hik berriz Zabaletan, aitonon ondoan, zorioneko egingo den Manuel zintzoa, eta hemengoak han eta hangoak hemen, nahi degun tokian biziko gaitun, denok alkar ondo harturik, beti alkar maitatzen, hil arteraino Jaunari eskerak ematen.

—Ez sinestu, ama: ni... Manuelentzat ez naiz izango.

—Zer dion, neska?

—Barruak ez dit agintzen.

—Manuel, gazterik iaioena, etxejauntzarik handienetakoa, hobetik ez duan mutila, inguruetan inor ez bezalakoa, nahi ez! Zergatik baina?

—Neuk dakit.

—Paula, ez haut gaur ezagutzen. Hi, nere poz bakarra, orain artean hain ona, hain leiala, hain errukitsua, hain amazalea, hain... Eta keixu aldi honetan... (*Negarrez*) Paula, hik ez naun maite!

—Hitz horiezaz heriotza ematen dit, ama.

—Heriotza neri zetorkinat laster, neri. Hire ama gaixoa, txiro, behartsu, higuinduta ikusi arren, hiri ez din axola, ez, ez din axola!

—Ai, ama! Bihotza lehertu behar zait! Kupitu bedi nizaz!

⁵⁸⁹ *J.t.* zetorkinau.

—Ni kupitu, eta hi?

—Laztan bat, amatxo.

—Bat ez, bi, lau, zortzi. Hara, hara, eta hara. Baina... ezkonduko haiz, ezta? Premia handian aurkitzen naun eta!

—Ezin neike! Ezin ninteke!

Hizketa horiek ostiral bateko goizean ziran, epailaren⁵⁹⁰ erdialdera. Bazkalondoan, Manuelek eta bere aitak Oñatiko azokara jaitsi behar izan zuten, eta —esango al degu?— baita ere Azkarragako Inazio Marik. Jose gelditu zan etxaldeari begira, eta Martin alderdi guztietan usainka, Malentxo nun aurkituko, neskatxari nundik zerbait adieraziko.

Arratsalde beranduan, Malentxo aitonarekin atarian zegoala jakinda, beragana joaten ausartu ezinik, Martin, Zabaletako behitegian sartu zan eta behitegian bilatu zuan Iturraldekoa, abereai bazka ematen.

Mutil biok, aspalditxoan, ezin zuten batak bestea ikusi, etxeko txakurrak auzokoari bezala begiratzen zioten alkarrri, eta beren arteko mintzoa ahopeko marmarreta izan ohi zan gehienbat.

—Arratsalde on.

—Bai zuri ere.

—Eguraldi polita gaur.

—Ederra.

—Honelakoak badira, aurki joan beharko dek Urbiara.

—Hori nahi heuke.

—Zergatik diok?

—Zerbaitegatik.

—Min al dek? Nik auzia irabazi dedalako min? Iz... hadi bada⁵⁹¹.

—Ez zekiat auzia irabazi dean ala ez, baina hi ez haiz senargai ona Malentxorentzat.

⁵⁹⁰ Epail: martxo.

⁵⁹¹ *J.L.* Iz... ari ba...

—Heu hobeia, heu. Zer uste huan hik? Gurera morroi sartu eta bertako jaun eta jabe izatea? Ez jaun eta ez morroi, ez haiz inola hemen izango.

—Hi al haiz nagusi? Hik baino lan gehiago egin diat nik hemen.

—Baita jan ere galanki, goseak ekarri hinduen⁵⁹² eta.

—Hobeto hitz egin ezak.

—Nahi dedan bezala hitz egingo diat. K... egiten diat nik hiri.

—Zer esan dek?

—K... hiri, k... hire aita hordi akerrari, k... hire ama ustel ziki-nari.

Jose kiskaldu zan. Lipar⁵⁹³ baten, tximista bezain agudo, Martini lepotik heldu, simaur lindinga⁵⁹⁴ joerazi, eta bere gainean luze, zintzurretik estutzen zuala, zapladaka ezin aseaz, buru, musu eta okotzean ukabilka, xahutu eta zukurtu zuan etsai likitsa, artzanorak⁵⁹⁵ mendean daukan otsoa zukutzen duan bezala. Ikaragarritzko biraoak irteten zizkion azpikoari, eta gainekoak, birao bakoitzeko, eskukada korotza ematen zion ahora. “Hortxe, arraiorrek! Nere gurasoen izen garbia, Jaungoikoaren izen donea lohitu nahi badek, hara satsa, hara zirina. Jan ezak, lizunorrek, jan ezak!”.

Borrokarien oihuetara behingoan inguratu ziran sukaldeko emakumeak, eta gailen ikusi zuanari eman zizkion Ana Josepak, atxur kirtenez, hiru edo lau zartateko, galantak baina.

—Zertan daukazu zuk zer jo gure mutila? —zioen amonak, txilioka, suak hartutik.

—Horrek esan duana entzunda...

—Horrek esan duana? Eta hik egin deana? Hik, zital, gizatxar, nahaspiliorrek egin deana?

—Hori eta ni ezin gintezke zorro batean bizi.

⁵⁹² *J.t.* ituen.

⁵⁹³ Lipar: une, momentu.

⁵⁹⁴ Lindinga: urtsu.

⁵⁹⁵ Artzanor: artzain txakur.

—Bada, orduan alde, alde, nahi dean lekura. Hori etxekoa da, eta hi ez zekiat nungoa. Mukizu bat etorri hintzan, zer janik ez huala...

—Aitu det, amona; lehen ere aitu det, eta gainera neuk ere bane-kian, bai ondotoxo.

Azkarragakoa txistuka, arpegia igortzika, eta norbaiti hesteak aterako zizkiola esaten utzirik, Jose aitonagana aurkeztu zan larrainera.

Joanesez, nola gorra baitzegoan, zerbaiten zurrumurrua baino besterik ez zuan sumatu.

—Zer izan da hor? —galdetu zuan.

—Ezer ez; Martin eta ni haserratu gera eta...

—Eta?

—Jakin nahi nukeala ia zertan dagoan harako berorrek esan zidana. Malentxo neretzat izango zala edo...

—A, bai! Hara ba, Jose, nik nahi nian, baina ezin daiteke... Berak, oraintxe bertan...

—Nahikoa det, gehiegi det. Ondo, geldi bedi.

—Nora hoa, mutil? Hator hona.

Ana Josepak, ukuiluko atetik, zahar-gazteen hizketa urratuaz:

—Hortzak loka-loka jarri dizkio⁵⁹⁶! Ahotik odola dariola ipini du nere ilobea! Ergel, zepatsu⁵⁹⁷, ziraun, kilimakor⁵⁹⁸, gaizkile...

Ordu batzuk geroago, eguna zabaldu baino lehen, Zabaletakoak lotan dauden bitartean, Josek, jai-soinekoz jantzirik, sagastegiko *estratan*⁵⁹⁹ behera, Oñatirako bidea hartzen du. Arpegia ilun darama, ilunagoa bihotza. Nola ez? Auzotegiari betiko egiten dio agur, Zabaletatik betiko ateratzen da. Etxe hartan egin ditu bere umetako jolas apurrak, hantxe jan du izerdiz ondo irabazitako taloa, hantxe uste izan du zorionaren edaria edan behar zuala. Bai, etxe hartakotzat

⁵⁹⁶ *J.L.* dizka.

⁵⁹⁷ Zepatsu: haserrekor.

⁵⁹⁸ Kilimakor: “quisquilloso”.

⁵⁹⁹ Estrata: bideska txar, gurpide.

zeukan bere burua, baina hangoa ez dala esan diote eta beste aterperik ez dauka!

Nahigabearen eztenak izugarritzko sastadak ematen dizkio. Sastada zoliak Malentxo oroitzean. Errukarria Malentxo! Esku onetan erori behar du...! Ai! Neskaxa hura ez da hitzeko emakumea izan. “Inorekin izatekotan, zurekin”, esan zion behin, ondo gogoan dauka. Aingeru batek horrelako gezurra esan behar zuanik ez zuan uste. “Zu eta ni anai-arrebak gera”, azaldu zion, eta Jose *anaia*, esakerarik garratzenez, iraindu zutenean, etxetik irteteko agindu ziotenean, hitz gozo bat ez, begirada bigun bat ez *anaiarentzat*. Ez Malenek, ez beste inork. Harkaitzezkoa zuten erraia.

Min bizi-bizia dauka Josek Joanesen oroimena datorkionean. Maite du aitona zaharra: hura izan du bere gurasoa; hura da Zabaletan bihotzik handi eta samurrenekoa. Ez dio mutilak agurrik egin; badaki etxean gelditzeko eskatuko ziona, badaki umezurtzagatik arpegia aterako zuana; baina hori ez du nahi umezurtzak. Entzunak entzun eta gero, ikasiak ikasi ezkerro, ezin dezake arnasarik Zabaletan hartu: ito egingo litzateke. Eta gainera, Martinen aurrez aurre berriz jartzean zeinek daki zertaratuko zan?

Garbi ez da ezer ikusten, baina bide bazterrean norbait dagoala dirudi... Bai, emakume bat, neskaxa gazte bat... Paula.

—Goiztarra zabilta, Paula.

—Zu goiztarrago.

—Zerk zakarz?

—Zu ikusteko gurariak.

—Eskerrik asko... Negar egin dezu.

—Egunoro nik negar. Bart arratsean egin ditut negarrik handienak... Norako asmoak dituzu?

—Al dakit? Zeinek jakin non geldituko dan ekaitzak aurrean darabilen hosto legorra?

—Zuzpeltu zaitetz, gizona, zuzpeltu zaitetz. Zu ez zera hosto legorren antzekoa.

—Hor nunbait. Ez aitarik, ez amarik, ez ahaiderik, ez dirurik, ez zeri heldurik, goian zerua eta behean lurra...

- Ez dizute ezer eman?
- Ez nuan hartuko ere.
- Baina zeuk irtengo zenduan?
- Egin ezazu jaurtigi egin nautela.
- Zu jaurtigi!
- Bai. Adu oneko egin ditzala Jaungoikoak.
- Jose, zure gisa nago ni ere!
- Ez, nere gisa ez dago inor.

—Adi iezadazu nere hileta: horretara etorri natzaizu. Gure base-
rrian, atzo jakin dedanez, oso beharrean gaude. Aita, bere bizi guz-
tian, ziranak eta ez ziranak eralgitzen ibili da, Martinek gaiztakeria
baino besterik ez digu ekarri, ardita⁶⁰⁰ zer dan ia ez dakigu. Eta nere
amak eta gure amonak, etxea zer bait jasotzeko, ni Zabaletara ezkon-
tzea nahi lukete.

- Eta Malentxo Azkarragara.
- Utzi iezaiozu horri. Ni Zabaletara, ni, Manuelentzat.
- Zer gauza hoberik?

—Zer okerragorik esan nahiko dezu. Alde hortatik dator nere
hinka⁶⁰¹. Burutik beherainoko larrua eskatuko balit, ez nioke nik
amari ukatuko; egundaino ez diot atsekaberik eman, egundaino ez
diot ezetzik esan, eta atzo ezetz erantzun nion.

- Ezetz?
- Bai, ezetz. Ni ez naiz Manuelekin ezkonduko, ezta zuzi-zuzi,
zati-zati, birrin-birrin egiten banaute ere.

—Zergatik baina?

—Zergatik? Nik ere, zuk Malentxo maitatzen dezun bezala... edo
gehiago, beste bat maitatzen dedalako.

- Erruki zaitut.
- Bai, erruki nazazu, Jose.
- Haze bi gauden gu!

⁶⁰⁰ Ardit: zentimoko txanpona.

⁶⁰¹ Hinka: aje, gaitz, nahigabe.

- Haze bi... bat izan behar gendukeanak!
- Agur, Paula, ikusi arte.
- Ez didazu ezer gehiago esaten?
- Inori baino esker hobe zuri zor dizudala.
- Besterik ez?
- Ezin!
- Agur ba, agur!

XV

AGERPENAK

Zabaletako baserria utzi baino lehen galdetu izan balio Josek, errez jakineraziko zion aitonak nondik zetorren lehengo usteak aldaztea. Gogo bazuan.

Hain zuzen, gure umezurtza larrainean aurkeztu baino lehenxeko, Joanesek eta Malentxok agerpen handiak egin eta esatekorik ezkutuenak esan zizkioten alkarri.

Arratsaldea zan halakoa, ezti, garbi, eder eta esnagarria, bihotzean hegoak ipini eta animari zerurainoko bide zabalak irekierazteko arratsaldea. Eguzki epel indargetua, lurrik gehienak kerizean utzirik, azkenengo argiorratzak mendi gandorrari sartzen zegoan, zeharka-xortaka; egurats emea, iluntzeko haizetxea, hosto berrietan jolas eginaz, belar luzeak zabalunduaz, aiton-iloben arpegiak igorzten ari ziran, bigun-bigun; aingeru lumaz bezala; txori xehe alaiak, tarin, burubeltz⁶⁰², karnaba, txantxangorriak, egun guztiko ibilera eta txio jotzez nekaturik, sasi-zuhaizti barruan zeuden, lumapean mokoia gordeta, tuntun jotzaileak bere txistua zorroan gordetzen duan irudira; saguzar itsusi baldarrak, eznaiz-banaizko hega txepeletan, batera eta bestera zebiltzan ehiztari, eltxo eta zomorro bila; lehenbiziko izar gozoak, oskarbi urdin sakonean, agertu zuan bere argi atsegina, urre ale biziaren gisa, eta osinetako igeltxoak, klin-klon, klin-klon, hasi zuten baserrietako gau soinu berdin eta iraunkorra.

⁶⁰² Burubeltz: kardantxilo.

Joanes eta Malentxo, ezpainik zabaldu gabe, izadiari begira gelditu ziran.

—Guri entzuten inor balego... —mintzatu zan Joanes, bat-batera—. Ez daukazu zer esanik, Malentxo?

—Ez, ba.

—Aspaldietan goibel zabiltzala nago.

—Egia da.

—Zer dezu, enetxoa?

—Zer? Gauza bat, gogo bat, joran bat...

—Ezin iritsi daiteke?

—Iritsi bai, denok batera etorriko bagina.

—Aitor iezaazu.

—Min emango diot.

—Aitor iezaazu: zu poztutzea da nere poza.

—Nik... mojatarako ustea darabilt.

—Neskato!

—Bai, antzinatik, oso antzinatik. Ahal dedan guztian Bidaurretako elizara noa; bertan, nere arrenak egiteko txoko jakina daukat; eztitan bezala egoten naiz, barrukoen otoiak entzuten; zerua deritza haien artean bizi ahal izatea... eta gauza guztien gainetik horixe nahi nuke.

—Hau albistea!

—Txarra?

—Txarra ez, txarra ez..., baina ez nekian, ez nuan uste, ez zait bururatu... Ba al daki bestek?

—Jaungoikoak eta Bidaurretakoak.

—Aditzen eman diezu beraz.

—Bai, jauna.

—Zer diote?

—Tokia badagoala.

—Nik Joserentzat nahi zintudan⁶⁰³.

⁶⁰³ *J.L.* zintuztan.

—Amonak ostera Martinentzat.

—O, ez! Martinentzat ez; ez nion nere baimenik inola emango.

—Baina Jesusi bai, aitona; Jesusi bai, ezta?

—Jesusek berea zaitu, alabatxoa; nere begi gandutuak⁶⁰⁴, ia ezer ikusi ezin duten begi hauek, ordua datorkidanean, laster, zeuk itxiko zeunstazala⁶⁰⁵ eta nengoan... Zu zera, ez bakarrik nere saminen ezitia, baita ere nere luzapena, Zabaletako zuhaitz zaharraren kimu berri maitea... Baina neuk ere, nere antzera, Jaungoikoari eskainita zauzkat eta Jaungoikoak ondo hartu behar izan du nere oparia. Bere oldea⁶⁰⁶ egin bedi...! Nahi dezunean, bada, berbertatik joan zintezke. Ni hil eta gero joango bazina, neuk utzitakoa emango nioke Jesusi, eta ez nuke horrela nahi: ez diot neuk utzitakoa eman behar; neuk daukadana, neuk lurrean gehien-gehien maite dedan izatea emango diot, nahiz eta, zuk etxetik irtetea, nere bihotza zauriturik odola dariola gelditu... Eta Joserena? Jose gizagaixoa! Jaungoikozkoa da mutila eta horri eskerrak. Etsiko ahal du... Zoazkit, Malen, Martinek alde hauetatik iges egin dezan; zoazkit hainbat lasterren Jose gurea nolabait artetu⁶⁰⁷ dadin. Bera eta Manuel izango dira nere azken orduetako lagunak, zure orde, zure izenean.

—O, zein ona dan nere aitagoia⁶⁰⁸! Ederki esaten du: Jaungoikoari guretzat gehien opa deguna eskaini behar zaio, eta gerorako utzi gabe, bihar edo etzirako luzatu gabe. Berak ordainduko du gaur berorrek egiten dion oparia. Nik, besterik ezin dezaket, baina egunoro otoitz egingo det berorren alde.

—Bai, egin otoitz nigatik, zure ahaidekatik, Euskal Herri guztiagatik.

—Baina eta nork esango dio amonari nere asmoa?

—Neuk: nere gain utzi ezazu.

⁶⁰⁴ Gandutu: lainotu, lausotu.

⁶⁰⁵ *J.t.* zeunztala.

⁶⁰⁶ Olde: nahi, gurari, borondate.

⁶⁰⁷ Artetu: lasaitu, baretu.

⁶⁰⁸ Aitagoi: aitona, aitita.

Honetan zeudela igaro zan mutilen borroka, eta berehala Jose aitonagana aurkeztea. Ez zan beta egokia.

Burua norbere gauzaz betea dagoanean, inoren eztabaidetan sartzeko gogorik ez da izaten.

Malentxok gau hartan lo gozo-gozoa egin zuan. Lo gozoa eta amesik ederrena. Aingeru zuriz inguraturik Bidaurretako elizgoian zegoala iruditu zitzaion, etxe on hartako beste emakume garbien aldamenean, zerutar lore tartean bezala, eta Jesusek ongietorri zintzo bat emanaz, Jaungoikoaren hizkera leun zoragarrian, hitz hauek esan zizkiola: “Zain nengoan, Malen, bada neretzat sortua zera. Animazalea naiz, animen egarria daukat, eta luzaroan egon naiz zurearen atarian, luzaroan egon naiz zuri deiezka. “Banator, banator”, esaten zenidan⁶⁰⁹, baina ez zinan agiri. Noizbaiten ere Zabaletako lokarriak urratu dituzu, zure ahaideak nigatik utzi dituzu, nik zugatik zeruak utzi nituan tankeraz. Sarituko zaitut. Gaurtik gehiago zu eta ni alkarrekin izango gera. Hementxe egongo naiz beti zurekin eta zure ahizpatxoakin; hementxe aseko zera nere maitasunez; bertan apainduko zaitut zeruko doaz; bertatik ikusiko dezu, Aloñatik baino hurrerago nere betiko jauregi ederra. Nerea da, baina zuri eman nahi dizut, errege naiz eta erregina egin nahi zaitut, dena dezaket eta eskatzen dezun guztia iritsiko dezu”. Eta Malentxok, belauniko jarrita, jarleku berezia eskatu zion Jesusi aitonarentzat, berariazko laguntasuna etxeko danentzat.

Joanesez ez zuan horrelako lo ederrik egin. Gau guztia begirik itxi gabe igaro zitzaion, gainera zetorkion bakardade itzala neurtzen, bere burua oso minberatzen, hitz batzuk bakarrik esaten: “Jauna, Jauna, asko zor dizut, baina ematen dizudana baino gauza hoberik ez daukat; nere oparia, Zuk badakizu, nik ahal dezakedanik handien handiena da!”.

⁶⁰⁹ *J.L.* zirazun.

Jaiki zanean, etxeoandre zaharrarekin nahikoa hitz egin eta gero, Joseri deitu zion.

—Datorrela Jose.

—Ez dakigu non dan.

—Bilatu ezak, Manuel: harekin egon beharra zeukat.

Katalinek:

—Norabaitera joan ez bazaigu... Jaiegunetako jantzirik ez dauka gelan.

Malenek:

—Egingo nuke... amandrearen atzoko garrazkeriakatik...

Manuelek:

—Ez zuan horrelakorik egingo... Neri aditzen eman gabe?

Malenek:

—Ez genduan ezertxo dendatu. Egia, ni ez nengoan ezertarako... Baina Josek badaki, jakin behar luke amandrea nola dan eta gu zer geran.

Ana Josepak:

—Hauxe dek hauxe! Batak *moja* doala, eta besteak, norbere berotasunean zerbait esan zaiola eta, etxetik alde.

Katalinek:

—Zeinek moja?

Malenek:

—Neuk, amatxo.

Katalinek:

—Jesus Jaungoiko handia!

Manuelek:

—Honelako istilurik!

Azkenengo hitzak, esanbeharraren esanbeharrez, bata bestearen gainean, alkarri utsika, nahaspilaturik irten zuten; baina hitz-mataza guztia baino sendoago Joanesen galdera larria entzun zan:

—Zer egin diozue Joseri?

—Hutsa.

—Hutsa? Hutsagatik ez da hura etxetik aldentu... Zabaletako atean ez zaio inori egundaino bultzarik egin, ez herrikori ez erbeste-

kori, eta gutxiago behartsua izan bada. Edozeinek euki du gure mahaian oporra⁶¹⁰ bete salda eta ez zaio ukatuko ere ni bizi naizen artean. Etxe honetako morroiak etxetik ezkondu dira edo bertan hil dira, beren gogoz irten ez badute. Baina ez da Jose gure morroi, eta neke azpian erabili arren, ez diogu behin ere alogerik eman. Ez eza-zue ahaztu: nere adiskide on baten semea da; neuk esan nion horren aitari, heriotz aurrean, nere iloben antzera maitetuko nuala Jose, eta maite det, maitegarria da eta. Bai maitegarria! Neuk dakit zer gurutze daraman eta nola daraman!

—Guk ere maite degu.

—Ekarri iezadazue, bada, Jesusen izenean! Ekarri iezadazue dagoan tokitik. Aurki idoro behar det nere adiskide zaharra eta ez nuke bere aurrean lotsatu nahi. Manuel, joan hadi, Josereren bila.

—Nora baneki.

Malenek:

—Paulagana joan zaitez. Harek jakin ohi ditu Josereren ipuinak. Eta ezer ez badaki ere, bera baino hoberik ez da inor Jose nun dabilen antzemateko.

Harriturik gelditu ziran gure gizadiak albiste hauek ezagutzean. Batez ere Malentxoren burubidea.

Ana Josepak aitonari ezer erantzuteko gaitasunik ez zeukan. Ez dadila inor miraritu: maitetasunak arpegi edo alderdi asko dauzka, eta alderdi guztien berri jakiteko, nor dan maitale, noiz dan maitale, zeinen zale dan, norako joera daukan ezagutu behar da. Begira dezagun nola maitatzen duan haurrak haurtxoa: berez, kezka, lege eta eragozketa gabe, txepetxak txepetxa bezala; begira nola gazteak gaztea: bihotzez, bero-beroan, itsu-itsuan, irudimenaren laguntzaz indarturik; begira nola gizon zaharrak: buruz, benaz, hotz samarrean, norbaitek dauzkan zertzeladakatik. Ez, gure maitetasuna ez da danentzat era batekoa, ezta ere beti berdina. Sakon eta iraunkorra

⁶¹⁰ [Katilua].

izan arren, lotan egon ohi da sarri, ahaztuta, gordeta, estalirik, hauspean dagoan suaren antzera. Maitetasunak, bere agerraldirako, egun, ordu eta garaia dauzka, eta ordurik samurrena maiteari agur egin behar dioneko garaia izaten du.

Ordu hori sumatzean berritu zitzaion Ana Josepari Malentxorantzat gordeta zeukan maitetasuna. Berritu, hezetu, esnatu edo horrela zerbait.

Eta Katalini? Katalini, ama zan eta, bere alabaganako gogo bizia, lera zintzoa, grina sutsua, beti berri eta heze eduki zuan grina ona, txito hazi, zeharo handitu, behingoan zolitu, ezin gehiagoan minberatu... Neskatxa hura, neskatxarik argiena, maratzena; egundaino oker bat egin ez zuan neskatxa, erantzuera gaizto bat eman ez zion umea, zitalkeria bat zer zan ez zekiana; eskurik garbienekoa, bihotzik bigunenekoa, elurrezko azal eta izar-begien jabea; alaba ederra, alaba zogia⁶¹¹, alaba liraina, alaba kutuna, zahartzaroko itxaropen gozoa, horma itzalen ostean sartu behar zitzaioa! Jeesus! Hainbeste txera eta palaguz sehaskan eta magalean haurra euki; hainbeste arazo eta neke norbere umea norberetzat hazten⁶¹² hartu; amaren ondasuna ume hura izango zala-eta hainbeste ames egin; bere begietan bizitza edateko, etxean ezin bazan etxe inguruan lotu nahi... eta onik onenean, goizetik gauera, bazihoakiola, burdin-sare baten atzean ikusi beharko zuala, noizean behin, besteren batzuek uzten ziotenean... A! Hori ez zan lege ona! Benetan, horrenbeste eta gehiago opa zion Jaungoikoari... baina... sartu zitezela besteen alabak; egiaz, aingerutzat hazi zuan Malentxo eta Bidaurretan zegoan aingerutegia, baina Jesus ba, Jesus!

—Jose Ramon, zer egin behar degu?

—Jaunaren oldea izan dadila.

—Horixe da gizonaren baretasuna.

—Zer nahi zenduke ba? Baimena ukatzea?

⁶¹¹ Zogi: zuhur, zentzuzko.

⁶¹² *J.t.* hazitzen.

—Ez, baina...

—Jaungoikoari gogor egitea?

—Ez, baina...

Etxeakoak beren elean utzita, Manuel Azkarragaruntz atera zan. Goibetetik trumoirra, euritik erasoaldira. Paula eta Martin agiraka zebiltzala, eta gogor hala ere, urruti aldetik ezagutu zuan Manuelek. Atean sartu baino lehen ekin zion Paulak, ohi ez bezala, beretik irten-
da, deadarrez, eztanda egin beharrean:

—Borreruak⁶¹³ zerate zuek, bihotzgabeak, gizagaizkinak. Egin lana Zabaletan, urkatu arte lan egin, ondo erantzungo dizue eta. *Behar zaitut eta geldi zaitetz, behar ez zaitut eta ken zaitetz.* Horrelakorik ez da inun ikusi. Baina auzotegiak zuen egintza jakiten duanean, herriak jakiten duanean, lotsatuta gelditu beharko dezue. Neu izango naiz gaiztoen gaiztoena zuen nabarmenkeria zabaltzen.

Martinek:

—Hago isilik, txotxina⁶¹⁴.

Paulak, ez-entzun eginda:

—Eta ez uste izan, zorionekoak izango zeratenik, ez uste izan. Jaungoikoak ezingo zaituzte bedeinkatu: ez Jaungoikok, ez gizonek. Gaurtik aurrera, zuen etxean gizadi zintzoak ez lukete hankarik ipini behar. Nik behintzat...

Mikaelak, haria ebakiaz:

—Ixo, Paula, ixo.

Paulak, bereari jarraituaz:

—Ez, ama, ez det isildu behar: hobeto du nere ahotik jakitea. Manuel, ni ez naiz zurekin ezkonduko.

Mikaelak:

—Ez iezaiozu jaramonik egin: gaur honek zer esaten duan ez daki.

Paulak:

⁶¹³ Borreru: heriotz zigorra burutzen, betetzen duena.

⁶¹⁴ Txotxin: buruarin, tentel.

—Bai, amatxo, badakit; badakit etxearen kaltean dana, badakit berorri negar eragiten diodana. Ez nioke minik eman nahi, eta hala ere bihotzak biraltzen dizkit hitz hauek ahora, bihotza darabilt agintari. Manuel, gu lehengusuak gera eta ez senargaiak; amonak egin gaitu senargai eta ez Jaungoikoak. Zu beste bati zerbait esana zera...

Manuelek:

—Ba al dakizu Jose nun dabilen?

Paulak, deadarra beheratuaz:

—Bostak baino lehen, sagastegiko *estratan* behera, negargarri joan da.

Martinek:

—Lupuak jango ahal du, dagoan tokian lurra irentsiko ahal du.

Manuelek Martini:

—Mingaina luzea hik. (Paulari) Paula, guk ez degu biraldu Jose.

Martinek:

—Neuk aterako det, makilaka.

Manuelek:

—Hik? Guretik ez behintzat. Hi ez haiz gurean sartuko.

Martinek:

—Nola esan dezu?

Manuelek:

—Ez haizala gurean sartuko; ez al dek aitu?

Martinek:

—Zergatik? Zer dala eta?

Manuelek:

—Geuk nahi ez diagulako... eta gainera Malen moja doalako.

Martinek:

—Erre... koondo!

Mikaelak:

—Aitaren eta semearen...!

Paula, dana gozaturik:

—Jaungoiko maite-maitea...! Manuel, bilatu ezazu Jose..., edo bestela neuk bilatuko det, baita lurpean badago ere!

Martin, etxean ezin egonda, Zabaletara hurreratzen ausartu ez eta, tresna batzuk hausi eta bihurrikeria okerrak Paulari esan ondoren, haserrez irakiten, erraiak jaten, herrira jaitsi zan, eta herrian Moxolonera sartu. Tokitara!

XVI

IJIJI! AIENE!

Labana da ba irakurburu honen hasiera. Bildurrez nago norbaiten haserrean eroriko ez ote naizen, azkazal zorrotzen batzuk sartuko ez ote dizkidaten⁶¹⁵. Arretaz ibili, lumatxoa.

Zer da baina hainbeste arretazko ipuina? Ondo begiratu ezker, hutsa; neskazahar igartuen⁶¹⁶ gainean, geure arloetara goazela, irristadan, hitz bi esatea.

Ez, mutxurdinai⁶¹⁷ ez zaie⁶¹⁸ ikuturik egin behar, nahiz eta berak, beti berriketazaleak, edozein ordutan edozein orraztu. Orrazi gabe, jakina: danak ez, baina gehienak mingainez dakite ederki orrazten.

Mota guztietakoak daude. Batzuk zeharo apalak, bidegabeko harrokerietan behin ere ibili ez diranak, mutiletatik eta txorakerietatik iges eginda, beren gogoz senartzake daudenak. Horiek, emakumerik onenetakoak dira, langile eta ongileak, norberaz oso ahaztuta behartsuai laguntzen, gaixoak ikusten, done-irudiak garbitzen, elizmahaiak janzten, Jaunaren bideak erakusten eta beste gauza txalogarri askotan dabiltzanak. Horientzat nere txaloa. Beste batzuk, han-

⁶¹⁵ *J.t.* dizkaten.

⁶¹⁶ *J.t.* igatu. Igartu: zarpildu, ahitu.

⁶¹⁷ [*Solterona*].

⁶¹⁸ *J.t.* zaiete.

dikizaleak, beren buruak askotxo deritzenak, eder usteen itsutuak edo azpilduraz josiak, ezkontzeko asmoetan bizi arren, gehiegi nahi zutelako, batere gabe gelditu diranak. *Oinezkorik nahi ez, zaldizkorik etorri ez*. Nahikoa lan daukate hauek beren buruak apaintzen, ileak beltzitzen, arpegiak irintzen, zimurrak estaltzen, urteak gordetzen. Ia etsian bada ere, ezkongai daude oraindik, baina aberats edo goitarrentzat bakarrik. Bakean utzi deiegun⁶¹⁹, eta goazen aurrera. Hirugarren mailan jartzen ditugu egundaino etsiko ez dutenak, honek begiratu diola eta harek agur esan diola beti amesetan dabiltzanak, mutil guztiai abegi ona egiten dietenak⁶²⁰, edozein hartzeko gertu daudenak, datorrena datorren bezala, gaztea ez bada zaharra, ezkon-gea ez bada alarguna, zalduna ez bada txorroskilea⁶²¹.

Hirugarren hauetakoa zan gure Luisa: ona gaixoa, baina zentzugabea. Gizakume gazteak ez zioten hitz leun bat inoiz esan, zaharko- teak ere benetako eskabiderik ez zioten egin; baina ez zuan Luisak bizitza guztian ezkontzeko lehia utzi, ezta tximak oso zuritu eta gero ere. Neskazaharraren lehia danak zekiten, eta bere lepotik barrez ibi- li ohi ziran. “Luisa, honelakok zuretzat eskumuinak eman dizkit”. “Luisa, beste halakok zure galdera egin du”. “Luisa, Martoloren bihotzekoa zu omen zera”, gezur handiak esan ohi zizkioten eta edo- zer gauza sinestuerazi.

Eta Luisari lagun artean gertatzen zitzaiona bera gertatzen zi- tzaion Moxolonean Odolkiri.

Bazan hura ere bat, beste askoren eredura. Gaztetan alper, zahartzan arlote, beti berekoi eta buruarina, askatasunari eder eta nagikeriari ondo iruditurik, urtean baino urtean okerrago, pixkaka- pixkaka begiramen danak galdu zituan, arduragabekeria beherengo hondarretaraino erori zan, eta azken aldera, nahikoa edari euki ezke- ro, jateak, janzteak eta inoren esanak axola gutxi ematen zioten.

⁶¹⁹ *J.L.* daiegun.

⁶²⁰ *J.L.* diotenak.

⁶²¹ Txorroskile: zorroztaile.

Horregatik ibili ohi zan Oñatiko alderdietan, bazterrik bazter, zulorik zulo, guztien morroi, danen adiskide, honi egurrak txikitu, hari par-dela eraman, urliari zama bat jaso eta besteari agindu batzuk egin; erdi lanean eta erdi janean, orain txurrut eta gero mozkor, ezertarako ordurik ez zuala, nun lo eginik ez zeukala, jai eta asteak berdin zituala, egunero zarpatsu, askotan soin-ale⁶²² gabe, noiznahi traskil, tarratadaz, koipez eta zirpilez⁶²³ gehiegi osatua.

Behin batean, izterrak agirian zerabiltzala ikusirik, Moxoloneko ardangelan, batak eta besteak zirika, ezkontzeko bero-bero jarri zuten.

—Gaizki habil horrela. Ezkondu egin behar heuke.

—Norekin balitxegok.

—Beti zegok eroren bat.

—Eroa izango litzateke ba nerekin ezkontzeko.

—Luisa dek ona hiretzat.

—Bai, eta ez dek txarra. Inoiz lehenago bururatu zaidak. Atxurrean edo laietan, jateko adina irabazi egingo likek.

—Eta edateko?

—Edateko, hortik edo hemendik, neronek aterako diat.

Eta “joan hadi, esaiok, ondo hartuko hau, ordua dek, noiz arte hago, mingain gabeko txintzarria sasian usteldu zan”, ekin eta eragin, hara non doakion handik laster senargaia Luisari bere esku mar-dularen eske.

—Gauza bat, Luisa.

—Zer da bera?

—Zu eta ni bakarrik gaude.

—Egia.

—Gure buruaren jabe gera.

—Baita.

—Nahi deguna egiteko inoren baimenik ez degu behar.

⁶²² Soin-ale: botoi.

⁶²³ Zirpil: trapu zahar.

—Halaxe da.

—Zertu gintezke⁶²⁴, bada, biok.

—Eta herrian esango luketena?

—Guri zer digu? Nor da hemen gure nagusi?

—Lehen ere *poportzioak* izan ditut.

—Baina oraingoa bezalakorik ez. Tira, nik alkondara garbitzeko eta prakak adabakitzeko norbait behar det.

—Josten ondo ez dakit.

—Neuk ere ez dizut gauza handirik eskatzen... *Konpromete?*

—Baietz esan beharko.

“Hobeak badira —zioen gero Luisak bere artean—, baina nik ere senarra izango det, behinik behin”.

Ezkongaien berria zabaldu zanean, algara ederrak egin zituzten Oñatin. Nola ez? Berri politagorik! Odolki ezkondu! Luisa ezkondu! Jas! Ibili eta ibili lortu zuan harek bere gurutzea, eta ez txiki-txikia. Baina *gogozko tokian aldaparik ez...* Neska-mutilzaharren eztei-egunerako jolas handi bat asmatu behar zan, txintzarri-jotze on bat gertatu behar zan, zorrotza, *pjjoa*⁶²⁵, izugarria.

Baita gertatu ere, Moxolonekoak okerren zirala. Goizeko seirak baino lehen, elizaurrea uritar gizadiz josita zegoan; inguruetakoa leihoak tximadun andre buruz beteak agiri ziran; mutiko-neskatoak, saguen gisa, lotsagabetxo, urduriegi, Jaunaren Etxean sartu-irtenka, atea indarrean itxi eta irekiaz, “laster da” “badatoz” “oraintxe” azalduaz, herritar guztien albistaritza pozik egiten zuten. Eta ezkonberriak elizatik ateratzean, ia mutilak! Hura zan tupin, oliontzi, piper *poto*, pertza eta padelai eragitea. Hura zan burdina zaharrezko trumoi eta kazkabarra! Hura zan algara ekaitza! Hura irrintzi, garrasi eta jeupaden erasoaldia! Hura ustegabeko jai gozoa!

Peru ez zan horregatik batere lotsatu. Hainbeste mutil koskorren erdian, karrika zehar dabiltzan *komedianteen* antzera, batari eta bes-teari agur eginaz, oso alai eta lasai zihoan.

⁶²⁴ *J.L.* giñaiizke.

⁶²⁵ *Pjjo*: handi, zaratatsu.

—Ederki egiten dezue —zioen—, *tanbolinteruari* emateko ez daukagu eta. Guk ere zerbait behar genduan.

Onatiko emakumerik gehienak, ezkonberriak igarotzen ikusirik, barrez ito beharrean, esakera txotilak⁶²⁶ biraltzen zizkioten alkarri, leihotik leihora:

—Ja ja iii! Eztula eta Burukomina uztarrian.

—Baneuka eta Balitz.

—Eroko eta Nagiko.

—Garaian oroitu zaie.

—Jaungoikoak adimena eman deigula.

—Inora ba al doaz?

—Bai, beren lurrak eta maizterrak ezagutzera.

—Non dute gosari?

—Gaur ez dakit, baina txirotegian aurki.

Non eta zer gosaldu zuten ez det ikasi, baina jakin det Moxolonean zegoala Peru hamaiketan, andrearen kezka gabe, ardo zuria edaten, lagun guztien jolas-hitzak entzuten.

Orduantxe sartu zan Azkarragako Martin, egundainokorik hasereen.

—Zer dek? —galdetu zion Moxolo gazteak.

—Errekondo, errekkondo! Eskuetan neukan txoriak iges.

—Zer txorik?

—Malentxok.

—Malentxok iges? Je je! Besteren baten kaiolara, e?

Moxolori Zabaletakoak bere alde jarriko zirala otu zitzaion.

—Bakoitzak nahi duana egin behar dik —jarraitu zuan—; kaiola batzuk zotzezkoak dituk, beste batzuk burdinazkoak, baina urrezkoak ere badira. Aukeran, edozeinek nahiko likek urrezkoa eta janari onez betea. Tira, ez hadi ozpindu.

—Ozpindu ez... Karrasko! Heu nere tokian bahengo...

—Berotasunak joango zaizkik; hoztuko haiz.

⁶²⁶ Txotil: eder, polit.

—Ez behingoan.

—Bilatuko dek beste bat, neska gehiegi zeudek. Ea bada, Odolik ere bilatu dik eta... Ji ji ji!

—Bakean utzi eidak⁶²⁷.

—*Mundua* horrela dek, mutil: auzoa hiletan eta gu opiletan. Ni, gaur, oso alai natxegok. Ea, zer hartuko dek? Neuk gonbidatzen haut.

—Edena behar nitek.

—Zer dek hori?

—Pozoia.

—Pozoia baino hobe dek napar pixka bat, arrautzatxo birekin. Bakailoa ere bazegok.

—Ekarri naparretik.

—Baina ze gertatu zaik? Malentxok zer dio?

—*Moja* doala.

—E?

—Bai, Bidaurretara.

Hitzetik hortzera, asuna baino berdeago jarri zan Moxolo; behazun guztiak begietaraino igo zion⁶²⁸.

—Gezurra diok! —deadar egin zuan, ukabilez mahaia joaz.

—Larrumieta! Hobe bai, gezurra balitz. Ez dira ordu bi Manuelek esan didala.

—Gezurra hik, gezurra Manuelek! Ziria sartu nahi didak, baina ez nauk hain motza.

—Nik ziria sartu?

—Bai.

—Zer dala eta?

—Auzia neuk irabazi diadalako.

—Auzia? Hi ere Malentxoren atzean al henbilen?

—Bai, eta neurea dek. Malentxo ez da zorritsuen zale.

⁶²⁷ *J.L.* utzidak.

⁶²⁸ *J.L.* zioten.

Martin zegoan lekutik jagi zan, oihuka:

—Aizak hi, zorritsuak edo zorri piztuak zeintzuk diran bazekiat eta edozeini erakusteko gertu natxegok... Hi adinakoak bagaituk, gutxienez hi adinakoak. Hainbeste igo al haiz? Nik lortu ezin dedana jadetsiko⁶²⁹ al dek? Lajaineta!

Pelotariak borrokarako astirik izan balu, eskuetako pitxarra buruan hausiko zion Martini; baina Moxolo ez zegoan eztabaidetan gelditzeko.

—Laster ikusiko diagu —esan zuan—; baina hori horrela bada, sentellas! *derrefente* garbituko det bat edo bat.

Eta *derrefente*, ardangelako gauza guztiak bertan behera utzirik, zigorrez jo duten astoaren gisa, han zihoak⁶³⁰ Moxolo Potolo Zabale-tara.

Ikusten nagoala uste det. Bai, han zihoak aldapan gora, puzka, arnasestuka, izerdi patsetan, koipea dariola. Sentellas! Ana Josepak zer erabaki duan berari, mutilari, esan beharko dio; arpegiz arpegi ikusi behar du Malentxo eta bere ahotik jakin zer asmo darabilen: ez, gehiago ez bitartekorik. Neskatxa hura ez da Bidaurretara sartuko: onean edo txarrean, Moxolorentzat izango da.

Zenbat eta baserritik hurrerago, hainbat eta ibilera motelagoa darama gure gazte baldarrak, nekatu dalako, barruko bultzada gutxitu zaiolako, Zabaletara baino lehen zerbait gogamendu nahi du-lako... Gogorrean zer egin dezake...? Atsoa hil...? Eta gero...? Hesi eta maratilak kentzeagatik, Malentxoren eskua atxitzearren, atsoa eta agurea, etxeko eta auzotegiko guztiak hilko zituzkean; baina eta, korapilo danak askatuta ere, Malenek ezkondu nahi ez bazuan? Nahieza baino eragozketa okerragorik ba al da...? Ez, egingo zana onean egin behar zan. Onean, adiskide bezala hitz egingo zion Manueli, Jose Ramoni *zigarro* bat eskainiko zion, Ana Josepari urre-ak erakutsi, diruak agindu.

⁶²⁹ Jadetsi: lortu, eskuratu.

⁶³⁰ *J.t.* ziak.

Zabaletakoak ez zeuden inorekin berriketan jarduteko. Egun beltza zan hura. Josek etxetik alde, Malentxok irten behar zuala, aito-na behin ere baino ilunago, Katalin goiz guztian negarrez, amona jai-ki zanetik agiraka, Manuel Paularen ahotik ezezkoa entzunda, denak bihotzeko min bizia gogoratzen... Ez dakit, Moxolo, ez dakit nolako harrera izango dezun.

—*Qué hay*; Manuel, lagun zaharra.

—Hemen gabiltza.

—Lanean?

—Arazoan⁶³¹. Gogo handirik ez dago baina...

—Ezbeharren bat al dezue?

—Nahikoa.

—Neuk ere zerbait entzun det. Benetakoa al da Malentxoren asmoa?

—Bai, txantxetako gauzarik ez du horrek.

—Bada, debekatu egin behar diogu.

—Nola? *Diogu?*

—Debekatu egin behar zaio. Amonari eta Maleni hitz egitera nator.

—Jum! Inoren gauzetan sartze hori... Ni ez naiz joaten herrira zaragiak nun erosi behar dituzun erakustera.

—Zure amonak badaki nik zer darabildan.

—Amonak badaki, hor dator eta nahi dezuna esaiozu: jakingo du zer erantzun. Baina gaur nere arrebarik ez dezu ikusiko.

—Zergatik ez?

—Nahi ez dedalako.

Ana Josepak, pelotaria ikusita:

—Hara bestea! Zer degu, Moxolo?

—Ia zertan geran edo...

—Zertan geran? Galduan: galduan hi, galduan hi baino lehena-gokoa, galduan etxeko guztiak. Oraintxe aukera Urrexolako harkai-tzetik heure burua botatzeko.

⁶³¹ Arazoan: lanean, beharrean.

—Alajainkoa! Hori al da gizonari emateko erantzueraz?

—Txarragoak ere badizkiat.

—Arraiopola! Nere diru guztiak Maleni emateko ustean etorri eta...

—Gorde itzak: geuk ere badizkiagu hik adina, hainbeste harrokeria gabe.

—Bera ikusi behar det, horratik.

—Zein da *bera*?

—Malentxo.

—Gaur ez.

—Gaur bai.

—Etzegok horretarako.

—Buruan sartu zait.

Manuelek, sardea eskuan zuala, Moxoloren aurrean jarriaz:

—Baita neuri ere zuri kaskarra berotzea.

—Zuk neri?

—Azkar gero, hemendik moxolotegira ez bazuaz.

Mutil biak, ezetz eta baietz, geroago eta beroago, geroago eta itsuago, gorri-gorri eginda, alkarri ederrak emateko daudela, hara nun datorren Txuri, Katalinen deietara; hara nun datorren artalde-tik, begi handiak Moxologan ipinita, ahoa zabalik, bere adorea nagusi gaztearen alde jartzeko asmoetan.

—Guau, guau! —egiten du heldu baino lehen, *banua, banua!* esan nahiaz bezala.

Txakurraren hortzak ikusi dituanean, Potoloren berotasunak berehala hotzitu dira, odol guztiak izotz bihurtu zaizkio. Etsai okerra da hura.

—Arrano...! Ee...!! Txakur hori!! —oihu egiten du, larri eta zatika.

Eta Jose Ramonek, txakurraren atzetik agertuaz:

—Lepo gainera botako diat, hauetatik ez bahua.

Bi aldiz ez du esan. Abereari eutsi diote, baina zematsu dago, gogorrean dabil, Moxologana erori nahi luke, eta ez da Moxolo bate-re artetu. Hasi da etxeruntz, bildurrez, zeharka, okerka, txakurrari begirik kendu gabe, eta honela dio:

—Oraindik egingo det nik egitekoa.

Eta etxeoandre zaharrak:

—Ez al dek egin? Atzeko alde a garbi al daukak? Ja jai!

Iseka honek mutila oso erotzen du. Haren birao biribilak! Haren gorroto beltza! Haren barruko sua! O, kemena balu! Ahaltsua balitz!

Zerbait aldendu danean, patxada eta arnasa pixka bat hartzean, Txuri etsizera doala sumaturik, Zabaletara begira, beso biak jasoaz, amorruzko lerdea dariola, idoro ahal dituan hitzik gordin itsusienak jaurtigiaz, berriren berri ekiten dio:

—Eltze⁶³², lirdinga⁶³³, ezjakin, ustel, urde, basati; harrapatzen bazaituztet, *eskopeta* baneuka, *derrefent...*

Baina hitz-errenkada guztia ez du amaitzen.

—Xa, xa! —esan diote txakurrari—, helduiok⁶³⁴! Zatitu ezak!

Eta Txuri jaikitzen ikusirik, añaniñoa! Bai zangoak erabili gure zaragi-mutilak. Hura lasterketa! Hura abiadea! Itsumustuan⁶³⁵, iraulka, orpoz ipurdi, erori eta jaiki, estu eta keixu, arraio eta moño, ia herrira arte ez da gelditu Moxolo. Ez dauzka hanka makalak!

Baina etxera orduko makaldu zan. Makala, iluna, eroria, azale-
tik izerditan bustia eta barrutik sugarretan errea heldu zan etxera.

Ez hanka eta ez buru idoro zuan Odolki ardangelan, emazte zaharo ahaztuta, ezeren kezka gabe, hainbeste lagun erdian, bata eta besteak ematen ziotena gehiegi edaten, larregizko berritxukerietan, lagunai parra eraginaz, galdera guztiak jolasean erantzunaz:

—Andrea nun utzi dek?

—Ez dek galduko. Oinez ibiltzen ikasia zegok⁶³⁶. Ekarri ezak⁶³⁷ beste *baxo* erdi.

—Gaitz egingo dik.

⁶³² Eltze: ergel, inozo.

⁶³³ Lirdinga: adurti.

⁶³⁴ Helduiok: heldu egiok.

⁶³⁵ Itsumustuan: arineketa batean.

⁶³⁶ *J.t.* ziok.

⁶³⁷ *J.t.* ekatzak.

—Gaitz ardoak? Ez, *motel*; ardoz sendatzen dituk gizonaren zau-ri eta mailatuak; ardoak osasuna, poza eta indarra ematen dizkik. Aitu, aitu:

*Edari maitagarria
Tristearen alegria,
Dezu alaitzen begia,
Kentzen melankonia,
Mutua ipintzen kantari
Eta herrena dantzari*⁶³⁸.

—Kantari, dantzari, eta neurririk ez bada, lau hankan e? Gaur ere harrapatu behar dek ederra.

—Bai, gaur bai; mozkor gabeko jaia eguzkirik ez dan eguna bezala dek, eta nik gaur jai diat, jai handi.

*Ardo gabe ez da funtziorik,
Ez mezarik eta ez festarik.
Bada hau falta ezkerro
Ez da aurkitzen gero
Baizik nahigabeko tristura
Iluntasuna eta malura*⁶³⁹.

—Begira gero andreagana nola joango haizen.

—Ez al nauzue⁶⁴⁰ ba eramango?

—*Bapo* esan dek.

Berez lotsagabe eta edandakoan txit ausarta, Odolkik inoren begirunerik ez zuan, eta Moxolori ere ikusi orduko ekin zion:

—Igartzen diat, *compañero*: gaizki erantzun diate⁶⁴¹ hiri Zabaletan. Hire diruen jabe baninduk ni, erregeren alaba ekarriko nitek Oñatira; baina hik, diru eta guzti, baserritar bat ezin irabazi dek. Moldakaitza izan, hor zegok ba!

⁶³⁸ [A. Meager-en hitzak. Ezagunak diren bezala, garbixegoak eta hobeto neur-
tuak balira nahi nuke].

⁶³⁹ [Ibid].

⁶⁴⁰ *J.t.* nazute.

⁶⁴¹ *J.t.* die.

Ai ene bada eta! Nork agindu zion zezen haserreari eup egitea? Zezenak, edo Moxolok, bat-baterako zalaparta bizian, inork uste baino lehen, mahaipera jaurtigi zuan ezkonberria, eta Manuelen gainean erori behar zuten ukabilkadak, ostikadak eta mintzo nabarmenak Odolkiren buru, arpegi eta bizkarrera erori ziran. Zapi zaharraren gisa lurrean erabilia, odoldua, ezaindua, gizonaren itxura gabe aterra zuten mutila Moxoloren hatzaparretatik. Kristina! Zeinek eta Odolkik zirikatu behar bera, Moxolo!

Andreagana zeramatela esan zioten Odolkiri:

—Adiskidea, gaur bertan izango dik Luisak hire prakak josteko era ona; oraintxe ardo egosiz zauriak gozatu beharra.

XVII

LASAI ETA LARRI

—Ez al den entzun?

—Bai, andrea.

—Eta zertan zeunden etxe barruan?

—Aitonari begira, ezer sumatuko ete zuan bildurrez.

—Inoren etxera etorrita... Potroilo⁶⁴² sabel handi...! *Bienke*
Moxolo.

—Errukitu egin zait.

—Ez dauka berak gure errukirik. Onak jarri gaitu! Malen, gauzak berehala erabaki behar dira. Heurean al hago?

—Ni bai.

—Bada, orduan, hainbat lasterren. Gautxoriok uxatu ditzagun. Hi bahua, Moxolorik ez den agertuko. Begietatik urruti, ez da bihotza negarti. Txakurra kendu ezker, amorrurik ez.

Hau, gutxi gorabehera, esan zion Maleni amonak, zelaitik sukaldera sartu zanean.

Arratsalderako, zeregin berriak zetoziola nabariturik, arlo berrietan sartzeko lehiaz, goizean eduki zituan nahigabeak ahaztu zitzaizkion ia.

⁶⁴² Potroilo: mozkor.

Horixe zan bere jakirik onena: hartu-emanetan, *eutsi eta ekazu* ibiltzea; etxeko joan-etorri gorabeheretan, burutsu bezala, gauza guztiak antolatzen jardutea.

Ezin zan geldirik eta isilik egon, eta egun berean hasi zuan arloa. “Bidaurretara beraz. Ederrak eman dizkigu! Ez genduan asko uste... Nahi duanean joan dadila, bejondeiola, Jaungoikoak gorde gaitzala... Mojak ikusi behar nik orain. Euskaldunak al dira? Nondik egiten zaie⁶⁴³ hitz? Azkenengo zein sartu zan? Errekatxoko Josepa? Zenbat eramán ote zuan...? Hoge mila gutxitxo, hogeta lau nahikoa, hortik aurrera gehiegi, badago zertan zabaldu... Gelarako gurutztea, sartuerako jantzia, bururako lore-uztaia, eskurako argizaria... Nola ekarri litezke? Onenak non ote daude? Apainak jarri beharko... Txit ederki egongo da, aukerakoa neskatxa, hartarako umea, herrian ez politagorik, zerupear ez hoberik... Elizan nortzuk batuko gera? Zenbateraino bazkaritan? Zeintzuri esango diegu? Urليا auzori ez dakit, honelako ahaideri bai, halako adiskideri ez; ezer ez diogu zor; berak ere, alaba ezkondu zanean, ez zigun inori deitu...”. Jaunak eta hura emakumearen hitz jario eta arautu beharra!

Senar, seme eta ilobak beregain utzi zioten: nahi zuana esan eta egin zezala. Utzi Katalinek, hizketarako gogorik ez zeukalako; utzi Joanesez, horrelako arazoetan ezer ez zekialako; utzi Jose Ramonek, Manuelek, Malenek, amonari poz ematearren eta bera baino antolatzaille hoberik inun ez zegoalako.

Ana Josepa, samin itxura gabe, ezteietan ibili zan, jo eta hausi, haruntz eta honuntz, etxerik etxe, mojetara eta apaizetara, paperen eske eta soineko bila, dirua hortik eta oihala hemendik, hori nahi nuke eta ez da merkea, etorri zaitetz eta lagun iezadazu; arestian ozpina baino garratzago edozeini agirika; arestian olio eta eztea baino leunago eta gozoago neskatxa onaren azkartasunak esaten; behingon zimur, txanponik atera nahi ezta; behingon jori, bere ilobarentzat

⁶⁴³ *J.L.* zaiete.

dana gutxi zala eta; beti buruko ileak jasotzeko astirik hartu ezinda, alderdi guztietan Malentxoren sarrerako albistea parra-parra zabal-tzen.

Hara nolako jardunaz.

Eliz-etxera aurkezturik:

—*Ave Maria purisima!*

—Zein da?

—Neu, jauna.

—Zer degu, Ana Josepa?

—*Batismoa* behar det.

—Bataiatu gabea zaude?

—Ez, jauna, ez; bataio gabekorik ez da gurean. Nere ilobak berorrek bataiatu zituan, nere semeak ostera Gerriko zanak, eta ni Gerriko baino lehenagokoak, antxinatxo. Berori ere ez da makala, baina Gerriko *bikarioa* gizon argia zan, hots handiko abadea, eta ni bataiatu ninduana berriz...

—Badakit, badakit. Zer nahi zenduke?

—Agiria ba, mojetarako agiria. Nere iloba horrek moja joan behar omen du eta...

—Malenek?

—Bai, jauna.

—Hori ondo.

—Ondo edo txarto, harek berea.

—Zeuk ere zeurea egin zenduan.

—Bai, halaxe da. Hobeto zan moja sartu banintz. Hainbeste buruko min ez nuan erabiliko. Egia, ni ez naiz behin ere barruzale izan. Barruko itzalak eta barrukoen bizitzak ikara ematen didate neri. Ea bada, oraintxe arte mojarik ez det egundaino ezagutu. Gaur ikusi ditut, jauna. Bidaurretatik nator. Jas!, eta patxadakoak eta *korrienteak* dira. Ez nuan nik hala uste. Nahikoa gauza esan degu. Nik haiek baino gehiago. Ahora begira egon zaizkit, barrez-barrez...

—*Bueno, bueno*, agur; bihar ipiniko det agiria.

—Azkar egin beza.

—Bihar bertan, agur.

- Ondo geldi bedi.
 Lukasenean:
 —Ea oihal batzuk.
 —Zuriak ala beltzak, ala...?
 —Zuriak bai behinik behin, maindireak egiteko.
 —Zeinentzat dituzu?
 —Malenentzat.
 —Ezkontzen al da?
 —Bai zera ezkondu! Bidaurretara doa.
 —Eeene! Halako neska ederra!
 —Bakoitzak bere usteak.
 —Ezertxo ez nekian.
 —Geuk ere ez atzo arte.
 —Eta hain laster?
 —Zertan egon behar du? Behin erabaki ezkerero... Tira, hau zenbategian?
 —Ehun biguna aukeratu dezu.
 —Zenbatekoa da?
 —Errekatzokoak horixe bera eraman zuan.
 —Gu ez gera gutxiago.
 —Ez ba, ez ba... Hori, lau eta erdian jarri nezake.
 —Lau eta erdi *kanako*? Nagoan isilik.
 —Asko al da?
 —Asko ez, gehiegi. Guk baino errezago irabazten dezue; bai hainbat.
 —Zaude: beste bat aterako dizut.
 —Zer beste gero? Hauxe behar det, baina lauan ematen ez badi-dazu, ni banua. Hain zuzen, nun eresia badago.
 —Errekatzokoak lau eta erdian eraman zuan ba...
 Enparantzearen erdian, ahaideren bati:
 —Aizu, Brijila, Malentxoren eliz-jaira etorriko zera.
 —Noiz degu?
 —Ez dakit. Ni banabil, baina gurean hankarik jaso ere ez inork, eta mutik ere ez, gainera.

—Nahigabez daude eta.

—Zer nahigabe eta nahigabe oste. Nahigabea denok daukagu. Ezertarako izan ez; guztia neuk egin behar, horra.

—Zeinek hobeto?

—Mojetan bi aldiz egon naiz; *bikarioari* paperak eskatu dizkiot⁶⁴⁴; *arreo*a josten ari dira; A. Pillipe *sermoia* gertatzen dago; bazkaria nola eman erabaki det; Bitoriatik jantzia badator; gero Mezatarako izango dan jantzi aberatsa, urre-lore eta guzti... Berebiziko jaia taiutuko degu.

—Esango didazue noiz.

—Bai, honezkero laster izango da; zortzi egun barru bai. Aditzen emango zaizu.

Inori aitortu ez arren, berehala antz eman zion Ana Josepak ez zala zeregin zailetakoa Malentxo Bidaurretan ipintzea: ez, bideak irekita zeuden, atek zabalduta idoro zituan. “Neskatxa satorra! Azpitik lana eginda euki harek, azpitik eta lehenagotik. *Latinak* eta guztia ikasita zeuzkan ba eta. Umea bai argia!”.

Malentxoren asmoa Joseri ere jakinerazi zioten. Non zegoan baina bera? Ekaitzaren indarrak, zorigaitzaren zartadeak noraino baztertu zuan? Umezurtz errukarria non zebilen? Mondragoitik laster Bergara baino lehenxeago, Deba izeneko ibaiertzean, Barrena deritzaion harrobian.

Baserritik atera zan egun berean, non sartuko, zer egingo, zeri ertsiko gogamenduaz, alderdi guztietara begira ordu larriak igaro eta gero, arratsalde beranduan, jaiki zanetik ur pitin bat edan gabe, baina behazunez zeharo elikatuta, etsi-etsian norabaitera bidezko zihoa-la, harri-zulatzailen burdina-hotsa sumaturik, haiekana hurreratu zan gizagaixoa, gau iluneko ibiltari galdua argi bakarrera joan ohi dan itxuretan.

—Arratsalde on —esan zien.

—Bai zuri ere.

⁶⁴⁴ *J.t.* dizkat.

- Zereginik ba al da edo...
- Ari gera behinik behin.
- Beste inorentzat ote daukazuen diot.
- Bai: hor, ibaian ur-malatuak⁶⁴⁵ egiteko eta, Bergaran lantegia jasotzeko eta, harri asko behar degu. Aurtengo lain badago.
- Nik ere, ba, ogibide apur bat nahi nuke.
- Hemen?
- Ahal bada.
- Lan gogorra da gero hau.
- Ohitua nago.
- Nongoa zera?
- Oñatiarra.
- Zein etxetakoa?
- Ez daukat etxerik eta gurasorik.
- Sasikoa beraz?
- Hor nunbait.
- Hainbat okerrago. Ea bada, zeuk baderitzozu...

Josek ez zuan inola ere Zabaletaren aitamenik egin nahi. Zertarako? ‘Zer dezu eta nola zatoz’ aztarna bila hasi zitezten galdezka? Bere anima barrura zeinek sartu behar zuan? Joseren nahigabeak zeini axola emango zion? Gainera, Barrenako harrobian ez zan bera luzaroan egongo. Ez, diru pixka bat eskuratu artean bakarrik; gero, Jaungoikoak laguntzen bazion, urrutira joango zan, oso urrutira, Oñatiren eta Zabaletakoen izenik entzungo ez zan lurretaraino. Baina, orduan ere, gauza bat zeukan oker eta izua: ai! bihotza ezin jaurtigi, norberarekin eraman behar, behin ere isiltzake, beti espaz, minez, eri eta negarti.

- Non geldituko naiz?
- Hortxe zerbait aurrerago daukazu Lokatza.
- Baserriren bat?
- Ez, ostatua edo...

⁶⁴⁵ Ur-malatu: ubide.

Ez zan baserria eta ez zan ostatua. Baserria ez: gure baserriak, etxe zabal patxadakoak, soro zelaien erdian, baso itzalen inguruan, bidaztien ardura gabe, lurrak eta abelgorriak ematen dutenetik bizi ohi dira, eta norbaitek inoiz baserriko ezkaratzean aterperik behar edo nahi badu, nekazarien bazkari edo afaria etxerako dagoan eltzetik ematen zaio. Ez zan ostatua: gure ostatuak, txukun eta garbiak, tresna erosoak eta gela ederrez jantziak, ardo eta edari onez beteak, arrautza, haragi, arrain eta hegaztiz hornituak, beti daukate zer jana eta zer edana, eta sarri gogoak eskatzen duan gutzia.

Joseren ostatua (nolabait esan beharko) etxe txikia, etxe medarra, mendipe ainubean⁶⁴⁶, sailtxo elkorrean⁶⁴⁷, ibiltari arloteen txanponak bildu nahirik, biderearen albora irtenda zegoan. Makina bat bizikera bada! Ez soro eta ez zelai, ez arto eta ez belar, ez behi eta ez txerri, harkaitza batetik, oihana bestetik, larreko ahuntzak esnea labur, hogeitaseko baratatzakoak sei baratxuri eta lau tipula ziztrin, etxe hartakoen janaria non lortu zitekean ez zan inola ikusten.

Baina Lokatzako nagusiak, Joakin Arraio eta Antoni Txistu senar-emazteak, gazte samarrak, bata otarragilea eta bestea zirt edo zart egitekoa, borroka ere bai behar izan ezker, ez ziran hain estu bizi. Oinezkoa zala edo zaldizkoa zala, gurdiduna edo mandazaina, zerbaiten irabazia egunero sortu ohi zan.

Zer zeukaten baina etxe barruan? Laster azaldu geinke. Mahai luze zikin bat aulki biren erdian; piper batzuk apalean, ozpinetako piper berdeak gordinik jateko eta gorri-beltz zimelduak zukua⁶⁴⁸ berotzeko; sardina zaharrak, intxaurrak, azukre iluna, bakailao buz-tana eta urdai tatoa⁶⁴⁹ iltzean behera, gaztai erdika hori gogorra, ogi zatar handi legorra, hamar *librako* olio ontzia, lau *arroako* zaragixoa, ur irazekidun⁶⁵⁰ bonbila⁶⁵¹ motza..., eta euliak, euliak erruz

⁶⁴⁶ Ainube: eguzkiak jotzen ez duen lekua.

⁶⁴⁷ Elkor: (lur) idor, gogor; uztarik nekez ematekoa.

⁶⁴⁸ Zuku: zopa.

⁶⁴⁹ Tato: zati, puska.

⁶⁵⁰ Irazeki: oso bero.

⁶⁵¹ Bonbil: botila.

arasa, mahai, horma eta janari guztien gainean, batez ere hor-hemen eroritako salda pitin eta gozo apurretan mardokiro pilaturik.

Nori derizkio⁶⁵² gauza gutxi? Ez zan gehiago behar, astegun buruzurian behintzat. Jaietarako Bergaratik erakarri ohi zuten ogi eta haragi berria oso ugari, jaietarako eta azoka egunetarako; bada egun horietan etxetxo hura haruntz-honunzkoen geldi-leku jakina izaten zan, edaleen iturri egunaz, txori askoren kaiola gauaz, jokalari maltzurren leize-zulo eta nekazari geldoen hondamendi edonoiz. Hamai-ka bider gau beranduan uritik bota zituzten⁶⁵³ nekazariak hasi ohi ziran Lokatzan, beranduago, *enbidoka* eta *hordagoka!* Hamaika bider atera ohi zuten Lokatzatik gizon hordiren bat, goizalderuntz, bultzaka edo tatarrez⁶⁵⁴ bidearen erdiraino. Zihoala bere lekura, edo- nun gelditu zedila, nahi zuana egin zezala, *hor konpon*.

Jose Lokatzan sartu zanean, horma gorrian ikatzez eginda ohar lakarra ikusi zuan:

HOY NO SE FIA, MAÑANA SI

Albiste polita arditik gabe zegoanarentzat! Eta nork erantzunik ez gainera!

Etxekoandrea burutik oinetaraino begira gelditu zitzaion. Andre hura, andre-gizona, soa⁶⁵⁵ eta hitz gogorreko emakumea, bidaztien sakelari usain egiten ederki ohitua zegoan. Bere aurrean igaro ziran, mila eta gehiago aldiz, baserritarrak eta uritarrak; eutsiak eta banatzaileak⁶⁵⁶; apalak eta harroxkoak; bere mahai zakarrean jan zuten gogoz, onetik edo merketik, haragi zerra edo ogi zatia, bakailao errea edo tipula gordina, auzoetako gizonak eta urrinetako neska-mutilak, alkondara zuridunak eta atorra gabekoak, zerbait zeukatenak eta gizadi behartsuak, behartsuak batez ere, *ijito*, *pasiago*, *barkillero*, eskale, perzgile, aulkigin eta abar. Ez zituan alperrik, *kopaka baso-*

⁶⁵² *J.t.* deizkio.

⁶⁵³ *J.t.* zituen.

⁶⁵⁴ Tatarrez: arrastaka.

⁶⁵⁵ [*Mirada*].

⁶⁵⁶ Eutsi: zeken, ziskuestu. Banatzaile: gastatzaile, eralkitzaile.

ka, hainbeste bonbila eta zaragi hustu. Edozein bidezkori laster igarriko zion dirurik bazuan ala ez, jantzian, esakeran, ibilkeran, begietan, edonun.

Hain isil eta geza ikusirik:

—Zer dakarzu? —galdetu zion Joseri.

—Lanera nator.

—Nora gero?

—Alboko harrobira.

—Gurean egoteko?

—Bai.

—Aurrez ordaindu behar dezu egoerea eta jana.

—Aurrez?

—Bai.

—Orain ez daukat ba.

—Hala uste nuan. Agertu zeraneko, peku txarrean⁶⁵⁷ jarri naiz.

Askotxo ikasia nago ni. Pardel gabe eta, lanera...

—Gaurkoa behinik behin, sapaian bada ere...

—Hemen ez dago sapairik.

—Soinekoa bahituko⁶⁵⁸ dizut.

—A! Horretara bada bai, horretara ez det galduko.

Eta kopeta beltza batere argitu gabe, mila petralkeria gehiago esanaz, gertatu zitzaion mutilari badaezpadako afaritxoa, eman zioten nolabaiteko etzatokia.

Baina halako gazte sendoa zurbil, buruz behera eta lotsakor nabariturik, senar-emazteak inola ezin artetu ziran. “Jaungoikoak badaki zein dan” —dio batak. “Alprojaren bat galanta” —besteak. Jose lotara ostendu zanean, susmuka eta zelataka gelditzen dira biak, eta gure umezurtz gizagaixoa belauniko, *Aitare*n eginaz, negarrez ikusten dute. Orduan, “ez dirudi gaiztoetakoa” —azaltzen du Joakinek. Eta emazteak: “Izan eta irudi berdinak ez dira. Ernai egon.

⁶⁵⁷ Peku txarrean: susmo txarrean.

⁶⁵⁸ [Bahitu: *Poner o dejar en prenda*].

Behar ez danen bat egin du horrek; bai, damutu bazaio ere, zerbait egin du. Eta hurrekoa da, hurrekoa non edo nongoa...”.

Orain badakigu Jose non gelditu zan: Lokatza ezagutzen degu. Zabaletatik irten ezker, Lokatzen jaten zuan gosea kentzeko adina babarrun eta ogi-zuku, zorretan dagoan gizon lotsatiak ahal dezakean bezala, neurriz, arretaz, begirune handiz. Hantxe epeldu ohi zuan ohe purtzil bat gauero-gauero, baina gau beltza gogo ilunean igarota, goizean, gorputza ezer gozatzake eta anima gaixoa oherakoan baino larri eta gaziago zuala jaiki ohi zan. “Ai! Etxe hotza dek hau, ostatu legorra dek hau —zioen berekiko—. Urdailarentzat zerbait bazegok, baina bihotzak ez dezala ezer eskatu. Neketan hago hi, Jose, baina hire nekeen axolarik ez zeukak inork. Eta Euskal Herrian hori gertatzen bazaik, erdalerrietan zer izango da hizaz...”. Etorkizunari begira jarrita, bere burua urruti aldean ikusten zuala zeritzon, bidazti arrotza gure lurretan ohi bezala, jan edo lan bila, oinez, bakar, itzal, minbera, lohi eta zirpiltsu, kemenge eta motel, zama zakarra ezin jasorik, goseak eta egarriak galtzeko zorian, non zebilen ez zekiala, ezkerrera edo eskubira ekiteko zalantzan, alderdi guztietan irria eta iraina idoroko zuan bildurrez... “Iturraldeko semetxoa —zioen berriro—; nahigabe zelai handiak igaro behar dituk. Laztasuneko bidearen hasieran habil; geroago eta garraztasun handiagoak datozkik. Erbesteko haiz hemen eta erbesteko izango haiz edozein tokitan; arrotz izango haiz edonun, arrotz higuigarri”.

Erbesteko izate hau berezkoa da gizonentzat, edonun ez bada, lekurik gehienetan. Erbestekoa da, ez bakarrik *alemana* Espainian edo Zamorakoa Euskal Herrian, baita ere donostiarra Bilbon, getariarra Zarautzen, karrika batekoa bestean, auzokoa gurean eta maizegi —ezin ukatu—, etxe barrukoa gure bihotzean. Askoren iritzi, herritar izatea norbere ustea eta gogokoa izatea baino ez da. O, zenbat arrotz alkarren ondoan, berak ez dakiela!

Josek bazekian bera ez zala inongo, bera ez zala inoren bihotzeko, eta hortik animaren samina.

Horratik ere, gizon eta herri guztien Aitak, txorien axola duan Jaungoikoak, gozamen apur bat biraldu zion.

Zabaletakoen aginduz eta Paularen erakutsiz Joserren bila zebiltzan adiskide onak, gure gaztea idorotzean, osatu ez, baina zerbait zabaldu zioten bere barrua.

Albiste onak zekartzaten⁶⁵⁹: “Martin ez zala Zabaletarako”. Ez ba, ezin ba. Gizatxar alper handia langile zintzoen artean, nola egokitu? Euskal ohituren iraintzaile gaiztoa nola izan Zabaletako seme on? Jaungoikoaren etsaia eta Jesusen maitalea, nola ondo alkartu? Eskerrak, hala ere, garaiz ohartu ziranean... “Moxolo txakurrak ia jan zuala”. Bai, txakurrak aisa ezagutzen dute zein nolakoa dan, gizonak baino aisago noski. Sen gehiago dute eta esker hobea. Gizonak egin ziotena ez ziokean Txurik egingo, ez alegia... “Malentxo moja zihoala”. Moja! Nori oroitu? Nori baina? Berari, Joseri, maite-tasunak itsuturik euki ez balu. Aingeruak beti dira zerukoi.

Orduantxe zekusan⁶⁶⁰ garbiro Malentxoren izakera, zaletasuna eta gogo eder beroa. O!, Jaungoikoarentzat izan ez balitz, neskatxa zoragarri hura beretzat, Joserentzat izango zan. Sineste alaia! Gogamen atsegingarria! Eztiz ihintzaturiko gogamena! Eztiz eta behazunez. Ezingo zuan iritsi! Zer da gizon zirtzila, erregetzarik handiena edukita ere, zer da Jaunaren ondoan? Jesus, Jesus! Malentxo nahian Jose nabarmen ibili bada, ezjakinean ibili da... “Aitona deiez zego kiola”. Bai, samurra zalako, samur eta zuzena, Euskal Herrian besterik inor bazan. Damu zuan mutilak aitonari min ematea, agurrik egin eza. Aurki joango zitzaion barka eske, alogerak hartutakoan, hurrengo astean...

⁶⁵⁹ *J.t.* zekarzkiten.

⁶⁶⁰ Zekusan: ikusi zituen.

XVIII

BERE KABIARA

Nork esan zenbat eratako anima gauden? Gorputzik adina bai, eta gorputza bezala edertasun eta itsusikeria guztietakoak. Alaiak, ilunak, argiak, motzak, ausartak eta zaputzak; bigun, zuzen, zogi⁶⁶¹, gozoak; herren, txango, ezkel⁶⁶², zitalak; aldakor eta iraunkorrak, doilor eta maitagarriak, azpikeriazaleak eta beren ustea edozein umeri agertzen diotenak; deabruaren itxurako animak eta Jaungoikozko anima garbi atseginak.

Gaizki al diot? Animak ezkutuan daudela? Baita agirian ere. Batzuk, nahiz eta urteetan gure ondoan bizi, ez ditugu egundaino ezagutzen, baina ez al dakigu beste askoren berri gure aurrean lau hitz esan orduko? Ez al ditugu ikusi, hainbat aldiz, norbaiten tolestura eta izurrak? Ez al degu sumatu urlia edo sandiaren argirik eza, doilorkeria, apaltasuna, esker beroa, grina ona edo grina txarra? Eta nondik datorkio gizonari alai edo goibel, on edo gaizto izatea, animatik ez bada?

Bai, gauza jakina da, eta gizon batzuen eztabaidak entzutean, sarri esan det: “Hori? Anima ezkela: ezkerretaruntz begiratzen du. Anima bekaiztia: inoren ona ezin du ikusi. Ainotsua⁶⁶³: dana beltz

⁶⁶¹ Zogi: zoegi; zuhur, zentzuzko.

⁶⁶² Ezkel: begi oker, begi bakar.

⁶⁶³ Ainotsu: kedartsu.

iruditzen zaio. Aldakorra: atzo beste iritzia zeukan. Herrena, zitala: beti oker dabil, beti garratz. Ernai, samurra, patxadakoa: asko daki, lagunari bihotza emango lioke, ez da ezerगतik haserratzen”.

Eta anima berdineko gizadiak aisa bilatzen dute batak bestea, nahiz eta gurputzez alkarren antzik ez euki. Norbaiten adiskide izateko ez zaio gorputzari hainbeste begiratzen, gorputzaren zertzeladak zer ikusirik ez daukate. Argala izan edo lodia, sudurluzea edo sudurmotza, lerdena edo korkoxa, ez digu batere axola. Gure uste, gogo eta iritzikoa izan dadila eta edozein dator ongi, edozein da era-erako adiskide. Ez dakusgu, edonun eta edonoiz, nola inguratzen diran gorriak gorrietara, zuriak zuriakana, txoroak txorakeriara, elizkoiak elizaruntz, mutilak eta neskatxak, zaharrak eta gazteak, goikoak eta behekoak, bakoitza bere aldratxoan, bakoitza beretarrakin, baina handi eta txiki, makal eta indartsu, iaio eta itsusi danak pila eta moltsu batean? Zerk inguratu ditu? Gorputzaren egokitasunak ez, animarenak; animak dira alkarren antzekoak, animak alkarren ahaide.

Era berean biltzen dira anima ben garbiak, bakardadea nahi dutenak, lurreko aberastasun, handikeria eta gozamen guztiak alde batera utzirik, zerura begira dabiltzanak, Jesusek beretzat aukeratu dituan anima maitegarriak.

Bidaurretakoak, Malentxo zihoakielako⁶⁶⁴, txito alaiak zeuden. Malentxo beren gogobetekoa zan, beren bizitza behar zuan neskatxa zogi aratza⁶⁶⁵, Jesusen maitale handia, oso beretarra. O, nolako harre-
ra egingo zioten! Zenbat ahizpatxo idoroko zituan besoak zabalik! Ahizpatxoak eta Ama bat ere bai, andre argia, bihozbera, Jaungoikozkoa, animai begiratzen ohitua, zalantzetako laguna, onbide askoren erakuslea, maitetasun garbien su-emale beroa, moja berri guztien Ama.

Eta nork esan Malentxoren poza? Senar zintzoak, emazte onak, oroitzen zerate zuen ezkontzarako mugaldea nolakoa zan? Emakume

⁶⁶⁴ *J.L.* zijoakiotelako.

⁶⁶⁵ Aratz: garbi.

gazte ameslariak, oroitzen zerate zein tirtiri⁶⁶⁶ egon zinaten, jantzi luzez eta ile harroz apaindurik lagun artera lehenbizi irten beharreko garaian? Legegizonak, apaizak, sendakinak, etxe, bide eta zubi asmatzaileak, edozein eratako jakituria eske ibili zeratenak, gogoan daukazue zuen gozotasuna, ikasteak oso amaitzean, zerbaiterako aginpidea eman zizuetenean⁶⁶⁷, legegizonen longaina⁶⁶⁸ janztean, aurreneko Meza ematera gertatzean? Ameriketan izandako gizon herrikoiak, ez zerate ahaztu, zuen irabaziak sakelean gordeta, “etxera noa, Euskal Herrira noa” esan zenduen orduaz?

Oroitza horietatik atera dezakezue, bada, Malentxoren atsegina Bidaurretara zihoan egunean.

Egun handia hura gure gaztearentzat, egun estua bere gurasoentzat, itxaropen gabeko eta inkurriozko⁶⁶⁹ egun beltza neskatxaren eskua jadetsi ez zuten gizonentzat.

Goiz jaiki zan Malentxo. Jaiki eta soro mendi zuhaiztiai begira leihoan egon, beren itxura irudimenean gorde nahirik bezala luzaro egon, eta bat-batean gero, ganbaratik ukuilura, bazterrak eta tresna guztiak ikusten abiatu, ikusten, aratzen⁶⁷⁰, garbitzen, taiutzen. Bere ohea, bere sehaska, umetako txintzarri eta janzkera, aitonaren makila eta zizeilua, amonaren liho-hari eta goru-txapela, aitaren edo amaren atxurra edo aulkitxoa... behi zaharra, bigantx⁶⁷¹ gaztea, oilo nabarra, oilanda zuria... Hura gauza! Danakin hizketarako gogoa ez zetorkion ba? Danak zerbait mintzatzen ziotela ez zuan ba uste? Ez zitzaion ba iruditzen ez zituala egundaino ondo ikusi, ez ziela behin ere behar adina jaramon egin...? “*Purra, purra!* Tira, gaixoak, tira, ale batzuk nere eskutik, azkenengo aldiz”.

⁶⁶⁶ Tirtiri: urduri.

⁶⁶⁷ *J.t.* zizutenean.

⁶⁶⁸ Longaina: jantzi, kapa.

⁶⁶⁹ Inkurrio: arrenkura, oroitzapen mingots.

⁶⁷⁰ Aratu: ikutu, aztertu, begiratu.

⁶⁷¹ *J.t.* biai.

Honelako arazoetan aurkitzen du Paula lehengusuak.

—Hau poza nerea, Paula, eta orobat hau bildurra, hau argaltasuna edo ez zekinat nik!

—Bahoalako?

—Bai.

—Gelditu.

—Hori esatea! Nere bildurra etxekoakatik den, Paula, ez nigatik. Nere maiteak oinazez daudelako, nere bihotza oinazean zeukanat, eta hala ere pozarren natxegon. Nork sinestu?

—Neuk. Maitasunaren indar eta zauriak bazekizkinat. Zauri gozoak ditun horiek.

—Zabaletako baserria beste inorgatik ez ninan utziko, baina Jesusegatik...

—Gehiago maitatzen denalako.

—Nola ez? Maitetasunik handiena Berari zor zaion, Beretzat o, nere Jesusentzat! Dana den hutsa... Baina hutsa ere argalarentzat astun... Gaurko eguna igarota balitxegon... Orraztu behar naun.

—Bai, azkenengo aldiz... Ilearen ugaria!

—Eta laster batere ez. Aurki naiz kaskamots, Paula. Ja jai...! Ene! Amak ez al zidan algarea entzungo... Hauxe da zoria eta izua, dana batera!

Malentxoren sarrerako abagune eta jazoera guztiak begien aurrean dauzkat. Bidaurretako eliz-mahai nagusia argiz eta lorez txit ederturik dago; *moja kanpaiak* dinbili-danbala pixkor alaietan gelditu ezin dira; hor doaz elizara, oso apain, Malentxoren ahaideak, adiskideak, auzokoak, ezagunak, herritar elizkoiak; hemen datoz Ana Josepa eta Katalin, Paula eta Manuel, Mikaela eta Inazio Mari; gurdian dakarte Joanes aitona, gure artzain buruzuria, eta eliz-mahai aurreko aulkietaraino Jose Ramonek darama besotik; zelaiaren erdian daude, gorrotozko lokarriz alkarturik, Moxolo, Martin, Peru Odolki eta beste horrelako nahaspilari burugogor batzuk, ikusnahian, marmarrear, etsi ezinik, irriturik, ondamuz amorratzen, apaiz, *praile*, *moja* eta Malentxogatik asmatu ahalak asmatzen, gezurrik eta zatarkeriarik doilor lizun eta lotsagabeenak ahoa betean jaurtigitzen. Antz

horretara hitz egingo lukete gabiraiak, hizketan balekitez, hatzaparretatik usoak iges egitean.

Ana Josepa, bata eta bestearekin mintzatzen, azkenetakoa gelditu da, eta zelaikoetara begira.

—Martin —deitzen dio ilobari—, elizara hi ere.

—Ni? Barruko alperrai su ematera balitz...

—E? Alperrak zeintzuk dituk?

—Hor, lanik egin gabe jana daukaten sorgin horiek. Eman horiei, eman *dote* ona.

—Zergatik ez eman? Gurea ez al dek dirua? Hiri eskatu al diru gu?

—Eskatu ez, baina kendu bai.

—Hiri kendu?

—Bai; agindua ez ematea, kentzea bezala da. Lapur arraioak!

—Lapurrak gu?

—Bai; dirua daukaten guztiak lapurrak dira, diru danak lapurretan eginak.

—Aitaren, Semearen...! Hau ere entzun behar genduan! Lapurretan eginak lanaren lanez aurreratutako txanponak? Lapurretan, hire aitari eman nizkion⁶⁷² urreak? Lapurretan hik, asko edo gutxi, Somorrostron irabazi eta ez dakit nun hondatu dituanak? Hireak ez, e? Ba, hi baino lan pixka bat gehiago eginak gaituk. Bai horixe... Nik ez diat hiri dirurik agindu, baina agindu banian ere ez nian emango. Heuri! Ardangeletan ardo bihurtzeko, beste zereginik ez daukak eta... Hik deitu behar inori alperra, hik, egun guztian besoak tolestuta *Don Bizente* baino tenteagoa hagoanorrek...

Amonaren oihuetara elizakoak inguratu ez zitezen:

—Alde dezagun hemendik —diote Martinen lagunak—, goazen herrira. Atso listorra isiltzerik etzegok.

—Herri *madarikatua!* —erasotzen du Martinek—. Atsoak eta apaizak dira gaur agintari, baina egunen batean...

⁶⁷² *J.t.* nizkan.

Eta Moxolok:

—*Sentellas!* Gure txanda etorriko ahal dek. Orduan hik ez, Martin, neuk erreko diat Bidaurreta, neuk, arraioak ez badituk⁶⁷³.

Elizara sartu diranak, zelaikoen arreta lageaz, gogamen eta begiak Malentxogan jarrita dauzkate.

Berariaz Katalinek. Orduaren zain, mojen bizitzako atarian zutik, lerden eta isil, bero eta ikara, larri eta legor, bere alabatxoari begira, bihotzaren taupadak ezin geratuaz, zer egin ez daki, zeresanik ez dauka, erotua dirudi, zentzungebea ematen du. Baina barrenaldetik norbaiten ibilera sumatzean, giltz eta morroiloen⁶⁷⁴ burdina hotsa garbiro entzun duanean, mojatetik ate zabal astuna intzirika ireki danean, bere altzoan limurki hazitako ume kutuna “agur, amaxo” esanda barrura doala ikustean, ernaitzen da Katalin, alaba maiteari lepotik heltzen dio, hilzorikoak bizitzari bezala eusten dio, jarzen bere bular gainean estu, oso estu!, eta euki eta igortzi, eragin eta astindu, negar eta musu, laztan bekokian, laztan begietan, laztan ezpainetan, erraietara bihurtu nahi luke berriz, erraien erdian gorde nahi luke beretzat, beretzat bakarrik... Ai ene bada eta! Utzi egin behar, betiko utzi behar!

Beste ahaideak, oso bihozbera, agur egiteko gaitasunik ez dute izan.

Katalin, Meza bitarte guztian, ez da negarrez nahikotu; Ana Josepa, mutil barrabanagatik otoitz egiten ez da isildu; Joanes, bihotzeko samin handia zeruko Aitari erakusten inola ez da aspertu; Jose Ramonek eta Manuelek, beren nahigabe eta urduritasuna ezin gorde izan dute; baina denak esan diote Jaungoikoari txikitan ikasitako arrena: “zeru eta lurrean Zure oldea egin bedi”; denak daude iritzi batean: “Zabaletako alabak hartu duan asmoa baino gauza hoberik ez dago”.

Paula dakust eramanik gutxienekoa⁶⁷⁵, oso artega, ezeren adiera gabe, alderdi guztietara begira eta begira. Zer ote du Paulatxok?

⁶⁷³ *J.L.* baituk.

⁶⁷⁴ Morroilo: zerraila, krisketa.

⁶⁷⁵ Eraman gutxiko: urduri, jasan txarreko.

Meza bukatu danean, apaizak, Meza soineko eta guzti, elizako burdina-leihora jaitsi dira, eta burdinen barrutik agertu da Malentxo, eder, lirain, urre-loraz jantzirik, argi bat eskubian, begiak behealdean, irribarrez, zorioneko, istilu gaiztoak igarota bere Kabiara heldu dan uso bildurtiaren antzera.

Txolarte polita hura mojak ikusteko. Uste horretan, elizkizun hartara baturiko guztiak, bizkor, lerdekaria, zalapartaka, leiho-burdina ondora pilatu dira. Kabia usaindu nahi.

Hitz egitera doan A. Fraileak ia non jarririk ez dauka.

“Nere arrebatxoa —dio—; basetxe batean jaioa zera, baina jau-regi aberatserako; Zabaletan hazi zaituzte, baina Jaungoikoarentzat; zure ama maitearen besoak utzi dituzu, baina Jesus Erregearen besoetara zatoz! Ordu onean, arrebatxo, ordu onean...!”.

“Gurasoak erakutsi zizuten zure jatorri handia, gurasoakandik ikasi dezu gauza guztien Egile Ahaltzuar Aita esaten, eta Zeruko Aita hori deiezka daukazula jakitean, Beragana zakartzate⁶⁷⁶, nahiz eta bihotzaren erdian atsekabe hartu, nahiz eta malko saminak isuri. Era berean hartzen dute min inoren umea norberetzat hazi dutenak, ume hura egiazko aita-amakana doakienean⁶⁷⁷...”.

“Ez da negar egitekoa, atsegingarria da zuretzat eta zure gurasoentzat: zuretzat, antzinetako ames gozoa gaur betetzen dezulako; gurasoentzat, hemendik aurrera, orain baino gehiago eta hobeto, berakatik Jaunaren aurrean eskariak nork egina izango dutelako”.

“Bai, Jesusen ondoan zure ahaide eta gurasoen bitarteko izango zera. Eguneroko janari eta *atsedena* gertatzeko etxean bat edo bat behar dan gisa, Jesusen jauregian behar da norbait beti-betiko atsedeen ezia gertatzeko; eta zure aita-amak, zure aiton-amandreak, zure anai eta ahaideak soro-lanetan dauden orduan, zu egongo zera hemen haientzat zorion eta bakea gerorako eskatzen”.

“Lanbide handia zurea; ez dago zerua irabaztea baino lanbide handiagorik”.

⁶⁷⁶ *J.t.* zakarzkite.

⁶⁷⁷ *J.t.* dijoakiotenean.

“Baina oraindik ez dezu iritsi, o ez! Jesusek sari osoa ez dizu berehala emango. Zeruko bidean ipini zaitu, gudara deitu dizu, ekin behar gogorrean zaude. Hasi bada berbertatik; hasi berriro animaren etsaia porrokatzen, jarrai gogotik haragiaren jaikiera gaiztoak azpiratzen, ekin grina oker guztiak zugandik kentzen. Zure mendekoak dira, zure azpian behar dute. Ez ikaratu, eraso bildur gabe, jauna dezu lagun, zurea da garaitza, zurea da zerua”.

“Bai, zurea da Jesusen atzetik bazoaz, ahizpa berrien legeak gordezten badituzu, gaur dauzkazun asmoetan irauten badezu”.

“Aurrera, Jesusen maitalea! Aurrera Jesusen gudaria! Ordua heldu da. Lurtarren soinekoak kendu itzazu: ez dira horiek gudetarako jantzi egokiak, ez dira zure bihotza betetzen dizutenak. Ezagutzen zaitut: zu ez zera azaleko apainduriazale; barrutik nahi dezu apaina izan, anima nahi dezu, done eta aingeruen ekantzera⁶⁷⁸, txukun, eder, garbi eta aberats. Zeruan daukazu iraupeneko sari osoa, zeruan zure jarleku handia, eta bertan nahi zenduke jarri; hantxe, Aloña baino gorago, hodeiak baino gorago, izarrak baino gorago dagoan betiko maitetasun, eztitasun eta edertasun guztien iturburuan nahi zenduke jarri. Zure gogoa bete dadila, denok ikusi dezagula...”.

Eliz-jaiak bukatu eta berehala, barruan barrukoak utzirik, besteak zelaira irten ziran, erlauntza⁶⁷⁹ bezala zunburruntu, bakoitza bere usteak ematen, bakoitza bere oharrak agertzen: A. Pillipe hiztun iaioa zala, hiztunik onenetakoa, Aitarik jakintsuenetakoa; haren esakera ugaria, haren besoai eragitea, haren samurtasuna; Malentxo arte-arte⁶⁸⁰ egon zala, barre antzean, pozez zorutzen; behatzik ez zuala erabili, ez zuala zirkinik egin, begirik ez zuala jaso; baietz, jaso zituala, aitonari begiratu ziola, Joanesi malko lodiak erori zitzaizkiola: Katalinen zotinak, Ana Joseparen *Aitagureak*, Manuelek zeuzkan begi gorriak, Jose Ramonen eroritasuna; batari moja izateko asmoa

⁶⁷⁸ Ekantz: itxura, antz.

⁶⁷⁹ Erlauntz: erle toki, erlategi.

⁶⁸⁰ Arte: lasai.

erne zitzaiona, besteari etxean egoteko ustea gehitu zitzaiona, beti barruan bizitzea danentzako ez zana, gurasoen ondoan zerua irabazi zeinkeana... Emakume guztiak zeukaten mingaina erabiltzeko zio eta gaia, guztiak zerbait agertu beharra, denak zeuden alkarrekin jardunean.

Danak ez horratik. Paulak ez zuan hitzik ateratzen, ez zion eze-ri jaramonik egiten. Gogamen bat zerabilen elizara ezkerre, eta ezin zuan bere burutik kendu: zergatik ez zan Jose inon agiri?

Galdetzera zihoala, Manuelek zekarkion erantzuna, erdi negarrez:

—Orain ere oker handia degu, Paula.

—Zer?

—Gure Joseri gertatu zaiona!

—E? Zer gertatu zaio?

—Garrautsak⁶⁸¹ su hartu eta erre.

—Erre! Zeinek esan du?

—Hor dagoan gizon hori dator Barrenatik...

Izendaturiko gizona Joanesi albisteak ematen zegoan. “Nola izango zan? —dio—. Hara, errez ulertuko dezu. Otarratxo baten dauzkagu harrobirako garrautsak. Josek, gaurko eguna beretzat jaia zala eta, lan gogorra egin zuan atzo, harri-zulatzen. Iluntzean, afaritara baino lehentxoago danbada batzuk egiteko ustean, hartu du garrautsen saskia, behar dan adina sukarrri zuloetan sartu du, arda-gai hari luzeak arretaz ipini ditu, eta su ematera doanean, aldameneko saskira pospolo buru izekia erori zaio eta plaut...!! Halako harri-garririk! Suak, lurrak eta keak igo zuten, eliza hori baino gorago bai, eta Jose gizagaixoia su-lur-ketan ostendu zitzaigun. Lehenengo, ke-lainoak ez zuan ezer ikusten utzi; gero, irrikiturik, lagunagana heldu ginanean, harkaitzean erorita bilatu genduan, ikatza baino beltzago, zeharo kiskaldurik, zeharo baina”.

—Hil da!

⁶⁸¹ [Garrautsa: *Pólvara*].

—Hil ez, oraindik ez da hil, baina gaizki dago, oso gaizki. Hara, ezin leike ondo esan: gizonaren itxurarik ez du, bekainik eta betilerik ez dauka, arpegi dana puslatu⁶⁸² zaio, ura eta zorna dario...

—Ez al da sendatuko?

—Ez deritzot; baina sendatzen bada ere, itsua izango omen da.

—Non dago?

—Bergarara, gaixotegira eramán dute.

Zabaletakoak, zer erabaki ez zekitela, isil-isilik gelditu ziran. Joanesen hileta baino besterik ez zan entzuten:

—Bai ondo zorigaiztokoa mutila! Bai ondo nekepean izateko sortua!

Harako baten Paulak:

—Banua ni —azaldu zuan, eta inoren esanik adi nahi ezta, ahai-deen zain egoteko astirik gabe, azkar, haizea bezain azkar, Bergarako bideari ekin zion.

—Zaude, Paula, zaude, ni ere banator —deitzen du Manuelek.

Eta beste batzuk, gizonik guri sendoenak, honela diote:

—Gu, jandakoan. Ia hamabiak dira eta...

⁶⁸² Puslatu: babaz, erreduraz bete.

XIX

BI ARPEGIAK

Euskal gizasemeak, bazkari on baten aurrean, errez laga ohi ditu alde batera nahigabe eta zeregin guztiak.

Batez ere nahigabea barru-barrura sartu ez bazaio eta zeregina gerorako edo hurrengorako utzi ahal baledi⁶⁸³.

Onak eta jatunak omen gera eta...

Onak, onak... Hori geuk aitatzea baino beste batzuk agertzea hobeto degu. Jatunak gerana bai, gauza garbi ziurra da, norbere gorarik ez dakar eta neronek azaldu dezaket. Ez da horregatik inor lotsatuko, ez. Bai zera lotsatu! Oilasko eta ilar berrien oroitzaz zeharo poztu, ezpainak miazkatzen jarri. Orain dala ordubete ikusi det gizon guri potroilo⁶⁸⁴ bat. “Ez dezu txilborra makala!” —esan diot. Eta badakizu zer erantzun didan, irakurle?— “*Kostata*. Ahal duanak dauka”.

Ahal izatea gure atsegin. Ahal izan ezkerro, inondik badegu, apukorik⁶⁸⁵ bada, ezin gintezke⁶⁸⁶ eguneroko babarrunak janda egon. Ez, aukera danean, hamarretakoa, hamaiketakoa, lauretakoa, azken ordukoa, dena dator ongi, eta gure urdailak ez du behin ere ezetzik esango.

⁶⁸³ *J.t.* baleike.

⁶⁸⁴ Potroilo: lodikote.

⁶⁸⁵ Apuko: aitzakia.

⁶⁸⁶ *J.t.* gindezke.

Eta mutilak gera gu apukoak bilatzen. Haurraren jaiotza, auzokoaren heriotza, ezagunaren Meza berria, lagun baten etorrera, adiskideari agur egitea, urlia edo urliziari egun-onak ematea; txerria hil dutelako, erbia atxitu degulako, eskailuak ekarri dituztelako, arku-mea merke *dabilelako*; gaztetan indar egiteagatik eta zahartzan indarra ez galtzeagatik; neguan hotzari gogor egin deiogun eta udan izerdiak bigundu ez gaitzan; Gabonak dirala, Inauteriak dirala, zezenak edo adarrak dirala; *San Juanak*, *San Pedroak*, *Andre Mariak*, edozein doneren jaiak, edozer eratako jolasak..., beti daukagu zerbaiten apukoa eta beti jan egin behar, asko jan, galanki edan, zintzurreraino bete, ok egin, ase, ito eta upeldu.

Jatunak alderdi guztietan dira, baina egingo nuke ez dala inon Euskal Herrian beste oilo-jale eta Txanton Piperri⁶⁸⁷.

Ezagutzen det bazkari *eder* bategatik Murtziaraino joango litzatekean zalduna. Badakit, zeinek, afari handi bat egin eta berehala, hamar saiheski jan zituan; badakit zeinek, hamarretan, kana eta erdi lukainka.

Horrelakoak bat edo beste daudela? Bost edo sei mila gutxienez: itxura duten guztiak eta itxurarik ez duten asko.

Eta ez atxurle eta nekazariak bakarrik; ez, sagardotegian, “hamalagarrena” edo “hamaseigarrena” eskatzen dakitenak bakarrik: urietako jaun azkar burutsuak ere bai.

Makina bat bider nabaritu ditut gizonik argi eta langileenak, arlo astunen erdian bertan, Azpeitia hortik eta Durango hemendik, Donostian ondo eta Iruñean merke, oiloa gora eta eperra behera, Urumeako izokina eta Berastegiko amuarraina, albisterik arduratsuenak emango balituzkete bezala, non hobeto jaten dan alkarri erakusten eta jakirik gozoena zer eta nola dan adierazten.

Gaixoagana ekarri degun sendakinari entzun diot, eskuak garbitzen zegoan bitartean, azatan egositako oilagorra baino jaki hoberik ez dala. Sendakin horrek, toki askotako eltzeak ikusi ditu, izen

⁶⁸⁷ Txanton Piperri: opera bat. Protagonista ere bera.

handiko lau-ortza dauka; gaixoai begiratzen bai, baina, ostaturik onenetan, lagun arteko jan-batzar alaiak gertatzen ere badaki, eta berak dioenean, oilagor egosia ez da txarra izango.

Baina goazen geure ipuinetara.

Malentxo moja sartu zanetik hamabost egun geroagoan gaude. Patxiko eta bere langintzako adiskide batzuk, Mari Teresek bakailaoa ederki jartzen duala eta, Eibarren batu dira, baina bestetan adina gozamen, aukera eta leku ez dute idoro. Igandea da, eguzki gabeko igande beltza; ostatua gizadiz borborrean dago; etxejabeak, ahalegin guztiak egin arren, danentzako jakirik eta astirik ez dauka, eta gure Patxiko eta lagunai bazkaria bazter baten, hotza, urri eta kiskaldua ematen die⁶⁸⁸.

Deiezka eta ontzi-joka luzaroan egon eta gero, neskameren bat atarrapuzka⁶⁸⁹ agertzen danean:

—Gaurkoagatik barkatu beharko —esaten du—, arpegirik ezin emanda gabiltza.

—Zer da gaur ordea Eibarren?

—*Mitina* edo...

—Noiz?

—Hiruretan.

—Zergatik?

—Langileak nahi beste nekesari ez daukela eta.

—Nork dauka nahi beste...? Gizon asko etorri al da?

—Ask ez, baina bai nabarmenak, Bilbo aldetik.

—Zaldibarrera joan behar genduan.

—Zaldibarren ezer ez dago.

—Eta hemen?

—Mitinean egingo degu parte pixka bat.

Neskameak esan bezala, hiru-hiruretan, lantegietako gizonak eta Elizaren etsaiak jardun-batzarra hastera doaz, pelotalekuan. Hantxe,

⁶⁸⁸ *J.t.* diote.

⁶⁸⁹ Atarrapuzka: ganora haundirik gabe lan egiteari esaten zaio.

lainoz jantzitako zerupe ilunean, suinkiro⁶⁹⁰ alkartu dira eibartarrik gehienak, onenak ez baina. Onenak ez: gazte harro, zaharkote nagi, erdi langile, oso edale, gezur-bilari, haizeburu, etxekalte⁶⁹¹ guztiak eta emakume arrotz lasai batzuk. Ardangela eta kafeterietatik irten dute, eta denak, piper gorria baino gorriago, *jakintsuen* jarduna entzuteko zain, piloan daude.

Auzo herrietako gizonik ia inor ez da: gure sendakinez gainera, lau edo bost ermutar, beste hainbat plazentziar, hamabi edo hamalau Elgoibarko. Beste urietakorik... Moxolo eta Martin dakustaz mahai-buruan!

Lehenbiziko berriketaria, bizar biko gizon igar tentea, ez dakit nongoa dan. Bihurri handiak eginaz, begiak zuri jarriaz, hortz hori zikinak bakan erakutsiaz, eskubiko besoa jaso eta luzatuaz, azkazal lodi okerrak beltz agertuaz, zerbait harrapatzera doan basakatua dirudi. Gaztelarrez itzultzen du, garrasika, *El Rasero*, *El Motín*, eta *Rojo y Verde* deritzaien paperetan ikasitako *jakitura*...

Bego Eibarren bizar biko gizontxoaren irakastea: guk ez degu luzunkerien berririk eman behar. Gutxik ulertu diote, baina txalo handiak jo zaizkio, batez ere ipuinik gordinenak esan dituanean.

Patxikok bakarrik atera du arpegia egia eta garbitasunaren alde. Isilik ezin egonda, non dagoan ahaztuta, hiru edo lau bider jaurtigi du ahora zetorkion iraina deadarrez, eta aldamenekoak entzuteko eran ez dakit zenbat aldiz: “Gezurti! Kakalardo! Labezamorro...! Ez det isildu nahi! Arraio tximua! Nongoa ote da bera? Eta lohikeria horiek txalotu! Baina gu zertan gaude...? Uutik! Bere herrira doala...! Lepo hezurra hausi gabe...!”.

Ez dakit nola berari hausi ez dioten. Ermua, Plazentzia eta Elgoibarkoak zeuzkan hurrean eta horri eskerrak.

“Bejondaigula! —esaten du bigarren hiztuna⁶⁹² jaikitzean—. Hau dek hobea, hau! *Sobresaliente en la facultad de Arrantzandi!*

⁶⁹⁰ Suinkiro: ahaleginean, su eta gar.

⁶⁹¹ Etxekalte: etxeko diruak gastatzen dituen.

⁶⁹² *J.L.* iztunlea.

Doctor por la Universidad de Upelondo! Entzun behar zaio *sermoia*, ederra izango da eta”.

Patxikoren ingurukoak barrez ari dira, eta pelotalekuko guztiak lehen baino arreta gehiago daukate, bada bigarren berriketaria euskalduna da. Zein? Martin, Azkarragako Martin.

Hara zer dioen, Oñatiko hizkeran, eta hara, tartetean, aditzaileen ziri batzuk:

“Langiliak: Euskal Herrixan jaixo naiz, baina euskaldun izatiak ez nau batere harrotzen”. (Patxikok: Geuk ere hi hemen jaio haizalako, zer harrotu handirik ez zeukagu).

“Euskaldun izatia baino lurbiratarra izatia gurago dot”. (Plazentziar batek, Patxikoren ondoan dendatuta: *Edonongoa eta inongoa* ez, ijitoak bezala). “Euskal Herri guztia, Eibar izan ezik, abadien mendian dago, eta nik ez dot inon mendian egon gura”. (Norbaitek: ¡*Viva la libertad!*) “Gizonak ez dau lokaririk behar”. (Ermutar batek: Gerrikorik ez baneuka ba, nire prakak laster litzatekez orpoetan). “Danok gara bardinak”. (Elgoibartarrak: handi-txikirik ez da beraz, herren eta elbarririk ez. Baderitzok, Artola? Sinesten al dek, Julian?). “Gizona lotzeko eskubiderik inork ez dauka”. (Moxolok, bere artean: eta behar luke). “Goialdeak hutsik dagoz”. (Ermutarrak: izarren batzuk gauetan ikusten dira, baina, horrek dinoanean... jakintsua ei da eta). “Gure gainean ez dago inor, ez erregerik, ez Jaungoikorik...”. (Patxikok: ondo ginake, astoen gainean inor ez balego!) “geuk egin bihar ditugu geure legiak, gura dogun *modura*”. (Moxolok: neuk egiten badizkiat, laster urkatuko diat hire amona). “Inork ez dauka inor hiltzeko eskubiderik”; (Moxolok: Horra orain, horra). “Lurrean ez da batere gudarik bihar; guda-gizonak alpergizonak dira”. (Eibartarrak: ederto jagok, baina orduan gure *armak* nun salduko jituagu?). “Ugazabak eta lantegien jabiak gure odolez loditu dira”. (Plazentziarrak: eta zuk ere hori nahi, loditu, odolez edo odolkitz). “Zortzi orduko lana gura genduke”. (Moxolok: askotxo dek, baina, tira, nahi duanak egin dezala); “orain artean baino aloger hobeza bihar dogu”. (Denak: hori, hori! Betor dirua! ¡*Venga dinero!*). “Diru-etxeak lapur-etxeak dira”. (Moxolok: horrenbestearaino ez,

horratik). “Asko gara, guztiok alkartu gaitezen eta zor deuskuena eskatu daigun”. (Ardosaltzaile batek: neuk ere, zure ondoko batzuei, edandakoen ordaina eskatu behar diet). “Agintarixakana goazen eta esan deixogun geu gerala gehixen, geu gerala indartsuen”. (Ermutarrak: hori dok! Ukabila nagusi). “Ezergaitik ez bildurdu; gogor egin behar da; gogor handiki, agintari, legegile eta abadien aurrian. Geure indarrez, geure kemenez, gauza guztiak goikoaz behera jarri behar ditugu: legeak hausi, agintarixak azpiratu, aberatsak ebaki, praileak larrutu, elizak erre... (Plazentziarrak: Bai, mutil; hator Plazentzira). “Horrela ekarriko degu aginpidea pobreen eskuetara, horrela izango degu dirua ugari”. (Lehengoak: horrela izango degu... adarra jotzia). “Adiskidiak, lagunak: danok batera deadar egin daigun: gora herri langilia! behera legeak! behera ugazabak! behera gizon alperrak! behera soineko beltzak! behera argizai jaliak! *¡Biba la república! ¡Abajo inkisición!*” (Gehienak: Gora! Behera! *¡Abajo!* Txaloak, oihuak, marruak, *Trágala, Marsellesa* eta *Internazionala...*).

Moxolo, Martinen gaitasunez harriturik dago: ez zuan uste hainbeste zanik. Eibartarrak, Azkarragakoari begira, zintzo-zintzoro diote: “Gizon handia dok hori! Asko jakik horrek! Horrek bai daukala *ilustrazinoia!*”.

Patxiko berriz honela mintzatzen da: “Ederki! Ederki jasotzen ditu atzeko hankak! Arrane-arrania! Ez dakite Oñatin nolako seme-txoak daukaten...!”.

Oñatiar guztiak elizan daude. Uri baketsu hartara Eibarko *mitinaren* oihartzunik ez da heldu.

Goienetxeko aldapan gora, zirrin-zarran, gizon gazte bi doaz. Batak arpegia zapiz estaldua darama eta oina non ipintzen duan ez daki; besteak, besotik eutsiaz, zapidunari ezkertera edo eskubira eragiten dio, koskarik jo ez dezan, hutsuneetan erori ez dadin.

Beren arteko hizketa entzun dezagun:

—Noiz hartu ditu Elizakoak?

—Zortziretan.

—Gaizki al da?

—Oso gaizki: ez omen du gaua ekarriko⁶⁹³.

—Garaiz helduko ahal gera.

—Nahi nuke.

—Non goaz?

—Ia Goienetxen.

—Hamaika bider egin det azkar hemendik etxerakoa, baina...

Eguraldia, bidaztien kopeta bezala, itzal agiri da. Goibel zerua, hodeiak geldi, txoriak isil, haizearen izpirik ez, soroetan inor ez, erre-kastoak ur gabe... izadiaren indarrak bukatu dirala esan leike.

Bada horratik zerbaiten hotsa. *Txuri* txakurra bere baserriko atarian uluaka dabil.

Txakurraren uluak auzotegi guztia izutzen du.

Arratsaldeko hiru t'erdia dira, baina Joanesen gelatxoan argia jarri dute, hiltzorikoen argia.

Ohe zurian luze-luze, burko bigunean burua hondatuta, arnasarik hartu ezinda, izerdi larriz bustirik, azkenetan dago Joanes, Zabaletako nagusi zaharra, Urbiako artzain ospetsua, Aloña mendiko jaun eta erregea.

Lehenago, Urbian bizi izaten zanean, lotara baino lehen, ardiak non eta nola gelditzen ziran begiratu ohi zuan bezala, orain, betiko lotara doanean, etxalde maitea nola gelditzen dan begiratzen du. Ai! Bere ondoan dauzka batzuk, baina beste batzuk lurbirako zelai zabaletan sakabanatu zaizkio. Denak ikusten ditu irudimenez. Juan Andres oso urruti, arrotzen artaldean, euskalduntasuna galdurik, Zabaletakoen itxura gabe, seme ziztrin ergelaren guraso... Martin, askozaz urrutiago: iloba honi anima aldatu zaio, eta animak, aldatzean, txit urrutira joan ohi dira, gorputzak lehengo tokian egon arren. Bai, argitik ilunera, Jaunagandik Etsaiagana, usoak bele eta arkumeak otso egiteraino. O zer samina norberak maite duan umea otso bihurturik ikusi beharra, sorterri, adiskide eta gurasoen zema-tzaile! Jaungoikoak ikutuko ahal zion Martini bihotzean, Malentxo-

⁶⁹³ Ez du gaua ekarriko: gauerako hilko da.

ren bitartez... Malentxo! Hura ere aldendu zan, baina Jesusen artaldera, zeruetako atarira, animak eskatzen duan zorionaren eske. “Malentxo nere maitea! —dio— egin otoitz Zabaletakoen alde, nigatik egin otoitz, orain, nere heriotzako ordu honetan. Zure otoitzak itxaropen handia dakarkit animara”.

Saminetan ere baketsu dago Joanes zintzoa. Bake eta itxaropena musuko argitasunean igartzen zaizkio. Bere patxadeak, bere begi gozoen leinargitasunak⁶⁹⁴, bere ile eta bizar zuri luzeak, Lege Zaharreko Gurasoen itxura ematen diote.

Ohearen inguruan daude, negarrez urtzen Ana Josepa eta Paula, Inazio Mari eta Jose Ramon, Mikaela eta Katalin. Gogoz emango lukete bizitzaren zati bat, aitonarena luzatzeagatik.

Aitonak hil behar du; bere ondasuna, Urribarriko etxejauntzarik handiena, laster utzi behar du; baina Zabaletan etxe-nagusi jartzeko lehiarik inola ez da. O, gaurko aberatsak, oraingo nagusiak, ez dira inon horrela bukatzen!

Aloñako erregeari, hainbeste baserritarrak opatu duan errege-zigorra⁶⁹⁵ berez erortzen zaio, baina Zabaletan ez luke inork errege-zigor hura eskubian hartu nahi. O, errege eta gizon agintariak ez dira behin ere horrela hiltzen!

Mitinzaleak kendu ezker, denak maitatzen dute Joanes ona: uritarrak, menditarrak, auzokoak, etxeoak, Arantzazuko Amak, Aizkorriko Jesusek.

Eskuetan dauka Jesusen irudia, Malentxok biraldu zion gurutzea, eta papar gainean Ama Mariaren kutun⁶⁹⁶ bustia, arnasestuak ematen dizkion neurrietan goruntz eta beheruntz, itsas irakineko utzai azalkorra⁶⁹⁷ edo zerualderako atoi-ontzia⁶⁹⁸ bezala.

⁶⁹⁴ Leinargitasun: odol garbitasun, noblezia.

⁶⁹⁵ Errege-zigor: errege-makil.

⁶⁹⁶ Kutun: “escapulario”.

⁶⁹⁷ Utzai azalkor: agirian geratutako zerak.

⁶⁹⁸ Atoi-ontzi: ontzi erremolkatzaile.

Inork ez du mutik eta zirkinik egiten; gaixoaren bularreko zurrua⁶⁹⁹ baizik ez da etxean ezer entzuten.

Baina Joanesen oroimena bizi eta atsedean gabea dabil. Zerutik lurrera, betikotasunetik egunetara, Galiziatik Euskal Herrira, Malentxogandik Josegana doakio.

—Ba al dator —galdetzen du—, mutila ba al dator?

—Bai, aurki. Honezkero, hurrean behar luke... Badantzugu⁷⁰⁰, hemen da.

Umezurtz errukarria, astiro-astiro, lerden-lerden, oinkadea badaezpadan jaurtigiaz, ate aldamera eskuz idoroaz, Manuelen besotik aurkeztu da.

—Jose!

—Aitona!

Gelako guztiak berriren berri negarrez hasten dira, eta Joseri nahigabeak jaten dio hitza.

—Hator, zain nengoan.

Bata, ohearen ertzean belauniko, eta bestea mutilaren burua eta arpegia ikutzen, Isaak eta Jakob dirudite; baina hemen Isaak baino itsuagoa da Jakob, Joanes baino itsuagoa Jose.

—Ez nauk ikusten?

—Ez, jauna.

Eta gaztearen malkoak esku gainean sumaturik:

—Ikusteko begirik ez eta negar egiteko bai! —dio aitonak—.

Asko nahi dik gure Jesusek, horrela zamatzen hauanean... Ez ikaratu: oinaze horiek ez dituk betiko. Gauaren ondoren eguzki garbia zegok, nekearen ondoren zoriona. Helduko zaik hiri ere, bai alegia. Bitartean, nere ordeazko izan behar dek: sukaldeko zizeiluan jarriko haiz, nere aginpideen jabe ipintzen haut, ni banintz bezala begiratu-ko diate...

Josek ez du ezer erantzuten, baina bere barruko mintzoa bada-
kit:

⁶⁹⁹ Zurru: zarata haundiko arnas.

⁷⁰⁰ Dantzugu: entzuten dugu.

“Ni hemen bizi? Ezertarako ez naizela? Inoren traban? O, ez! Zuhaitza erortzean itzalik ez da. Gaur ondo begiratua izan arren, bihar edo etzi nizaz aspertuko lirake. Etxekoak aspertu baino lehen neuk irtetea hobeto da, eta irtengo det. Aldapa gora etorriko zait, asko lotsatuko naiz, baina eskean irtengo det aterik ate Jaungoikoaren izenean. Ni baino handiagoak ibili dira”.

—To —jarraitzen du Joanesez— to, Jose, har ezak Malentxoren gurutzea, mun egiok. Hirezako dek geroxeago; orain, pitin batean, neretzat... Zeruko giltza dala uste diat...

Artzain zaharrak, gurutzea, umezurtzaren ezpainetatik bere ezpainetara darama. Jesus, Joanesen ahoan besoak zabalik dago, aspaldiko adiskidea Beragan hartzeko zain bezala, eta Joanesen animak laztan batean irteten dio; laztan bero, gozo, luzearen bitartez ematen dio Joanesez Egile Ahaltsuari anima, euskaldun animarik ederretenakoa...

Zerua goibel, hodeiak geldi, txoriak isil, haizearen izpirik ez, soroetan inor ez, errekaak ur gabe... Uribarri aldean izadiaren indarrak bukatu dirala esan leike.

Txuri artzainora saletxe barruan gordea dago, ulua eta ulua.

Eliz-kanpaiak, noizik behingo *dumm... dumm!*... lodi sendoan, Joanesen hilberria zabaltzen hasi dira, eta baita ere uritarrak, zein hil dan jakin baino lehenago. Lurra utzi duan animagatik arren zintzotetan...

Kanpaien hots iluna Bidaurretaraino azkar doa. Malentxori aitona hilko zala otu zaio, eta gauza guztien Jaunari begira, gogoz, bihotzez, inoiz baino sinestetsuago, arrebatxoakin batera, bere otoitzean honela jarraitzen du:

Desiderium cordis ejus tribuisti ei: et voluntate labiorum ejus non fraudasti eum. Bere bihotzeko lehia orain bete diozu: bere ezpainetako eskaria ez da izan alperrik... *Magna est gloria ejus in salutari tuo: gloriam et magnum decorem impones super eum.* Handia da bere atsegina Zure jauregian: zorion eta edertasun ugarietan jarriko dezu...

XX

AZKENENGO ALBISTEAK

Garoa bukatu da.

Nere irakurgaia esan nahi det, bada mendietako garo landarea bizi da oraindik eta mendiak dirauten artean iraungo du.

Ez dio axola egia eta hegal guztiak igitaiz⁷⁰¹ moztu arren. Sustraia gelditu ezker, garoa egon dan tokian berriz ere garoa dator. Ai, horrela euskalduna zan lekuan euskalduna jaioko balitz, sinestetsua-
ren lurrean sinestetsua erne, Zabaletan bezala!

Han bai garoa ezko, jori eta usaintsu! Zabaletako baserrian euskalduntasuna oso lehenean daukate, lehenean eta berean; arlo, hizkera, ohitura eta jarraipide guztietan.

Aitona hil zala bi urte badira, baina Joanesen anima bere alderdi eta ondorengoetan bizi dala deritzot.

Jose Ramonek, azal eta barru, aitaren itxura eta egokierak dauzka. Burua zuri eta mintzoa garbi, gorputza lerdan eta gogoa zuzen, behin baino ere azkarrago, zaharrago eta hobeago, Joanes bigarren-tzat hartu dezakegu. Bera da orain etxeko jauna; berak agintzen du non zer lan egin; berak igotzen du Urbiara antzinetako bidezidorretatik zehar; berak bedekatzan du mahaia, baserrian badago; berak erakusten du Jaungoikoaren bildurra oinordekoen⁷⁰² artean.

⁷⁰¹ *J.t.* iritari.

⁷⁰² Oinordeko: ondoko, ondorengo, premu.

Artalde handien jabe da, moxalاک txito ugaldu zaizkio; ukuiluan nahi adina ele gordetzen ditu, ganbaran behar adina eta gehiago ale, ate aurrean eta egileor aurrean hainbeste garo eta inaurkin.

Jose Ramonen mendeko guztiak, gure asaben bideari jarraika, Jaunaren aginduetan pozkiro dabilta. Bake osoa dago Zabaletan: bakea, ogia, osasun ederra.

Hala ere, baserri hartara doazenak ikusi dezakete andretxo igar zimur bat, garo legorra baino igar eta zimurragoa, ezpainak egundo batu ezinik, hitza eta otoitza dariola, seme eta ilobai agirika edo aspaldiko sehaska ondoan ereslari: Ana Josepa da. Bai, sarri entzuten dira Zabaletan amona biziaren zital-itxurako esakerak, batari eta besteari hoska, *Aita gure-Ave Mariak* edonondik urratuaz:... *eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus*. Mutil, abar batzuk batu itzak, alperrierian egon gabe. Non hago baina, beti lanetik igesi...? *erregutu ezazu gu pekatariokatik...* Neska, olioa ekarri ezan; lapikolari begiratu egion... *orain eta gure heriotzako orduan...* Esneak erre usaina zeukan... *Gloria Patri Pillio Espirituri Santo...* Orea egiten ez dakizue. Bai gatz gutxiko emakumeak! Maratzagoak izan gera gure egunetan... *Sicut erat in printzipio...* Anitzez sumatu ohi da, sukalde bazterrean, amabisabaren⁷⁰³ eresiketa dardarazkoaz, Katalinek lehenago antolatua bera:

*Sehaska zaharrak haur berria du
Zeruetatik jaitsia,
Aingerutxoak ekarri dute
Hezur t'haragiz jantzia.
Jaunak eman dit neretzako eta
Nerea det nik Madalen.
Maite kutuna, ez zaidazala
Jaun zerukoak berriz ken.*

Zeinen haurra du sehaskan? Manuelena. Irakurleak ez daki: Manuel Etxenausiko Isabelekin ezkondu zan, Isabelek neskato gizen

⁷⁰³ Amabisaba: birramona, birramama.

sendo bat eman zion, eta Malentxo dasaiote⁷⁰⁴ umeari Bidaurretako izebaren oroimenean. Malentxo bigarrena da Zabaletako jostailua. Pitxitxo eta maitetxo, pa neri eta ma horri, gure poxpolin eta gure krabelin, goazen apapa eta jarri apatx, gazteakandik zaharrakana, lurretik musura, sehaskatik besoetara, ahaide guztiak jan beharrean darabilte haurtxoa.

Zoritsu dira beraz gure ezagunok? Zabaletan bai; hobeto ezin.

Galiziatik datozkie⁷⁰⁵ nolabaiteko berriak. Luzaroetan ezer jakin ez eta gero, orain oraintsu izan zituztenak Ana Josepari animako ganduak kendu zioten, Jose Ramoni negar handiak eragin. “Nere anaia maitea —esaten zuan Juan Andresek—; aspaldietan ez degu zuen albisterik, baina eroso izango zeratela deritzot. Gu ez, gu ez gaude ondo. Nere egunetan lan asko egin det eta diru asko irabazi ere bai, baina nere semeak gehiago eralgi du. Ez nuan ondo hazi, bigunegia izandu naiz, eta hortik nere hondamena. Ikasten zegoalakoan, joko eta nagikerian igaro ditu egunak eta urteak, eta gaur, bizarrez oso jantzi danean, grinak ugari, diruak urri eta irabazteko gaitasunak auzoan. Sendakin izatera ez da heldu, ogibiderik ez dauka ezer, inork ez du ikusi nahi: neuk ere ez, gurasoa izan arren. Gutxitan dator nere ondora. Uri batetik bestera dabil *mitinetan*, berritsukerietan, nahaste guztietan, nagusi-morroien tarteko, gizonak eta herriak arautu behar dituala. Hau ere bada ba! Beretzat adina izan ez eta besteak baino gehiago dala uste; bere burua oker erabili eta besteak zuzendu nahi. Errukarria! Oraindik ez du bere itsumena ezagutzen, baina igarriko dio aurki. Hasi zaio janzkerea, atze eta aurre, orpo eta idun, *pobre de levita* dala adierazten.

Benetan pobre nik emango diodanagatik... Oso erori gera. Juunito eta bere taiuko alper batzuek zirikatuta, hiru edo lau aldiz, estuen nenbilen orduan, bertan behera utzi naute langile guztiak, eta nere azkenengo txanponak *deabruak* eraman dizkit. Galera gaiztoak izan

⁷⁰⁴ Dasaiote: esaten diote.

⁷⁰⁵ *J.t.* datorzkiote.

ditut, hemengo lanak zeharo gelditu dira, etxearen gainera gehiegi atera det, andrea ere gaixorik daukat eta... larri-larri nago.

Hara, lotsatzen naiz, baina... zerbaitean lagundu ahal bazeinkide⁷⁰⁶... milatxo bat *pezeta* edo...”.

Eskutitz hau irakurtzean, Zabaletako guztiak, Manuel aurrengo zala, Juanitogatik egundainokoak esan zituzten: “Horra prestutasunak! Horra jakituriak! Banekian nik, ezagun zuan harek, txotxolo handia, txitxare likitsa, pizti harroa, Junkeirotar burugabea, hor *konpon* dadila, ukalondoa jan dezala, adiskideak eman deioela⁷⁰⁷...”, baina, azkenean, denak kupitsu, osabari laguntzekotan gelditu ziran.

—Bai, Azkarragakoakin bat eginda, lagundu egin beharko.

Azkarragakoakin...? Izan ere, zer egin zuten Azkarragakoak? O! Azkarraga baserriak, bi urte hauetan, izugarrizko aldaketea izan du. Ikustea baino ez dago bide eta soro bazterretan txukuntasuna, etxeak daukan arpegi garbia, atari aurreko loreontziak, sukalde barruko urdai-lukainkak, geletan jarri dituzten ohe bigunak, leihoetan dauden oihal-sareak⁷⁰⁸, gizategirako erosi diran jarleku berriak, ispiluak, doneak eta pitxiak. Oroitzen da irakurlea nola erakutsi nion Pedro Migelen gizantza, hori, pekatsu, pipi zuloz, hautsez eta amaraunez betea? Orain beste gauza bat ematen du. Egoki eta apaina, lehengo-tik eskuz trebero berriztatua, urre lerroz inguraturik daukate, beste gauza polit batzuen erdian. Ez nuan asko uste garai batean! Igarle txarra ni. Nola ordea erosokeria horiek? Nondik horrelako ahaltasunak⁷⁰⁹? Itxaron gabeko lekutik. Joanes hobiratu zan egunean bertan jakin zuten Pedro Migelen hilberria. Aberats hil zala eta bere ondasun guztiak Oñatiko ahaideentzat utzi zituala! Gizonaren zoria! Berriz ere jaiki horratik, berriz ere burua jaso. Zertarako baina? Onik onenean dana uzteko, hainbeste izerdiren saria inori eskaintzeko,

⁷⁰⁶ Zeinkide: zeniezadakete.

⁷⁰⁷ *J.L.* daiotela.

⁷⁰⁸ Oihal-sare: kortina.

⁷⁰⁹ Ahaltasun: ahalmen.

ahaideak ondo izan zitezen. Norberak lana eta besteak jana, norberak nekea eta besteak epea, norbera zamari eta ondorengoak zaldun... eskerrik asko esaten ez dakitenak agian. Horrela ohi da.

Martini behintzat eskerrik ematea ez zitzaion bururatu. Zeini? Lurpean zegoanak ez zuan eskerrik behar, eta etxeoai zer die⁷¹⁰ zor? Zegokiona kendu zien, azkar gero kendu ere. Donostia alderuntz iges egin zuan, eta hor hemen dakuste⁷¹¹ nasaikerietan kirastua⁷¹², haragiaren era eta nahi guztiak aseaz, osasuna eta dirua banatuaz, animarik ez balu bezala, bihotz gaiztoko, aho txarreko, zero eta lurreko aginduen etsai. Baina ez omen da orain lehengo adiskideen adiskide. Dirua ez zioten ba eskatu! Alperrai dirua! Erantzuera zorrotza bai, erderaz: *el Nunsio que os dé, lo mío para mí es y...*

Mikaela eta Paula eskerdunak. Haiek apaindu zuten etxea, haiek osabaren gizantza egokitu, haiek, animaren alde Mezak aterarazi, otoitzak egin, elizkizunak eragin, opariak eskaini...

Paula ezkongai al dago? Bai zera! Diruduna ezkongai? Ez gaurko egunean, senarrik nahi badu. Euliak ez dira eta gizonak txanponetara. Aberats ikusi orduko, mutil gazterik bikainenak abiatu ziran Paulari jarraika, txurikeria labainak isuriaz, maitasun zindozen itxurak erakutsiaz, eta baita ere Paula, gezur legunai jaramon gabe, hasi zan... Joserren bihotza ahaleginean irabazten.

—Etorri zaizu txandea —esan zion amak.

—Etorri zait. Behin edo behin!

—Oñatiko gizaseme guztiak zeureak dira.

—Eta ni batena izan, batena bakarrik.

—Begia zeini bota diozu?

—Jose behar det.

—Iturraldekoa? Orain!!

⁷¹⁰ *J.t.* diete.

⁷¹¹ Dakuste: ikusten dute.

⁷¹² Kirastu: usain txarra dariola.

—Inoiz baino gehiago. Lehen, besterik ezean nahi niola esan zitekean; gaur, askoren artetik aukeratzen det, errege guztien artetik aukeratuko nuke. Zertarako ditut ondasunak Joserentzat ez bada?

—Itsua dezu baina!

—Anima du argia.

—Itsusia dago!

—Barrutik da eder.

—Paulatxo! Jaunaren izenean, begiratu itzakezu⁷¹³ hainbesteren alderdiak.

—Ezagutzen ditut, zalduntxoen berri badakit. Onenaren andre nagusi baino nahiago det Joserekin eskale.

—Kasketa!

—Bihozduna.

—Ezertarako ez dan gizakumea...

—Ez beza nere bihotzean ikutu, minbera daukat, maitetasunez minberatua.

—Hainbeste diru daukagunean...

—Diruak edozeinentzat, Jose neretzat...

—Eta berak nahi ez badu?

—Baita! Norbaiten beharrean dago, eta neuk zainduko det: etxean edo txirotegian, neu izango naiz Joseren ama, edo arreba, edo nes-kamea...

—Jas! Aita *Santiagok* adina eman deigula⁷¹⁴...

Horrelako maitetasunak irabazi eta beratuko ez duan gizonik ez da. Iturraldeko mutila, gailendua, liluratua, eskerrez beterik, Azkarragako neskatxa on, zuzen, gartsu eta kementsuagana osoro ahuspeztu zan.

Paulak Joseren emaztea izatea iritsi du, Joserentzat bizi da, eta Jose, bihotz-bihotzez, Paularentzat. Danean batera datoz, alkarren gurariak asmatzen dabilta; ezkondu ezkeror arantza batek ez die iku-

⁷¹³ *J.L.* eizketzu.

⁷¹⁴ *J.L.* daigula.

tu, abaraskarik gozoena, ezirik eztieta miatzatzen daude. Senar-emazte berdinariorik, gizon-emakume apalariorik!

Aberastuak egon arren, nekazariak dira, txito nekazari eta base-ritarrak. Ezin daitezke uri barruan ondo bizi. Behean behekoak, handikerietan, harrotasunean, inoren ondamuz, jantzi pitxiz, gorontz estuz, oinetako medarrez esiturik, zaldun-andre itxurak ezin eginda. Barregarriak! Beste bizikera bat daukate uri gainean: benetako askatasuna, egiazko nagusitza, haize eta argi hobea, eta batez ere garo eta mendi-lore usaina.

A! Eta azaleko errea izango zuan nunbait, bada Iturraldekoari begietako argia etorri zaio, zorna eta zauri guztiak zeharo joan zaizkio, batere gaixo aztarnarik ez du ezagun, eta gure umezurtza gizasemerik trebe, lirain eta bikainenetakoa dago. Paulak esan dezala. Paulak dioenez bere senarra bezalako gizon ederrik ez da inor. Bere Jose! Zeinek berdindu? Ez da semeak ere, ederra zan baina, zein ederra!

Semerik al dute? Zoragarria, zuri, guri eta ernai, Mikaelaren ustez Zabaletako haurra baino zuriagoa, guriagoa, ernaiagoa. Oinez badaki, "aitaita" esaten ikasi du, aitonari erotu eragin behar dio.

Hau dabil makal, Inazio Mari dabil ajeatua. Oinazetik ez, baina ito-behar estuak ohi ditu. Zangoak handi, burua nagi, mingaina totel, arpegia erorita, kokozpeko larrua idi zaharraren antzera lasai, hura itxura dauka gizagaixoak! Ezertako ez da gauza, ia ez da aulkitik jaikitzen, ez du etxetik inora irteten. Nola? Zertara? Non etxean beste babes? Non aukera gehiago? Sendakinaren esana jarraituaz, esnea gehienbat, baina bere gogoari derizkiona⁷¹⁵ ematen diote: oilo saldea, opil gozo biguna, txurrut bizigarria, eskatzen duana, bihotzez, maitero, dena maitero eta limurki.

Txurruterako lagun gabe gutxitan, izan ohi da. Goseak edo egarriak anitzez darama uritik goruntz Odolki adiskidea, oleska, kaixoka.

⁷¹⁵ *J.t.* deizkiona.

—Kaixo lagun zaharra! Zer berri?
 —Hementxe, geroago eta mekoago.
 —Sendoa hintzan⁷¹⁶ ba hi.
 —Hondakinetan natxegok.
 —Hondakinetan, e? Hire hondakinak ez dituk hain txarrak.
 Karai! Orain ere *jereza* eta... *Komentzi* guztien jabe haiz.
 —Hobe nitek hire osasuna.
 —Osasuna? Ez zeukat ba nik ere nahi adinakoa. Aspaldietan behera nihoak⁷¹⁷. Ixio.
 —Ez dek ondo jaten eta...
 —Emaidak ba, ondo jateko.
 Eta inoren baimenik eskatu gabe, lagun zaharrak eskaini baino ere lehen, opilari heldu eta jerezari ekin, gezurrak esan eta legunke-riak irazi⁷¹⁸..., eskupekoa lortu artean. Behin lortu ezkeru...
 —Agur, Ixio; baniaik.
 —Moxolonera.
 —Ea bada, gaur goizean Ondarroako legatza *etorri* dek eta...
 Moxolok hamar arroako buzkantza dirudi. Hain dago baldar, borobil, lindinga eta koipetsu. Zabaletako atsoa urkatzeko eta Bidaurretako eliza erretzeko beta onaren zain doazkio urteak. Ez dago ahaztuta. Berretarrak agintzean, bai, arraioak ez baituk...!

⁷¹⁶ *J.L.* itzan.

⁷¹⁷ *J.L.* natxiak.

⁷¹⁸ Irazi: zerbaiten barrura sartu.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro Otxolua: *Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterra maitia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro Otxolua: *Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaillea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta Utarsus: *Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea Legoaldi: *Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea Oskillaso: *Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, Gotzaina: *Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etkezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Gandiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

38. José Basterretxea Oskillaso: *Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura. Ume-denporako oihartzunak*
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria
43. Errose Bustintza Mañariko: *Ipuinik ipuin Mañarian gora*
Sarrera: Jabier Kalzakorta
Edizioa: Nagore Etxebarria
44. Juan Bizente Gallastegi: *Tontorretik begira*
Abade baten oroipenak
Sarrera: Adolfo Arejita
45. Pablo Zamarripa: *Firi-firi. Ipuin eta nahaste*
Sarrera: Adolfo Arejita
Edizioa: Nagore Etxebarria, Maribi Egia
46. Esteban Urkiaga *Lauaxeta: Ludi honen bestaldez. Olerkiak*
Sarrera eta edizioa: Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa; Adolfo Arejita Oñarte-etxebarria; Xabier Boveda Garai; Alberto Errazti Igartua; Sebastian Gartzia Trujillo
47. Domingo Agirre: *Garoa*
Sarrera: Sebastian Gartzia Trujillo
Edizioa: Miren Atutxa, Adolfo Arejita

